

# Atzoko Zegama

Xabier  
Azurmendi  
Agirre



3

*colección*  
**Lankidetzan**  
*bilduma*

## Atzoko Zegama

Agurra .....	9
Irakurleari. Luix Mari Zaldua Etxabe .....	11
Xabier Azurmendi. Oroitzapenak. Joxe Mari Otamendi .....	13
Atzoko Zegama .....	23
<hr/>	
Aurkezpena. Presentación. Presentation .....	25
I. Zelten garaiko ipuinak .....	27
II. Erromatar garaiko ipuinak .....	35
III. San Adrian, ipuin ederren lurraldea .....	47
IV. <i>Kaja urrearen</i> ipuinak .....	61
V. Musasorozarra Zegaman .....	63
VI. Ipuin filosofikoak .....	65
VII. Zegamako ipuin barregarriak .....	75
VIII. Santuen ipuinak .....	85
IX. Abereek hitz egiten zuteneko ipuinak .....	91
X. Ipuin harrigarriak .....	95
XI. Aizkorriko gurutzea, Iruetxetako Ama eta Aketegiko Mari .....	110
XII. Mundu sakratua eta laikoa .....	130
XIII. Ikazkintza .....	145
XIV. Euskal Herriko animalia sakratuak .....	155
XV. Haizea, sorginen dantza .....	165
XVI. Karobiak .....	172
XVII. Artzain-txakurra .....	175
XVIII. Urbiera simaurretara .....	177
XIX. Ilargiarekin ametsetan .....	179
XX. Ezkio .....	182
XXI. Salbatierrako feriak .....	183
XXII. Zegamako zenbait gauza jakingarri .....	185
XXIII. Antzina ahaztu ziren gauzak .....	194
XXIV. Uraren eta suaren erritoko solstizioetan .....	237
XXV. Zegamako <i>Osiñen</i> , nere aitak eta amak umetatik erakutsitako orazioak eta gure etxean erakusten saiatu naizenak .....	242
XXVI. Santa Kruz apaiza Zegaman .....	253
XXVII. Don Alfontso .....	255
XXVIII. Santa Agedaren koplak .....	259
XXIX. San Pedroko ermita .....	260
XXX. Zegamako umeen kantu eta esaldiak .....	261
XXXI. Joan Telleria .....	264
XXXII. Zegamako zenbait esaera, esaldi eta atsotitz .....	271

Zegama herria geografikoki txikia bada ere, bere kultura, esanahi zabalenean, izugarri handia da eta Xabier Azurmendik guzti hau, liburu aberats honetan isladatzea lortu du.

Gaur egungo bizitza urbano, razionalista eta denboragabe honek aurrez-aurre jotzen du *Atzoko Zegamarekin*. Liburuan, Zegama ardatz harturik Goierriko bailaratik Aralargo San Migelarteraino bizimodu tradizionalen muina ipuin modura jaso du, hala nola, ikazkinen txondorrek, Aizkorriko Santa Kruz ermita egin behar zeneko ituna, Urbiako ermitako lehen meza, gure jentil, lamina, Aizkorpeko haize bereizkarria e.a.-en inguruko kondaira guztiak, ezertxo ere ahaztu gabe. Gizaldiz-gizaldi, ahoz-ahoz pasatzen joan diren istoriak galduko ez diren moduan jarri ditu eta guzti hau gutxi balitz ere, kondaira hauek kontatu zizkieten zegamarren euskeran.

Xabier, liburu honekin lortu duzuna ikusirik Euskaldunon izenean eta bereziki Zegamarron izenean hauxe esan nahiko nizuke: mila esker bihotz-bihotzez.

Asun Mendizabal Elizegi  
Zegamako Alkatea

## IRAKURLEARI

Esku artean daukazu liburua Xabier Azurmendi zenak, 1996ko otsailaren 29an, Eusko Ikaskuntzako bulegoan utzitako lanaren moldaketa batez eta Joxe Mari Otamendik haren bizitzari buruz prestaturiko idatziaz osatuta dago. Beraz, hurrengo orrietan doana ez dago Zegamako ikertzaileak eman zuen bere hartan, hots, ez da *Atzoko Zegama* lanaren jatorrizko bertsioa.

Hernanin hainbat urtez berarekin bizi izandako lagunaren hitzaurreaz hornituta egoteaz aparte, aipatu bezala, Xabierrek idatzitako lana, hobe beharrez, zenbait gauzatan aldatu egin dugu. Hala ere, Zegamako ahozko tradizioaz hark eginiko lanaren mamia ez da inolaz ere aldatu, egindako aldaketak, beti ere, letra iturrien estiloari, testuaren antolaketari eta toponimiaren normalizazioari bakarrik baitagozkie. Helburua bakarra izan da: irakurleari gauzak erraztea.

Beste inoren lana ukitzea ez da betere atsegina izaten, batez ere, hark, egindakoaz bere iritzia emateko aukerarik ez badu. Ez da harrizkoa, beraz, egindakoa zilegi ote denaren ala ez denaren zalantzak oraindik ere guregan hor, bizirik, irautea. Baina, bestetik, lagun izatekotan, hartaz baliatzeaz gain, harengatik bustitzeko ere prest egon behar da eta horixe da, neurri batean behinik behin, egin duguna. Horrela bada, aldaketen erantzule aitortzen gara, onerako eta txarrerako noski. Zentzu horretan, egindakoari buruz zalantzaren bat duen edonorrentzat edota gutaz gehiegi fidatzen ez den ororentzat beti ere hor dago Eusko Ikaskuntzan gordetzen den jatorrizko idazlana.

Aurreratu bezala, kasu batzuetan, originalean agertzen den toponimia normalizatu egin dugu, horretarako Zegamako Udalak argitaratu duen mapa toponimikoa erabiliz, non, bide-nabar, Xabierrek ere parterik baduena aipa dezagun.

Azaleko ñabardura hauen gaintetik eta haren bizitzaren berri ematen duen hitzaurre jakingarriaren ondoren, hara hemen, azkenik, Xabierrek bere bi herri kutunentzat, Zegama eta Euskal Herriarentzat, neke handiz eta maitasun osoz egindako lan oparoa, zoragarria ere esango genuke, oso gutxi, gutxiegi, baitira horrelako ahozko tradizioaren bilketa batez harro senti daitezkeen herriak.

Bukatzeko, Joxe Jabier Furundarena, Resu Jimenez, Jon Lizaso, Mila Martín, Eva Nieto, eta Jose Angel Ormazabali (Zegamako, Aranzelaiondo baserriko Axentxioren semea) bere laguntza eskertzea besterik ez.

Luix Mari Zaldúa Etxabe  
Editorea

## XABIER AZURMENDI

### Oroitzapenak

#### 1. Giza tankera

Gure artean askotan gertatzen zena:

Goizeko bederatzi eta erdiak inguru da. Aste buru-zuri bateko edozein egun dugu. Astelehen, astearte, asteazken... egun gehienetan ohi bezala.

Atea zabalik dago; eta hor datorrit barrura gure gizona: gizon mardula, urteetan heldua: ibileran eta jazkeran baldar samarra: aurpegi zurbil, kolore gabea, hiru-lau eguneko bizarrez erdi estalia: ile mototsa nahasi eta orraztu gabea, buru-kaxkoko soil-unea ezin ezkutatuz: paparreko bizar beltza agerian: bata gisako jantzi luzea, goitik beherainokoa soinean: oinetako zahar arin-arinak: galtzerdiak jazten denborarik alferrik galdu gabe...

Tankera horretan azaldu ohi zitzaidan, maiz asko, gure Xabier Hernaniko nire lan-gelan, hamaika urte luzetan.

Etxe berean bizi izan gara biok: goiko bizitzan, Xabier, bera bakarrik: behekoan ni, ni ere bakarrik. A zer nolako bi mutil zahar prestu!

#### 2. Gure berriketak

Bioi atsegin izan ohi zitzaigun gure arteko berriketaldi luze-zabala. Egunak, irratsaioak, eskuartearen gendukan egunkariak... zekarzkguten albisteak izaten genituen mintza-gai.

Hasteko, begiratu bat bota ohi zion Xabierrek egun hartako egunkariari: gain-gaineko begiratu, motza, arina.

Aspalditik zuen Xabierrek irakurtzeko eta irakurria josteko halako zailtasun bat, bere hitzetan erdaraz "dislexia" deritzana, eta hitz egitekoan ere antzeman zitzaiona.

Argia zuen burua: hitza, ordea, motela eta makala. Zenbait bezain mingain arin eta opa-roa gertatu izan balitzaio, beste kukurruku bat egingo zukeen Xabierrek bere bizitzan zehar.

Ez zen horrela gertatu. Beharbada, hobe berarentzat eta Euskal Herriarentzat. Ezagun izan ditugu gure artean, "krisostomoak", urrezko mingainak zituztenak, baina Euskal Herrian kabitzeko, herrialde hau txikiegia iruditzen zitzaienak.

Zorionez, Xabier ez genuen izan, besteen gainetik kukurrukuka aritzea gustatzen zitzaion oilarra.

### **3. Lehendabiziko ezaupidea**

Donostian, Erroman, Valentzian eta Gasteizen Xabierrek eginiko ikasketa-garai hartan, ez eta bere lehen olerki liburu argitaratu zuenean ere, gure adiskidea ezagutzeko aukerarik ez nuen izan. Erbestean, Ameriketako lurralde zabaletan nenbilen urte haietan: hogeita bat urtetan zehar.

Gogoan dut, ordea, oso gogoan, ezagutu nuen eguna. Etorria nintzen Hernanira eta alboko herrian, Astigarragan, apaiz ezagun bat, D. Felix Agirre, monjen kapeilaua, zegamarrara, hil zen. Hiletara apaiz-kopuru handia bildu ginen. Eta meza bukaeran, bi bertso bota zizkion iloba apaizak hildako osabari. Bertsoak, fin-finak: bertsolariak ordea, trakets antza eman zidan.

Orduan ezagutu nuen Zegamako apaiz bertsolaria. Olerki liburu bat ere aterea zuela, esan zidaten. Ez nekien besterik.

### **4. Etxean hartua**

Handik urte batzuetara, goiz batez, Donostiako Elizbarrutiko Bikario Nagusia, D. Jose Antonio Pagola, agertu zitzaidan etxean. Uste gabeko bisita.

Bere apaiz lagun baten alde fabore bat eskatzera zetorrela, esan zidan. Apaiz lagun horrek, arazo txikiren bat -edan kontuzko arazotxoren bat edo- zuela, eta lagun on baten beharrean aurkitzen zela: eta nire etxean hartu nahi ote nuen,aldi motx baterako, bederen, lagun hori aspertu zitekeelakoan.

Lagun horren izen-abizenak eman zizkidanean, berehala ihardetsi nion: gizon horrek osaba apaiza eta izeba propioa zeuzkak hor aldamenean, Astigarragan, eta bidezkoena, haiengana biltzea, iruditzen zaidak. "Han ez hukek konponduko, eta hemen beharbada, bai", erantzun zidan Pagola jaunak.

Orduan baietza eman nion; baietz trinkoa.

### **5. Geroztik**

Geroztik ez naiz damutu. Adiskide handi bat izango zena hartu nuen etxean. Hobeto esan: etxea eman nion. Etxebizitza baten jabe izan zen: behar zituen giltza guztiak bere esku guztiz aparte: ezertan elkarrekin topo egin beharrik gabe. Bi buru, beren buruen guztizko jabe. Ez bata bestearen zaintzaile edo begirale.

Hasieratik konturatu nintzen, ni zaintzaile bezala inoiz ikusi banindu, ez ginela sekula adiskide izango.

Hala ere eta, hain zuzen, horrexegatik elkarri begiratu eta lagundu egin diogu: ez, ordea, ezarritako lege hotz baten indarrez, kristau bihotzaren eraginez baizik.

### **6. "Izatearen malura"**

Horrela du izen 1971an, Xabierrek argitaratu zuen olerki liburuak. Eta gezurra badirudi ere, elkarrekin horrenbeste urtetan bizi izan, hainbeste elkarriketa eta solasaldi izan, eta sekula ez zidan apatu liburu hori. Ez, noski, horretaz lotsaturik zegoelako.

Hamaika aldiz, ordea, aipatu zidan Kixote Mantxakoa: ia egunero irakurtzen zuen liburu horren zatiren bat.

Gizonaren izaera egokien eta garbien azaltzen duen liburua, Xabierren aburuz, Mantxako Kixote dugu. Hor ikusten dugu, garbi-garbi ikusi ere, gizakiaren egiazko izaera: izatearen malura, ipar euskaldunek esaten dutenez; hegoaldekook, izatearen matxura (oke-rra) esango genukeena.

Gizon oro, nola-hala, Kixote ala Santxo Pantza da. Askotan eta aldizka, bata eta bestea da. Kixote ameslari zoroa, ala eta edo Santxo zuhurra eta fidagaitza. Bata amets zoroetan bizi dena: bestea, amets handirik egiteko gauza ez: bihotz hotz, lurrari lotua.

Bata ala bestea, muga-mugatuak: nahi eta ezinean bizi direnak: zoritxar baten baten menpean jaiok: izatearen malura=matxura jasaten dutenak; pekatu orijinalaren izenez eza-gutua, sortzetikako okerra, alegia.

Xabierrek pekatu orijinalik ez zuen sinesten: ikusi egiten zuen; ikusi eta bere baitan sumatu eta nozitu. Eta beste inorengan, guztiengan nabarmen agertzen zitzaion jatorrizko malura. Horregatik, ez zioten inongo harridurarik sortarazten gizon-emakumeengan nabaritzen zituen makurkeriek.

Hori bai: bildurra ematen zioten. Beldurtia zen, bere buruagandik hasita. Izan ere, zenbat aldiz xuxen-xuxen ibili nahi, eta hala ere balantzaka ibili behar...

## **7. Xabierren Kixotada bi**

Amets zoroetatik ihesi, oinak lurrean tinko eta burua erne, horrela izaten zen Xabierren iharduera. Kixoteren jokabideek irrifarra sortarazten zioten. Ez zuen haren antzeko izan nahi. Eta egiaz, Xabierren bizitzan ez du erraz inork Dultzinea emakume liluragarriaren parekorik topatuko.

Bazuen, hala ere, Xabierrek bere bihotzatxoa, eta noizik behinka buruaren gainetik jarzen zitzaion, bere odolekoen eta Euskal Herriaren maitasunak eraginik.

Goiz batez, inoiz ez bezalako pozetan blai, agertu zitzaidan. Zulo batzuek zituen tramankulu txiki bat zekarren eskuetan. "Hona inbento haundia. Honekin dirutzak ekarriko dizkiagu Euskal Herrira", bota zidan bat-batera. Begi-zabal gelditu nintzen, ezin sinetsirik.

Honelako zerbait adierazi zidan: bere lehengusuek, edo ilobek, alegia, beren eginkizunetan lantegian ari zirela, gasolina erabili; onek, ustegabeen, su hartu, eta sutan zegoen erregai horrek, ez dakit nolako metal baten barrutik pasatzean, galdu egin zuen kea botatzeko eta kutsadura sortzeko zoritxarreko ahalmena.

Asmatzen ibili gabe, txiripaz topatutako aurkikuntza miragarria eta guztiz probetxugarria.

Guztiok dakigu, gaurko munduan dugun arazorik larrienetako bat, erregaiek sortzen diguten kutsadura dugula, pozoiz betetako kutsadura. Hona hemen, bat-batean, horrenbeste gaitzaren konponbidea. Tramankulu hori ibilgailuetan eta abarretan jarri, eta kitto: dena konponduta.

Euskal Herria ere nahiko konponduta: tramankulu hori patentatu, mundu osoan saldu, eta gure herriari ekarriko zizkion dirutzak...

Jainkoak daki zenbat urrats eman zituen gure Xabierrek, tramankulu hura ezaguterazi eta patentatzeko ahaleginetan. Industri-bulegotara, Jaurilaritzara... nora ez zuen jo gure gizonak, gogo onenez, Kixote bihurturik.

Neroni ere, zenbaitetan laguntzaile izan nintzaion. Banuen, eta badut oraindik adiskide on bat, garai hartan Madrilen diputatu sozialista zena, eta Xabierri lagundu ziezaiokeena. Elkartu ginen hirurok, bazkaldu genuen...: Xabier eta nire laguna gehiagotan elkartu eta mahaikide izan ziren...

Zilegi zuen gure Xabierrek, guretako edonork bezala, amets egitea, Kixoteren legez ametsak gero bertan behera joango badira ere.

Beste amets bat ere bertan behera joan zitzaion adiskide onari: zorionez behera joan ere, nire ustez.

Hernanik alboan du Astigarraga, herri benetan polita eta aberatsa. Sagardo onik edan nahi baduzue, jo Asitgarragara.

Bada Astigarragan jaun bat, markesa, elizaren, lurralde zabalen eta etxe askoren jabe dena. Eta Astigarragan bizi zen -ez da urte asko hil zela- D. Jose Agirre apaiza.

D. Jose gizon zintzoa genuen, zorrotza, erlezale porrokatua. Arrebarekin bizi zen, eta bere etxean eztiz betetako ontzitxoak liburuak baino gehiago ikusten ziren.

Han hemenka, inguruetako baserrietan erleuntzak barreiatuta zeuzkan. Eztiaren salmentak diru mordo handia ematen omen zion urtero, esaten zutenez. Pisu eta bajera batzuen jabe zen bertan.

D. Josek eta biok adiskidetasun handia genuen, eta zerbait haserretu bazitzaidan ere, Xabier osabarengana joan orde, nik etxean hartu nuelako, adierazi nion gertatutakoa, eta lehen bezain adiskide jarraitu genuen.

Adiskidetzat horren harian, halako egun batez, bere bizitzako gora-beherak kontatu zizkidan, eta azken batean bai aitortu ere isilpeko moduan, alegia,- zenbat diru zeukan aurrezki kutxan. Diru-mordo polita: erleak ez ziren antzuak izan. Testamentua ere egina zeukala esan zidan: txanponak mixioetarako, eta etxe-lokalak arrebarentzako.

Eta Xabierri ez ziola ezer utziko, illoba honek liburutan eta biajetan, zarran-zarran, dena gastatzen omen zuen eta.

Osabak esana nire golkoan hobiratuta gelditu zen. Eta Xabier pikutan.

Garai hartan, sarritan eramane ohi nuen Xabier ibilgailuan Astigarragara, izeba-osabak bisitatzerat. Halako egun batean, iritsi ginen Astigarragara, D. Joseren etxaurrera, eta ibilgailutik jaistean hitzetik hortzera hau bota zidan Xabierrek: "Joxe Mari: hemendik urte gutxi barru, Astigarraga erdia markesarena eta nirea izango duk".

Ez nuen jakin farrari ala negarrari eman.

Xabier, Kixote handia. Agian eta sakonean, izatearen malura-matxura.

Kixoterenak bazituen, Santxorenak ere bai.

## **8. Xabier eta Santxo Pantza.**

Zorokeria eta ameskeriarik gabe, gauzak hotz-hotzean ikusiz, arinkeriarri eta bihozkada xamurregiei ihes eginez, horrela jokatzan du errealismo burutsu baten bideetan ibili nahi duen gizonak. Eta alde horreatik askotxo zuen Xabierrek. Sarritan bazirudien hotzikaraz begiratzen ziola gizon-emakumearen irudiari.



Ez zen baikorra gizakiari botatzen zion begirada; ez liluragarria: hotza, iluntsua, baizik. Giza izaera egiaz matxuratua, zauritua, harrak joa ikusten zuen.

Nire ustez, hemen garbi azaltzen du Xabierrek bere buruarekin zenbateraino zen zintzo eta egizale. Pentsabide horretan, bestalde, Xabier ez zebilen bakarrik: San Agustín, Martin Luther, Tomas Hobbes e.a. aurretik izan zituen.

Hari horri eutsiz, ez zuen amets gozorik egiten ondotik datorkigun belaunaldi berriari buruz. Arazo honetan, Jorje Oteizaren eragina suma daitekeela uste dut. Xabier eta Oteiza oso lagunak ziren, geroxeago ikusiko dugunez. Eta Oteitzak, Deban, artista gazteen eskolan zuzendari eta irakasle izan ondoren, gazteentzat hitz gogorrak ditu: axolakabeak, berekoiak, hezigaitzak... direla, e.a.

Jakina denez, Hernanira etorri aurretik, gure zegamarra ikastoletan ibilia genuen, gazte-txoak eskolatu eta hezitzeko asmotan. Ibili bazen ibili, behin baino gehiagotan entzun izan nion bere ahotik "nahiago zuela basoan, gosari, bazkari eta apartu urdai azpikoz gozatutako baba beltza janez ikazkin bizi, ikastoletara hezitzaile itzuli baino".

Bere ustetan, hezitzaile guztiak ere ez dira denak hain egokiak izan: agian, zorrotzegiak edo. Lehengo eta geroko apaizgaiok izan genuen hezitzaile bat, "santu" sona zuena, eta azken aldi honetan Donostian jubilatua bizi zena. Xabierrek Donostiako kalean santu hori ikusi ondoren, etxeratzen zenean, hala esan ohi zidan: "D. Ramon kalean ikusi diat, eta beste aldera joan nauk, berarekin topo ez egitearren".

Izan ere, santu antzeko izan eta aldareetara jaso izatea ez zitzaion batere atsegin Xabierri. Jakina denez, Erromako gure gaurko Aitasantuak oso gogoko du, kristau asko eta asko santu izendatu eta aldareetara eramatea.

Gai hau gure berrikeretan aipatzen genuenean, irrifarrez, bizpahiru aldiz, esan zidan gure Xabierrek: "Aitasantua baino lehenago hilko banintz, beldur nauk gizajo horrek santu egingo ote nindukeen".

Zegamako elizan, Xabierrek hain maite zuen Zumalakarregiren ondoan ere ez zuen bere irudirik ikusi nahi. Apaltasunak eraginda? Agian eta areago, Santxo Pantzaren zentzu ona gogoan izanik. Beharbada, Nazaretoko Jesusen esaldi hau ez zuen ahazturik izango: "Onik ez da inor Jainkoa besterik".

## 9. Xabierren Dultzinea

Haragizko emakumea izan ez arren, Xabierrek bazuen maiteño bat, maite-maitea. Xabierren golkoa ireki, bihotza topatu, begiratu eta bihotzaren erdi-erdian izen bikoitza maiteki grabatua aurkituko genuke: Euskal Herria-Zegama.

Ez zioen gezurrik D. Jose osaba apaizak, liburuetan eta joan-etorrietan Xabierrek hamai-ka txanpon gastatzen zuela esatean. Hamaika eta hamabi, eta ez txanponak bakarrik: orduak, egunak, urteak... ere bai. Zertan gastatu? Euskal Herriaren eta euskararen alde batik bat.

"Izatearen malura", "Maiten" eta "Jesus" olerki liburuen ondoren, eta Hernaniko garaira etorritz, Santa Kruz apaizaren bizitza plazaratu zuen.

Inor gutxi miresten; inor gutxi txalo beroz aupatzen zuen Xabierrek. Inor gutxi horietan, Santa Kruz apaiza eta bere mutilak. Eta beste hiru izen aipatzekotan: Aitzol, Orixe eta aita

Antonio Zabala, "Auspoaren" zuzendaria eta arnasa. Migel Zerbantes, noski, beste maila berezian kokatua zeukan.

## 10. Santa Kruz apaiza

Xabierren lan-gelan sartzean, mahaia, aulkiak, bazter guztiak liburuz josita, paperak zabaldurik goian eta behean, nahaste berdingabea... Ez zenuten ikusiko santuen edo gizon sonatuen irudi eta argazki haundirik. Hori bai, horma batetik zintzilik errosario santua, eta apal baten gainean, irudi txiki eta astun bat: Ama birjina, Seme hila, oinetan duela: "pieta" izeneko irudia, alegia.

Arantzazun, elizaren aurrealdean, goi-goian ikusten den eta Jorje Oteitzak eginiko irudiaren kopia txikia. Eta Xabierrek zedukan iruditxo horrek Oteitza beraren sinadura zeraman atzealdean. Bitxi eder bat, beraz: Oteitzaren oparia zen.

Izan ere, Jorje Oteitza eta Xabier elkarren lagun min ziren. Gure zegamarra sarritan joan ohi zen Altzuzara, Jorjeren etxera, elkarrekin bazkaldu eta solasaldi luzeak egitera. Solas horiek harrigarriak, kontaezinak, piperminez gazituak izaten omen ziren: horrela esaten zidan gure adiskideak. Xabierren iritziz, marka guztiak hausten dituen gizona da Oteitza, distiratsua, "jenioa": eroaldiak ere hutsik egiten ez dioena.

Xabierren gelara berriro bilduz, jarrai dezagun: han zeukan Kolonbian mixiolari, bizar zuri-luze, urte handitan sartua, Santa Kruz apaizaren irudia. Irudia bera ikus daiteke liburuan, 8. orrialdean, eta ondoan, Xabierren hitz hauek: "Gizon harrigarria, bere azken urteetako argazkia. Berriz sortuko ote du Euskadik horrelako gizon bikainik?"

Xabierrek ez zuen Santa Kruz apaiza aipatzen bakarka: "Santa Kruz eta bere mutilak" esan ohi zuen beti.

Ez dakit garbi, zergatik mintzatzen zen horrela. Beharbada, mutil horien artean, zegamarrak bazirelako: hain zuzen, Agirre eta Azurmendi, Xabierren etxaldekoak. Edo, agian, -eta honetan asmatu egiten dudalakoan nago- mutil horiek oinez egiten zituzten izugarritzko ibilera harrigarriengatik. Gerratean, gauetz, mendiz-mendi, inor konturatu gabe, Gipuzkoa, alderik alde, arakatzeko gauza ziren. Gauza hau askotan aipatzen zidan Xabierrek: eta horrek badu zerikusia gure adiskidearen jokaerarekin.

Gorputza benetan astuna zuen, eta hankak ez arinak. Eta, hala ere, harritu egiten ninduen egiten zituen ibilera luzeekin. Hernanitik Donostira, 7 kilometro, alde-alde. Gure adiskidea sarri joaten zen gure hiri nagusira: gehienetan, joan-etorria, oinez.

Goizgiro ederra agertzen zenean, ibilaldi bat egitera zihoala esan ohi zidan askotan. Orduetan eta orduetan ibili, izerdi-patsetan etxera itzuli, bustialdi luze bat hartu... Eta orduan, hura gure gizonaren atsegina!

Halako egun batez, goizaldean, perira zihoala esan zidan. Ilunabarrean, etxeratzean: "Tolosako perian izan nauk". Oinez, noski, Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Irura, Tolosa...: joan eta etorri: ziu-ziuur nik ez dakit zenbat kilometro. Santa Kruzen mutilen ibilerak ezezik beste norbaitenak ere ez ziren makalak.

Hemen esandakoa entzunik, ez zaizue egingo ulergaitz Xabierrek "San Adrian eta inguruaren kondaira" liburuan, 19. orrian, botatzen duen esaldi hau: "Zein ederra den izerdia galitzeak gorputzari dakarkion atsegina!" Ez zen buruz mintzo. Askotan sumatu zuen bere baitan.

Xabierrek Santa Kruz apaizari zion jaiera kontuan izanik, ez zaizkizue arrotzak irudituko esandako idazlan horretan, 21. orrian, idazten dituen hitz hauek: “Santa Kruz apaiza... bi armaden aurka jardun zian, artzain makila arrunt batekin: gure egunetako eta gure lurreko Kixote. Euskal Herriak sekula ulertuko ez duen gizona zuan”.

“Kixote, Euskal Herriak sekula ulertu ez duen gizona”... Kixote horrengan, ulertua ez den gizon horrengan, ez ote zuen bere burua ikusten Zegamako “Axeinenea” errotan jaiotako gure adiskideak?

## 11. Euskal Herriko Kixote bi: Aitzol eta Orixe

Xabier eta biok, behin baino gehiagotan, joan izan gara, Santu Guztien egunez, Hernaniko hilerrira, Aitzolen hilobira, aitagure bat errezatuz, gizon handia oroitzera eta gure omenalditxoa eskaintzera.

Orain behintzat kristauen lurrean hobiratua zegoen. Hasiera batean, itsasuntzian harra-patu eta, Hernani inguruan -“cuesta de la muerte” deitzen diote oraindik- bizia tiroz kendu ziotenean, elizgizon agurgarri eta euskaltzale porrokatu hari, kanposantutik kanpo, sasi tartetan, aitaguretxoa adiskideari eskaintzera. Frankoren garaiko zorigaiztoak ziren.

Aitzol izengoitiz, berez, Jose Ariztimuno Olaso tolosarra ezagutzeko eta elkarrizketatzeko egokiera eman didate nire bizitzako urte luzeek. Gazteagoa izanik, Xabierrek ez zuen izan horrelako egokierarik.

Egokiera sortu genuen, bai sortu ere, Aitzol gure Herriari ezagutzen emateko, eta bere lan bikainak euskaldunen artean zabaltzeko. Taldetxo bat bildu ginen, Xabier eragile eta aitzindari genuela, gure Aitzol handi eta euskaltzale sutsuaren idazlan guztiak bildu eta plazaratzeko asmotan.

Ez zen eginkizun erraza. Egia, Aitzol, euskal kulturari, eragile bizkorra, batez ere, izan zen; baino baita idazle oparoa ere. Bere idazlanak egunkari, astekari eta aldizkari askotan banatuak zeuden. Guztiak jaso behar ziren, bilduma osoa egin eta, liburuetan baturik, lan guztiak plazaratzeko.

Xabierrek eta biok hamaika txango egin genuen Lazkaora, Beneditarren liburu eta artxi-bategi handira, bilatu eta gero fotokopiz jasotzera. Beneditarrek gorderik zeuzkaten gerra aurreko “Euzkadi” egunkariaren ale guztiak. Egunkari horretan maiz idatzi ohi zuen Aitzolek.

Alez ale eta orriz orri, arretaz begiratu behar izaten genion, non aurkituko Aitzolek izen-petutako idazkiren bat. Eta aukitutakoan, fotokopiak egin. Eginkizun horretan Lazkaoko alka-tea eta udaletxeko idazkaria laguntzaile jatorrak izan genituen.

Gasteiz, Bilbo, Zornotza eta abarretara joan-etorri anitz egitea tokatu zitzaion Xabierri, Aitzolen lan barreiatuak biltzeko asmoz.

Milaka fotokopia bildu eta liburuetan jasotzeko ahaleginak amaitu ondoren, idazlan horiek plazaratzeko behar ziren milioiak sortzeko bideak ere Xabierrek egin zituen Eusko Jaurlaritzan, Mari Karmen Garmendiaren eskutik.

1988an, sei liburu ederretan, EREIN argitaletxeak argitaratu zituen Aitzolen biografia eta idazlan guztiak. Eta horretarako Xabierrek, joan-etorrietan, gauak eta egunak etxetik urruti egin beharretan, bere sakeletik zenbat txanpon gastatu behar izan zituen Jainkoak beste inork ez daki. Hori guztia merezi zuen Aitzolek.

Merezi du baita Aitzol izena jasotzea. Ariztimuno Olaso-ren lehen hizkiak bilduaz, Aitzol izengoitia osatu zuen gure tolosar ahaztezinak. Ez da bidezko ahaztea.

Horregatik, barka iezaidazue nire atrebentzia: zuen etxean, haurtxo berria jaiotzean, beharbada euskal izen polit baten bila ibiliko zarete. Hona izen ederra: AITZOL. Beterrian ezagutzen ditut horrelako izenekoak. Goiherrian ere zabalduko balira, Aitzoli zor diogun egi-teko bat beteko genuke.

## **Orixe**

Orain arte eginiko oroitzapenak nik uste baino luzexegoak atera zaizkit, eta aspergari izango natzaizuen beldur naiz. Hala ere, Xabierrez eta Orixez hitz bi esan gabe ezin gelditu. Benetan Xabierrek maite eta miresten zuen Orixe. Behin baino gehiagotan entzun nion: euskal idazlerik onena, Orixe: eta euskaraz idatzitako libururik bikainena: "Quito-n arrebarekin", Orixerena, noski.

Aitzolen alde eginikoak baino lan eta ahalegin handiagoak egin zituela Xabierrek Orixeren idazlan guztiak bildu eta plazaratzeko, hori zalantzarik gabeko egia da.

Halako zaletasuna zion Orixeri, otoitz-gai bezela ere Orixeren olerkia eta hitz laua erabiltzen zituen sarritan. Elizan eseri: luze iraun, Orixeren liburu potoloa eskuetan. Horrela ikusi ohi nuen gure zegamarra.

## **12. Xabier, gizon jantzia**

Soinez, trakets antzekoa: hizketan, jario urrikoa... Norbaitek pentsa dezake arlote bat genukeela begien aurrean: kanpotik eta barrendik arlote. Azaleko itxurak, ordea, egia azaldu baino estali gehiago egin dezake. Nazareteko Maisuak honetaz zerbait bazekien, eta esan ere, esan zigun.

Axerineña-ko intxaurrendaren aleak, azala latza eta lakarra; barruko mamia, ordea, gustagarria. Hori da intxaurren izaera.

Jakintzaz eta kulturaz gizon jantzi-jantzia genuen Xabier. Egia esan, burua ezagupenez hornitzeko, inor gutxi bezalako egokierak izan zituen.

Argia zen: azkarra izatez. Eta gero ikasketa luze-etengabeak egiteko beste eginkizunek eragozpenik ez zioten jarri. Euskal Herrian eta Euskal Herritik landa (Erroman, Valentzian), ikasi eta ikasi, beste eginkizunik ez zuen izan.

Elizgizon izanik ere, ez zegoen -azken urteotan behintzat- apaiaz eginbeharretara lotua. Horregatik, Selen Gotzainari eskerrak ematen dizkio idazlan baten sarreran.

Xabierren liburutegia ikustekoa zen, liburuen kopuruz eta gaien aniztasunez.

Asko ikasia, eta asko ikusia. Ezagunak zituen Europako herrialde gehienak. Afrika, Israel-Palestina (bi bider), Ipar Ertain eta Hego Amerikak korrituak zituen. Ez korritu soilik: begi argiz begiratu eta arretaz aztertu lurralde eta biztanleak ere. Afrikako beltzak, Palestinako arabeak, Ameriketako hispanoak hizpide genituen askotan, eta bakoitza bere mailan jartzen saiatzen zen.

Beste gizon bat Axerineña-ko gure gizona bezain jantzia eta hornitua topatzen, nahiko lan izango du Zegamako herriak.

### 13. Goitik beheraino, zegamarra

Axerinine-ko intxaurrondoak zabaldu zituen bere adarrak alde batera eta bestera: Ubera, Aia, Erreterria, Donostia, Hernani... aldera. Zainak, ordea ez zituen lekuz aldatu: zainak beti eta tinko Zegaman iraun zuten.

Urteetan ezagutu genuen elkar Hernanin, baina Xabier ez zen izan inoiz hernaniar. Bertakoa ez izanik ere, Hernaniko erroldan sartua, Hernanin ematen dut botoa. Xabier ez zen han erroldatu, ez botorik eman ere: zintzo-zintzo Zegamara etortzen zen.

Hernanin badira zegamar batzuk: Xabier berehala egin zitzairen lagun. Meza bat eskatzen zutenean ere, ematea berari gustatzen zitzaion.

Meza hitza aipatu dudanez gero, esan dezadan, Xabierri ez niola sekula izen hori horrela entzun; beti Zegamako tankeran baizik: mezea.

Hernani inguruko elizgizon taldetxo batek astero egiten dugun solasaldi eta otordura biltzeko, askotan gogo handirik ez zuen azaltzen Xabierrek. Gure berriketak exkaxak, kultura sakonez jantzi gabeko gizonen berriketak iruditzen zitzaizkion. Halako batean, ordea, zegamar apaiz bat, Joxe Mari Ormazabal Goenaga, gure ingurura izendatu zuten, eta gure otordutara etortzen hasi zen.

Orain bai, gogoz zihoan Xabier: mahaian elkarren ondoan jartzen ziren, beste inorekin hizketan ibili gabe. Biok, eten gabeko txutxu-mutxuan, Zegamako kontu xahar eta berriak ahotan, bi-hiru ordu, han jardun ohi ziren gozo-gozo. Ez dakit goi mailako kultur arazoak ote zituzten mintza-gai: bihotzean zeramaten Zegama ezpainetara igotzen zitzaieela, nik uste.

*Atzoko Zegama* ezagun eta maite zuen Xabierrek: gaurko Zegamak, bide zuzenetik, aurrera egin dezala: hori eskatuko digu Xabierrek goiko Aitaren altzotik.

Bukatzeko, zer modu hoberik, Xabierrek berak idatzitako hitzak entzutea baino. "San Adrian eta inguruaren kondaira" liburuaren sarreran, 21. orrialdean daude. San Adrian gainean balego bezala, eta hain maite zuen mendi horrekin elkarriketan ari den tankeran, aurrez aurre honela hitz egiten dio gure Xabierrek:

- "San Adrian ederra: zer duk handia, ederra, betikoa?"

- Jaungoikoa duk bakarrik handia. Dirudi dioela San Adrianek.

Nire baitan bildu naiz inguruko isiltasunean murgildurik eta bihotzaren taupadek San Adriango sabaiari darion tantaren hotsa ziruditen. Biotzaren ondoan neukan, isil-isilik-Jaungoikoa, Big Bang baino lehenago bazena, beste hogeita mila miloi urte barru ere izanen dena.

Gizonaren arrangurarik ederrena Jaungoikoa da beti.

Ondo pentsatuz gero, begi nekatuak dira bakarrik izadiaren edertasuna eta Jaungoikoaren xarma ulertuko ez dituzten begi bakarrak".

Joxe Mari Otamendi

Zegamako herri-jakintza da, zentzurik zabalenean, liburu honen mamia. Mitoak, ipuinak, galtzera doazen hainbat lantegi eta ohitura, sineskeriak, esaerak, era guztietako materialak biltzen dira lan honetan. Egilearen hitzetan, *herri baten kultura osatzen duten mila gauza*, oinarria, beti ere, adinako zegamatarren ahotik jasotako eta bertako hizkeran traskribaturiko etnotestuak izanik.

Lana hiru atal nagusitan banatzen da. Lehengoan, gizaldietan zehar, ahoz-ahoz transmititu den zegamatarren munduaren ikuspegi edo kosmogonia adierazten da. Bigarrean, Zegamako iraganeko bizimoduaren berri ematen da, azkenik, hirugarren atalean, hainbat esaera eta atsotitz bilduz.

El saber popular de Zegama, tomada la expresión en su sentido más amplio, constituye la materia de este libro. Mitos, cuentos, tantos y tantos trabajos y costumbres que están a punto de perderse, creencias, dichos... este libro reúne todo tipo de materiales, *las mil cosas que conforman la cultura de un pueblo*, en palabras del autor. La base de todo ello se encuentra en los etnotextos recogidos de boca de zegamataras de edad avanzada transcritos en el habla local.

El trabajo se divide en tres partes principales. En la primera se da a conocer la visión o cosmogonía del mundo transmitida oralmente por los zegamataras de generación en generación. En la segunda se informa sobre el modo de vida en la Zegama del pasado y, finalmente, la tercera parte recoge la colección de máximas y refranes.

Le savoir populaire de Zegama, pris dans son sens le plus large, constitue la matière de ce livre. Des mythes, des contes, tant et tant de travaux et de coutumes qui sont sur le point de se perdre, des croyances, des dictons... ce livre réuni toute sorte de matériels, *les mille choses qui font la culture d'un peuple*, selon les propres paroles de l'auteur. La base de tout cela se trouve dans les ethnotextes recueillis de la bouche des habitants d'âge avancé de Zegama, et transcrits dans le parler local.

Le travail se divise en trois parties principales. Dans la première partie, on expose la vision ou cosmogonie du monde transmise oralement par les habitants de Zegama de génération en génération. Dans la seconde partie, on donne des renseignements sur le mode de vie dans le Zegama d'autrefois et, finalement, la troisième partie recueille la collection des maximes et des proverbes.

## I. ZELTEN GARAIKO IPUINAK

Euskaldunek Zeltentzat Gorrotoa. Ipuinek ala diote.

Isekarik gorrienak sarri asko egin ohi dizkio gizon txikiak Jentilari. Ikusi bestela Zegamako Saaderren, aizkolariek enberrari ziria atera eta pitzatuaren erdian eskuak nola harrapatzen dizkioten Jentilari.

Burlarik krudelena, ordea, Arastortzko jentilari gizon txikiak egin zioenak dirudi.

Zegamako esaera batek dioenez, ostadarrak hanka biak bi erreken gainean ezartzen omen ditu.

Gizonak ere, une gutxi barru argia galduko duen ostadarrak bezala, bi erreketan dauzka hankak, haurtzaroan eta zahartzaroan.

Bizitza motzean bere zitalkeriek neurririk ez dute. Zein aberek, hizketan baleki, gizona-  
ren kexarik ez eman?

Ahozko literaturak, sortu duen ipuinik ederrenetako bat dugu hau, literatura zabal eta orokorrean. Gizonari buruzko filosofia, oso beltza eta ezkorra sumatzen dugu ipuin honetan, gure barneaz bat eginik dihoan soineko astun eta eranskor bat gara.

Abere guztietan, gizona dugu animaliarik gaixoena, Kosmos guztiko enigmarik ederrena ere bera da, ordea, betikotasunarekin ametsetan edo lur ildoan lotarako prest, batzuetan askatasunak elbarriturik beste batzuetan askatasunarekin ametsetan edo aske gerala ere ukatuz; nolana ere, erruki guztiak merezi ditu lumarik gabeko hankabiko honek.

Jarraian doan ipuina erdaraz doa. Juan de Arin, Ataungo apaiz jator eta apalak jaso da eta Laborde jaunak argitaratua<sup>1</sup>.

“En Arastortz vivía un forzudo gentil, que vencía a sus compañeros. Como quería también medir sus fuerzas con el hombre, caminando monte abajo se encontró con un muchacho a quien preguntó si era hombre. Al contestarle éste que no, siguió su camino hacia Mekolasagasti, donde encontró a un anciano y, al hacerle la misma pregunta, le contestó que éste había sido ya. Entonces le dijo el gentil que, como deseaba medir sus fuerzas con el hombre, quería encontrarlo, a lo que el anciano le contestó que más adelante, en una ferrería negra, encontraría hombres. Una vez llegado a la puerta de la ferrería, le salió un ferrón y al preguntarle el gentil si era hombre y contestarle éste que sí, el gentil le hizo saber que deseaba medir sus fuerzas con él. Seguidamente le dijo el ferrón si le dejaría agarrar la nariz con los dedos, y tomando unas

---

1. LABORDE, Manuel: “Ferrones” in Zenbait, *Euskaldunak*, II. alea, Donostia 1979, Etor, 303 or.

grandes tenazas que estaban al rojo en el fuego de la fragua le quemó y arrancó la nariz. El gentil, gritando, volvió al monte Aralar diciendo a sus compañeros que sí, el hombre, en vez de agarrarle la nariz con sus dos dedos lo hubiese hecho con los diez, le hubiera quemado y destrozado la cara”.

Herriak sarri Jentila tonto itxurakoa aurkezten digu bere ipuinetan. Ikusi dugun ipuin honetan, adibidez:

Jentilzulo<sup>2</sup>

Jentilbatza<sup>3</sup>

Urtzulaitako txoria (Zegamako kontuak)

Tartaloren idi parea (Zegamako kontuak)

Arabatik zetorren Jentila (Zegamako kontuak)

Sâdako Jentila (Zegamako kontuak)

Jentilenganako mespretxu hauek, badirudite Euskal Herria euren mende bizi izan zene-ko gorroto atzeratuaren urratsak direla.

Herriaren oroimen historikoak mendetan iraun lezake aldaketa handirik gabe. Morrontza inoiz barkatu ezineko gaitza denez, bi mila urte geroago, horra aitonak ilobei edo bilobei Zelten mendeko morrontza nola kontatu izan dien. Mito hauek kondairaren zentzua duena-rentzat, mitoak baino gehiago kondaira dira.

Euskaldun menperatuek Zeltei eginikako, gaur esango genuke, prentsa txarra dira nere-tzat ipuin hauek.

Jarraian, Zegamako Urretanean jaio eta orain Legazpin bizi den nere adiskide Ramona Azurmendiri, 1993-6-18an jaso nizkion hitzak.

1. *Jentillai fedea diet nik. Len jende aundie zan, txikik biurtzen ai gâ. Gue attek, ia bi metroko luzerea zeuken. Soldaduzkan trajeik ez arendako mûkoik eta neurria ein bear izan tzien. Begik urdiñ-urdiñe'zeuzken, illea beltza baño betillek gorrik. Illea zuitu zikonon, rubio esaten tzien jendeik geianak, betillek gorrik tzeuzkelako.*

*Gue natualezea jentilletati' `atorre. Ama txikie gendûn da guk ezteu jentil kastako itxu-raik.*

*Dolmenak eta lênaoko sepulturak gizon aundik eiñe' tie.*

*Gue Txapitxiko amona Bautistak, metro ta laroeiko alturea zon. Joxe Bautista Azurmendi, Txapitxiko attonak, metro ta laroei ta bosteko neurrie izango zon. Ak gizon aundi' tzien”.*

Emakume honek Jentilek begi urdinak eta ile horia zeuzkatela esatean, ez ote zaigu zel-tak nolakoak ziren esaten ari.

Subkoszienteko oroitza historiko baten trazak dituzte hitz hauek.

---

2. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras completas*, II. alea, Bilbao 1973, La Gran Enciclopedia Vasca, 26 or.

3. *Op. cit.*, 24 or.



Zegaman, esaera da Arakamaneok eta Altamirakoak jentil kastakoak direla.

Jentilak aipatzea ez da nahikoa gure mitologian, Mairuak ere, askotan azaltzen zaizkigu. Mairulanda, Eskoriatzan, Mairutegi Araian, nik lekuizen hauen berri daukat bakarrik. Moreok inoiz zapaldu ez zuten lurraldeko lekuizenak dira. Mairuak, Jentilak edo Erroldan ez al dira pertsonaia berai denboraren denboraz aldatu zaizkien izenak izango? Oraindik bi urte ez direla Burgosko Katedral ederrari begira nengoela hara zer esan zidan gizon zahar batek.

“Hermosa Katedral e? Es obra de los moros.”

Burgosko Katedralari lehenengo harria Fernando III. jarri zion eta gainera moroei kendu eta Sevilla hartu zuen.

Buruntza mendiko Zelten Kastroa ondo aztertu eta gero, edonori burura datozkio, San Martin Txikiren lan zail eta neketsuak.

Kastroko jende handi eta indartsu hari zipoa sartzea, ez zen inolaz ahuntzaren gauerdiko ez tula izango.

Galiziako ipuinetan ere zerbait antzekoa azaltzen zaigu<sup>4</sup>.

“Dicen los más ancianos del lugar que un día, hace muchísimos años, vieron los aldeanos de estos pueblos cómo hacían aquí una capilla unos hombres altos y fuertes. Llamábanles *gentiles*, pero quizá quisieran decir gigantes...Decíase que aquellos hombres tenían una fuerza condenada. Tiraban un martillo desde aquí y llegaba hasta la capilla de aquel otro monte que está enfrente de nosotros.”

Galiziako ipuinak gureekin baditu mila lotura.

2. *Anttimuño Zeamako baserri'at 'a. Bertako bi anai mendin gora eizeako asmon irte'mentzien.*

*Mendin tzeiltzela, iñusturiketan asi ta bealdiko erauntsie gañen tzuela ta igeska mentzijo-tzen Sâdarko gain-zelaiti aurrea.*

*An etxaola 'at ikus mentzuen da bertan sartu.*

*Laster artalde'at etor mentzan da ardi danak zuzen zuzen barrua.*

*Aizkenen artzaie allau zan begi bakarreko gizon aundi 'at, Torto.*

*Tortok ordun atea itxi zon arri aundi 'atekiñ.*

*Anttimuñotarrak ikus tzitunen, bitan zarranai "i gaurko" esa' mentzion da beste,"i biar-ko".*

4. CARRE ALBARELLOS, Leandro: *Las Leyendas Tradicionales Gallegas*, Espasa-Calpe. 46 or.

On Joxe Miel Barandiaranek Zegaman Jasotako Ipuinak.

*Laster zârranai burruntzie sartu mentzion soñen da surtan erre ta ja' mentzon.*

*Ondoren zerraldo lurren etzan da lo jarri mentzan.*

*Olako auspoa bezela mentzellen, gora ta bêra, aren bularra arnaska aundi'aten.*

*Ordun Anttimuño gaztek burruntzie artu ta surtan berotu ta Tortoi begin sartu mentzion. Torto jaiki ta bê burruntzie begin tzola, itxututa an mentzellen Anttimuño gazten billa, baño dana alperrik. Anttimuño ango ardi ta ardinarruan arten izkutau zan.*

*Goizen Tortok atea iriki mentzon da ate aurren anka bik zâlduta jarri mentzan.*

*Ardiai eren izenez otsein ta banaka-banaka, bê anka arteti etâ erazten asi mentzan. Anttimuñok ê bizkarren ardi narru'at tzola, Torton anka arteti iges ein tzon.*

*Igartzen dio Tortok eta baijo atzeti lasterka, Anttimuñon anka otsân atzeti.*

*Alperrik ordea, Anttimuño osin batea eroi zan da igariñ irten tzan uretati.*

*Torto re eroi zan, baño etzekiñ igarin da bertan ito zan<sup>5</sup>.*

Tartaloen erregea

**3. Tartaloetxetan bizi mentzan Tartaloan erregea.**

*Alaba 'at mentzeuken da alaba orrek aixkirea ein mentzon.*

*Attek esa'mentzion ordea, bera baño iru gauzatan indartsugoa zan suie bear tzola.*

*Aren aixkirea ainbeste bazala mentzion alabak, da iru gauzak aukera zeizkela.*

*Lênbiziko lana pago 'at eskuz nork etâko, mentzan.*

*Erregek gerri-gerriti eldu pago aundi'ati ta oso-osoik etâ mentzon Izarrako pagariñ.*

*Suigaiek, ariberdarona artu ta, beakin pagari guztie ingurau mentzon.*

*—Ze eitea zoaz ôla? —galdetu mentzion erregek.*

*—Pagari guztie etâtzea.*

*—Ez ôlakoik eiñ, egur bê ta ardian abarolekuik bê geau ez gaitzen.*

*Bigarren lana, palankan zeñek geio eiñ.*

*Erregek palanke aurrutia bota mentzon.*

*Suigaie, bê palanke eskun tzola, asi mentzan oiuka:*

*—Ahí va la palanca hasta Salamanca.*

*—Ez ôlakoik eiñ —esa'mentzion erregek— nê adreri guztie Salamankan dauket eta.*

*Irugarren lana zeñek arrie urrutiago bota.*

*Erregek oso urruti arri 'at bota mentzon.*

*Suigaiek, kolkoti zozo 'at etâ ta egaka bialdu mentzon.*

*Zozoa Akama alden izkutau mentzan.*

*Ordun erregek bê alabai gizon arekiñ ezkontzeko baimena ema' mentzion.*

Zegamako Zubieta baserriko Jose Mari Aseginolazari 1957an jasoa<sup>6</sup>.

---

5. D. Joan Zabaleta Ursuarango Parroko Jaunak 1920an kontatua.

Parroko hau Zegamako Altiturriko semea zen. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, in *Obras Completas*, I alea, Bilbao, 1972, La Gran Enciclopedia Vasca, 224 or.

6. Op. cit. 225. or.

## Tartaloetxeta

Más completa que las leyendas precedentes es la que se refiere de Tártalo en Zegama.

Tártalo, monstruo de figura humana, pero de un solo ojo en medio de la frente, tenía su casa en el sitio que llaman Tartaloetxe ta del monte Sâdar.

Alimentábase de todo género de animales que cazaba, y aún de hombres que tenían la desgracia de caer en sus manos.

Cierto día se apoderó de dos jóvenes hermanos que descuidadamente se habían acercado a su guarida, y los encerró en ella. Llegada la noche, atravesó el cuerpo de uno de ellos con un gran asador, y sin compasión a sus tristes alaridos, lo asó en una hoguera que previamente había encendido, y cenó con su carne. Al otro prisionero en un dedo de la mano le puso un misterioso anillo que continuamente repetía; “Aquí estoy, aquí estoy” después se echó a dormir tranquilamente.

El joven superviviente que había estado presente a la bárbara ejecución de su hermano, y que tenía por seguro que la siguiente víctima sería él mismo, ideó un modo de salir de tan desesperada situación. Viendo que estaba dormido Tártalo, tomó el asador de éste, lo calentó al rojo en las brasas, y metiólo al monstruo por aquel anchísimo ojo que tenía en la frente.

Tártalo quedó ciego con esto; mas no muerto ni debilitado.

Trató de buscar a su agresor; pero éste se había ocultado debajo de un montón de pieles de ovejas que había en la guarida.

Entonces Tártalo abrió la puerta de su casa, posóse en medio del portal, y sin apartarse de él empezó a desalojar su habitación de las pieles de ovejas, con el intento de apoderarse del prisionero. Mas éste, que se había envuelto en aquellas pieles, confundido con ellas, fue lanzado al exterior. Al verse fuera, echó a correr, cuesta abajo, por una ladera del monte Sâdar.

Luego, conoció Tártalo su equivocación, y guiado por la voz del anillo, siguió al fugitivo.

Este se dio bien pronto cuenta de su situación y para librarse del terrible enemigo, arrancóse el dedo en el que llevaba su misterioso anillo, y lo arrojó a un pozo.

Tártalo no andaba a tuestas, sino corría derechamente hacia el punto de donde procedían las voces “aquí estoy, aquí estoy”, y así en su precipitada carrera, se lanzó al pozo, donde puso fin a su malvada vida, ahogándose<sup>7</sup>.

Zegamako Andres Arrietak 1920an kontatua.

Hiru ipuin hauek zeltatarren tradiziotik datozkigula dirudi.

---

7. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras Completas*, II alea, 28 or.

Lehen bi ipuinak ez dute, ez erromatar eta ez kristau erlijioen usainik. Panteismo kutsua darie. Jaungoikoa izadia da edo izadiaren indarrak. Druiden katekesiaren zatiak dirudite, Izadiaren indarrei parra egiteak zigor gogorrek ekartzen ditu.

Hirugarren ipuinak ere Druiden katekesiaren antza dauka batez ere elkarizketan eta pedagogian, ipuinaren mamia denboraren denboraz kristautu egin da jakina.



Ilargiaren haserrea<sup>8</sup>

*4. Bein baserritar bat ota sortea bizkarren tzola gauen oso berandu etxea zetorren.*

*Bidea illun tzion da begia zetorkion zotzik ê etzon ikusten.*

*Alako 'aten, illargie azaldu zan zerun da dana argitan jarri zan.*

*Ontan baserritarra etxea allau zan.*

*Ilargiri esa' mentzion:*

*—Jun ai oan zakurren ipurdia, eztiat ire bearrik.*

*Ilargie asarrau zan da baserritarrana jatxi ta kastiguz bêkiñ eaman tzon.*

*Ilargiñ ikusten dien beltzunak, baserritar esker gaiztoko ori ta bê otasortea mendie.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-6-7an jasoa.*

---

8. *San Joan Gau Bateko Ametsa*, komerian, Shakespearek III. ekitaldian hara zer dioen: "Ilargian, gizon bat bizi da besoak bete arantzakin eta txakur bat alboan duela".

Ipuin honek, Arioen mundukoa izaki, gure artean zeltek sartua dirudi.

Erbia ilargian<sup>9</sup>

Ilargiaren beltzuneak hara nondik sortuak diren, Indiako ipuin batek dioenez<sup>10</sup>.

“Gertaera hau aspaldikoa da, gure Jaun Gautama (BUDA) oraindik animalien erresuman bizi zen. Ordurako nahiz Budisatva izendatuta ez egon, erbi baten antzean, ezagunak zitzaizkion, izaki ona den orok jaiotzetik ezagunak dituen lege moralak.

...Eskale santu bat etorri zitzaion erbiari, izadiari liluraturik begira zegoen bitartean.

Alabatxo, esan zion eskale santuak, ezer jatekorik bai al duzu? Egunak daramazkit ezer jan gabe.

Erbia ez zeukan janik, baina baietz esan zion.

Sutegia egurrez bete, sua piztu eta garrak indartu zirenean, bere burua jaurti zuen surtara, gizon santuari bere haragiz jaten emateko. Eskale santua, bat batean izkutatu zen.

Bere lekuan Sekra Jainkoa azaldu zen eta erbia surtatik atera zuen.

Era honetako ekintza bat ez dute gizonak ahaztu behar. Hau esan eta Sekra neurririk gabe hazi zen. Inguruko mendi bati gailurra kendu eta Ilargian buztinez erbi baten irudia ezarri zuen.

Gizonak, zioen, sekula ez dezatela ahaztu erbi honen oroitza.

Harrezkero ilargiaren beltzuneak, Gautema (Buda) abereen erresuman bizi zeneko oroitza dira.”

Zozomikoteak<sup>11</sup>

5. *Martsui artzai 'atek arkumea eskintze' mentzion egoaldi ona ein tzezan.*

*Artzaie re aspertu beti ematen da urte 'aten ez mentzion ezer eskeñi, ta gañea Martsui parre ei' mentzion au esanez:*

*Martsue martsalen,  
Diat esker gaizto.  
Nê ardîk elbarrianak  
Ein tziok errekei salto.  
Martsun aizkenetan tzan au.*

*Au aitu zonen Martsue asarrau ei' mentzan da apillei esa' men tzion:*

*Apil biribil.  
Ekaiek eun ta erdi.*

9. Budisten mentalitatekoa da ipuin hau, bertan reenkarnazioa eta abar oso kontuan edukitzeak dira.

10. *Antología de los cuentos universales*. 31. or.

11. *Zozo-mikotek* edo *bikotek*, zozoek lokatzen diren aroari deitu ohi zaio. Eguraldi txarreko egunak izan ohi dira ia beti.

*Artzai oni kendu dezaioan*

*Eun ardi ta begi bakar ori.*

*Martsuk, Apillen eun da erdik bere ein tzitun da eun oritan ikaragarrizko eurik bota zitun.*

*Artzaiei urek artaldea eaman tzion.*

*Ontan uren gañen ârie ikus tzon igariñ.*

*Arie beintzet salbau bear tzola ta artzaie uretan sartu zan da ârie bizkarrea jaso zon errekatu.*

*Arik kolpe ein da adarrakin begi bakarra etâ zion.*

*Arrazkio zozo-mikotetan egoaldi txarra eite mendo.*

*Josepa Azurmendiri 1980-4-9an jasoa.*

Kukurruku

6. —Kukurruku.

—Zer diozu?

—Buruan miñ.

—Zeñek egiñ?

—Axalkoak.

—Nora joan da?

—Mendira.

—Zertâ?

—Txotxak biltzera.

—Txotxak zertako?

—Sue pizteko.

—Sue zertako?

—Ogie erretzeko.

—Ogie zertako?

—Apaizei emateko.

—Apaizek zertako?

—Mezea emateko.

—Mezea zertako?

—Zerua juteko.

—Zerue zeñendako?

—Irâzten donandako.

*Frantzisko Azurmendik umetan erakutsia.*

## II. ERROMATAR GARAIKO IPUINAK

*Torto*, *Tartalo*, *Jentille*, eta 'Gizon handia' izenak, pertsona bati berari ematen zaizkio askotan Zegaman; gizon trakets, begi bakar eta maltzur bati.

Edonork ipuin hauen iturria Odisean arki lezake.

Polifemoren ipuina dugu noski *Bi ferianoena*, Homero handiak Odisearen IX. kantuan hain egoki abestu ziguna.

Homeroren ipuinak nola iritxi ziren Zeganako mendietara?

Zalantzarik gabe Erromako armadatik.

Erromako armadan gure arbasoak partaide izan genituen.

“Ya en el Imperio hay grupos de vascos que militan, en calidad de tropas auxiliares, en el ejército romano: quedan noticias, por ejemplo, de una “Cohors I fida Vardullorum civium Romanorum equitata milliaria” que permanece acuartelada en Escocia, en el mismo peligroso limes durante casi ciento cincuenta años (siglos II y primera mitad del III)

Una piedra discoidal de s. III recuerda en dicho lugar la Cohors Vardula<sup>12</sup>.

Zenbait ipuitan, *Tartalo*, “*Torto*”, *Jentilak*, *Sanson*, *Erroldan*, *Mairuak* nahikoa izen nahasiak dira eta batzuek besteetatik bereiztea egiaz zaila gertatzen zaigu.

Hala eta guztiz, *Tartalok*, gizon handi eta begibakarrak, jentilen ondoan izate ezberdina du. *Tartalo* beti, gizon erraldoi, kirten eta gizonen irenstzaille bat bezala ageri da ipuinetan.<sup>12bis</sup>

“*Tartalo* hitzak pertsonaia bakarraren izena dirudi”.

Bere antropofagia eta begi bakarra Homeroren Polifemorenak dira zalantzarik gabe, nahiz *Barandiaran* jaunak hala ez uste.<sup>13</sup>

Funtsean, ipuinak galbahe zehatz batean garbituz gero, *Jentilak* ez ote zuen nortasun berezia, nahiz *Tartalorekin* oso lotuak agertu?

---

12. BARANDIARÁN, Ignacio: *Guipúzcoa en la edad antigua*, Donostia 1973, Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 19 or.

12 bis. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras Completas*, II. alea, 27 or.

13. Cf. *ibid.*

Irakur dezagun Adolf Schultenek dioen zerbait harrigarria:

“Los Celtas eran considerados, a causa de su talla, como descendientes de los Cíclopes y de los Titanes”.<sup>13bis</sup>

“Cíclope es el padre de Gálatos, es decir, el fundador de los Galos; y en el himno a Delos, de Kallimachos, 174, se llama a los Galos “Titanes”. En efecto, hombres de dos metros de talla, lo que incluso hoy no constituye en el Mar del Norte una rareza, para los pequeños hombres meridionales parecían ciertamente gigantes”<sup>14</sup>.

Zeltak eta Galoak herri bakar eta beraren izen desberdinak direla ez ahaztu.

Tartalo, Ziklopeen ipuin baten oroitza da Euskal Herrian. Jentillen oroitzak ez ote dira Zeltenak? Neretzat, gauzak hala dirudi.

Schultenek arrazoi osoa du, ezpairik gabe, Ziklopeen semeak Zeltak direla esatean.

Jentillen eta gizon txikien arteko gorabeherak, arrazarekin dute lotura, ez erlijioarekin, askok pentsatu izan duten bezala.

Denbora motz edo luze batean, bi arraza ezberdinen topaketak dirudite gizon txikien eta Jentillen arteko burrukak.

Ikus ditzagun zergatiak.

Edozeinek dakiena da, Jesus jaio baino zortziehun bat urte lehenago, Orreagako mendartean, ile gorri eta azal gorrixadun gizon batzuk azaldu zirela, eskuetan burdinezko ezpata zuri eta dizdiratsuak edo aizkora urdinak zituztela.

Zeltak ziren, Ebroren ibarretako gatz-hobien bila zetozen.

Beste seirehun urtetan Zelten tribu berriek zeharkatuko zuten Orreaga. Espainia guztira zabalduko ziren gizon hauek eta Gipuzkoara ere bai.

Garai haietako euskaldunen aldean kultura sakona zeukaten, burdinaren maratilak ondo-toxo zekizkiten.

Euskal herrian Zeltak sartu zirenean, dirudienez, harrizkoak ziren oraindik hemengo trenarik gehienak. Kobrezko aizkora bat edo beste bilatu dira Kobre edo Brontze Arokoak, oso gauza gutxi benetan.

Burdina lehenengo aldiz Kalibetarrak izeneko tribu batek urtu zuen, K. a. 1500. urtean; gaur, Kaukaso izenez ezaguna zaigun laterrian.

Ejipton, XVIII eta XIX. dinastietako eskabazioetan lehen aldiz arkitu dira burdinaren arrastoak, K. a. 1400. urtean.

Urte inguru horretan Fenizioek eta Hititek ere ezaguna zuten metal berria.

---

13 bis. *Etym. Magn.* 220, 6.

14. SCHULTEN, Adolf: *Tartessos*, 99 or., 2. oharra.



Mizenasko kulturaz jantzirik dagoen, VI edo VII. gizaldietan idatzitako Iliadan, burdinak eta estainuak errearen balio bera zuten nonbait. Ikusi Protokloren heriotzean Akilesek hedatutako jolasak. Kirol haietan, urrezko talentuen artean, burdinezko bola bat ipini zuen Akilesek saritzat, eta estainuz apainduriko loriga bat. (*Iliada*. XIII. 499 eta 555 eta 826)

Metal hauen orduko balioa gaur ulergaitza zaigu, noski. Dena den, aro haietan burdina eta estainua urriak izaki, errearen balioa zutela dirudi.

Estainua oso garestia zen orduan, Tartesioek (Betisen deltan bizi ziren hiritarrek) gaurko Britainan erosi eta Fenizioei saltzen zieten metal hau, eta fenizioek zeukaten estainuaren monopolioa Mediterraneo guztian.

Brontze Aroaren azkenetan, Alemaniako hegoaldean bizi ziren Zeltak. Burdin arotik hasita, Europako bazter guztietara zabaldu zen herri miresgarri hura. Europako iparraldera ere zabaldu zuten metal berria.

Bitan zatitu zuten Zeltek Burdin Aroa:

1. Hallstatt kultura, K.a. ko 1000tik-500era loretu zen. Aro honetako aurkikuntzak Gipuzkoan, Axtrokin (Bolibar-Eskoriatzan) bilatu ziren bi urrezko kaiku dauzkagu, Abarrategi apaiz argiari esker.

2. Tene kultura, K.a. ko 500dik Erromanizazioa arteraino iraun zuen.

Bi ardatz hauen inguruan sortu eta zabaldu zen Zelten burdin aroko kultura osoa zortziehun urtetan.

Gipuzkoako eta Nafarroako mendietan, Zeltak non bizi izan ziren jakin nahi duenak, hor dauzka arrastoak: Cromlechak eta toponimoak. Hildakoak, dirudienez, erre eta gero, lurrezko ontzi sagaratueta hautsak gorde eta cromlecharen erdian ehortzi ohi zituzten.



*Bi feriano*

7. *Bi feriano etor tzien bein Zeamá ta bidea galdu ein tzuen Arranaítz ingurun.*

*Sádarren argi 'at ikusi ta autza jo zuen.*

*Feriano 'at gizená ta bestea méa zien.*

*Gizon aundiñ etxea sartu zien Sádarren da au noizpait etxea allau zanen, ikararrizko arri'at jarri zon aten.*

*Andi iñok ezin tzeiken irten.*

*Gizon aundik ferianok ikus tzitunen, gizenana burruntzin sartu ta surtan erreta jan tzon.*

*Gizon aundik lo artu zonen, feriano txikik burruntzie surtan jarri zon goritu arte, gero gizon aundiri burruntzí gorítue sartu zion begi bakarren.*

*Gizon aundik ferianoa arrapau nai zon baño au ardi narru ta ardi arten gordez izkututzen tzikon.*

*Goizen gizon aundik arrie alde 'atea amorrúz baztartu ta kendu zonen, ferianoa ardi narrúz bizkarra estali ta gizon aundiñ anka arteti pasau zan, onek ardie zalakon pasatzen utzi zion.*

*Gizon aundie akordau zan ferianok nola iges ein tzion da eraztune tiau ta beatzen sartu zion.*

*Gizon aundik, "nun ao" ta eraztunek "emen niok" kontestatzen tzion.*

*Gizon aundie eraztunei seituz ferianon atzeti abiau zan.*

*Ferianok bê burue galduta ikus tzonen, eraztune zemarren beatza moztu ta Kútze Santuko aldaparoa bota zon.*

*Nun ao? galdetzen tzion gizon aundik eraztunei da eraztunek, "emen niok" eantzuten tzion aldaparoti.*

*Gizon aundik eraztunen atzeti aldaparoa salto ein tzon da bertan ito zan, ez mentzekiñ igariñ.*

*Eduardo Irastortzari 1980-3-6an jasoa.*

Jentilak

8. *Sádarren bizi zan jentille, Urkullu aldea jute mentzan ure eratea.*

*Gaztelu Berriñ anka 'at da Garagartzan bestea ipiñi, makurtu ta Urkulluko errekatxon ure erate mentzon.*

*Eduardo Irastortzari 1980-3-5ean jasoa.*

Garagartzako jentilak

9. *Garagartzako aitzetan jentillek bizitzen tzien aspaldi.*

*Aitzetan daren kueba zuloai jentil zulok esaten tzate oaindio.*

Garagartzako lautara ederren garagarra eiten tzuen da orti 'atorkio izen ori zelaiei.

Jentillek Garagartzan aspaldi izkutu mentzien.

Julio Azurmendiri 1980-4-8an jasoa.

Urzelaietako txoria<sup>15</sup>

10. Jentillek bein gizon txiki'at arrapau mentzuen Sâdarren.

Jateko gizentzen tzeuken.

Prakak eskatzea juten uzteko eskau zien jentillai ta ok igesik eiñ etzezan, ankati soka'at lotu ta bialu zuen einkarik eitea.

Gizon txikik ordea sokea ankati soltau ta atariko arbolei lotu zion. Gero al tzon azkarrana izkutu zan da aritz zulo 'aten gorde zon bê burue.

Jentillek barruti noizik bein sokei tire ein da, "emen tziok" esate mentzien alkarri.

Denborea bazijon da jentil batek galdetu zien launai, "gizon txikie nun ete diau?"

Irtzen tzuen kanpoa ta sokea an billau zuen arbolei lotuta baño gizon txikie etzan iñun agiri.

Jentillek gizon txikiñ atzeti txakurrek bota zituen da ok, au izkuta zion aritzen ingurur asi zien bueltaka ta zaunkaka.

"O tontôk", otsein tzien jentillik zârrenak txakurrai, "onuzkio Txorie Urtzulaitan tziok".

Inazio Urbizuru 1980-6-6an jasoa.

Tartaloren idi pareta

11. Tartalok idi pareta saldu mentzon Naparroa.

Naparrak zembait balio zuen galdetu zien.

Tartalok berak eaman ala gari bear tzola ta naparrak gustora geau zien, gizon batek eaman ala gari gauza aundie etzala izango pentsatuz.

Alako 'aten Tartalo or presentatzen tzate zazpi idi narrukiñ eindako zaku 'at artuta.

Erri guztiko garik bear iza'mentzitzen zaku ura betetzeko.

Etxea zetorrela, Sâsti Muñoko iturrin billau zon alaba suil bat urez beteta zola.

Alabai esa'mentzion:

—Ekaien ur ttintta 'at egarrrik nion da.

—Jentillek ure eran tzonen, alabak esan tzion:

—Suillen tzan ba antuxune, oañ eztô emen.

—Ure eratekon sentitu'iñat eztarrin zikin txikin bat-eantzun mentzion Tartalok.

Migel Urbizuri 1980-4-5ean jasoa.

15. Urzelaietan Txoria deitzen zioten gizon bat bizitu zen itxuraz noizbait.

Jentila

12. *Bein Jentille Arabati idi narru'at bete garikin tzetorrela, Gaztiñabarreneko Napar iturriñ alaba billau zon.*

—Ure erazu, esan tzion alabak, egarrik etorko zâ ta.

—Ure nola erango 'iña pa karga au bizkarrên diala?

—Deskantsau zaitz, esan tzion alabak.

—Zer den ba deskantsatzea?

—Utzizu idi narrue malkar ortan da ikusko'ezu.

*Idi narrue malkarren utzi zonen esa'mentzion alabai:*

—Neska, deskantsatzea zer tzan jakin izan bano, bi idi narru ekarko nitunan.

*Ordun ure eskau mentzion.*

*Alabak suille eman da Jentille ure eraten asi zan.*

*Alabak esa'mentzion:*

—Kontuz antuxunekin, suillen do ta.

*Jentillek esa'mentzion:*

—Iruitu zatan zamar txikin bat eztarrin pasau zatela.

*Inazio Urbizuri 1980-5-9an jasoa*

Jentille

13. *Jentillek pagok zuztar da guzti etâ ta artu bizkarren da etxea eamate'mentziton.*

*Gizon txikik ori eiteik ez, ta sokea kolkon eama' mentzon.*

*Jentillei esa'mentzion:*

—Enborrak banaka etâzzen ibil be, pagari danai sokea bueltan lotu ta pagari osoa etâko deu dana batea.

—Etzak olakoik esan da goazeak etxea, udaberrin ikatza nun ein bear diau bâ?

*Ta etxea jun tzien.*

*Eduardo Irastortzari-9-7-1980an jasoa.*

Zegamako azken jentila<sup>16</sup>

14. *Jentil batek, zârtu zanen, bê semei esa'mentzion:*

—Jaso iek betazalak, otsak aitzen tzituat eta.

*Semek labe agea artu ta betazalak jaso mentzion.*

*Jentilletxeko ateti beida ala esa'mentzion jentil zârrak:*

—Au dek txikillerie, oaindio ikusko'itzetzue gizonak saski 'aten barrun indaurketan.

*Sâdar gañeti, an urruti, ibarren, gizon txikik agiri mentzien erruz.*

*Inazio Urbizuri 1980-5-28an jasoa.*

---

16. Indaurketan egitea babarrunak aletzeari deitzen zitzaion Goierriin. Urritz makila bat beste urritz makila bati sokaz lotzen zitzaion. Ganbaran babarrunak edo indoabak zabaldu eta makila hauekin jotzen ziren. Horrela babarrun lastoa eta alea banatzen ziren.

Zegamako azken jentila

15. *Astrein bizi mentzan Zeamako aizkeneko jentille.*

*Andrea beti gizonan bildurrez bizitze`mentzan da jana soroa eamaten tzionen, soro baztarren utzi lapikoa ta aldeite mentzion.*

*Jentillek bakar bakarrik jate`mentzon.*

*Inazio Urbizuri 1980-5-25ean jasoa.*

Saadergo jentila

16. *Bein, Sâdarren, Izarrâko pagariñ, ikazkiñek enbor bat laurkitzen ai mentzien. Porrazirie geiegi sartu ta etâ ezinda mentzeiltzen.*

*Ontan Jentill aundi `at etorri ta zer tzuen alako aleñetan lanen aitzeko, galdetu mentzien.*

*—Porrazirie geiegi sartu deu ta oañ eziñ etâik gailtze.*

*—Utzi, neuk etâko diat, esan tzien Jentillek.*

*Jentillek bi eskuk sartu zitun enborran zirrizekun da indarka asi zan enborra zabaldu ta laurkitzen.*

*Ordun ikazkin batek porrekin jo porrazirie ta enborreti etâ zon.*

*Enborran zirrizekun beatzak zitula geau mentzan Jentille ta ikazkiñek iges ein da an utzi mentzuen bakarrik Jentil gizajoa.*

*Eduardo Irastorzari 1981ean jasoa.*

### **Sanmartintxiki eta jentilak**

Sanmartintxiki eta jentilen bitarteko harremanak, oso bitxiak dira azterketa on bat egiteko orduan. Sanmartintxikik, Saaderko jentilei astruzi bizkor baten bidez artazia harrapatzen die. Artazia ereiteko garaia ere Jentilengandik ikasten du.

Artoa Amerikatik ekarria dela badakigu. Larramendik bere Corografian dioenez,<sup>17</sup>

“El maíz trájose desde las Indias la primera vez a esta provincia, y lo trajo Gonzalo de Percáiztegui, natural de Hernani, y se comunicó después a toda la provincia”.

Amerikatik artoa ekarri baino lehen, bazen Euskal Herrian artoa zeritzaion beste ale bat, “mijo” zuen erdarazko izena.

Ez dakigu ale hau noiz sartu zen Euskal Herrian.

Nolanahi ere, beste mito batzuetan garia da Sanmartintxikik jentilei harrapatu zien alea.

---

17. LARRAMENDI, Manuel: *Corografía de Guipúzcoa*, Bilbao 1985, Editorial Amigos del Libro Vasco, 65 or. 1784 urtean idatzia.

Aipa dezagun Estrabonen testua: “Garagardoa edan ohi dute ohituraz, oso gutxitan ardoa”. Estrabonen hitz hauek, ez al dakarkigute burura Zelten ohituretako bat?

Alegia, Euskal Herrian bizi ziren Zeltek garagardoa bertan egiten zutela, garagarra ere, bertan ezaguna zutela gizon haiek.

Ardoa Mediterranioko edaria zen bezala, garagardoa Arioen eta ipar aldeko gizonen edaria baitzen.

Garagarrari euskaldunok nolabait, ez al genion gariaren izen deskriptibo bat eman, “gari igarra”?

Kanpotik ekarritako ale bati, Euskal Herrian eman zitzaion izena dirudi garagar hitzak.

Zegaman Garagartzako jentilek garagarra ereiten omen zuten Garagartzako zelaietan, Zegamako ipuinak dioenez. Nork bereizi Zeltak eta Jentilak?

Euskaldunek ez ote zizkieten jentilei edo Zeltei garagarraren edo garagardoaren sekretoak ikasi?

Ipuinak hala dioela dirudi.

Gure Sanmartinxikik jentilei burdinaren maratila asko harrapatzen dizkien uneak, baditu zenbait egoera berezi.

1. Sanmartinxikiren eta Jentilen arteko berezitasunak ez dira erlijiozkoak. Ez da behintzat horrelako arrastorik ageri ipuinetan.

Bi arrazen arteko berdinezak dakuskigu lehenengo, gizon handia eta txikia, herri berean baina aparte bizi diren bi jende multzo dira eta euren harremanak.

2. Ipuin hauetan, batzuk agintariak dira eta besteek mendekoak dirudite. Jentilek gauza asko dakizkite gizon txikiak ez dakizkitenak. Zelten kultura euskaldunena baino sakonagoa eta aberatsagoa zen.

Jentilek isekaz hartzen dute San Martinen apustua.

Aizkoraz hil nahi izan zuten San Martin, sekreto harrapatu eta beretarretara zeramala-ko.

Sanmartinxikik ipuin honetan Zeltei burdinaren sekreto harrapatzen die.

Aiako olagizon Gilisastik, XVIII. mendean, holandarrei aingurak egiteko sekreto harrapatu zienean, belaun onei esker bizia salbatu ahal izan zuen, Sanmartinxikik bezala. Sekreto haiei esker egin zen Hernaniko aingura fabrika sonatua Ereinozuz.

Sekreto bat beti da sekreto, eta sekretoak harrapatzearen zigorra heriotza izan da beti.

Agintariak, Zeltek, euskaldunak mendean edukitzeko nahita nahiezkoak zituzten burdinaren maratilak, gizon txikiak, euskaldunak, harrizko armekin baizebiltzan artean Zelten garaian. Nolanahi ere, euskaldunek ezagutu zuten Zelten uztarrria, historiatik dakigunez.

Zelten mendetik euskaldunok erromatarrek atera gintuzten, eta lekukorik jatorrena Azparne hiriko elizan 1665ean aurkitu zuten harri erromatar bat dugu. Bertan irakur daitekeen, “Verus questor et magister pagi”, hau da “Vero izeneko agintari eta buruzagi batek, leku hartako jaungoikoei eskerrak ematen dizkie, Erromak euskaldunak Zeltengandik askatu dituelako.”

Mugaz alde honetan ere, euskaldunak egoera berean egongo ginen, noski. Barduloen, Autrigoen eta Karistioen izenak Zeltak dira eta gertakizun honek uztarri bat adierazten du.

Ipuin zoragarri honek, ez ote digu aipatu nahi, euskaldunek

Zeltei burdinaren sekretoak nola arrapatu zizkieten?

Zerraren ipuin ederrak, burdina du oinarri; lehen aipatu dugun burdinaren kondaira osoa, ipuin honi ere lotu geniezaioke.

Badu zerbait, ordea, oso bitxia eta irudimen handikoa.

Gaztain orritik Sanmartintxikik burdinazko zerra asmatu zuen.

Izadiarekin Zeltek adinako loturarik eduki duen herri gutxi dago Europan. Zerraren eta gaztain orriaren loturak badu halako Zelten usain fin eta konfundigaitza.

Sanmartintxikik morroia jentiletara, bere asmaketak kantatzera bidaltzeak, zerbait adierazi nahi digu. Druidek beren jakintza kantuz eta buruz erakutsi ohi zieten ikasleei.

Ahozko tradizio oso aberatsa zuen herri maitagarri honek.

“Tradizio hau ez zuten idatzi nahi izan inoiz, euren jakintza beste herri batzuek ezagutu ez zezaten”.<sup>17bis</sup>

Herri maitagarri honen kultura dena tradizioz jaso da, nahiz Euskal Herrian, Britainian, edo Galestarren herrian eta Zelten kulturaz kutsututako beste zenbait herritan.

Druiden (Zelten apaizak, maixuak, olerkariak) erakuspenak beti kantuetan jaso izan ziren. Oroitu bestela Resurrección María Azkuek, *Cancionero Popular Vasco* deritzea liburuan (915.or.) jaso zuen Martintxoren abestia, Europako hizkuntza askotan oso ezaguna.

Barandiaran jaunak kantu bera jaso zigun honek ere Bizkaian<sup>18</sup>.

Bardo hitza egiaz Zelta da. Bardoen eta Druiden lotura nork bereizi? Kantua eta apaizgoa bat baitziren herri eder hartan.

Hara zer dioten “bardo” hitzari buruz Adolf Schultenek<sup>19</sup>:

“...el ya nombrado Culchas, que reinaba todavía sobre diecisiete ciudades, y Luxinio, que mandaba sobre Carmo, Bardo, Malaka y Sexi (Livio, 33.21.6). Malaka y Sexi son ciudades fenicias de la costa meridional.

---

17.bis. Julio Cesar, *Bellum Gallicum*. XXI.

18. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 206 or.

19. *Tartessos*, 141 or.

Carmo se hallaba situado en el valle inferior del Betis. Bardo es desconocida. Su nombre es probablemente celta, de bardos = cantor.

Cerca de Milán hay un lugar llamado Bardo-magus, y la tribu de los Bard-uli existe tanto en Lusitania como en los Pirineos occidentales”.

Sanmartintxiki ez ote zen joaten Saaderrera jentiletara, bardoen kantu ederrak abestuz eta entzunez? Ipuinek ez al diote gauza bera?

Jentilaren kantua:

Antza beltza loran bado  
artoa eiteko goizago.  
Elorritxo loran bado  
artoa eiteko giro do.

Jentilaren kantu honek, ez al daramazki izadiaren sekreto asko eta sakonak? Garai bateko Druidek kantuetan erakusten zuten bezala arantza beltza, madarikatua da Zelten eta gure herriaren iritzian. Bere zauriak pozoitu egiten dira eta oso nekez sendatu.

“Jesusi elorri beltzez eginiko koroe bat ipini zioten buruan<sup>20</sup>”.

Elorria, berriz, landare bedeinkatua da, Jaungoikoak maite du elorria. Ardien zauriak elorri arantzaz zulatu ohi dira sendatu eta ondu daitezten. Elorria, San Juan goizez, etxeko atee-tan ipini ohi da tximistaren aurka. Mendira doanak, sarri patrikan eramaten du elorri zatitxo bat tximistarik balitz ere. Kantuak, elorriari “elorritxo” deitzen dio, maitasun hizkuntzan.

Euskaldunon eta Zelten mundu panteistan, arantza beltza loratzea ez da nahikoa artazia ereiteko garaia izan dadin, zuhaitz hau madarikatua baita. Elorritxo bedeinkatua lorez jaztea da beharrezkoa garai hau heldu dadin.

Apaizgoa eta kantua bat zireneko oroitzak (Druidak-Bardoak) datozkit multzoan burura, ipuin eder hauek irakurrita.

“Bardulum gens nunquam superata” dio Gipuzkoako armariak.

Irakurgai hau ez al genuke honela irakurri beharko: “Inoiz menderatu ez duten bertsolari herria”?

Mitoak mito, ipuinak ipuin, Gipuzkoako Foru ederrak itxuraz galduak ditugu betiko.

Jentila, Zegamako mitoek diotenez, Arabara eta Nafarroara gari bila zihoan gizon bat zen. Gipuzkoara beti kanpotik ekarri izan da garia, lurreko edo itsasoko portuetatik zehar.

Gizon ezkondua zen, alaba bazeukan, beste edozein bezala bizi zen herrian.

Jentilbaratza. Cromlechari eman zaion izena da.

Cromlechak Zelten hilarriak ziren Euskadin eta, batez ere, gure Gipuzkoa zaharrean. Hemendik atera genezake: Jentilak eta Zeltak herri bera zirela, Zeltak eta Galoak herri bera ziren bezalaxe.

---

20. AZCUE, Resurrección María: *Euskalherriaren Yakintza*, IV alea, Madrid 1989, Espasa-Calpe, 7 or.



Beste gauza harrigarri batek ere ez nau pakean uzten.

Ikusi dugu Zeltek ekarri zutela burdina Euskal Herrira.

Erdi Aroan eta gure egunak arte "aizeolai" jentilolak deitu zaie Euskadin<sup>21</sup>. Harritzekoa dirudi.

Jentilak baserritarraren lagun.

Jentilzulon, jentilak bizi omen ziren, Uzparrungo baserriko jendearekin oso lagunak. Batzuetan, jentilak Uzparruna auspoaren eske etortzen omen ziren, besteetan Uzparrungoak omen zihozen Jentilzulora euren urrezko txarrantxaren eske, auzolege ederrean.<sup>21bis</sup>

Jentilbaratzako jentilak eta Agerreko baserritarrak ere ondo konpontzen omen ziren. Behin Agerreko nagusia gaixotu eta abadea elizakoak ekartzera omen zihozen. Hau jentilek jakin zutenean, urrezko sobrekama Agerrera jaitsi omen zuten eta gaixoaren ohea berarekin estali, elizakoak joaterako<sup>22</sup>.

Elkarrekin bizi ziren jende hauek, eta herri bateko semeak bezala, askotan elkarri lagunduz.

Sanmartintxiki (artoa nola erein)

*17. Sâdarren, jentillek artoa gordetze' mentzuen, sekulako pillatan.*

*Bein bezpera ondon, Sa'Martin Txiki jû' mentziten jentillai kontuk esatea, gañea apropos, sekulako abarkak eama' mentzitun jantzita.*

*Itzek itze ekârta, Sa'Martin Txikik apuestoa ei' mentzien jentillai, zeñek salto aundigoa eiñ arta pillen gañeti.*

*Lênengo saltoa Sa'Martin Txikik ein mentzon da arta pillen erdia eroi mentzan.*

*Jentillek ein mentzien Sa'Martin Txikiri burla ta parrea ta desairea pranko.*

*Sa'Martin Txiki, bê garaien, etxea abiau zan. Ordun akordau zien jentillek artoa abarkatan zemerrela ta aizkorea tiau zien, baño Sa'Martin Txiki jo bearren, bide baztarreko pago lenden baten enborren sartu zan aizkorea.*

*Ola arrapau zien Sa'Martin Txikik jentillai artâzie.*

*Sa'Martin Txikik artâzie bazeuken, baño noiz erain bear tzon etzekiñ.*

*Eun baten Jentille ôla ai mentzan kantari:*

*Antza beltza loran bado  
artoa eiteko goizago.  
Elorritxo loran bado  
artoa eiteko giro do.*

21. LABORDE, Manuel: "Ferrones", 310 or.

21 bis. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras Completas*, II alea, 38 or.

22. *Op. cit.*, 24 or.

*Ola ikas mentzion Sa'Martin Txikik jentillei, artoa noiz eiñ.*

*Joxe Alustizari, 1980-6-9an jasoa.*

Sanmartintxiki (burnia nola tenplatu)

18. *Sa'Martin Txikik morroiai esa' mentzion bein: Jun ai jentilletâ ta kantau zak:*

—*"Sa'Martin Txikik burnin tenplea billau dik."*

*Morroi ori ju' mentzan jentilletâ Sâdarra ta kantari asi mentzan:*

—*"Sa'Martin Txikik burnin tenplea billau dik"*.

*Jentillek esa'mentzion:*

—*Uretan da buziñetan sartu al dik burnie?*

*Morroiak: —Eztik sartu baño sartukoik.*

*Ola ikas mentzien Sa'Martin Txikik burnin tenplea jentillai.*

*Joxe Alustizari, 1980-6-9an jasoa.*

Sanmartintxiki (zerra)

19. *Sa'Martin Txikik zerraik etzeuken da jentillek bai.*

*Sa' Martin Txikik morroiai esan tzion beñ:*

—*Jun ai jentilletâ Sâdarra ta kantau zak:*

—*"Sa'Martin Txikik zerrea asmau dik"*.

*Morroi ori ju' mentzan Sâdarra ta asi mentzan kantari:*

—*"Sa'Martin Txikik zerrea asmau dik"*.

*Jentillek esa'mentzion:*

—*Gaztiña ostoa ikusi'ik ortan?*

*Morroiak: —Ez, ezтик ikusi baño ikuskoik.*

*Sa'Martin Txikik gaztiña ostoi beida lêngo zerrea ein mentzon.*

*Gau artan Sa'Martin Txiki gustora ju' mentzan lotâ.*

*Jentille gauen Sa'Martin Txikiñ erreria etorri ta an billau zon zerra ori.*

*Ortzak bat alde`atea ta bestea bestea okertu zion, zerrea ondau asmon.*

*Urrengo eunen zerren egoerek Sa'Martin Txiki tristetu zon baño erremintea proatzen asi zanen, onek lana lên baño askoz obeto eiten tzon.*

*Joxe Alustizari 1980-8-4ean jasoa.*



### III. SAN ADRIAN, IPUIN EDERREN LURRALDEA

Ahozko tradizioak lapur ipuinak franko utzi dizkigu San Adrian ederrarekin lotuak. Atzo gertatuak balira bezala kontatu dizkidate Zegamako zaharrek.

Dirudienez, lapurak Zegaman bertako semeak ziren gehienean.

San Adriango bideetan, gizonaren kondaira denetan bezalatsu, milaka malko gori isuri ziren aintzinako urteetan.

Euskal Herriko leku zoragarri hartan, bizi nahiak eta ezinak gogor eta sarri burruka egin ohi zuten.

Ipuin horiek hor dauzkazu irakurle. Zegamako sukalde bero eta zaharretan jaso dizkiet gizon agurgarri eta adiskide maite eta jatorrei.

Guztiontzat gustokoak izatea nahi nuke San Adriango lapurren historiak.

Barriola (I)

*20. Barriola izeneko ikazkin bat San Adrianen bizitze mentzan bê koadrillekin, batzutan ikazkintzan da besta 'atzutan lapurretan.*

*Ataungoa zala re esaten tzuen, Urtsoangoa zala re bai.*

*Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen zekiña mentzan.*

*Zeamako zarrak gogon dauku oaindio aren izena.*

*Aren kontuk oañ 200 bat urtekok izan leizke.*

*Jesus Mazkiarani 1980-9-9an jaso.*

Barriola (II)

21. *Barriolak be motillai ola aintze mentzien:*

—“Alakok eta alakok, alako lekutan utzi ‘ezela dirue.

Ezetz esaten badue, esan gañen gala.”

Bein patzen tzuena paken uzten tzitun.

Roman Otaegiri 1980-8-7an jasoa.

Barriola (III)

22. *Bein Barriolai motiko’at etor mentzikon San Adriana lapurrerretan ikas nai zokela ta.*

*Barriolak iru ogi ekartzea biali zon Zeama.*

*Motikoa ogi’ pe ‘tor tzikon, dirui’ pe Zeaman ogik etzuela ematen da.*

*Urrengo eunen motikoi Barriolak esa’ mentzion:*

— *Goazeak Zeama, ogie ekar bear diau.*

*Erria allautakon denda’aten sartu zien. Dendarik ogik etzien eman diruik etzeuken da.*

*Etxaola allau zienen, Barriolak iru ogi etâ zitun kapusaian*

*azpiti, iñor akordau bê dendariri arrapau zionak.*

*Motikoi esa mentzion:*

— *Ikustek iru ogi nola ekar dituan nik dirui’ pe?*

*Ik lapurre izateko eztek balio ta jun ai emendi. Ikas tzak*

*beste ofizio ‘at.*

Roman Otaegiri 1980-5-7an jasoa.

Barriola (IV)

23. *Joan txiki Goienez Arabako Salbatierran tzeuken etxenausie ta eun baten autza zizon errentea patzea. (Garai atan Ladron de Zegama Salbatierran bizi zan)*

*Eun jakiñe izaten tzan errentak pâtzekoa.*

*Joan txiki Salbatierrâ errenta-dirukin nausiña zizola, San Adriango tabernan sartu ta jokun errenta-diruk galdu zitun.*

*Joan txikik nausiña jun da esplikau mentzion pasaizoa.*

*Nausie asarrau mentzan da demandan asi mentzikon: Olakoik etzala ein bear, ori al tzan familliko guraso’aten formalidadea ta beste milla kontsiderazion ondoren, berai errentea patzeko nundi etâ bear tzon dirue galdetu mentzion.*

*Joan txikik beste amabost eun barru errentea pauko ziola aindu mentzion nausiri, ala beintzet promes ori ein da Zeama etor mentzan gue gizona.*

*Amabost eun barru, jokun beiz e dirue irazi ta Joan txiki errentea patzea zizon Salbatierra. San Adrian azpiko metaliturriñ*

ure eraten ai zala, kaltzipurditi eldu ta airen jaso mentzon Barriolak:

—Aa men gue Joan txiki, zer dallek emen? —galdetu mentzion.

Errenta dirue nausiri eamatea zijola. Aurrekon nausiri eman bearreko dirue jokun galdu zola ta...

Barriolak dirue eskau zion, Joan txikik poltsikoti eta ta eman beste erremedioik etzon izan.

Barriolak gerrikon gorde zon Joan txikiñ ontzakoa.

Aratz gañea eaman tzon, an tzion Barriolan koadrilla.

Batzuk armak garbitzen ai zien, besta 'atzuk lapikok egosten da irakiñ alditan lapiko tapea moitzen tzanen, umean atzaparrak ikus tzitun lapikon egosten Joan txikik<sup>23</sup>.

Joan txiki ondo tratatzeko eskau zion koadrillei Barriolak.

Urrengo goizen Barriolak Joan Txikiri esan tzion:

— Jun ai Zeama alde ta biden iñor ikusten bek esaiok emen ez tiala iñor ikusi.

“To”, esanez, aurreko eunen kendu zion ontzakoa eman tzion da beste ontzako'at gañea.

Joan txiki korrikan abiau zan Arazti kueba ta laster billau zon Zeama aldeti zetorren jendea, mandok kargauta zetotzen.

la iñor ikus tzon galdetu zion Joan txikiri jende onek, erregen dirukin zetotzen nunbait.

Joan txikik ezetz, etzola iñor ikusi.

Zamal jabek kueba pasau bezin laster, tirok asi mentzien, baño orduako Joan txiki urrutitan.

Migel Urbizuri 1980-3-8an jasoa.

Barriola (V)

24. Barriola San Adriango Portu gañen ibiltzen tzan ikazkintzan.

Gipuzkoati Araba zellen jende, San Adriango kueban tzion kantinan dirue jokatzte mentzon.

Jende asko errenta-diruk galdu ta errentak pau be geau oi zan.

Barriolak arbolatan izkutauta jartzen tzitun gizonak, kaltzaden ingurun.

Jendea zetorrenen danba ta gañea salto eiten tzien.

Batzuai dirue kendu ta etzeukenai eman da ola ibiltze mentzan.

Artzaiai ardik eo arkumak ê arrapatzen tzien.

23. Zegaman, umeen eskuak ijtoek lapikoan egosten zituztela, sarri entzun ohi genuen haurtzaroan.

25. *Bein San Adriana zijola, Asurmendi Muñoko amona txikie laben jatekoa eiten ai mentzan da Barriola andi pasatzea suertau.*

*Amona txikik labeti eta opea ta pusketa'at eskeñi zion Barriolai.*

*Ontan izketan asi zien.*

*—Amona, ze berri do?*

*—Ze berri don esaten diezu? Jende guzie or dalle, Barriola gora ta Barriola bera, bati dirue kendu diola, beste ardie arrapau diola, o'tie emengo kontuk.*

*Amona txiki ori laben tzeren ogiai bueltea ematen asi zan, ogik oaindio alde'at erreta ta bestea oretan tzeuken.*

*—Nik-esan tzon-gizon ori al banoke, ogi au bezelaxe laben sartuko noke.*

*—Zuri kalte aundik eiñ al dizu? —galdetu zion Barriolak.*

*—Nei ez baño, beste askoi bai.*

*Ordun Barriolak oretan laben tzion ogi'at artu ta andrei gonak jaso ta ipurdiko erretenen ipin tzion.*

*Ak karraxik!*

*—Urrengon Barriolakati kontuz itz eiñ, Barriola ni naiz.*

*Ala izkuta mentzan gizona.*

26. *Bide asko zaitzen tzitun Barriolak, San Adrian, Zoazarreta ta beste asko.*

*Zaldi gañen tzijonai arbolati lazoa botatze' mentzion.*

*Ala urkatze mentzon jendea.*

*Joxe Mari Zabaletari 1980-8-4ean jasoa.*

Barriola (VI)

27. *Barriola izeneko ikazkin bat San Adrianen bizitzen tzan bê koadrillekiñ.*

*Lapurretan ê motille izan bear tzon.*

*Zeukenai kendu ta etzeukenai emate mentzion.*

*Ikazkintzea bukatzen tzonen, Araba jatxi ta an etxe 'aten apopillo eoten tzan.*

*Beiñ, ikazkiñe menditi jatxi zanen, ama-alabak nearrez tzeren.*

*—Zer dezue? Galdetu zien ikazkiñek.*

*—Nausie etor tzaku errenta billa ta diruik eztauku.*

*—Zenbait 'a dirue?*

*—Ainbeste.*

*Ikazkiñek eman tzien diru ori. Nun da noiz nausiri pau bear tzien galdetu zien da gauen alako lekutan, kontestau zien.*

*Barriola, ama-alabak nausiri errentea pau bear tzien lekua, o'paño lenao allu zan, txorizugarri 'at zion bertan.*

*Barriolak txorizugarri trabukoa jarri zion eskutan, bera izkutauein tzan.*

*Ama-alabak etor tzien, nausie re bai ta diru entregea asi zanen, baztar bateti oju ein tzon Barriolak.*

*—Alto! Txorizugarrikiñ itz eiten tzon plantan. Moitzen bek tiau.*

*Nausik bildurrez lau gorri Barriolai eman tzion diruk.*

*Danak etxea bildu zienen, ama alabak arrituta Barriolai ze gertau zan kontau mentzien.*

*Jexux Mazkiarani 1980-3-4ean jasoa.*

Barriola (VII)

**28.** *Zeamako Artzak Aixkoneta biali zon beiñ Bitoria diru billa, garai artan gertuaneko bankue Bitorin mentzan.*

*Aixkoneta au euzkikiñ etxeti irten da euzkikiñ etxea sartze mentzan, Bitoriti jun etorrie ein da gero.*

*Arabako lanak ein da etxea zetorrela, San Adriango pason, Barriolan bildurrez, diru poltsea pago zulo'aten gorde zon.*

*Ontan Barriolakin topo ein tzon.*

*—Artzan enkargun batekiñ ibilko aiz? —galdetu zion.*

*—Ez motel, Araba jun nauk txerri kokkor bat erostea ta jokun asi banauk asi, diru danak galdu zituat. Emen netorrek ez diru ta ez txerri.*

*—Bazekiart —esan tzion Barriolak— Artza ne kontra soldaduk bialtzeko dallela, ba esaiok, nê koadrillekin jaxten banauk, eztola nei soldaduik bialtzen lanik izango.*

*Bestei' pe izkutauein mentzan ikazkiñe.*

*Aixkoneta, gorde zon poltsea jaso ta laxter mentzan Artzan etxen.*

*Artzak galdetu mentzion:*

*—Barriola ikusi al dek?*

*—Bai.*

*—Ordun eztek diruik ekarko.*

*—Eman dirue, ta Aixkonetak poltsea mai gañea bota mentzion.*

*Eman mentzion Barriolan enkargue re, alegie be koadrillekiñ etortzen bazan Zeama etzola ari soldaduik bialtzen lanik izango.*

*Artzak esa mentzion Aixkonetai:*

*—Jungo al itzeke beiz San Adriana?*

*Aixkonetak baietz.*

*Emaiok Barriolai milla erreal ok eta esaiok ni enallela ari soldaduk biali asmotan.*

29. *Aizkenen beintzet, soldaduk etorri ta arrapau mentzuen Barriolan koadrilla.*

*Bera laun batekin gorde mentzan.*

*Barriolan laune, jan billa irten tzon baten, arrapau ein tzuen, da au beartuz Barriolan gordelekua soldaduk allau zien.*

*Bê laune ta bik eun beren urkau mentzitzen gizajok.*

*Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzionan istorik ola akau mentzien.*

*Jexux Mazkiarani 1980-3-6ean jasoa.*

Amianogoena<sup>24</sup>

30. *Gau 'aten Amiñagoneko txakurre zaunkaka asi mentzan.*

*Atea zâldu zuenen, seme gaztea bê billa etor tzien bi launekin ju' mentzan etxeti.*

*Urrengo eunen San Adriandi erregiñek pasau bear tzon.*

*Gau guztiñ, iru motillek erregiñei urrengo eunen bidea irtetzeko prantatzen aitu zien.*

*Santi Espituti San Adriana dijon biden trabukoa disparau ta erregiñei belarri'at eama mentzion tirok.*

*Laxter iru motil orik arrapau zituen, da, bat Artagosan, bestea Musason da irugarrena Murgizelaien urkau mentzitzen.*

*Amiñagonekoa, Musasokoa ta Mendaldekoa mentzien erregiñei tiroa bota zien iru motil orik.*

*Arrazkio Zeamako goialden, txakurre zaunkaka asten danen, gaue bâ, ateik eztala zâldu bear esaten da.*

*Jexux Mazkiarani 1980-7-7an jasoa.*

Landaetako zazpi anaiak

31. *Landatan zazpi anaie bizi mentzien da zein baño zeñ indartsugok zazpirek. San Adriandi zetotzen mandazaiari, Landata parean allatzen tzienez, bidea irtetze' mentzuen motil ok itai bana eskutan tzituela.*

*Mandoai lazok moztu, zagik eo gari zakuk besazpin artu ta etxea eamate' mentzitzen.*

*Mandazai bat, Landatako anaiekin burutu ezin da Mandabidetari asi zan karreton, karteroan bidet<sup>25</sup>.*

---

24. Amianogoena.

25. Mandabidea, erregearen karteroaren bidea izan zen urte askotan. Gaztelatik lehenengo eta gero Madrildik Parisera eta Europako ipar aldeko hiriburuetarara zihoan diplomazia guztia, Mandabidetik zehar pasa ohi zen, Gatzagako bidea 1780an berriro zuten arte.



*Mandazaiek ala esa'mentzon bein benta 'aten:*

*—Txakur onekin etzeukiat Landatako zazpi anaian bildurrik.*

*Zazpi anaiek au aitu zuenen esa'mentzuen:*

*—Pauko 'ik oaindio.*

*Zazpi anaietan gazteanak, bera naikoa zala, esa' mentzon mandazaiei bildurre sartzeko.*

*Iturzalâ irten mentzion beso 'at ondo trapuz estalita zola.*

*Mandazaiek Landata ikus tzon orduko, txakurre axau ta gañea bota zion.*

*Txakurrek aua zâldu zonen, Landatak trapuz estalitako eskue sartu zion auan.*

*Txakurre zotinka asi zanen kotxilloz il tzon.*

*Landatak mandazaiei esa'mentzion:*

*—Txakurren aizkena nai ezpek, Landatako anaiekin kontu izan.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-2-6an jasoa.*

Elizako San Martin

*32. Zeamako Elizan don San Martiñek morroiak lapurreta bialtze'*

*mentzitun San Adriana. Bera re lapurre ta gaiztoa iza'mentzan.*

*Jendea nola nai iltze mentzon dirukati, baño zeukenai kendu ta etzeukenai ematen é bamentzekiñ.*

*Zeamako parrokoa oso laune mentzon. Gauen askotan San Martin parrokon etxea kafea artzea jute mentzan.*

*Eun baten parrokoa trixte mentzion.*

*San Martiñek zer tzon ba, da parrokok eantzun mentzion:*

*—Erri guzie pekatu gorrin dalle, eliztar danak inpernua jungo zat ta neu nola salbauko naiz?*

*Ori konponduko deu gizona, esan tzion San Martiñek, ta kafea artu ta San Adriana jun tzan.*

*Urrengo eunen, jaien, goizen goiz San Martin parrokon etxen presentau zan.*

*Zartain baten ikatza tontorka jarri ta su eman tzion.*

*"Inpernuko sue", eskau zuk tarteka sermoian da ikusko'ezu jendea nola konbertitzen dan.*

*San Martin zartañe eskutan tzola Elizako ganbara jun da zulo 'aten ondon jarri zan.*

*Poliki-poliki jendea Eliza etor tzanen abadek mezea asi zon.*

*Sermoikon ala zion karraxika:*

—*Erri ontako jendea! danok inperua zoazte, pekatari aundi 'atzuk besteik etzate. Jangoikoa, bota jende oni inperuko sue, zion karraxika.*

*Parrokok inperuko sue, deabrun kalderak eta beste milla gauza aitau ondon, beiz e ala eite' mentzon karraxika:*

—*Jangoikoa, bota jende oni inperuko sue.*

*San Martiñek txingar danak batea bota zitun zuloti.*

*Elizan jendea lau gorrin tzion.*

*Parrokok beiz e:*

—*Bota su geio jende gaizto oni.*

*San Martiñek ganbarati:*

—*Jaune, ne suk gastau die.*

*Jendea orduntxe lasaitu mentzan.*

**33.** *San Martiñek aizkeneko eunetan Jangoikokiñ e pakek ein nai izan tzitun.*

*Elizea aunditzeko dirue berak ema'mentzon.*

*Zeukenai kendu ta etzeukenai eman, Elizako San Martiñek eite mentzon.*

*Orreati do Zeamako patroï ein da, gero Elizako atalburun jarri zuen.*

*Eliza dana ez mentzon eiñ, erdi pareti aurreakoa bakarrik.*

*Doroteo Otaegiri 1980-8-7an jasoa.*

## **Eguzkitzeko Joane<sup>26</sup>**

Gertakizun honetan garbi dagoena zera da, iragan zen gizaldiaren azkenetan, San Adrianen lapurrek bazirautela oraindik.

**34.** *Gue atte zanak Joane zon izena, karlistan gerraten ibil tzan*

*Euzkitzen asistente. Ba mentzon beste laun bat e Tolosa aldekoa.*

*Gerra ondon zeozer ein bear da Somorrostroko minatan tolosar onek eta bik lana ein mentzuen.*

---

26. *Euzkitze.*- Eguzkitzeberriko mutil baten izengoitia zen.

Kastillako trozoetan gaztetatik lanean ibilia zen, erdaraz eta idazten zekiena, gerratean ofizial egin zuten eta bes-teko (Eguzkitzazarreko) mutil laguna bere asistente egin zuen nonbait.

*Txanpon batzuk irazi zitunen, gue atte bizitzen Euzkitzen jarri zan ezkondua.*

*Eun baten, Arabati zettorrela, San Adriango Portun lapur batek irten tzion bidea.*

*Emaiek diruk, esa'mentzion lapurrek, ontan, gue atte ezautu ein tzon lapurrek.*

*—Kontxo, jarri ai emen, motel, i alako aiz. Ze eitek?*

*—Emen nellek — gue attek ezkondu nitzean, da famillie azten ai nauk nola o ala. Lapurrek, Somorrostron lana eitek etzola mezi ta Sandratin lapurretan tzellela esan tzion. Emen dirue minatan baño errezago irazten tzala ta olako kontuk.*

*Pañuelokara 'at ontzako urre eta mentzon poltsikoti.*

*—Ik ê artu zak zeozer, esa'mentzion.*

*Gue attek artu nai ez.*

*Ontzako'at ema mentzion da Urkiola<sup>27</sup> alden izkutau mentzan.*

*Laun aren berrik geio ez mentzon jakiñ.*

*Amaika aldiz esan oi zon, ontzako arekiñtxe erosi zola lenengo idi pareá.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-8-4an jasoá.*

## Tenplarioak

Tenplarioen urratsak Zegaman

Zegaman eta batez ere Goialdean jaió ginenok sarri entzun izan dugu Santi Espirituko fraileen berri.

Zenbait aldiz zaharrei edo artzaiei entzun izan ginezkien fraile gudari haien judaskeriak.

Diruagatik edozein hiltzeko gai zirela, pelegirino gaxoei lapurretariak beltzenak egiten zizkietela, maltzurrak eta gaiztoak zirela, horrelako kontuak pranko entzun ditugu haurtzaroan eta geroago ere.

Zori onean izkutatu omen ziren noizbait gure mendietatik.

Hain gizon maltzurrak ez zirela benetako fraileak ere esan ohi zuten gure zaharrek (fraileen maltzurkeriaz mintzatzeaz lotsatuta bezala) fraile baino gehiago fraile militar zirela, eta abar zioten.

*Tomasa Agirrerri 1980-4-9an jasoá.*

Santi Espirituko tenplarioak nortzuk ziren

Lehenengo kruzadan sortu zen Ordena hau, Jerusalemen hain zuzen, 1118garren urtean.

Erroma, Konpostelako Santiago eta Jerusalemenerako bide zail eta arriskotsuak zaintzea izan zen beren lehenengo ekintza.

27. Urkiola.- Portugañetik eskubira dagoen mendi baten izena.

Kruzadek iraun zuten bitartean, Jesusen lurralde guztiak, beraiek gorde zituzten Arabeei, Turkoei edo Saladino ber-berari hortzak erakutsiaz.

1289ko urtea eta 1291ekoa bitartean Kruzadoek Palestinako lurralde guztiak galtzean, Tenplarioek Europarantz jo zuten behin betiko eta bertan finkatu ziren.

XIV. gizaldiaren hasieran Europako erromes bideak, hau da, Europako bide guztiak bere kontrolpean zeuzkaten eta Frantziako banku gehienak ere bai.

Arrazoi hauek zirela eta gorrotorik beltzenak sortu ziren Ordena honen aurka.

Frantziako Felipe "Ederra" zeritzanak gertatu zuen Tenplarioen hondamendia, Floriango Eskiuinen gezur testigutzak oinarritzat hartu eta epaiketa gogorrenak prestatuaz.

Oinaze eta torturarik zitalenen artean, tenplarioek beren buruen aurkako aitormenak egin behar izan zituzten.

1307an, epaiketa lotsagarri batzuen ondoren, gaizkileak bezala espetxeratu zituzten.

1312an Klemente Vak bula baten bidez Ordena desegin zuen. Tenpleko buruak eta buruzagiak Parisen erre zituzten.

Heriotza, desohorea sua eta burnia ez zitzairen nunbait nahikoa tenplarioak zigortzeko haien etsaiei.

Bazter guztietan hiltzaile, lapur eta gizon gaizto sona zabaldu zitzairen eta izen garbia kendu.

Gezurra badirudi ere, Zegaman, tenplarioen prozesutik 684 urtetara, orduan ezarri zitzairen fama txarrak irauten die oraindik.

Ikusi bestela ondorengo ipuinak.



San Adriango lapurra

*35. San Adriandi barrena mandazai bat mentzijen mandoa urrez kargauta zola.*

*Atzeti norbeitik seitzen tziola konturau zan mandazaie, baño aurea seitu zon.*

*Alakon baten Opakua gañea allau zanen, seitzen tzetorkionak "alto" bota zion manda-zaiei ta dirûk eskau.*

*Mandazaiek txoakilloa mandoi kendu, lapurre jo burun da ill ein tzon.*

*Lapurre Santi Espituko frallea izatea gertau zan.*

*Orduti galdu mentzan Espitu Santuko kombentue.*

Santi Espirituko frailea

36. *Aratz azpiñ, oañ arrik daren bezela, lênao mea o burni gai pusketak mentzeren.*

*Beñ olagizon bat ai mentzan burnie biltzen.*

*Santi Espituko pralle'atek ori ikus tzonen, aballan arri'at ipiñi ta tiau, jo burun da seko utzi mentzon gizona.*

*Fralle ok etzuen errukik pobrekin.*

*Espitu Santuko prallek gizon txarrak mentzien.*

*Bernardino Asumendiri aspaldi entzuna.*

### **Ipuin Idatziak (erdarazkoak)**

Jadanik ikusiak ditugu Zegaman ahozko literaturan gorde diren zenbait lapurren ipuin.

Herriaren oroitza, gauza guztiak bezala, mugatua denez, mendi bakarti eta eremu zora-garri hauetan, zihur nago ezagunak zaizkigunak baino lapur gehiago ibiliko zirela.

Lehen aldiz paperetan ageri zaigun San Adriango lapurrei buruzko agiria 1450ekoa da.

Urte hartan, Abenduaren 19an, Partzoneriako partaideak *Sandratiko* haitzuloan bildu ziren eta lapurren aurkako erabaki gogorrak hartu zituzten bertan.

Jarraian, kondairak gorde dizkugun lau lapurreta. Gehiago ere egon litezke han-hemen-ka artxiboetako ezkutuetan.

Nik hauek bakarrik bilatzeko aukera izan dut.

Sandailia<sup>28</sup>

Solíanse acoger los Lacayos de todo el Bascuence a Oñate, a Sancho García de Garibay, y estos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía [=les diese para beber]. Y como no les daba, le quitaron de su dinero, y después se quejó al Corregidor y a toda la Provincia, los cuales enviaron al Merino maior con mucha gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho García y sus Lacayos, los cuales huyeron a la Cueva de Santa Iliá, y allí los cercaron; y esta cueba tiene una puerta quasi media legua de distancia y por allí les proveyan de todo lo necesario sus amigos con un criado que se llamaba Zalagarda, y se compuso entonces este cantar:

Ala Zalagarda  
Zalagarda mala  
Zalagarda gaisto  
Oñaztarra oondaco  
Ardao zuri, ardao Madrigalga,

28. MICHELENA, Luis: *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid 1964, Minotauro, 92-93 or.

Ardao zuria Mendoza gana doa,  
Alabana Sandayli gogoa,  
Zalagarda Sandaylira doa.

Este Mendoza era Merino mayor; y el vino que para él iba, cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de Santa Iliia. Toda la Hermandad los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataron la torre de torresnos de tocinos gordos y los asaron, pensando que con aquella manteca y grasa les abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron y entonces se compuso este cantar:

Sanda iliac atrac ditu zizarrez  
Nola zizarrez da ala zendalez  
Hermandadea arcandoa negarrez  
Anso Garcia é gasteluori emunez  
Ec envinda estiquicha esan ez.  
Lascavarroen y esataco lastorra  
Lascavarro costatuan onela  
Gavaz ere urtunica obela  
Argui izarroc ditugula candela  
Ostatuan guera diro igu emenda.

Floranesek Doctor Puerto Hernanirengandik jasoa.

#### El Correo de su Majestad<sup>29</sup>

El día 20 de Agosto de 1717, D. Lorenzo de Uribarri, Correo de S. M. había atravesado el Puerto de San Adrián y bajaba hacia Cegama. Venía de la Corte de Madrid con la valija de S. M. y se dirigía para la Ciudad de Bayona. Le salieron tres hombres: el uno con pistola y descubierta la cara; y los otros dos con escopetas y cubiertas las caras, el uno con un pañuelo de lienzo blanco, y el otro con pañuelo de color tabaco. Después que vio al primero, quiso aparecerse con ánimo de defenderse, pero uno de los enmascarados le descargó un golpe terrible que le echó en tierra. Le ataron manos y pies y le cubrieron la cabeza con la casaca que traía. Y le registraron calzones y toda la ropa y faldriqueras, y le quitaron 21 doblones de plata de todo género. Y después le ordenaron bajo graves amenazas que no se moviese durante una hora, y que, por si las moscas, guardó fielmente lo mandado. Y luego encontró ambas valijas en tierra, y la menor cortadas las correas, “de donde llevaron una caja en que llevaba agua en ella para la Reina Viuda, de dicha ciudad de Bayona, y que reparó en el ínterin que estuvo echado, que luego que agarraron dicha caja, dijo el uno de ellos a los otros, que marchasen porque allí estaba, lo que habían menester, hablando castellano cerrado.”

---

29 Archivo Histórico de Protocolos de Oñate. Azpeitia. 1538 zenb. 32 folioa.

30 Archivo Histórico de Protocolos de Oñate. Azpeitia. 1545 zenb. 1 eta 15 fol.

El Correo del Obispo de Reims, Embajador Extraordinario<sup>30</sup>

El día 6 de Enero de 1748, Francisco Muñoz, “Correo del Ilustrísimo y Rdmo. Sr. Obispo de Reims, Embajador Extraordinario del Reino de Francia”, declaró ante Francisco de Arza, Alcalde de Cegama, que habiendo llegado a media noche a Galarreta, donde se hallaba la última posta de Alava, procedente de la Corte de Madrid y para continuar a la Corte de Francia, tomó en este pueblo de compañía dos hombres, a una con el postillón, todos armados, llamados Francisco Lopez de Gereñu, Miguel Sáez de Araoz y Francisco Martínez de Alegría y salieron hacia el Puerto de San Adrián; que antes de llegar a este punto, les salieron dos ladrones “metiendo entre ambos una bulla que parecían eran más de diez”; que uno de los ladrones con un palo iba a sacudir al postillón, y al mismo tiempo uno de los acompañantes, Francisco Martínez de Alegría, con toda rapidez le tomó el golpe con su escopeta, y en este tiempo el otro compañero le disparó, y “aunque prendió en la “casoleta” (cebo), no penetró el fuego en el cañón”. Los tres se abalanzaron sobre el agresor y pudieron quitarle el palo y después de haber luchado con él un buen rato, le mataron a palos y con los cañones y “culatras” de sus escopetas. Durante la refriega el otro ladrón agarró a las bridas del caballo del Correo y le tiró para abajo. Este “le disparó al mismo tiempo dos pistolas que llevaba; ninguna de ellas le prendió”. El segundo ladrón aprovechó la ineficacia de las pistolas del Correo para darle un garrotazo y envolverle con el manto, incapacitándole para toda defensa. Temiendo por la vida, le pidió con lágrimas que no le matase, pues ya le entregaría todo el dinero que tenía. Sacó dos bolsas que llevaba y se las dió, la una con 20 dobloncillos de a 20 reales y la otra con 12 escudos de plata de 20 reales. Declaró el Correo que después que le quitaron los dineros, que se alejó el ladrón: sin duda, añade, “oyó algo de lo que decían en vascuence los hombres y el postillón sobre el primer ladrón muerto.

El carnicero de Cegama<sup>31</sup>

El día 5 de Diciembre de 1768, Martín de Ugarte, abastecedor de carne de Cegama, había salido de Galarreta por el Camino Real de San Adrián con su caballo, cargado de 8 arrobas de sebo y vestido, sin duda, con las mejores prendas que poseía. Antes de llegar a San Adrián vió a dos hombres, de unos 35 años, el uno alto, con una marca debajo del ojo izquierdo, y el otro bastante regordete. A la pregunta, ¿que gente tenemos? Ambos individuos respondieron: “Gentes de paz”. Pero apenas habían pronunciado sus palabras se abalanzaron sobre él. El uno le cogió del puño y le colocó sobre el pecho un puñal, con la amenaza de matarle, mientras que el otro sostenía al caballo. Temeroso el carnicero, entregó todo el dinero que llevaba, que eran 42 pesos, incluso “los cuartillos de calderilla”. Luego le maniataron y vueltas las manos por la espalda bien ligadas, le desviaron del camino. En tanto que el uno le registraba las cosas que llevaba, el otro le desnudó de los vestidos: de camisas de lienzo de Tarazona, con broches de plata valenciana, de paño de

---

31 Archivo Histórico de Protocolos de Oñate. Azpeitia. 1550 zenb. 119 folioa.

Chinchón, con botones de seda; zapatos con hebillas de plata con tres onzas de peso, etc. etc. Y al mismo tiempo el ladrón se vestía con todas las prendas que le arrebatara, colocándole a él vestidos ajados que traía. Y luego le derribaron, vueltas las manos atadas y ligadas hacia atrás, y le ataron el pie izquierdo a las manos, tirándole con mucha fuerza, tapándole la cara con una capa. Y se despidieron amablemente con el saludo: "Agur, paisano" ".Aquí le dejamos el caballo para que mañana pueda ir a su casa". Pero el agredido no vio más el caballo.



#### IV. KAJA URREAREN IPUINAK

“Txerri goseak ezkurra amets”, esan ohi da. Gaur loteriarekin bezala, garai batean kaja urrearekin egin ohi zuen amets jendeak.

Amets hauek aspaldikoak dirudite. Erdi aroan gure dolmenik gehienak hautsi zituen jendeak, zorioneko kaja urrearen bila.

Kajaka omen dago urrea mendian, han-hemen, gerrateetan edo gordeta. Bilatzen jakin behar.

Gaur oraindik Zegaman bizi diren asko, gauz ilargiaren argitan aitzurrean jardunak dira urre bila, ixilka, inork ikusi gabe, altxor maitearen bila.

Diruarekin adina Jaungoikoarekin pentsatu bagenu gizonok, mundu hau zero handi bat izango zen ia aspalditik.

*Egurtzeko Joane (I)*

37. *Karobie eiten aitu mentzan eun guztiñ Egurtzeko Joane.*

*Gauen arrebai esa'mentzion.*

*—Neska, geio lanik ein bearrik etzeukiñau. Kaja urrea billa 'iñat.*

*—Eztek egie izango!*

*—Bai, Txaparrin billa'iñat eta bertati Aizkorriko Kûtzea ikuste'en.*

*Urrengo eunen Joane, bê launekin, karobie eitea jun tzan.*

*Karobiñ arkue ezin tzon eiñ argiñek eta Joane pikotxen jarri mentzan arkui eusteko. Giltzarrie jartzeko momentun, arkue eroi ta arrik azpiñ artu zuen Joane, ta bertan lertu ta il tzan, bê asmo ta amets ta guzi.*

*Jendea gauen illargitan askotan ibilli iza' menda urre billa Txaparrin.*

*lñok ezto ezer billau oañ arte.*

*Bernardino Azurmendiri askotan entzuna.*

*Kaja urrea (II)*

38. *Aizkorriñ ardik larren diamantea zapalduz mendaitze.*

*Artaiek, aleñek eiñati ez tue diamante ori billatzen.*

*Bedaioi Aizkorrrondon urrea billau mentzon baño jasotzea juteako ill ei' mentzan.*

*Bedaion urrea Urtzelaitati ikuste'menda.*

*Jose Alustizari 1981-7-5ean jasoa.*

*Kaja Urrea (III)*

39. *Arrabiolako paren kamiñon, eun baten gizon bat geau mentzan kamiño 'aztarren.*

*Poltsikoti papel pusketa 'at etâ ta denboratan kontuk eiten eo' mentzan.*

*Alako ordutan da lekutan da eunetan, euzkik jotzen tzon lekun beitu zon da kaja urrea billau ta ju'mentzan.*

*Jendea arrituta utzi zon.*

*Inazio Urbizuri 1980-8-3an jasoa.*

*Kaja urrea (IV)*

*40. Zumitz Urkullu gañen do Ojaola. Beñ Ojaolati bêra zetortzen*

*Antzaza ta Goiene.*

*Goienek Antzazai Frantzin tzelleneko gertakizun au kontau mentzion.*

*—Ni Frantzin nellela, gizon bat billau nian sekulako premiñ.*

*Erreal bateati sekreto 'at aindu zerean. A ze esan tzien.*

*Ojaolako zulon kaja urrea ziola. Arkazi'at ikusko nola espartsu soka'at bueltan lotuta zeukena. Arbolen azpiñ aurreaxio losa'at tziola ta losa orren azpin kaja urre 'at.*

*Beida jarri zien da arkaziñ espartsu sokea ikus tzuen da aurreaxio losea re bai.*

*Bi gizonak losea jasotzen asi zien da Antzaza gerrin zartarea ein tzikola ta lurrea eroi zan.*

*Goienek Antzaza etxea eamanda utzi zon.*

*Urrengo goizen jun tzikon Goiene Antzazai, Ojaola jun bear tzueta ta, baño Antzazak gauze etzan papela ein tzion.*

*Aizkenen, astelenen goizen goiz Ojaolâ jun tzieneako, anai bik, Antzazak eta Osintak kaja urrea billau ta jasota zeuken.*

*Goiene aua bete ortzekiñ utzi zuen.*

*Inazio Urbizuri 1981-4-7an jasoa.*

*Kaja urrea (V)*

*41. Oltzen, kueba'aten, kofre'at mentzion urrez beteta.*

*Kuebea seguro zein dan iñok eztaki.*

*Muñoko Dominika' zionez, kofrea aspaldi eama'mentzuen.*

*Besta 'atzuk oaindio an dola esaten due.*

*Ramona Azurmendiri, 1993-6-18an jasoa.*

## V. Musasorozarra Zegaman<sup>32</sup>

42. Zeamako ipuinetan, erriko etxeik zârrana Musaso zala esaten due.

Musasoko lêngengo biztanlek Jentillek mentzien.

*Dilubion ondon, Jentillek etxebizitzak menditan ein tzituen, dilubio berrin bat etortzen bazan ê, Musason, Sâdarren, da Santi Espitun jarri zien batez ê bizitzen.*

*Santi Espituko Jentillek eta Sâdargok asarratzen tzieneren, mendi'ateti bestea arrika aitze'mentzien.*

*Santi Espitun mendare enterrauta Jentillek.*

*Jentillek sarri aitzen tzien pelotan, Aizkorri frontoitzat eta Arri Aundi pelotatzat artuz.*

*Jentillek kastau zienen, Musason abadea jarri zan bizitzen.*

*Gaur Zeaman Elizea don lekun, garai artan altzak eta txarak bakarrik tzeren.*

*Musasoko abadek mezea Andutzako Elizan ematen tzon.*

*Abadea mezea ematea eskopetekin da goardikin juten tzan.*

*Zeaman garai artan otso asko zion da basoz estalita zeren mendik.*

*Eduardo Irastortzari 1980-6-9an jasoa.*

Musasoroko abadea (I)

43. Musasoko abadek kalendarioik ez ta jaie noiz tzan jakiteko, eunen saski 'at eite mentzon.

*Seigarren saskie eiten tzonen, urrengo eune jaie zala bazekin da Andutzâ mezea ematea juten tzan.*

*Garai artan Zeaman baso aundik tzeren da otso asko zion da bâzpare goardie ta esko-petea eamaten tzitun.*

*Eduardo Irastortzari 1980-6-9an jasoa.*

Musasoroko abadea (II)

44. Musasoko abaden sankristaue, eun baten, Maiñamendi aldea ju' mentzan egurretâ.

Abadek galdetu mentzion.

—Nun izan aiz?

—Maiñamendiñ otaka'atzuan billa, labe sue eiteko. Aizu-esa'

mentzion sakristauek abadei, sâtsa loran do ta garizumea ez teu ia urrutiñ izango.

---

32. Musasoro.

—Garizumea ba ote diau bâ? Jun ai Tolosa aldea, or jendea gu baño aurreago ibiltze'ek, jaki' zak Garizuman noiz sartzen gan.

Sankristaue Tolosâ allau zanen, orduntxe ai mentzien aste  
santuko prosesioa eiten.

Sankristaue Zeamâ bueltau zan da abadei ikus tzonan kontu eman tzion.

Abadek esa'mentzion:

— Motell, aurtengoa jun dala kontu, guk datorren urten ein bearko diau Garizumea.

Eduardo Irastortzari 1980-6-9an jasoa.

Musasoroko abadea (III)

45. Musasoko abadea asto gañen ju' mentzan beiñ Andutzâ mezea ematea ta abadea mezea ematen ai zan bitarten, astoa Dînti aldea larren jun tzikon.

Astoik agiri ez ta azalduko zala ta abadea oñez ju' mentzan  
etxea.

Bitarten astoi otsoa azaldu zikon.

—Jan ein bear aut —esan tzion otsok astoi.

—Itxoizak pixka'aten, Andutzan mezea entzuten utziek ondo iltzeko —astok otsoi.

Astok mezea entzuteko permisoa artu zonen, Andutzako Elizan sartu ta atzeko bi anka-kin jo ta Elizako atea itxi zion otsoi.

Elizati astok otsoi ola kantatze mentzion.

Otso zârra gazie,

gaztetan gaizki azie.

Gero jango banauk ere

Seguro diat bie.

Otsok astoi.

Asto zârra mukizu,

sobre ta geio dakizu.

Urrena ikusten tzaituanen

mezaik entzungo ez tezu.

Eduardo Irastortzari 1980-6-9an jasoa.

Musasoroko abadea (IV)

46. Musasoko abadek, esan deun bezela, sei saski eiten tzitunen jakiten tzon jaie noiz tzan.

Beiñ aste barrun, neskamek saski 'at arrapau zion ixilka saltzeko.

Aste artan jaiko partez, astelenen jun mentzan Musasoko abadea Andutzâ mezea ematea.

Eduardo Irastortzari 1980-6-9an jasoa.

## VI. IPUIN FILOSOFIKOAK

San Joserren ipuina

47. *San Jose zârtuta ezkondu mentzan.*

*Egitoa mentzizon Jesus umea besotan tzola ta asto gañen, Ama Birjiñek biai seitze'mentzien oñez aston atzeti. Ama Birjiñek Jose zârra zala ta gizonai utzi zion asto'gañen jûtea.*

*Jende guzie San Joseati gaizki esaka ai mentzan.*

*—Ori gizon kaikue, bera asto gañen da andra gaxoa oñez zemarrek.*

*San Josek Ama Birjiñea asto gañen ipiñi ta bera oñez asi mentzan ibiltzen.*

*—Ori emakuma errukigabea, —esate'mentzon jendek, bera asto gañen da agure zârra atzeti oñez.*

*San Josek esa'mentzion Ama Birjiñei:*

*—Beida Maritxu, emen gizonan gustoik eiteik ezto ta ein dezaun Jangoikona.*

*Justo Aldanodori 1996-3-18an jasoa.*

Lurraren lanak

48. *Jangoikok mundue ein tzonen, lurrei ala esa'mentzion.*

*—Landarak, animalik eta gizonak i ao mantendu bearren.*

*Lurrek lan ori bêtako geiegi zala esan tzion.*

*Jangoikok kontestau mentzion:*

*—Bai ori dana lan aundie dek itako, baño aizkenen danak eorrek jango 'ituk.*

*Inazio Urbizuri 1981-9-5ean jasoa.*

Mundua nola egin zen

49. *Jangoikok mundue ein tzonen, abadea, prallea ta baserritarra ein tzitun.*

*Abadea jun tzikon lînbi eskabidekiñ.*

*—Ze nai dek? Galdetu zion Jangoikok.*

*—Bizimodu ona.*

*—Artu zak ba, iñok oaindio etziek eskau ta.*

*Laxter prallea re an etor mentzikon gizajoa, Jangoikoi bizimodu ona eskatuz.*

*—Bizimodu ona abadek eaman dik, esan tzion Jangoikok, ik pazientzikin konformau barko'ek. Pazientzikin naikoa trixte erretirau zan pralle gizajoa komentua.*

*Aizkenen Baserritarra etor tzikon Jangoikoi bizimodu onan billa.*

*Jangoikok esan tzion:*

*—Abadek eaman dik.*

*Baserritarrak ordun pazientzie eskau zion.*

*—Pazientzie-esan tzion Jangoikok-prallek eaman dik. Iri lana emango diat bi alper orik mantentzeko.*

*Au dala ta baserritarrak ainbeste lan ein bear izate'mendo.*

*Jesus Mazkiarani 1981-2-8an jasoa.*

Gizona, astoa eta txakurra

*50. Jangoikok mundue ein tzonek, lendabizi gizona, astoa ta txakurre ein mentziton.*

*Bakoitzei berroeiña urteko bizie eman tzien.*

*Astok, astoa izatekotan ogei naikok tzitula esan tzonek.*

*Gizonak astok nai etziton urtek eskau zion Jangoikoi ta onek eman ein tzion.*

*Txakurrek ê, ogei naikok tzitula txakur izateko ta beste ogei urtek nai zitunandako utzi zitun.*

*Ogei urte orik ê, gizonak Jangoikoi eskau ta onek eman ein tzion.*

*Orreati gizonak, lêngengo berroei urte' titu gizonanak.*

*Berroeiti iruroeira famillie kolokauko bo sekula baño lan*

*geio ein bear izaten do ta urte orik astonak eo astoi artutakok menditu.*

*Iruroeiti laroeira, gizona gizatxartuta ta eozin gauzakati armonin da muturka ibiltzen dala-ko, urte ok txakurrei artu' tiela esaten da.*

*Jexux Mazkiarani 1981-2-8an jasoa.*

Zapoaren eta satorraren tratua

*51. Oañ urte asko, zapok begik ez mentzeuken da buztan luzea lurren tarraka zola ibiltze mentzan.*

*Satorra beiz, sekula argik ikus bê ta lur zamarrak begitati etâ ezinda zellen lurpen.*

*Bein bik tratu'at ein tzuen.*

*Satorrak zapoi lurpen bear etziton begik eman tzion da zapok berak bear etzon buztana satorrai.*

*Tratukin bi animalik gustora geau mentzien.*

*Frantzisko Azurmendiri 1981-9-5ean jasoa.*

Gurasoekin nola portatu

*52. Etxe 'aten bein, semek atte zârta ospitalea eamatea erabaki zion, danandako asko bear tzala ta.*

*Atte zarra ta ezin tzan ibilli ta semek bizkarren artu zion.*

*Ibillin seme ori re nekau zan da arri'aten gañen jarri zan deskantsatzen.*

Atte zârrak ordun nearrai eman tzion.

—Atte ospitalea nemarrela ementxe deskantsau nitzean ni re.

Semek ori aitu zonen, atte bizkarren artu ta beiz e etxea eama' mentzon.

Jose Alustizari 1981-8-7an jaso.

Erregeren zaldia

53. *Bein erregei zaldie akâu zikon da esa'mentzon abixo ori berai ekartzen tziona ill eingo zola.*

*Amorratue, aitu bearko 'ik pâ abixoa neuk esanda, esa' mentzon soldadu 'atek.*

*Jun tzako ta ala esa'mentzion erregei.*

—Zue zaldie etzanda do.

—Ta zer?

—Sudurreti eulik sartzen tzako ta ipurditi irten.

—Ordun akauta eongo 'ek?

—Zeuk esan dezu dana.

—*Koño, esa' mentzon erregek, au baño tontogok bazeuzkiat nê ingurun, da ministro ei' mentzon.*

Eduardo Irastortzari 1980-8-9an jaso.

Salomon erregea

54. *Salomon errege izatea allau mentzan.*

*Atte oso ganadero aberatsa zon da asko matte mentzon.*

*Askotan bialtze' mentzon morroien ê bat atte nola zion ikustea.*

*Bein Salomonek esa'mentzon:*

—*Nê atte il dan abixoa ekartzen diena ill eingo 'et.*

*Atte orire noizpait il mentzan.*

*Iñor ez mentzan atrebizen Salomoni berrie ematen.*

*Euskaldun batek esa'mentzon:*

—*Neuk esango zioat.*

*Ju' mentzan Salomoneana ta esa'mentzion:*

*Asteliñaute il bera.*

*Asteartiñate il berri.*

*Ire atte eztek ez gose ta ez egarri.*

—*Beraz il dek.*

—*Ori beorrek dio.*

Joxe Alustizari 1995-3-20ean jaso.

Errege gaiztoa

55. *Erri'aten oso errege gaiztoa zeuken. Jende guzie erregea ilda ikusteko deseatzentzian.*

*Andra xâr batek bakarrik errezatze mentzon eunero erregea ill etzeiñ.*

*Erregek au aitu zonen, andra ori bê aurea ekartzeko aindu zon. Erregek andrei galdetu zion:*

*—Jende guzik ni iltzea nai do ta zuk zeati errezatze`ezu ill ez naiñ?*

*—Beitu jaune, kontestau zion andrek, nik zue attona ezautu non. Gaiztoa zan oso ta danok ilda ikus nai gendun. Aizkenen il tzan da zue atte jarri zan aintzen, zue attona baño askoz okerragoa.*

*Gero zue atte iltzea nai gendun da eaman tzon ura re gue Jangoikok. Urrena zu etor tziñen aintzea ta aureko bi' paño okerragoa zâ. Jakizu oan zeati eunero errezatzen dian zue osasunen alde.*

*Jesus Mazkianani 1981-3-4an jasoa.*

Errege probintzialak

56. *Españiñ errege probintzialak eon tzienen, aizkenekoa, moroa*

*Granadan eon mentzan.*

*Palazion aurren emakuma txarrân etxe 'a' tzion da askotan autza juten tzan erregea. Bein maritxu<sup>33</sup> âtako 'atek ala esa' mentzian.*

*—Or ondon daren pralle orik, (gertun komentu 'a' mentzian) emendi biali beaitzezu, jan besteik eztue eiten da.*

*Erregek ori zalle zala esaten tzon baño maritxuk esan tzion iru galdera eiteko pralleai, emateko illabeteko astie asmatzeko*

*ta asmatze' ezpazituen, bialtzeko andi.*

*Iru galderak o' tzien.*

*I) Nik zembait balio diat?*

*II) Zemait denboran mundui bueltea emango niokek?*

*III) Zer tzeukiat burun?*

*Galdera ok biali zitun komentua, illabeten barrun eantzuteko ta kontestazioik ezpazan, prallek Granadati irten bearren tzeren.*

*Illabete ortan aztorauta ibil mentzien pralle gizajok, iñok jakintsuanak ê ez mentzon ezer asmatzen.*

*Gernikako lego'at ba mentzian komentun da ala esa'mentzon:*

---

33. *Maritxu* Zegaman emagalduaren eufemismo bat da.



—Nik erantzungo diet erregen galderai.

*Erregei erantzuteko eune allau zanen, lego orrek jantzi 'o nausiñ abitue ta irten dio tokatzen tzan bezela erregei.*

—Nê galderak pronto al dare? Galdetu zion erregek.

—Baietz.

*Erregek galderak asi zitun.*

I) Nik zemait balio diat?

—Jesukristo oi ta amar diru zillarretan saldu zien, da ire balioa geianea jota oi ta beatziñ utzi leikek.

II) Zemait denboran mundui bueltea emango niokek?

—Euzkin gañen jartzen baiz oi ta lau ordun.

III) Nik zer tzeukiat burun?

—Ik ni emengo nausie naizela daukek burun sartuta ta izatez komentuko legoik tontoana nauk.

—Au tontoana bek, esa' mentzon erregek, ze izango ete 'ek listoana?

—Noan emendi ta pralleai paken utzi ta andi alde' mentzon.

*Eduardo Irastorzarri 1980-6-9an jasoa.*

Astoa

57. Jangoikok mundue ein tzonen, animala guztiai, bakoitzei tokatzen tzikon izena jarri zien.

*Andi denboratâ, animala guzik beiz bildu zitun Paraison da bakoitzei bê izena galdetu zien, baten batek aztu ete zon jakiteko.*

*Astona allau zanen, astoa etzan bê izenakiñ akordau ta —âztu ein tzat— esan tzion Jangoikoi.*

*Jangoikok ordun esa'mentzion.*

*Aztu e? Emendi aurrea "aztua" izango 'ek izena.*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jasoa.*

Belearen hesola

58. Artzai zeren bi motiko atsalden. Talok etâ zituen kolkoti merindatzeko.

*Esola'aten gañen belea ikus tzuen, aren atzeti abiau zien baño, arek ies ein tzien.*

*Motikok okelea eon tzan lekun koipe pixkân bat geauko zala ta esolan igortzi zuen taloa, jan baño lèn.*

*Etxea jun tziennen amai pasaizoa kontau zien da amak bijili eune zala eun ura ta konfesa-tzea bialdu zitun.*

*Emendi mendatorre esaerea: Ori belea eondako esolea baño obea zioik.*

*Eduardo Irastorzari 1981-3-6ean jasoa.*

Zorritsu

*59. Andra'atek gizonai zorritsu otseiteko oiturea zeuken, da gizonandako beiz ez men-tzion itz orre' paño amorru aundigoik ematen tzion gauzaik.*

*Amaika bizkarreko ematen tzion gizonak baño alperrik, arek beiz ê zorritsu ta zorritsu.*

*Eun baten andrei eldu ta bozaderan gerriaño sartu zon, beiz zorritsu esaten bazion bertan itoko zola ta.*

*Zorritsu ta zorritsu atsoa ala re.*

*Okotzeaño uretan sartu ta atsok igoal, zorritsu ta zorritsu.*

*Sartu ezpañetaño ta berdiñ.*

*Eldu mototi ta sartu mentzon uretan buru ta guzti ta glu, glu, glu... eñez, beatz audita-ko bi azkazalak bilduz, zorrik iltzeko plantea eite'mentzion gizonai.*

*Ala il mentzan atso ura bereti irten bê.*

*Jexux Mazkiarani 9-5-1980ean jasoa.*

Satorra eta trikua

*60. Bein satorra bê zulon tzion, bero bero.*

*Negue zan da sekulako izoztea ai zon.*

*Triku'at etor tzikon, ia izoztuta ta leku pixka'at bê ondon eiteko erreguka.*

*Satorrak lekue ein tzion.*

*Ontan, satorrak lo artu zonen, trikue aztarketan asi zan oia eiten, buelta ta jira<sup>34</sup>.*

*Sator gizajoa zulau eiten tzon trikuk bê ezten tzarrakin da miñ ematen tzion.*

*—Autzago jun ai, miñ ematen diek, esaten tzion satorrak: — Eztiék bizitzen uzten.*

*—Ni ondo niok —kontestau zion trikuk, —gaizki bao jun ai nai dian lekua.*

*Sator gizajok biziko bazan, bê zuloa utzi ta izotzetâ irten*

*bear izan tzon.*

*Frantzisko Azurmendiri 8-9-1980an jasoa.*

---

34. Ohean trikuak baino buelta gehiago ematen ditu horrek, bat ohean asko mugitzen bada, esan ohi da.

Kamineroa

61. *Kamiñero'at bein, lanen nekau ta deskantsatzen jarri zan.*

*Alkondarea atxur kirtenân gañen zâldu ta izardie leortzen jarri zon.*

*Erregea andi pasatzea suertau zan zaldi gañen da deabrue beti jolas txarrak eiten nola dallen, aize bolara'atek atxur kirtenen tzion alkondarea moitu zon da zaldik iruipenen<sup>35</sup> bat artu ta erregea lurrea bota zon.*

*Erregek lurreti jaiki zanen galdetu zion kamiñeroi:*

*—Nola zioan or zapi ori?*

*—Izarditan busti ta leortzen jarri'et jaune. Kontestau zion Kamiñerok.*

*—Ikuste'ek ze itxuratan geau naizen? Erregek.*

*—Beitu kamiñero.....esan tzion erregek —geio ez aiz sekula izardituko, aitze 'ek?*

*Ordun Erregek bando au eman tzon:*

*—Todo kamiñero sudau,*

*Será fusilau.*

*Arrazkio kamiñeroik ez menda izarditu.*

*Jesus Mazkiarani 7-8-1980an jaso.*

Erregeren alaba

62. *Erregen alaba beiñ ia illen mentzion.*

*Meikuk konforme bizi zan pertsona 'aten alkondarea jantzita sendauko zala, esa'mentzion erregei.*

*—Ori errexa 'ek, esan tzon erregek, —ori besteik bear ezpô alaba laster sendauko diau.*

*Morroiai enkargu au eman tzien:*

*—Billau zue Palazion gustora bizi'an bat da eskaiozue soñeko alkondarea.*

*Morroiak ministroai asi zien ia konforme bizi zien galdezka.*

*Batek baietz esaten tzon baño semekin disgustok zeuzkela.*

*Bestek baietz konforme bizi zala baño andren menden.*

*Besta'atek baietz konforme baño zartzen tzijola.*

*Aizkenen beintzet erabat konforme bizi zanik etzuen billau palazion.*

*Munduz mundu asi zien morroiak, konforme bizi zan gizonan billa.*

*Aizkenen, mendi izkutu 'aten gizon bat ikus tzuen ikatza eiten.*

*—Orrixe galdetu bear tzioau, konforme bizi 'an.*

---

35. Zaldiek edo astoek izaten dituzten kasketei Zegaman irudipenak deitzen zaie.

—Bai zea, ori nola biziko'e' pa konforme? Esan tzion bestek; ikazkiñe ta konforme?

—Motel eztek bate kostatzen da galdetzea nijok ni beintzet.

Galdetu zien ikazkiñ orri ia konforme bizi zan da ikazkiñek:

—Baietz oso konforme bizi zala bera, etzeukela ezen faltait.

Ordun erregen morroiak ikazkiñei alkondarea kentzen asi zien baño etzeuken alkondaraik ikazkin gizajok, bluxazâr bat besteik etzemarren jantzita.

Erregen alaba gaxoa ill ei' mentzan.

Franzisko Azurmendiri 9-6-1980an jasoa.

Erregeren aurpegia

63. Bein, mendi baztar baten, ikazkin bat bizi mentzan, andrea, gurasok eta seme-ala-bakiñ.

Erregek beiñ, eizen tzellela, familli arekin topo ein tzon, da ikazkiñei nola bizi zan galdetu zion.

Ikazkiñek oso ondo bizi zala kontestau zion, taloa ta babea jaten tzitula, ta iturriko ur garbie eraten tzola.

—Zemait irâzte ezu, galdetu zion, erregek.

—Eunen bi erreal irâzte`it, illen aizkenen iru duro.

Ain diru gutxikin nola bizi zan, galdetu zion erregek.

—Beitu jaune, kontestau zion ikazkiñek, nik diru onekin nê familie mantendu, ta gañea zorrak pâu, geroko dirue gorde, ta sobratzen tzatena leiotti botatze`et.

—Erregek ori nola zeiken, galdetu zion.

Ikazkiñek erantzun tzion:

—Atte ta ama zârrak mantentze`ituanen, zorrak pâzzen ai naiz, alaba`a`tauket, eoziñ eunetan txoriburun batekiñ ezkonduko zat, ori mantentzen dianen, dirue leiotti botatze`et, seme `at ê bauket, da ori mantentzen dianen aurreatze`et dirue. Seme orrek jasoko nau eunen baten, nik gurasok jaso`ituan bezela, o' tie nê kontuk.

Erregek esan tzion ikazkiñei:

—Nekiñ eon aizela ta ze irazten dian iñoi esaten badiok, nê

arpegie beiz ikus baño len ill eingo aut.

Beste' pê erregea bê biden jun tzan.

Erregea minixtrokin bildu zanen, gôr ekin tzion oni:

—Nê erreinu guztiri i ta ire mûko `atzuk ai zate lur jo eraiten, ala ta guziz, ordea, bazeok nê mendekoan arten gizon bat

zorionen bizi `ana, langillea, leiala. Arek zembait irâzten don ik jakitea ta gizon ura bezela nê mendeko guzik bizitzea nai diat.

*Minixtroa gizon orren billa ta billa asi zan, da aizkenen billau zon ikazkiñ ori, bê umekin da andrekiñ ikatza eiten ai zan.*

—Ze irâzte ek? Galdetu zion minixtrok.

—Ez esateko ordenea zeukiat. Erregek bê arpegie beiz ikus baño lân nê irazian berri iñoi ematen bazioat, ill eingo nauela esan zziek.

—Erregen arpegie emen daukek urrezko diru ôtan. Artuitzek diru ok, da esaiek ze irâz-ten dian.

—Erregek kontu artzen baziek ze esan bear tzioat?

—Beitu, erregen arpegie ikus dek urrezko dirutan, itze bete `ek. Erregek ez au ilko. Zemait irazte ek?

*Ikazkiñek minixtroi ze irâzten tzon esan zion aizkenen.*

*Erregen belarritâ laxter allau zan kuebako ikazkiñen kontue, ta amorru biziñ otsein tzion oni.*

*Ikazkiñe ikus tzon orduko asi zan erregea derrepente il bear tzola esanez.*

*Ikazkiñek esan tzion:*

—Jaune, zue arpegie ikus dian arten, iñoi eztiot nê irâzian berrik eman.

—Nun ikus de' pâ nê arpegie?

*Urrezko diruk erakutsiz, kontestau zion ikazkiñek:*

—Diru ôtan Jaune.

*Erregea ordun lasaitu mentzan.*

*Migel Urbizuri 1980-6-9an jasoa.*

Ezkontza haustea

**64.** *Bein Zeamako parrokoï aspalditi ezkontuta zeren andra-gizon batzuk etor mentzi-  
kon: lânao ezkontzaz lotu zitun bezela, beiz apartatzeko eskatuz.*

*Andra-gizonak esaten tzuenez, eren etxea inpernue baño milla  
aldiz okerragoa zan da an bizitzeik etzion.*

*Abadek apartau nai zuen andra-gizonak ezkondu zitun aldaren aurea eaman tzitun,  
berak sotanen gañeti roketea jantzi zon da ixopoa eskutan tzola “Pater noster” ak errezatzen  
asi zan.*

*“Pater noster” bat akâzten tzon bakoitzen, kinki-kanka burun ematen tzien andra-gizonai  
kolpe on bana. Asieran bikotea lasai zion errezoa laxter akauko zalakon, baño abadek segi ta  
segi, lânengo ordubete ta gero bi ta okerragoa, bukatzeko itxurairik ê etzeuken errezo.*

*Errezo ura noiz akâzten tzan galdetu zien parrokoï.*

—Ezkontzek bat ill arten irauten tzola, ta berak errezon seitu bearra zeukela, bitan bat ill arten, kontestau zien.

*Inpernu ura baño etzekoa naigo zuela ta senar-emaztek etxea ju'mentzien.*

*D. Jose Antonio Arakamari aspaldi entzuna.*

### Kamineroaren izerdia

Beñ erregen alabak sekulako gaitz txarra arrapau mentzon da meikuk kamiñeron izardikiñ emandako masajek bear zitula esa' mentzon.

Asi mentzien kamiñeron izardiñ billa.

Ez mentzuen iñun izardi ori billatzeik konsegitu.

Erregen alaba gaxoa il ein mentzan.

Kamiñeroa menda izardik ezton gizon bakarra.

Frantzizko Azurmendiri 1980-3-9an jaso.

## VII. ZEGAMAKO IPUIN BARREGARRIAK

Ipuin hauek, zegamarrei burla egin asmoz, inguruetako herrietan asmatuak dira zalan-tzarik gabe. Seguran sortuak izango dira gehienak. Seguran gizon bat dagoen lekuan, bi jakintsu baitaude.

Galtzeko arriskuan zeudenez, hor doaz idatzirik.

Gehienak oso politak dira.

Zegamako txistularia

65. *Bein, txixtulari 'at ju'mentzan Zeamati Naparroko erri txiki 'atea pestatan txixtue jotzea.*

*Pestak pasau zienen, soldaten partez, zaku 'at gari eman tzien txixtulariri.*

*Erria zetorrela, biden kantsau ta taberna 'atea sartu zan arrantxoia eitea. Bitarten txixtularie konturau bê, xagu 'atek zakue zulau zion.*

*Pixka 'at gosea il tzonen, zakue beiz ê bizkarren artu ta biden abiau zan.*

*Poliki poliki, bera akordau zaneako, garik geianak biden galdu zikon.*

*Etzan bate asarrau, datotzen gari berritan etorko nauk, da lasai asko etxea jun tzan.*

*Urrengo uztaillen itaie artu ta garie galdu zikon lekua jun tzanen, galdu zikon gari dana erne, azi ta ebaitzeko garaien tzion.*

*Ontan basaurde'atek irten tzion gari artea ta txixtularik itaie tiau ta kirtena ipurdiko zulon sartu zion.*

*Basaurde ori asi zan korrikan da itaiekin garie ebaitzen tzon, ankapen jota jaulkita uzten tzon bitarten. Sudurreko aizekin gari dana garbitu zon da aizkenen, zellen zellen, ankakiñ ale guztie bildu zon, txixtularie sekulako garik etxea eaman beste lani' pê utzi zon.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-4-7an jasoa.*

Zegamako frailea

66. *Zeamako Errotorek beste askotan bezela, Antzazuti pralle 'at ekar mentzon San Bartolome eunen sermoia eitea.*

*Neskamek bi eper jarri mentziton lapikon da bazkarie jartzen ai mentzan elizgizonândako.*

*Ontan neskei aixkirea etor mentzikon da kazuelan zer tzeuken da bi eper tzeuzkela ba, ta proatzen asi ta poliki-poliki eper orik jan ein tzituen.*

*Motille jun tzanen neskek bê burue bakarrik billau zon.*

*Larri asko zerbait asmatzen asi zan.*

*Ontan prallea etor tzan da jarri zan maien.*

*Neskek esan tzion:*

—*Beida Jaune, gue nausik oitura'at oso txarra 'auke, maien jartzen danen kotxilloa zorrozten asten bâ, belarrik moztuko dio.*

*Prallea, ze ikus bearko ete zon, larritu zan.*

*Ontan etor tzan Errotorea re etxea, maien jarri ta asi zan bazkaltzeko kotxilloa zorrozten da baita prallea re igesi larri asko.*

*Neskek esan tzion Errotorei:*

—*Orrek bamatze geo eperrak!*

*Apaizek prallen atzeti irten tzon.*

*Bik ezpazien, bat beintzet emateko eskatzen tzion.*

*Prallek belarri'at eskatzen tziolakon, laxter ei' mentzon Antzazuako bidea.*

Santiago Azurmendiri 1981-9-6an jasoa.

Ipuin hau, *Mila eta bat gauak*, arabeen literaturako pitxia den liburuak hara nola aipatzen duen:<sup>36</sup>

“Vivía en El Cairo un hombre cuya esposa era muy conocida por su gentileza, buen carácter, modestia y temor al Señor. Esta esposa tenía en su casa dos pavos muy rollizos y fuera de su casa un amante.

Cierto día, ese amante fue a hacerle una visita a escondidas y vio que ante ella estaban los dos estupendos pavos. Entonces, al despertarse su apetito, le dijo a la mujer:

—Deberías cocinar bien estos pavos, preparándolos del modo más exquisito, para que nos los comamos, pues hoy siento un gran deseo de ese animal.

Ella le contestó:

—Satisfacer tus deseos es lo que yo deseo más vivamente. Por tanto, voy a degollar esos pavos, te los cocinaré y te los llevas a tu casa para comértelos y para que tu corazón se alegre. De este modo el entrometido y desgraciado de mi esposo ni los comerá ni los olerá.

El amante quiso saber:

¿Cómo podrás hacerlo?

La esposa le respondió:

—Voy a servirle algo de mi invención que le deje satisfecho y a ti te daré los dos pavos, pues a nadie quiero más que a ti, luz de mis ojos. Así no podrá ni olerlos ese entrometido.

---

36. *Las Mil y Una Noches*, II. alea, 1985. Ediciones 29, 266-269 or.



A continuación se abrazaron y el amante se fue con la ilusión de comerse los pavos. Al atardecer, cuando el marido regresaba del trabajo, ella le dijo:

—Oh esposo mío, ¿Como puedes pretender el título de hombre, cuando careces de la virtud que caracteriza a los hombres verdaderos, es decir, la generosidad? ¿Has invitado alguna vez a alguien a tu casa o me has dicho alguna vez: (Mujer hoy tendremos un huésped en casa.)? Y tampoco te has dicho a ti mismo: (Si continúo viviendo como un miserable, las gentes murmurarán de mí diciendo que soy un avaro que ignora las leyes de la hospitalidad.)”

El marido respondió:

—Este es el error más fácil de reparar. Mañana compraré cordero ro y arroz para que prepares algo bueno y yo pueda invitar a alguno de mis íntimos amigos.

Ella atajó:

—No, por Alá. En vez de esa comida, prefiero que me compres hachís para hacer una pasta que me sirva para rellenar los pavos, una vez los hayas degollado. Los asaré, pues no hay nada tan sabroso como los pavos asados y relleños, y nada mejor para enorgullecer al anfitrión ante su invitado.

El marido respondió: —Escucho y obedezco.

En este momneto del relato, Scherezada advirtió que se aproximaba el nuevo día y calló discretamente.

Pero cuandio llegó la noche siguiente...

Ella dijo:

—A la mañana siguiente, muy temprano el hombre degolló los dos pavos y fue a comprar hachís y especias, llevándoselo todo a su esposa a la que le dijo:

—Procura que los pavos estén asados al mediodía, ya que a esa hora vendré con mis invitados.

La esposa desplumó los pavos, los rellenó con la maravillosa mezcla compuesta de arroz, almendras, pistachos, uvas y piñones, y envió a su esclava negra a que fuera en busca de su amante, que vino en seguida. La abrazó, correspondiéndole ella y, después de haberse amartelado y satisfecho mutuamente, le mostró los dos deliciosos pavos y él, tomándolos, se fue.

El esposo no olvidó presentarse a la hora adecuada, en compañía de un amigo. Llamó a la puerta, que abrió la mujer muy amablemente, y luego, llevándose aparte a su marido, le dijo:

—Hemos matado los dos pavos pero tu sólo has traído a un invitado. Podrían venir tres o cuatro invitados más para hacer honor a mi cocina. Por tanto, ve en busca de otros amigos tuyos e invítalos a comer.

El esposo, con toda mansedumbre, fue a hacer lo que ella le ordenaba. Mientras, la mujer se acercó al invitado con expresión torturada le dijo:

—Estás perdido sin remedio. —Es que no tienes esposa, ni hijos ni familia para dirigirte de este modo a una muerte segura?

El invitado, al oírla, creyó desmayarse del susto y, sintiendo que el miedo le llegaba hasta lo más profundo del corazón, indagó:

—Oh buena mujer, ¿qué terrible desgracia me amenaza en esta casa?

Ella le explicó:

—Por Alá, no puedo guardar el secreto por más tiempo! Debes saber que mi esposo está muy dolido por tu conducta y te ha traído con el único propósito de cortarte los compañeros y dejarte en eunuco. —Y aún añadió—: Ahora ha ido a buscar a dos de sus amigos para que le ayuden a castrarte.

Ante la revelación de la esposa, el invitado se levantó y, saliendo a la calle, puso los pies en polvorosa. En aquel momento, entró el marido en compañía de dos amigos. La esposa le recibió gritando:

—Los pavos, los pavos!

El indagó:

—¿Qué pasa?

Pero ella se limitaba a gritar:

—Qué desgracia, qué desgracia! Los pavos, los pavos!

El marido quiso aclararlo:

¿Qué les ocurre a los pavos? Dime dónde están! Que yo los vea!

Su esposa le dijo:

—Mira por dónde van! Tu invitado los ha cogido y ha saltado con ellos por la ventana!

En este momento del relato, Scherezeda advirtió que se aproximaba el nuevo día y calló discretamente.

Pero cuando llegó la noche siguiente...

Ella dijo:

—Al oír a su esposa, el marido salió a toda prisa a la calle y vio a su invitado que corría como el viento. Entonces le gritó:

—Alá sobre ti! Vuelve, que sólo te quitaré un pavo!

El fugitivo, al oír sus gritos, imaginó que sólo pretendía quitarle un compañero y apretó el paso, exclamando:

—Quitarme sólo uno? No lo harás tú, lengua de buey! Si me quieres estropear uno de los compañeros, alcánzame!

—Esta es mi historia, oh glorioso monarca.

Aizkorriko punta

67. *Bein zeamar bat trenen tzetorren Ormazteiti gora, erdeldun bat ondon tzola.*

*Izketan asi die ta erdeldunek zeamarrai nungoa zan da onek zeamarra zala ba.*

*Erdeldunek Zeama nun tzion, galdetu mentzion.*

*Zeamarrak burun tzemarren txapela erantzi ta esku 'aten gañen zâl-zâl jarri mentzon txapel ori ta ala esa'mentzion erdeldunei txapela señalatz:*

*—Esto ser mundo: —eta gero txapelan puntea erakutsiz—, esto Aixkorriko punta y aqui abajo Zeama.*

*D. Jose Mari Agirrebaltzegiri 1980-9-7an jaso.*



*Joxepaiñaxi ia hilean*

68. *Joxepaiñaxi izeneko andra 'at mentzion bein Zeaman ia illen.*

*Besteko Joanamari an mentzellen gaxoa, ama zanak ill aurreti zulon baten gorde zon burruntzin billa buru belarri, ama zana il tzaneti.*

*Aspertu zanen, bestekoa jun da ôla itz ei' mentzion iltzen tzion besteko amonatxoi:*

*—Joxepaiñaxi, Joxepaiñaxi, etzâ ilko baño ilko baziñe, etzâ zerua jungo baño jungo baziñe, eztezu ikusko baño ikusko bazendu gue ama, esaiozu papel punta 'at bialtzeko eskrituta, burruntzie nun gorde zon esanez.*

*D. Jose Maria Agirrebaltzegi 1980-9-7an jaso.*

Zegamako eliza nola hazi zen<sup>37</sup>

69. Zeaman elizea txikitxoaz zeukela ta azitzea pentsau mentzuen.

Erri guztiko asto danak bildu ta Urbiti ximaur karreon asi mentzien.

Ardi ximaure ekarri alan, elizako paretei jartze' mentzien lurren, azak eo artok bezela, elizea re aziko zalakon.

Aste oso onson aitu mentzien lan ortan, da aizkenen paetak erdi pareaño ximaurrez estali mentzitu.

Zapatu gauen sekulako eurik ein, da ximaurre urekin bajau ein mentzan, paetatan bajau-nen markak utziz.

Zeamarrak gustora mentzien, ximaurrek eta eurik elizea azi zuela ta.

Erria zetorren jendei elizako paetea erakuste' mentzien, da ximaurren markea, elizea zemaiz azi zan ikus tzezen.

Franzisko Azurmendiri 1981-8-4ean jasoa.

Con un tikili-ton

70. Zeamako kanpantorren sekulako kanpaia mentzion baño bakarra.

Beti kanpai bera jo bear izaten tzan, naiz meza nausin naiz bezperatan, sutea eo agoni-koa bazan ê berdiñ.

Eun baten erri dana bilduta, kanpai bakarraikiñ iru txikigok eitea erabaki zuen.

Gurdin Bitoria bialia due kanpaia, sakristaue itzai zala. Ura mentzan errin erderaz tzekin bakarra.

Fundizioa allau zanen ia ze nai zon bâ ta, bai azkar asko Zeamako sakristauek erantzun ê:

—Con un tikili-tikiliton tres tikili-tikilitones.

Franzisko Azurmendiri 1981-8-6an jasoa.

San Bartolometako sermoia<sup>38</sup>

71. San Bartolome eunen lenao, erriko seme 'atek sermoia eiten tzon Zeaman.

Ara, bein batek nola asi zon berea.

—"Zer dira, Segurako Xanti, Motiloko Pello, Zeraingo Mari, Izalgo Blax ta Gabiriko Roke, gure Arbeleko<sup>39</sup> San Bartolome Aundiarekin konparatzeko?"

Franzisko Azurmendiri 1981-8-4an jasoa.

---

37. Eliza Zegaman hiru zatitan eta hirurehun urtetan egin zuten. Hortik txixte hau.

Zegaman gure zaharrek Urbiako ardiak ximaurre ekarri ohi zuten baratze eta soroetarako.

38. Santiago, San Pedro, Andre Maria, San Blas eta San Roke, Segura, Mutiloa, Zerain, Idiazabal eta Gabiriko zaindariak dira.

39. Arbeleko San Bartolome. Anduezak Elizatxoan arbel gainean egina dagoelako, San Bartolomeri izen hau eman ohi zaio.

San Bartolome bezperakoa

72. *San Bartolome bezpera 'aten, errotorea ta sakristaue Andutzako ermitan santue apaintzen ai mentzien, urrengo euneko prosesiorako.*

*Deskuidon baten San Bartolome ori lurrea eroi ta autsi ein tziten.*

*Urrengo eunen ze eingo ete zuen larri zeren bik.*

*Aizkenen Parrokok gauzea konpontzeko modue billau zon.*

*San Bartolome goizen, sakristaue jarri zon abadek santun andatan, kotxillo aundi'at eskutan tzola. Gañea arpegie eztiz igurtzi zion santun kolorea artu zezan.*

*Prosesioa oso ondo ein tzuen, engañukiñ etzan iñor konturau.*

*Errotorek sermoia asi zonen, sakristaue an tzion tente asko, eskubiko eskun kotxilloa zola.*

*Etsaie ez menda lo eoten da eztiñ usaira erlek etortzen asi zikon sakristauei.*

*Sakristau gizajoa elorrio ikusten ai zan erlek zuela ta etziela. Eskuk moitzen bazitun, benetako San Bartolome etzala konturauko baizan jendea.*

*—Orra, zion sermolarik, orra or Arbeleko San Bartolome.*

*—Beida iozue, bizik dola dirudi, moitzen dala esan leike.*

*Sakristauek erlean miztokaraz aspertuta ala kontestau mentzion.*

*—I re moituko itzeke nê lekun ba eoke.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-9-4an jaso.*

San Bartolome bezperakoa

73. *San Bartolome bezperan bein, sakristauek eta errotorek Zeamako Elizea atsalden apaiñ-apaiñ utzi zuen.*

*Sakristauei Elizea ixtea âztu zikon da gauen aunts bat Elizan sartu, lora guzik jan da baba mordo'at aldara aurren ein da iges ein tzon.*

*Urrengo goizen, abadea Elizâ jun tzanen auntsen babak billau zitun.*

*Sakristaue, otseinda Elizâ ekar tzon.*

*—Ikuste'ek? Ok San Bartolomen erregalo' tituk. Bildu itzek kuidaduz.*

*Sakristauek babak bandeja 'aten bildu ta erlikik bezela gorde zitun.*

*Urrengo eunen, jendea Elizâ etor tzanen, errotorek esplikau zien gaueko erregaloan berri ta sakristauei bandejea ekartzeko aindu zion.*

*Errotorek jendei komulgatorion jartzeko aindu zion.*

*Bandejea artu ta eliztarrai San Bartolomen erregalok aura ematen asi zan, itz ok esanez.*

*Ok eta mok,*

*Aita San Bartolomen erregalok,  
eztie gorputzendako oso gozok  
bai animendako probetxosok.*

*Jendek auntsen babak debozioik aundianakiñ artu zitun.*

*Erregalok banau zituenen, bost eo sei auntz baba geatzen tzien oaindio bandejan.*

*—Ok itako 'ituk, —esan tzion errotorek sakristauei—, jarri ai belauneko.*

*—I elizgizona aiz ta iri erregalok latíñez emango diat.*

*Eskukara babea sartu zion auan esanez:*

*Accipite kakimine prost,*

*i elizgizona aiz ta otxo lau eo bost.*

*D. Jose Munduateri aspertu artean entzuna.*

Udaletzeko aulkia

74. *Zeamako Elizan, garai baten, Aiuntamentuko aulkie txikigie mentzion da aundigo'at ein bear tzala aindu zon alkatek.*

*Aulkie ingo bazan egurre bear tzala ta arbola'at botatzea jun tzien erriti Partzoneria sei gizon.*

*Aizkorai' pê jun tzien ordea.*

*Ordun arbolea buelta guztiñ eztenez zulau zuen, ia eroitzen tzan baño alperrik, arbolek zuti iraun tzon.*

*Ordun gizon bat arbola adar bateti zintzilika jarri zan da aren ankatati beste bostak bata besten ondoren zintzilikau zien.*

*Ainbeste gizonen pixuz arbolea eroiko zala uste zuen.*

*Denbora pixka'aten ôla eon tzien, baño adarraí elduta ziona, danan pixui eusten nekau ein tzan.*

*Bê launai esan tzien:*

*—Motillek, eskuai txixtue ematea nijok da eon zuek irmo.*

*Onek eskuk soltau zitunen danak sasia eroi zien da sasiti erbi'atek irten tzon igesi.*

*Ara! Baten bat il dek emen —esan tzon batek—, baten baten animea jun dek orti zear itxumustun.*

*Iñor il tzan ikusteko, batek koadrillea kontau zon, baño bê burue kontatzea âztu zikon da, jakiñe, bat falta.*

*Ordun Mattoloi esan tzien kontau pasara'at eiteko, bera zala erriko gizonik argiana ta.*

*Mattoloi ê bê burue kontatzea âztu zikon da ala esa'mentzon;*

*—Motillek, emen bost gerek.*

*—Iñor falta dan garbi jakiteko, -esan tzon Mattolok— gauza biun baten beatzak sartuko zitau ta ikusko diau danok emen garen ala ez.*

*Ontan kaka pilla 'at ikus tzuen da:*

*—la motillek! sartu beatzak!*

*Raaa...! Ta danak beatzak sartu zituen kakatan.*

*Kontau zituen zulok da sei zeren.*

*—Ai demonio!!!-esan tzon Mattolok-.Bation batek bi beatz sartu zituk emen. Zein dan baneki!!*

Aizkenen etzuen jakin zeñ il tzan.

—Biarko jakingo diau zeñ il dan, -esan tzon Mattolok—, gizona falta 'an lekun etxekok akordauko 'ituk.

Danak gauen etxea jun tzien, baño urrengo goizen iñun etzan azaldu gizonan faltaik.

Arbola ori nolabait bota mentzuen beintzet eta ôlak ein da aulkie re ein da jarri zuen Elizan.

Jaien aiuntamentuko gizonak ju' mentzien en kapa aundikin meza nausia ta ez mentzien aulkin kaitu.

Urrengo eunen aulki ori luzau ein bear tzala ta plazâ etâ mentzuen, da alde bakoitzeti idi pare 'at lotu mentzien.

"Aida" alde bateti ta "Aida" besteti, aulki ori tiraka ebali mentzuen, luzauko zuelakon.

Naikoa izango zala ta geiegi aulkie luzatzea re etzala komeni ta lanen aitu zien amar gizonak jarri mentzien aulki ortan da ondo kaitze mentzien.

Langillek ordea alkondara utsen tzeren, ez kapa ta ez sombrero.

Lana ondo ein tzuelakon aulki ori Elizan jarri zuen beiz ê.

Urrengo jaien beatzi kontzejal da alkatea eren kapakiñ etor tzienen beiz ê etzien kaitzen.

Beiz ê urrengo asten, idi para lotu ta aulkiri tiraka ibil mentzien. Alkondara utsen ondo kaitzen tzien langillek beiz ê baño, urrengo jaien kapadun alkate ta kontzejalak kaitzen ez.

Aizkenen beintzet, nolabait moldau bear da kontzejal bat Aiuntamentuti biali ta ein mentzuen aulkin danandako lekue.

Franzisko Asurmendiri 1981-8-8an jaso.

Joan Muño

75. Asurmendi Muñon ba mentzan Joan izeneko gizon bat.

Karrille eitekon bi lixteroi izena emate'mentzien da illen

aizkenen bi jornal kobratze'mentziton.

Bein Segura ju'mentzan markesai errentea pátzea.

Markesa trixte billau mentzon, txakurrek etziola jaten da.

Joan Muñok markesai lasai eoteko esan tzion, txakurre berak

sendauko ziola ta.

Markesak pozik asko txakur ori Joan Muñoi eman tzion, ondo zaitzeko txakurre ta ondo zaitzeko txakurre esanez. Ta bear tzien gastuk eiteko berak gustora pâuko zitula ta, karnizeriti bear tzan aragie re eamateko, gastuan bildurrez ez ibiltzeko ta ôlamuzko enkarguk eman tzion gizonai.

Joan Muño ori txakurre sokati zola jun mentzan etxea ta txakurre sartu mentzon txerritegiñ.

Txakurren aitzakiñ aragie erosi ta berak jate mentzon.

Amabost eunea txakur ori artu ta markesai eaman tzion da txakurrek emandakoa jate'mentzon.

*Joan Muño markesak erregalokin biali mentzon etxea.*

*Andi aurrea Joan Muño aitatzan tzanen markesak esate' mentzon:*

*—Joan Muño? Ura bai gizona, eskolea izan balo, auskalo ze izango zan ura.*

*Frantzisko Azurmendiri 1980-6-9an jasoa.*

San Isidorekin eskean

*76. Urtzulaita Zârreko Joxe Miel otea jotzen ai mentzan.*

*Motiko 'atzuk etor tzikon esken.*

*—Zer daitzue ba motikok?*

*—San Ixidrondako diru esken gatoze.*

*Joxe Mielek ala kontestau mentzien:*

*—Utzi zue santue urdai asken gañen. Aurtengo negun neuk*

*mantenduko diat. la santu gizajo orri lepo mê ori pixka 'at gizontzen dioan.*

*Joxepa Azurmendiri 1995-3-1ean jasoa.*

Artzaren tranpak

*77. Artza, Zeamako gizonik aberatsanetakoa zan. Askotan alkate izaten tzan da diputadu re bai.*

*Goialdeko baserri geianak berek mentzitan.*

*Bein baserritar bati apuestoa ein mentzion.*

*Artzak esate'mentzon, katuk baiez argi eiñ etxen kandleekin, baserritarrak ezetz.*

*Errenta dirue jokau mentzuen.*

*Artzak katue ezita mentzeuken da bi manotan<sup>40</sup> kandlea lotu ta atzeko ankan gañen ibiltzen erakutsi mentzion.*

*Artzak baserritarrak, katue kandlea manotan lotuta zola soltau mentzion.*

*Baserritarrak poltxikoti xague etâ ta katui bota mentzion.*

*Katuk laxter bota mentzon kandlea.*

*Artzak apuestoa galdu ein tzon.*

*Doroteo Otaegiri. 1995-2-4ean jasoa.*

---

40. *Katun manok.* Zegaman katuaren aurreko hankai detzen zaie.



## VIII. SANTUEN IPUINAK

### San Pedro<sup>41</sup>

“San Pedrok bi tripa eskatzen zituela.” Hamaika aldiz umetan entzun ohi genuen esaera zen.

Gere amak esaera hori entzuten zuen bakoitzean erantzun hau eman ohi zuen, gure etxeko urdaiazpikoak emango nioan urte guztirako.

Esaera horrek behar bada garai batean San Pedroren barau eta penitentzi gogoia adierazi zezakeen.

San Pedrori buruzko esankizunak:

Trumoi hotsak entzutean.-San Pedro eta San Paulo zeruan bola jokuan ari direla.

Norbait egunetako bizarrarekin dabilenean.-San Pedrok baino bizar luzeagoa daukak, mutil.

Trumoiak jotzean. San Pedro hasarre dabil.

Ez dakit zergatik baina, San Pedro gure ipuinetan erdi tontoaren planta eginez azaltzen zaigu.

Jesus da pertsonaia ona eta argia.

San Pedro tontoa da eta berekoia. Ikusi datozen ipuinak.

San Pedro eta Jesus (I)

*78. San Pedro ta Jesus bein bideik bide zijotzen.*

*Erri'atea allau zienen, sekulako leortea mentzion.*

*San Pedrok esa' mentzion Jesusi:*

*—Eiok egoi-euri pixka 'at jende oni.*

*Izugarrizko eurik ei' mentziton.*

*Eduardo Irastorzari 1981-8-7an jasoa.*

San Pedro eta Jesus (II)

*79. Bein San Pedro ta Jesus bideik bide zijotzen da San Pedrok panaderi'aten ogi'at arrapau zon, Jesus konturau bê jango zola ta.*

---

41. Ipuin hauek, Sanmartintxikiren ipuinen erreplikapena dira.

Behar bada sermoinen batean, apaizen batek Sanmartintxikiren ordeztu, San Isidro erabiliko zuen etsaiarenkin borrokan.

Ipuin hauen pulpito usaina neretzat nabarmena da.

*San Pedrok atzea geau ta ogi pusketa'at sartu zon auan.*

*Jesusek itz eman tzion da San Pedrok kontestauko bazion, ogie auti bota ein bear izan tzon.*

*Andi pixka'atea beiz ê ogi pusketa'at auan sartu orduko, itz eman tzion Jesusek ta beiz ê ogie auti bota ein bear.*

*Ola beintzet, bide guzin San Pedrok ogie sartu auan, Jesusek itz eman da San Pedrok auti ogie bota jun tzien. San Pedrok ogi bokau bat ê ez mentzon jan.*

*Etxea allau zienen, Jesusek esan tzion San Pedroi.*

*—I, Pedro, kokoten zorrin bat tzeukiat, kendu iek.*

*San Pedro asi mentzan Jesusen kokoten zorri billa ta zorrie ez, begi'at billau mentzion.*

*Ordun konturau zan San Pedro, ogie auan sartzan tzon bakoitzen, Jesusek ikusi eiten tzola.*

*Martin Azurmendiri 1980-3-7an jaso.*

San Pedro eta Jesus (III)

80. *Bein, Jesus San Pedrokin tzijon bidez bide ta errementari*

*'aten atalburun letrero au ikus tzuen: "EMEN DO ERREMENTARIAN MAIXUE".*

*Oni perrazen erakutsi bear tzioau, —esan tzion Jesusek San Pedroi-. Esaiok erremintak iltziko diun astoa perratzeko, iltzek eta perrea bauzkula ta.*

*Errementarik eskautako erremintak, utzi zion San Pedroi.*

*Jesusek astoi ankea ebai aizkorekin da tornun lotu ta perra urrezkoa josi zion urrezko iltzekiñ. Aston ankea beiz ê tornuti artu ta astoi bê lekun jarri zion da bidez bide abiu zien.*

*Errementari orrek, beiz astoa perratzeko ekar tzienen, bera re etzala gutxigo ta astoi ankea ebai zion. Bestek eiten tzuena arek ê eingo zola ta tornun ankea perrau zon, baño bê lekun jartzen etzon asmatzen.*

*Errementarik esan tzion morroi:*

*—Attona orik or izango 'itu' pa oaindio, esaiek etortzeko.*

*Jesus beiz ê ekar tzuen da astoi bê lekun ankea jarri zion.*

*Errementariri esan tzion Jesusek:*

*—Au nik bakarrik tzeukiat eiten da beiz ez eiñ olakoik.*

*Jesus mundu ontan tzellela, jende askok etzon ezautu zein tzan.*

*Eduardo Irastorzari 1981-9-3an jaso.*

San Pedro eta Jesus (IV)

81. *Jesus da San Pedro eun baten ostatu'aten sartu zien.*

*Ostatun neska'at tzion da gauen San Pedrok Jesusen ixilik, neska arekin lo ein tzon.*

*Andi beatzi illabetea, ostatu beren tokau zien Jesus da San Pedro.*

*Jesusek bertan sartu nai zon baño San Pedrok etzon iñola re nai.*

*Nolabait ê ostatun sartu ta afaldu zuen da lotan tzerela, San Pedrokin lo ein tzon neska-mek aurre izan tzon.*

*Jesusek esan tzion San Pedroi:*

*—Au irea izango 'ek ala?*

*San Pedrok etzion ezer kontestatzen.*

*Ostatuko jendea ume ori ikustea jun tzan da San Pedro ta Jesus ê bai.*

*Jesusek galdetu zion umei:*

*—Zein dezu atte?*

*Umek San Pedro markau zon.*

*Jesusek San Pedroi galdetu zion:*

*—Ze eman bear diok andra oni umea azteko?*

*San Pedrok etzekin ze eman.*

*Ostatu aurren keiza arbola 'at loran tzion.*

*Jesusek San Pedroi keizea astintzeko aindu zion. San Pedrok keizea moitu zonen, lora guzik lurra eroi zien zillarrezko pezta biurtuta.*

*—Bildu itzek diru orik, da emaiok emakumei. Esan tzion Jesusek.*

*San Pedro etzan estenditu diru danak emakumei ematen da pixka 'atzuk kapoten gorde zitun.*

*San Pedro diru ok kontaktzen asi zanen, keiza lora biurtuta zeren danak.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

San Isidro (I)

82. *Idi pareta soron goldekiñ utzi ta mezatâ jute mentzan San Ixidro.*

*Idik bera erekin balelle bezelaxe lanen seitze mentzuen.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

San Isidro (II)

83. *San Ixidrok ba mentzekin noiz il bear tzon.*

*Ilitzeko bezperan lanen ai mentzan, eunero bezela.*

*Launek galdetze mentzien:*

*—Biar ill ein bear da zertako ai aiz lanen?*

*—Biziandako, biziandako, kontestatze' mentzien San Ixidrok.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

San Isidro (III)

84. *San Ixidro artâzik etzeuken da etsaiek bai.*

*Etsaiek ala esa' mentzion beñ:*

*—Zeñek ariñago salto eiñ, apuesto eingo diau.*

*San Ixidro apuestoa azkar artu zion.*

*Etsaien mandioa ju'mentzien da artapilla aundi'at billau mentzuen bertan.*

*San Ixidro botiñ aundikin tzion da artapillen erdiañoko saltoa ein tzon.*

*Etsaiek artapillea errez pasau zon.*

*San Ixidro botiñetan eaman tzon artâzikin, jenden arten zâldu mentzan lenengo aldiz artoa.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

San Isidro (IV)

85. *Artâzie eukiatio, artoa noiz eiten tzan ez mentzekin San Ixidro.*

*Etsaie eun baten kantari ai zala, ara ze aitu zion gue Santuk.*

*Antza beltza loran bado,*

*artoa eiteko goizago.*

*Elorritxo loran bado*

*artoa eiteko giro do.*

*Ola jakin tzon San Ixidro artoa eiteko garaie noiz tzan.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

San Isidro (V)

86. *Deabrue bein kantari ai mentzan.*

*—San Pedrok tenplea etâ mendik*

*buztiñekiñ da urekiñ.*

*San Ixidro ori aitu zonen, deabrui entzundakoa jendei erakusten asi zan, burniri urekin da buztiñekin tenplea ematen tzikola alegie.*

*Jendek burnie tenplatzen ôla ikas mentzon.*

*Deabrue, ori deklarau zolako, gaizki ibil mentzuen infernu.*

*Eduardo Irastorzari 1980-4-5ean jasoa.*

## Jesus

Jesusen kontu bat (I)

87. *Jesus txikie zala, beste motiko 'atekin jolasen kûtza txikik eiten aitze' mentzan.*

*Jesusi pasioko eunen, motiko arek (ia gizona) laundu mentzion kûtzea eamaten.*

*Tomasa Agirrerri 1981-4-8an jasoa.*

Jesusen beste kontu bat (II)

88. *Jesus desiertoa pasau ta Jordana mentzijen oi ta amar urte bete zitunen bataioa artzea. Bê aixkire danak launtzen tzijokion.*

*Bueltakon bideik ez galtzeati, erramu adar puxketak botatzen tzituen pasatzen tzien lekun.*

*Jordana allau zienen, Jesusek beinkau zitun da bakoitze bê etxea jun tzan erramu adar-txoai seituz.*

*Au iza'mentzan lêngengo Erramu Eune.*

*Eduardo Irastorzari 1981-6-8an jasoa.*

Jesusen kontu bat

89. *Jesusek mundun bizi zala etsai asko zeuzken.*

*Beñ igesi zijon etsaiek atzeti zitula ta soro 'aten garie eiten ai zan jendea billau zon.*

*Jun tzaizte etxea, esan tzien Jesusek, da itai bana artuta etorri atzea.*

*Etzeti itaiek artu ta etor tzieneko, garie ebaitzeko mûn tzion da itan asi zien.*

*Ontan Jesusen etsaiek etor tzien da itariai Jesus ikus tzuen galdetu zien.*

*Jendek baietz, garie ereitekon ikus tzuela.*

*—Garaitako kontuk dituk, da etor tzien bideti jun tzien.*

*Eduardo Irastorzari 1981-1-3an jasoa.*

San Kristobal. (Jentila).

90. *Jesus erreka baztar baten mentzion beste aldea pasau naita.*

*Jentil bat tzion an ingurun, errekan zupik ez ta alde `ateti bestea jendea bizkarren pasatzen tzona. Jesusi galdetu zion:*

*—Ze nai dek?*

*—Eamango al nauk beste aldea?*

*—I bakarrik ez aiz ezer, eon ai besta `atzuk etorri arten, mordo `at eamango zaituet biaje bakarren.*

*lñor etzan agiri ta aizkenen Jesusek esan tzion:*

*—Ondo pauko diat, eaman nauk.*

*Jentill orrek Jesus artu zon bizkarren da makal-enbor bat eskun makilla lekun tzola, errekan pasatzen hasi zan.*

*Jentillek ala esan tzion:*

—Jende geio re eamango nola baño, ire pixue naikoa diat nik.

—Arrazoi dek, zerue ta lurre bizkarren damatzek ta, —eantzun tzion Jesusek.

*Beste aldean alliautakon jendea zion da norbeitek Jesus ezautu zion da ala esan tzion Jentillei:*

—Eskaiok zerue.

—Zerue izango diau gero re, —kontestau zion Jentillek.

—Jesusek, zemait tek portea?

—Jentillek iru gauza eskau zitun.

a) Sekula galduko etzuen kartak.

b) Ekarrri otordue ta jaten da eraten emango zion makillea.

c) Sekula beteko etzan zakue.

*Alako'aten deabrukiñ asi zan kartatan, deabruk etâ zitun kartak eta Jentillek dana gal-tzen tzon.*

*Jentillek ala esan tzion, oan nê kartakiñ eingo diau jokun,  
eta geure burue jokauko diau.*

*Deabruk galdu zonen, Jentillek aren zakun sartzeko aindu zion deabru. Egurrekin sue etâzten tzuen taller bat tzion an da autza eaman tzon deabru.*

—Zakun dakarrea on eman estutu'at. Esan tzien tallerreko motillai Jentillek. Motillek eiñ ala guztik ein tziuten baño zakun barrukoik etzan austen.

—Zakun zer don ikus bear diau bâ, esan tzuen motillek.

Zakue zâldu zuenen, deabruk iges ein tzon da bê lekua jun tzan.

*Denborea jun da denborea etorri, Jentille il tzan da inpernun deabruk ikus tzonean, bê launai esan tzien onek ze gertau zan da etzuen inpernun ametitu.*

—Zerua igoal jungo gaitu' pâ, esan tzon da zerua abiau zan.

San Pedrok:

—Lên zeruik ezon bear da oañ etzeok îtako zeruik.

*Jentille zeruko aten jarri zan zakue zâlduta zola ta an pasatzen tzien aingeruk zakun sar-tzen tziun.*

*Jesus arrituta zion, aspaldin zerun aigeruik etzala sartzan da.*

San Pedrok esan tzion Jesusi:

—Zeruko aten Jentille do ta zakun aingeruk sartzet'itu.

*Jentille zaku ta guzi sartu erain tzon zerua Jesusek, errekaiko kontukiñ akordautu. Zerun soltau zion zakue ta aingeru danan erdiñ jarri zan bera.*

*Arrazkio San Kristobal otseiten die, Kristo bizkarren eaman tzolako.*

## IX. ABEREK HITZ EGITEN ZUTENeko IPUINAK

Azeria eta otsoa

91. *Bein axarie ta otsoa asarrau mentzien.*

*Axarie otson aurreti igesi abiau zan da bê burue gordetzeko kueba zulo `aten sartu zan.*

*Otsoa re, axariñ atzeti etorri ta onen billa kueba beren sartu zan.*

*Otsok ankati eldu zion ortzakiñ axariri.*

*Axarik ordun esan tzion otsoi:*

*—Demonio tontoa, nê ankei ozka ein bearren pago zuztarrai eiten diok.*

*Otsok axariñ ankea utzi ta pago zuztarrai eldu zion, da ordun axarik iges ein tzon.*

*Eduardo Irastorzari, 1981-7-3an jasoa.*

Azeria eta putrea

92. *Bein putre 'at zortzi eunen jan bê mentzellen da axari 'at billau mentzon.*

*Ala esan tzion axariri:*

*—Gaur zerun pestak tzerek, nai al dek etorri?*

*—Bai, jungo nitzeke' paño nola?*

*—Jarri ai nê gañen da eamango aut.*

*Axarie putren gañen jarri zanen, putrea zerun bueltaka asi zan.*

*Ontan bizkarreti axarie bota zon.*

*Axarik goiti bêra zetorrela Aizkorri esaten tzion:*

*—Alde pareti Aizkorri, bestela autsiko aut!*

*Axarie lurre jo zonen txikituta geau zan da bitarten, putrek axarie janez pesta ein tzon.*

*Axarik esaerea danez, laroei ta emereatzi tranpa dauzke.*

*Gizona' peiz eun. Orreati gizona' pakarrik arrapau daike axarie. Ipui ontakoa axarin deskuidon bat izango menda.*

*Eduardo Irastorzari 1981-5-3an jasoa.*

Azeriaren hiru egiak

93. *Axarik bein mandazai batekin topo ein tzon.*

*Mandazaiei esa'mentzion.*

*—Eama'nauk mando gañen Portu gañea ta iru egi esango diat.*

*Mandazaiek artu zon axarie mandon gañen da goiko Portun jatxi zanen iru egi ok kontau mentzion mandazaiei.*

*l) Egie...Batzuk esaten dia illargitan gaue, Abenduko eune baño argigoa ete 'an. Ori ez tek ôla. Eune beti gaue baño argigoa 'ek.*

II) Egie...Batzuk esaten dia, artoa erre berrin ogie baño gozogoa dala. Ori ez tek egie. Ogie beti artoa baño gozogoa 'ek.

III)Egie...Praka zarrakiñ allela baño ni bezelako klientek billatzen baituk, beiz ê ala ibil bearko 'ek.

*Ontan axarik kolpen salto ein tzon mando gañeti.*

*Mandazaiek, amorrazion, eskue bota zion, baño alperrik izan tzan. Axarie iges einda zan.*

*Eduardo Irastorzari 1980-8-23an jasoa.*

Ahuntza eta zazpi antxume txikiak

94. *Bein etxe 'aten, auntz bat bizi zan zazpi antxuma txikikiñ.*

*Amak enkarguk ein bear tzitun da kalea abiau zan. Antxuma txikiai txintxo eoteko esan tzien.*

*Antxumak bakarrik geau zienen jolasen da okerrak eiten asi zien saltoka ta txikizion.*

*Ontan, "dan, dan, dan", atea jo zuen. Antxuma txiki guzik jolasai utzi ta galdetu zuen:*

*—Zein da?*

*—Amatxo naiz, zâldu atea. (Otso zârra zan)*

*—Etzâ zu gue amatxo, gue amatxok boz leune 'auke, ez zu' pezelako zakarra.*

*Otso zârra konturau zan boz lodi ura leundu bearren tziola antxumak engañatzekotan da auzoko ullategi 'atea jun da arrautza zuringo pilla 'at jan da ôla boza leundu zon.*

*Beiz ê jun tzan antxuma txikita ta, "dan, dan, dan", atea jo zien.*

*—Zein da?-galdetu zien antxuma txikik.*

*—Amatxo naiz, zâldu atea.*

*Otso zârrak boza leunduta zeuken da auntzen-antz antzekoa.*

*—Sartu ankea katuzuloti ia amatxo zan.-Antxumak barruti.*

*Sartu zon ankea katuzuloti ta ankea bel-beltza zan.*

*—Gue amatxok anka txuri txuri' tauzke, zu etzâ gue amatxo, erantzun tzien antxuma txikik.*

*Ordun otso zârra errota 'atea jun tzan da ogiriñ askan ankea sartu ta txuri-txurie etâ zon.*

*Antxuma txikian etxea jun tzan otsoa ta beiz ê atea jo zien "dan, dan, dan."*

*—Zein da? —galdetu zuen antxuma txikik.*

*—Amatxo naiz, zâldu atea.*

*—Erakutsi ankea katuzuloti.*

*Otso zârrak erakutsi zien anka txuri-txurie ta antxuma txikik ama zalakon atea zâldu ein tzien.*

*Sartu zan karraxika otso zârre etxea ta asi zan antxuma danak tragatzen. Bat, txikiana, paretake erlojun kajan gorde zan.*



Otso zârra antxumak tragau zitunen erreka jun tzan ure eratea ta gero lok artu zon.

Ama etor tzanen, erlojun gorde zan antxumea billau zon bakarrik nearrez.

—Ze pasau da, antxumatxo? galdetu zion amak.

Antxuma txikik ze gertau zan kontau zion.

Auntzek guraizak, jostorratza ta arie artu ta antxuma txikie laun tzola otso zarrân billa jun tzan.

Erreka baztarren tzion lo.

Guraizakin tripea zâldu zion otsoi ta antxuma txikik banaka-banaka arten bizik etâ zitun otson tripati.

Gero tripea arriz bete ta beiz jostorrazakin josi zion.

Danak etxea jun tzien.

Otso zârra esnau zan da zuti jarri zanen, tripako pisui eutsi ezin da erreka eroi zan da an ito zan.

Angeles Azurmendiri 1980-9-4an jasoa.

Urzelaietako Mari

95. *Bein Latsaneti bêra otsoa ta axarie zetotzen.*

Asurmendi barneko zupia allau zienen, uretan illargi betea ikusten tzan.

Otsok axariri galdetu zion:

—Zer dek ori?

—Ze izango 'ek pâ, artzaie' mati uretâ eroi zakon gaztaia.

Otsoa erreka baztarrea jatxi zan, baño ezin tzon gaztai ori artu ta ordun esan tzion axaririk:

—Ola eztek artuko, alperrik alle. Era'zak potzuko ure estriña, ta errekea leortzen danen gaztaia artu daikek.

Otsoa asi mentzan ure eran da eran, baño tripan kaitu ezin da auti eran alan, ipurdiko zuloti irtetzen tzion erandakok.

—Ola eztiat ustuko potzuik, laundu iek-esan tzion otsok axariri.

Axarie etorri ta arta-morkola sartu mentzion ipurtzulon, da ala, eraten tzon ur dana tripan geatze'mentzikon.

Otsoa aitu mentzan ure eran da ure eran, baño aizkenen geio ezin da eratei utzi ein tzion.

—Gaozeak Urtzulaita aldea —esan tzion axaririk otsoi—, gaur garijotzen aitu 'ituk âtsalde guzin da ia ezen berri' ton.

Urtzulaitako etxen atzen sekulako gari pillea zion da jendea, ukulluko lanak eiten ai zan.

Axaririk otsoa gari pillâ eaman tzon da ipurtzoloko morkola etâ zion da sekulako urek irtezen tzuen otson ipurditi ta ure garie eamaten asi zan.

Axarie karraxika asi zan:

—Urtzulaitako Marie, ure' tamarrela garie! Urtzulaitako Marie, ure' tamarrela garie!

*Urtzulaitan Mari izeneko andra'at tzion da karraxik aitu zitunen, etor tzan da garie urek tzemarren. Makilla 'atekin sekulako palizea eman tzion otsoi.*

*Bitarten axarrik, leion afaltzeko ozten tzion kazuelakara aie jan tzion Mariri.*

*Aizkeneko ai ondarrakin bê burue zikindu zon axarrik.*

*Urtzulaitati gertu otsok eta axarrik alkarrekin topo ein tzuen. Otsok esan tzion axariri:*

*—Zuti eoteko enauk gauze Marik eman dien palizekiñ.*

*Axari' peiz:*

*—Palizea esate'ek? Nei buruko muñek etâ ziek golpeka, beitu iek muin danak zuri-zuri nola dauzkian burun. Ia illen niok, eaman nauk bizkarren Osintâ aldeañ.*

*Otsok eaman bear iza'mentzon axarie bizkarren Osintati gora don pagaiañ.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-2-8an jasoa.*

*Txepetxa eta putrea*

*96. Txepetxak eta putrek, beiñ apuestoa ein mentzuen zein gorago io.*

*Egaka asi zienen, txepetxa putren luma tarten gorde mentzan.*

*Putrea al tzon gorana igo zanen, txepetxa putren luma arteti irten da putren gañea igo ta esa' mentzion:*

*—Ara ni, i baño gorago.*

*Txepetxak apuestoa irazi mentzion.*

*Jesus Mazkiarani 1980-8-21ean jasoa.*



## X. IPUIN HARRIGARRIAK

### Joan Soldadu

97. Soldaduzkati zetorren Joan Soldadu.

*Ardite (garai artako dirue) bakarra zekarren poltsikon.*

*Eskale'atek irten tzion bidekûtza'atea ta zeozer eskau zion.*

*Joan Soldaduk arditea etâ ta, "otxo", esanez zeukena eman tzion, "auxe zeukiat bakarrik". (Eskale au San Pedro zan.)*

*Andi pixka 'atea beiz ê Joan Soldadui eskalek irten tzion, (au ê San Pedro zan), zeozer eskau zion.*

*—Len ê ire antzeko attona 'atek irten tziek, ziarro auxe besteik etzeukiat eta otxo, —esan tzion.*

*Eskalek etzon ziarroik artu, etzola erretzen da.*

*Irugarren aldiz biden Joan Soldadui San Pedrok irten tzion eskalen itxuran.*

*—Lên ê ire antzeko 'atek bidea irten tziek, etzeukiat ezer da nai bek, otxo nê besoa (launtzeko alegie).-San Pedrok ezetz esan tzion, etxeukela beso bearrik.*

*Andi pixka 'atea, Jesusek eta San Pedrok irten tzien bidea.*

*Jesusek eskalekiñ aiñ ona izan tzala ta Soldadui iru gauza eskatzeko aukerea eman tzion.*

*Joan Soldaduk iru ok eskau zitun.*

*Katxaba 'at.*

*"Entra en mi motxilla esan" da eozer motxillan sartzea.*

*San Pedrok Joan Soldadui:*

*—Eskaiok zerue, demonio tontoa.*

*Joan Soldaduk:*

*—Ortako gero re izango diau denborea.*

*"Nai zon denboran, bat nai zon lekun eukitzea."*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jaso.*

98. Jesusek "latxa" iltzen tzekin galdetu zion Joan Soldadui ta onek baietz.

*Il due "latxa" (ardin lênaoko izena menda latxa) ta tripak etatzen ai zala, Joan Soldaduk, gultxurdin bat gurdiñik jan tzion "latxai".*

*Jesusek galdetu zion:*

*—Beste gultxurdiñe nun dik onek?*

*—Demonio tontoa, latxak bakarra izateik.*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jaso.*

99. *Jesusek ia markesan alaba sendatzea launduko zion galdetu zion Joan Soldadui.*

*Onek, baietz.*

*Jesusek intsentsue, baldea ta ikatza eskau zitun.*

*Sue ein, balden ure irakiten jarri ta urei intsentsue bota ta Markesan alaba ur irakiñetan sartu zon.*

*Markesan alaba uretati sendauta irten tzan.*

*Beste'aten ê markesan alaba gaxotu zan da Joan Soldadu jun tzikon sendatzea.*

*Jesusek bezela neskea ur irakiñetan sartu zon baño etâ zonen, gaxoa ia illen tzion.*

*Joan Soldadu urkabela zemarren, baño Jesusek ardite arekiñ ona izan tzala ta iltzeta librau zon.*

*Jesusek milagroaz salbau zon neskea.*

*—Zenbait bea zue? galdetu zon Markesak.*

*—Borondatea—, Jesusek.*

*—Dirue eskau zak—, esan tzion Joan Soldaduk Jesusi.*

*Diru asko eman tzien.*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jaso.*

100. *Joan Soldaduk biden atxona txiki'at billau zon, atxona txiki au deabrue zan. Soldaduk eta bik kartatan ein tzuen.*

*Joan Soldaduk galdu ein tzon da deabru tenazakin sudurre moztu ta beste milla barrabaskeri ein tzion.*

*Joan Soldadu il tzanen, San Pedrok etzion zerun sartzen utzi.*

*—Lên zeruik bear ez ta oañ ator billa? Oa inpernua.*

*Joan Soldadu inpernua abiau zan.*

*Bê arten ala zion:*

*—An ê zer don ikusko diau.*

*Tenazakin sudurre moztu zion deabruk, etzion sartzen uzten.*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jaso.*

101. *Beste deabru txiki 'atek txapelkara 'at anima eaman tzion Joan Soldadui.*

*Joan Soldadu jun tzan zerua ta San Pedrok esan tzion.*

*—Ik ezon bear zeruik lân, zerta ator oañ?*

*—Utziek beintzet—, esan tzion Joan Soldaduk—, anima ok zerua botatzen.*

*Joan Soldadu, animak zerua botatzen ai zan bitarten, bera re zerua sartu zan da San Pedron aulkin jarri zan.*

*Berak nai don arten, don lekuti iñok botatzeik eztaukelako, San Pedron lekun mendo oaindio.*

*Jesus Mazkiarani 1981-5-8an jaso.*

Eroriko nauk ala ez?

102. *Beñ erri 'aten, etxe zâr bat mentzion, gauen sorgiñek biltze' mentzien bertâ.*

*Îñor etzan etxe ortâ inguratzen baño bein kanpotar bat etor tzan ostatu billa ta erriñ etzion ostatuik.*

*Alkatek sorgiñen etxea erakutsiz kanpotarrai, gauen sorgiñek nola etortzen tzien bertâ esan tzion baño kanpotarra etzan ikâtu.*

*Berak an lo ingo zola aindu zion alkatei zagi 'at ardo ta arkuma 'at ematen bazien. Eskau zona eman tzien da jun tzan etxe ortâ.*

*Arkumea erretzen asi zanen, karraxi'at aitu zon tximiniñ.*

—*Eroiko nauk ala ez?*

—*Nai bek eroi ai ta bestela beiz ez. —Kontestau zion motillek.*

—*"Danbaaa..." ta beso 'at eroi zan.*

*Motillek besoa artu ta baztarrea bota zon.*

*Andi pixka 'atea.*

—*Eroiko nauk ala ez?*

—*Nai bek eroi ai ta bestela beiz ez. —Motillek erantzune.*

*"Danbaaa..." ta beste beso 'at.*

*Beiz ê besoa artu ta baztarrea bota zon.*

*Motillek lasai asko arkumea erretzen seitzen tzon.*

—*Eroiko nauk ala ez, — karraxik beiz ê.*

—*Nai bek eroi ai ta bestela beiz ez.— Motillek.*

*"Danbaaa..." ta anka 'at eroi zan.*

*Motillek ankea artu ta baztarrea bota zon.*

*Beiz ê:*

—*Eroiko nauk ala ez?*

—*Eroi ai nai bek ta bestela beiz ez.*

*"Danbaaa..." ta beste ankea eroi zan.*

*Artu ta beste aldea bota zon.*

—*Eroiko nauk ala ez? beiz ê.*

—*la beingoz eroitze'aizen ôla zatika ibil bê. Motillek.*

*"Danbaaa..." ta burue ta gorputz enborra eroi zien.*

*Eroi zienak artu ta bazterrea bota zitun motillek.*

*Ontan gorputz pusketa 'anan arteti, gizon bat jaiki zan. Atxur bat tzeuken eskun.*

*—Etorri ai nekin batzâ, esan tzion motil gaztei. Onek seitu zion.*

*Leku jakin batea allau zienen, -eizak or zuloa—, esan tzion da motillek lurre zulau zonen kaja urre 'at billau zon.*

*Ordun gizonak esan tzion:*

*—Artu zak kaja urre ori ta iru meza etâ itzek, orian premin*

*niok purgatorion da sobratzen dan urrea gorde eutzat, — da golpen izkutau zan ildakoa.*

*Frantzisko Azurmendiri 1981-5-6ean jasoa.*

*Kuxkur, Kaxkar eta Koxkor*

*103. Iru anai bizi zien beñ etxe'aten, Kuxkur, Kaxkar da Koxkor.*

*Sagasti aundi 'at tzeuken da norbeitek sagarrak arrapatzen tzien gauez.*

*Attek bera zârtu zala ta Kuxkurri gauen sagastia juteko aindu zion sagarrak zaitzea.*

*Kuxkurrek ordea gauerdin lo artu zon da lapurrek sagarrak arrapau zitun.*

*Urrengo eunen attek Kaxkar biali zon da onek ê lo artu ta lapurrek gauen nai zuena ein tzuen.*

*Urrengo eunen Koxkor prantau zan sagastie gordetzeko, berak etzon ez bê ustez loik artuko. Itai bat eskutan tzola sagastin presentau zan.*

*Gau erdin sekulako logurea etor zikon, baño autza ta onutza ibilliz logurea uxau zon.*

*Alako 'aten, sekulako gizontzar bat ikus tzon sagastin pareten gañen. Gauerdie izango zan.*

*Zeuzken indar guztikiñ itaie tiau zion da gizona seitun izkutau zan.*

*Koxkor eune zabaltzen asi zan arte bê lekun eon tzan, baño eun sentin gizona ikus tzon lekua jun tzanen beso beltz aundi'at ikus tzon besaburuti moztuta.*

*Gero odolai seika lapurren billa asi zan.*

*Ibilli ta ibilli, arri aundi'aten ondoa alliau zan da odolana markea arripen galtzen tzan.*

*Etxea jun da pasau zikona anaiak kontau zien ta iru anaiek sokak eta palankeak artu ta arrie zion lekuañ jun tzien.*

*Odolan markak arripen galtzen tziela ikus zuenen, arri bueltea eman tzien da arripen, sekulako zuloa zion.*

*Zein sartuko zan galdetu zon Koxkorrek, baño bi anarrik zârranak atzea ein tzuen. Ordun Koxkor bera gertau zan sartzeko. Sokea gerrin lotu, itaie eskun artu ta zulon sartzen asi zan. Sokei goiti anaiek eusten tzien.*

*Poliki-poliki zulon goiti bêra sartu zan da zorue jo zonen baztar guzitâ beida jarri zan.*

*Ontan emakuma'aten lantuk aitu zitun da bertâ jun tzanen neska'at oso edarra ikus tzon baztar bati lotuta. Zein tzan, da neskek erregen alaba zala.*

*Koxkorrek neskei lokarri guzik moztu zion itaiez.*

*Zuloti zintzilika zion sokâ eaman tzon neskea ta sokea gerrin lotu zion da “gora” dei ein tzien anaiai.*

*Neskek esan tzion Koxkorri:*

*—Otxi eskuplario ok, ogai eskerrak sorgiñek ez nau il.*

*Koxkorrek eskuplariok gorde zitun da goikok neskea jasotzen asi zien. Erregen alabak zuloti irtendakon sokea botako ziola aindu zion Koxkorri.*

*Kuxkurrek eta Kaxkarrek erregen alaba zuloti etâ zuenen da aiñ emakuma edarra zala ikustakon anaiekiñ âztu ein tzien.*

*Neskea Erregen alaba zanez, Erregen palaziora jun da Erregei alaba entragau zien, erak sorgiñen zuloti etâ zuela esanez.*

*Erregek sekulako pestak Palazion eiteko aindu zon da Kuxkurri esan tzion bê alabakiñ ezkonduko zala. Neskea salbatzen tzonakiñ ezkonduko zon itze emanda ziola ta.*

*Bi anaiek pozez gañezka zeren.*

*Koxkor gizajoa bitarten zulon barrun, sokaik agiri zan beida zellela, sorgiñe azaldu zan, katu ‘at lepon tzola.*

*Sorgiñe, mingañe etâ ta Koxkorri burlaka asi zan, onek itaikara ‘atekin moztu ta poltxikon gorde zon sorgiñen mingañe.*

*Sorgiñek katue arpegia bota zion Koxkorri, onek eiñ alak eiñ ati ezin tzon katuik arpegiti kendu.*

*Ordun, erregen alabak eman tzion eskuplarioa jarri zion sorgiñei Koxkorrek lepon.*

*Bik erabat asarrau ta tratu ‘at ein tzuen: Sorgiñek katue kenduko ziola, Koxkorrek esku-plariok kentzen bazion da ala ein tzuen.*

*Bitarten erregek, berrie eman tzon Palazion, urrengo eunen Kuxkur da bê alaba ezkonduko ziela.*

*Koxkorrek bê arten bazekin, Kuxkur da erregeñea eun âtakon baten ezkonduko ziela. Koxkorrek sorgiñen mingañe estutuz, eurie eiñ eazten tzion sorgiñei, eurikiñ ezteiek galerazteko.*

*Zortzi eunetan Koxkorrek sorgiñe ôla beartu zon eurie eitea, ta ezkongaiiek etzuen ezkontzeik izan.*

*Beatzigarren eunen sorgiñek esan tzion Koxkorri:*

*—Mingain zatie ematen badiiek zuloti etako aut.*

*Koxkorrek baietz, da ordun sorgiñek artu zon bizkarren motille ta airen irten tzuen bik.*

*Koxkor, mingañe sorgiñei eman da erregen etxea jun tzan.*

*Palazioko jendea ezteietako gertatzen ai zan.*

*Koxkor Erregen aurea jun tzan da aren alaba berak salbau zola esan tzion.*

*Erregek alabai otsein tzion da gizon ura ezautze'al tzon galdetu zion.*

Ordun Koxkorrek eskuplarioa erakutsi zion Erregen alabai ta onek ezautu ein tzitun da Erregen alabak attei gizon arek salbau zola esan tzion.

Erregea asarrau zan da Kuxkur da Kaxkar kastigau ta alaba Koxkorrekiñ ezkondu zon.

Urte askon da oso ondo bizitu mentzien.

Frantzisko Azurmendiri 1980-8-9an jasoa.

Peru eta Mari

104. Erri txiki 'aten andra-gizon batzuk bizi mentzien.

Ume txiki'at tzeuken oso politte baño gutxiña uste zuenen ill ein tziten.

Peru ta Mari umen gorputze kaja 'aten sartu ta kanpo santua jun tzien umei lurre ematea.

Kanposantue oso urruti zion da umei lurre emateako illunbistea zan. Marik esan tzion Perui:

—Gauē gañen diau, ekaiek ate ori (kanposantukoa) lēnbailen etxea abiau gaitezen.

Bazijoatzen etxea ta aurreti Mari zijon. Atzea beitu zonen, or ikusten do Peru ate aundi 'at bizkarren tzola.

—Zer dakarrek bizkarren.-Peru, erotu al aiz?

—Euk ez al dien ba esan atea ekartzeko?

—Atea ixteko esan nahi nian nik, demonio ontza!

Illune gañea zetorkien da gauē nunbait pasatzea pentsau zuen.

Bide ertzen arbola'at tzion da aren gañea atea jaso ta aten gañen loalditxo'at eiñ asmon jarri zien.

Gauēko amabik aldeā, lapur mordo'at etorri ta arbola azpin su aundi 'at ein tzuen, gauē epeltasunez pasau asmon.

Peru ta Mari bildurrez lau gorrin tzeren da ontan lapurrek eren diruk kontaktzen asi zien.

Peruk esan tzion Mariri:

—Mari, au den pixeurea ta besteï' pē arbolati, lapurrek zeren lekua zarra-zarra pixe eiten asi zan.

Lapurrek pix tantonak osto arteti bêra zetetzela ikus tzuenen, "Jangoikon oligoa, Jangoikon oligoa" esanez, aua zâldu ta tantonak eraten aitu zien.

Lapurrek beiz ê diruk kontaktzen seitu zuen.

Andi pixka'atea Peru asi zan beiz ê:

—Mari, au den kakaurea, ezin diñat geio oañtze.

Marik ixilik eoteko aintzen tzion bitarten, Peru prakak jatxi ta zar-zar kaka eiten asi zan lapurrek zeren lekua.

Lapurrek "Jangoikon eztiē, Jangoikon eztiā" ta aua zâldu ta ezti ori jaten aitu zien, gero diruk kontaktzen asi zien beiz ê.



*Mari asi zan Perui demandan baño au nekauta zion ate zarra bizkarren eukitzen, da atei jarein tzion da lapur artea eroi zan.*

*Lapurrek sekulako sustoa artu zuen da igesi abiau zien “Jangoikon kastigue, Jangoikon kastigue”, esanez urrutia jun da al tzuen lekun izkuta zien.*

*Goizaldea zan da Peruk eta Marik lapurrek utzi zituen diruk ikus zituenen, arbolati jatxi ta diruk zakutan sartzen asi zien.*

*Lapurrek, eren izkutun batzarra ein tzuen. Eretako ‘at biali zuen etsaiek zenbait tzien ikustea.*

*Lapur ixpie allau zan arbolan azpia ta poliki-poliki Peru ta Marikin konfiantzea artu zon.*

*Ontan apuestoa ein tzuen ia mingain luzegoa zeñek etâ.*

*Lapurrek zeuken luzena ta guraizaz mingain puntea moztu zien gizajoi.*

*Au igesi jun tzan launetâ ta ok eren diruan jabe ein tzienak zenbait izango ote zien galdetu zien.*

*Onek mingain puntea falta ta mirmilla..mirmilla..ta lapurrek,  
bimilla, bimilla, enteintu ta etzien ondasunek artzea juten atrebitu.*

*Goiz aldea iñor etzetorrela ta Peruk eta Marik lapurran diru guzik artu ta etxea jun tzien.*

*Arrazkio aberastuta bizitu zien.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-3-6ean jaso.*

Lau indartsuen ipuina

105. Atte`atek seme indartsu`at tzeuken.

*Atte au beti bildur baten bizi zan, kamañâ juten tzanen, noiz baño noiz azpiñ artu ta lertuko ete zon seme orrek.*

*Bein baten attek esan tzion auzoko etxaolakoi nolako seme indartsue zeuken da beti bildurrez tziola kamañan etzateko ta seme au galtzeko asmoa artu zola soseguz biziko bazan. Ortako sue pizteko illati `aten eske bialiko ziela ta ordun txakurrek atea ta axatzeko, bertan ito zezaten.*

*Bialdu zon ba seme ori su eske auzoko etxaolâ, ta an, attek esan bezela, txakurrek axau zien.*

*Baño an gelditu zien ilda txakur danak lurren.*

*Ordun indartsu orrek txakurran jabei galdetu zion:*

*—Zeati ein diezu au?*

*—Zure attek esan dît txakurrek axatzeko.*

*Jun tzan seme ori bê attena ta galdetu zion ia zer tzon txakurran jabei aindu ura emateko.*

*Attek ordun aitortu zion bê bildurre ta asmoa, dana zan bezela.*

*Etzan semea asarrau. Esan tzion attei:*

*—Eiezu burnizko makilla`at, muturren txirringillokiñ.*

*Attek amabi arroako makillea ein tzion.*

*Semek artu txirringilloa beatz txikikin da esan tzion attei:*

*—Au txikie da.*

*Ordun amasei arroakoa ein tzion.*

*Semek beatzen artu ta:*

*—Au da politxe —esan tzion.*

*Gero:*

*—Ondo bizi, atte, esan da aldein tzon atten ondoti.*

*Andi laster eiztari`at billau zon. Eiztari orrek errotarrie zeuken ankan sartuta ta beorrekin tzeillen eizen.*

*—Zer dallek motel ôla? —galdetu zion indartsuk.*

*—Eizen nellek errotarri au laun dïala. Arri au bê pasau eiten tzituat erbik, da onekin justo-justo arrapatzen tzituat.*

*Ordun esan tzion motill indartsuk:*

*—Ola baño obeto bizimodue etako diau, etorri ai nêikiñ.*

*Ola, ba, bik abiau zien mendiz-mendi.*

*Ola zijotzela, beste motil bat billau zuen. Bê bizkarrakiñ aizkorri `ati eusten. Da esan tzien:*

*—Ze eite' `ek ôla?*

*—Nê ogie irâzi. Emendi aldeiten badiat, aizkorri orrek errie txikituko `ik.*

*—Etorri ai orti gurekiñ— esan tzien bestek—, or baño errezago etako `ek bizimodue ta.*

*Irurek abiau zienen, aizkorrie eroi ta erri osoa lurpen artu zon.*

*Aurea zijoatzela, besta`at billau zuen bê ogie irazten.*

*Nola? Sudur-zuloko aizekin zazpi ola ta errota `at moituz.*

*Oni re, êkin juteko esan tzien, da jun ein tzan.*

*Gosetu zienen, idi `at il tzuen da narrue kendu ta osoik erretzeko, amasei arroako maki-  
llea sartu zien burruntzin lekun.*

*Makillen jabea sukalden geau zan idiri kontu eiten da bitarten beste irurek irten ein tzien.*

*Ontan idie erretzen ai zala, koziñeroi tximiniti bêra attona txiki-txiki `at agertu zikon da  
erretzen tzion idiri ttu-ta-ttu gelditu bê txistue botatzen asi zan.*

*Motil indartsuk esan tzion:*

*—I, konpañero, ao geldi.*

*Baño attona arek beiz ê ttu-ta-ttu ekin tzion.*

*Gero bik, asarrau ta, burrukan asi zien.*

*Motill indartsu arek etzon balio attona txiki arentzat.*

*Ordun launetâ jun tzan da esan tzien:*

—Nik berotu 'at artu diat da jun tzaizte zuetako 'at oañ.

Baño ixilik gorde zon an eindako burrukea.

Eiztarie jun tzan urrena idiri kontu eitea.

Oni re, aurrekoi bezela attona 'at agertu zikon idiri ttu- ta- ttu eiñez.

Baita eiztarie, re burrukau zon attonek.

Eiztarie re, launeta jun tzan, aspertu'at artu zola ta beste `at sukaldea juteko esanez. Onek ê gertau zikonik etzon esan.

Jun tzan irugarrena, aizkorri eusten eon tzana.

Au ê attona txikik errez burrukau zon.

Aizkenik sudurretako aizekin zazpi ola ta errotea ibiltzen tzituna jun tzan.

Oni re, irten tzion aittona txikie, idiri txistue botaz.

Asten die bik burrukan, da olagizonak sudurreko aizekin goiko sapaiei erantsi ta talo 'at einda utzi zon attona txikie.

Gero artu zon idi errea makillan da launetâ jun tzan.

Ordun launek galdetu zien ia sukalden ezer agertu zikon.

—Bai— kontestau zon—, deabru txiki `at an geau dek talo einda, goiko sapaiei erantsita.

Beste 'anak aitortu zuen ordun nola attona txikik burrukau ta menderau zitun.

Gero jan tzuen idie ta Kaliporniko erregena abiau zien. Kaliporniko errege orrek neska-me 'at tzeuken oso ibiltari ariñe.

Erregekiñ idinarru 'at bete diru apuestoa ein tzuen, zein lênao iturriti etorri, eiztarie ala neskame ura.

Abiau zien iturria ta zorriketan asi zien bik.

Gero eiztarik lo artu zon da neskemek iges ein tzion aguro etxealdea.

Eiztarin launek, neskamea ikus tzuenen, tiro 'at ein tzuen. Tiro otsa aitu zonen esnau zan eiztarie.

Baño orduako neskamea urruti zion.

Olagizonak sudurreko aizekiñ indarra ein tzion, da puska'at atzeau zon neskea. Ortan ortan allau zan eiztarie lenengo.

Ordun narrue bete diru artu ta beste erri 'atea abiau zien.

Atzeti erregea zetorkien bê soldadukiñ, atzea dirue kentzeko asmotan, baño gertuau zienen, neskamei ein tziona ein tzien olagizonak soldaduai ê: lurrea botata utzi zitun.

Soldaduk beiz altxau zien, baño beiz ê olagizonak lurrea bota zitun da ên dirukin paken utzi bear izan tzituen.

Gue motillek andi aurea ederki bizi izan tzien.

Zegaman, Jose Andres Gorrotxategi Jaunak 1922an jaso<sup>43</sup>.

43. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras Completas*, II alea, 330.or.

Bigantxaren ordaina

106. *Bein motill bat erregea serbitu ta etxea etor mentzan aman ondoa.*

*Peri eune etor tzanen amai esa' mentzion:*

*—Zer daukezu peria juteko?*

*—Txanpon bat bakarra zeukiat eta ukullun don biantxea— amak kontestau mentzion.*

*Artu zitun txanpona ta biantxea ta peria abiau zan.*

*Erostun 'atek galdetu zion:*

*—Zenbait bear dek biantxa oneati?*

*—Ontzako `at.*

*Beala ein tzuen tratue.*

*Biantxea eman tzion da erostunek an eoteko esan tzion, dirue*

*ekarri arte.*

*Baño etzan etortzen dirukiñ.*

*Motille aspertu ta taberna 'atea jun tzan.*

*Ardoa eraten ai zala, beste etxeko tellatun gañen ikus tzon biantxen erostune.*

*Irtan tzan kanpoa ta karrasika bereana zijon, baño tabernarik geau zon, ura lapur aundi `at tzala esanez.*

*Ola, dirui' pê jun tzan etxea ta amai esan tzion:*

*—Iru txandatan kobrau bear deu dirue.*

*Andi eun batzutâ motil ori jun tzikon lapurrei bê etxea, ta makilla `atekiñ erabat elbarritu zon lapurre ta berai kaja diru `at kendu ta amai eaman tzion.*

*—Ara emen biantxen lenengo plazioa —esan tzion.*

*Besta `aten, meikue zala ta, dotore jantzita eskun makilla apain bat tzola, lapurren etxe alde a jun tzan. Lapurren morroi bat aldeau zikon da esan tzion:*

*—Beori al da meiku jaune?*

*—Bai— kontestau zion.*

*Da morroiak nausiña eaman tzon.*

*Motille ondorau zikon da gaxoi esan tzion:*

*—Zuk makilkadak dauzketzu ta gaizki zare.*

*—Bai, asmau dezu makilkadak dauzkiala.*

*Ordun botika `at aindu zion da botiken billa morroia biali zon.*

*Morroiak aldein tzonen, motillek bê artan esan tzion: —Oantxe `ek nê txandea—, ta makillaz gaxoa astinduz, esaten tzion:*

*—Ni nauk biantxen jabea— ta beste diru kaja'at artuta aldein tzon.*

*Amai ju' mentzikon esanez: Ara biantxen bigarren plazioa.*

Bein, lapurren morroiak kanpon tzeiltzen lapurretan da arbola `aten ondon alkartzien tzien.

Bein biantxen jabek zaldiz tzijon bati esan tzion:

—Ontzako `at emango diat olako tokiti pasatzen baiz “biantxen jabea naizela, biantxen jabea naizela!” kantatuz.

Baietz esan tzion zaldizkok, ta an dijo kantari: “Biantxen jabea naizela, biantxen jabea naizela!”

Arbola ondon tzeren lapurrek, bertan diruk utzita, zaldizkon ondoren abiau zien bera iltzeko asmon.

Bitarten biantxen jabek, arbolapea jun da, ango diruk artu ta etxea eaman tzitun, da amai esan tzion:

—Ama, emen biantxen irugarren plazoa.

Gero ederki bizi izan tzien ama-semek.

Zegaman, Jose Andres Gorrotxategi Jaunak 1922an jasoa<sup>44</sup>.

Patxi errementaria

107. Patxi errementarie oso gizon gaiztoa mentzan.

Beiñ inpernuti deabru `at biali mentzien, Patxi inpernua eaman tzezan.

Deabru ori goiz baten Patxin sutegiñ agertu zan.

Patxi an ai zan lanen, aldin bein junguren gañen malluka ta beste `aten auspoi eraiñez burnizko tresnak eiten.

—Eun on —esa' mentzion deabruk.

—Baita zuri re.

—Baztar guzik zure gaiztakeriz nazkauta dauzketzula ta zu inpernua eamatea etor naiz ba.

—Ez to gaizki esana, lènengo gosari mokau bat jan dezaun.

—Ondo da, goazen ba.

Ta gosaltzea jun tzien.

Maien jarri ta gosaldue zuen bapo.

Gosalondon maiti jaiki ta Patxik deabru esan tzion.

—Goazen ba inpernua, ura re zer dan ikusko deu.

Asi zan deabrue jaikitzen baño alperrik, Patxik maien alde ura pikez estalita zeuken da egin tzan moitu gizajoa ta an geau zan aulkin peauta.

44. BARANDIARÁN, José Miguel: *Op. cit.*, II alea, 330.or.

*An euki zon Patxik deabrue iru urten, aizkenen sukin pikea biundu ta soltau zon arte.*

*Deabruk etzon nai beziñ aguro bê burue libre ikusi, laster ango aldik ei' mentzitun.*

*Patxi lèn baño gaiztakeri aundigok eiñez tzeillen.*

*Alako 'aten, inpernuti beste deabru'at biali zien, inpernua eaman tzezan.*

*Lenengo deabruk bigarrenai bê pasaizok kontau zion da Patxiñ etxeko aulkin pikea ziola ez jartzeko geo, aindu zion.*

*Bigarren deabrue goiz baten Patxin sutegin presentau zan.*

*—Eun on — esan tzion Patxiri.*

*-Berdñ.*

*—Gaiztakerie gaiztakerin gañen eiñez menzaitze mundun da zu inpernua eamatea etor naiz.*

*—Ez to gaizki esana. Goazen lenengo gosari mokau bat jatea.*

*-Goazen bâ.*

*—Jarri zaiz maien —esan tzion Patxik.*

*—Ez tauket maien jarri bearrik.*

*—Nik gosaldu bitarten, etzan tzaiz or don zizallu ortan, nekauta eongo zâ ta.*

*Deabrue zizallun etzan tzan.*

*Patxik gosaldu zonen esan tzion deabru:*

*—Goazen ba inpernu ortâ.*

*Deabrue aleiñe guzik eiñ ati ezin tzan zizalluti jaiki. Patxik zizallue re, pikez estalita zeuken da.*

*An eon bear iza' mentzon deabruk iru urten, Patxik sukin pikea urtu zion bitarten.*

*Deabru gizajok, librau zanen gustora ein mentzitun inpernuako bidek.*

*Patxi beiz ê mundun geau mentzan da len baño gaiztakeri aundigok eiñez bizi mentzan.*

*Gizon ura ala uzteik etziola ta inpernuti beste deabru'at biali mentzien.*

*Irugarren deabru oni aurreko bik kontau zien sillea ta zizallue Patxik nola pikez estaltzen tzeitun da kontuz ibiltzeko.*

*Goiz baten irugarren deabru ori Patxin sutegia etor tzan da errementariri esan tzion.*

*—Eun on.*

*—Bai zuri re.*

*—Era guzitako gaiztakerik eiñez bizi mentzâ, egie al da ori?*

*—Ezta ori egie —kontestau zion Patxik.*

*—Ba nik zu inpernua eamateko ordenea `auket, da jun bearren tzare.*

—Ez ta gaizki esana, aurreti goazen gosari mokau bat jatea.

—Goazen ba.

—Jarri zaiz maien —esan tzion Patxik.

—Ez noa jartzea.

—Orroko zizallu ortan etzan tzaiz, ainbesteko ibillikin nekauta eongo zâ ta.

—Ez nô nekauta.

—Igo zaiz ordun atariko piku arbolâ ta ja' nai tzetzunak, nik gosari mokau bat eiten dian bitarten.

*Deabrue piku gañea igo zan.*

*Patxik gosarie bukau zonen, deabrui otsein tzion, baño deabrue ezin tzan jatxi. Pikue pikez estalita zeuken Patxik ta deabrue an erantsi zan.*

*Eskola umek eunero arrika aldi 'at ematen tzien da deabrue kurriskaka eoten tzan arrikarak artzen. Patxik etzion kasoik ê eiten.*

*Ola eon tzan deabrue iru urten, pikea sukin berotu ta Patxik librau zon bitarten.*

*Deabruk bê burua libre ikus tzonen azkar asko ei' mentzon inpernuko bidea.*

*Urtek jun da urtek etorri, Patxi errementariri iltzeko ordue allau zikon.*

*Il tzanen, mallue, burruntzie ta tenazak artuta inpernua abiau zan.*

*Dan, dan, dan, jo zon mallukiñ inpernuko atea.*

—Zein da? —deabruk barruti.

—Patxi errementarie —kanpoti.

*Au aitu zuenen, deabru danak atei eustea etor tzien, Patxi errementarie barrua sartu etzeiñ.*

*Deabru txiki 'atek, Patxi errementarie ikus nai zola ta giltzazuloti beida jarri mentzikon.*

*Patxik burruntzikin begie etâ mentzion.*

*Beste 'atek itzeti ezautuko zola ta belarrie jarri mentzon ate zulon.*

*Patxik tenazakin belarrie moztu mentzion.*

*Aizkenen inpernun bêtako lekuik etziola ta zerua abiau zan Patxi.*

*Zeruko atea jo zonen San Pedrok irten tzion.*

*Patxi errementarie ikus tzonen etzion atek zabaldu nai.*

*Andra xâr bat mentzion zeruko aten da Patxi ikus tzonen, ikatutatuta, Patxikati oso ondo itz ei' mentzion San Pedroi.*

*Ordun San Pedrok barrua sartzen utzi zion da Patxi errementarie arrazkio zerun mendo.*

Aralarko San Migel

108. Oañ San Mielgo Elizea don lekun, lênao leize bildurgarri 'at mentzion da leize ontan erensugea bizitze' mentzan. Gosetzen tzanen, zuloti irten da sekulako eriotzak eite' mentziton jenden arten.

Ingurutako errik bildu ta pertsona'at eunero erensugei jateko eamatea erabaki zuen. Pertsona ori zârra eo gaztea, suerten tokatzen tzikona izaten tzan. Bein, neska gazte `ati tokau zikon suerte ori ta leize zulon lotuta ipin tzien erensugei.

Garai âtan, Alargo menditan Teodosio izeneko gizon gazte 'at tzellen, ankatako ta gerriko kateak puskau arten penitentzie eiten.

Teodosio au, Goñiko semea zan.

Ezkonduta eun gutxita gerra jun bearra tokau zikon, da Aezkoa menditako gaztean buruzagie zan gañea.

Gerrateti etxea zetorrela, deabrue agertu zikon fralle`aten itxuran da esan tzion bê andrea gizon batekin tziola oian.

Teodosio suk eta garrak artuta etxen sartu zan da bê oian deabruk esan bezela andra 'at da gizon bat tzeren. Bik gerriko puñalez il tzitun.

Etxeti irten tzanen, elizati zetorren bê emaztea etor tzikon pozez txoratzen besarkatzea.

Teodosiok oian tzerenak zein tzien galdetu zion.

Emaztek esan tzion, bea falta zan denboran, amaiñarrebai ta ateiñarrebai utzi ziela bê oia.

Ordun konturau zan Teodosio atte ta ama il tzitula.

Iruñako Gotzaiena jun tzan barkazio eske, ta onek berak barkatzeko pekatu ura aundigie zala ta Atte Santuna bialti zon.

Atte Santuk gerrin da ankatan bi kate jarri zion da ok autsi arten penitentzie eiten ibil bearren tzion.

Erensugen leizeti pasatzekon Teodosiok neskea ikus tzon da ze eiten tzon galdetu mentzion.

Neskek gauzak zien bezela kontau zion.

Ontan, leizeti erensugea irtetzen asi zan da Teodosiona zuzen abiau zan. Momentu larri âtan Goñiko Jaunek otoitz au eiñ mentzon:

"San Miel, laundu guri."

San Miel aingerue azaldu zan erensugen aurren da bê ezpata zorrotzakin lepoa moztu zion. Momentun, Goñiko zaldunei kateak autsita eroi zikon, penitentzie akabau zon pruebatzat.

Ordun leize aren gañen ein tzuen gaurko Elizea.

Joxe Alustizari 1980-3-8an jasoa.

Dontzeila berezia

109. Bein dontzella eder eder bat azaldu zan etxe aberats bateko aten da etxeko andrei neskame artuko zon galdetu zion.

Neska bearrik etzeukela ba, baño...Ain mentzan neska edarra ta garbie artu ei' mentzuen esken ez ikusteati.



*Ez mentzon sekula jenden aurren jaten.*

*Bein etxeko andrek galdetu mentzion:*

*—Zuk ume ez al dezu jaten?*

*Neskek kontestau mentzion:*

*—Bai, bear dianeti jate’’et.*

*Bein, gauen etxeko andrea jaiki mentzan nexka ori ia lo zion*

*ikustea eta erropak garbitzeko lekun, an mentzion ur irakiñez betetako tiña `aten sartuta.*

*—Zein tza zu? Galdeu zion etxeko andrek arrituta.*

*—Purgatorioti etor naizen anima `at naiz, kontestau zion neskek, etxe `aten lapurretatxo `at ei’ non eta diru ura irâzten ai naiz, diru ura jabei eman arten purgatorio’ nô.*

*Zu ez bildurtu, esan tzion etxeko andrek, biar bertan diru ori nik emango diot zuk zor diozunai.*

*Ordun dontzella orrek erreberentzi aundi bat ei’ mentzion etxeko andrei ta zerua ju’ mentzan.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-4-24ean.*

Komediantea

*110. Errezoa bakarrik ez menda Jangoikok nai dona, guk lana eitea re, nai izate’ mendo.*

*Bein komeriante `at mentzan. Motiko umezurtz bat mentzeuken da komerik eiten ibiltze’ mentzien bik.*

*Bei’ motiko onek, jinaxitan tzellela eroi miñe artu ta ill ei’ mentzan.*

*Komeriantek bê burue bakardaden ikus tzonen komentu `aten pralle sartu zan.*

*Noizi’peiñ Amabirjiñei errezatzea juten tzan eunero ta itxi kapillako atea bê aldeti ta ôla eoten tzan denboratan.*

*Prailek kapillan ze eiten tzon jakin nai ta eun baten leiotei beida jarri zien.*

*Amabirjiñen aurren, sekulako jinaxik ein tzitun da nekau arten seitu zon jinaxitan.*

*Alako `aten, nekau zanen, Amabirjiñek mantalakin bekokie sekau zion.*

*Ordun konturau zien prallek errezoa bakarrik etzala balio zona.*

*Josepa Azurmendiri 1980-8-1ean jasoa.*

## XI. AIZKORRIKO GURUTZEA, IRUETXETAKO AMA ETA AKETEGIKO MARI

Atal honek hiru personaia hauen berri emango digu. Hirurek elkarrekin loturarik aski badute. "Mari zaharra" eguraldiaren eta ekaizteen jainkosa, kristautasuna indartzean, gainbeheran hasiko da. "Mariren" lekua Aizkorriko Gurutzeak eta Irutxetako Andre Mariak beteko dute erlijio berrian.

Hiru kultoak Zegaman nola aurkitu ditugun hara jarraian.

### Aizkorriko gurutzea

111. *Aizkorriñ agertu zan Aizkorriko kûtzea. Iñok eztaki noiz.*

*Jexux Mazkiarani 1981-4-5ean jasoa.*

Zegaman zahar askok oraindik sinismen berdina dute.

Hala eta guztiz asma genezake gutxi gora behera noiz eta non egina den eta nondik etorri zen gure herrira Gurutze hau.

Santiagoko bidean, San Adrian ederrean, era guztietako eta modu denetako jendeak atergabeko joan etorrian hasi ziren erromes, XI. gizaldian.

Europako orfebreariako lanik bitxi eta ederrenak bide sonatu onen alboetako hirietan, salgai zeuden aipatu dudan aroaz gero.

"El rey Alfonso VI (1102-1109) había repoblado con gascones, alemanes, bretones, ingleses, borgoñeses, normandos, tolosanos, provenzales, lombardos y muchos otros negociadores de diversas naciones y extrañas lenguas la zona de Sahagún y, entre otras las poblaciones de Logroño, Santo Domingo, Nájera, Burgos, Cartrójeriz, Carrión de los Condes, León, Astorga, Ponferrada, Lugo, Puerto Marín y el famoso Santiago de Compostela."

"Estos mercaderes lograron gran prosperidad: Traían de todas partes mercancías, así de oro como de plata, y aun de muchas vestiduras de diversas facciones, en manera que los dichos burgueses y moradores eran muy ricos y de muchos deleites abastados"<sup>45</sup>.

Jakina den gauza, Santiagoko bidean batez ere hiri nagusi hauetan merkataritzarako lonjarik pranko zabaldu zen.

Gurdika zetozen Pirineoen beste aldetik pitxirik ederrenak eta xarmantenak, batzuek erromaniko arokoak eta bizantino denborakoak besteak.

---

45. UBIETO, Antonio: *Introducción a la Historia de España*, Barcelona 1963, 163 or.

Pitxi hauek Rhin eta Limogesko tailerretatik zetozen Espainia guztira.

Gaur bertan aro haietako gurutzeak, erlikiarioak edo kalizak hor daude Gaztelako lurretan eta Euskalerrian bertan, San Migelko erretaulak Limogesen egina behar du nahitanahi ez.

“El esmalte llamado de Limoges no es tabicado como lo es el bizantino. Los alvéolos donde se coloca la pasta vítrea, que en el horno se convierte en esmalte, no están formados por laminillas o tabiques colocados sobre la superficie metálica, sino excabándose en la misma lámina de cobre”<sup>46</sup>.

### Limoges eta Rhingo Esmalteen Sorrera

Europar nolabiteko esmalteak ezagunak ziren, baina Bizanzio zaharretik etorri zen benetako eskola lehenengo Rhinen ibarrera eta geroago Limogesko hirira.

Theofania Konstantinoren biloba Oton Handiarekin ezkondu zen 971 urtean. Theofaniak Bizanziotik artista sail bat eraman zuen Treberis hirira, neskatx hau oso arte zalea baitzen.

Artista hauen ondorengoek Bizanzioko eskola Rhinen ibarrera lehenengo eta geroago Limoges hirira zabaldu zuten.

Esmalteak eta kuprezko irudiak XII. gizaldirartekoak eta geroagokoak ere askotan, hiri hauetatik zetozen Santiagoko bide aberatsetik guere lurrera.

Santiagoko bidean saltzen zituzten irudi eta beste zenbait orfebreriako pitxi eta kuprezko irudi eder “Limoges eta Rhin” eskolakoak baziren, Zegamako gurutze eder hau ere tailer horietatik irtena behar zuen eta Santiagoko bidean zehar gure herrira iritsi zitzaigun ezpairik gabe.

“Limoges eta Rhingo” eskoletan sortzen ziren bakarrik irudi hauek sasoi haietan.

Santi Espiritun garai haietan Tenplarioek babesten zituzten erromesak eta bertan zuten egoitza. Frantziako erregek eta Aita Santuak 1312an desegin zuten ordenako Tenplarioena ote zen gurutze hau?

Baieztu ezin litekeen galdera honek badu egi plantarik aski.

Nork edo nortzuek ipini zuten gurutzea Aizkorriin?

Zertarako? Noiz?

Gurutze hau Tenplarioena erraz izan zitekeen noski eta hauek desagertzean, gure herriko artzain zaharrek euren otoitz eta konjuroen zaindaritzat finka zezaketen Kristo Gipuzkoko gailurrik edo mendirik gorenean. Hau da aspalditik Zegamako tradizioa, Gorosabel jaunak bere denboran eta bere lanetan jaso zuena.

Tradizio hau Zegaman Gorosabel baino lehenagokoa da.

Zegaman tradizio hau oraindik bizirik dago.

---

46. ANGULO, Diego: *Historia del Arte*, I. alea, Madrid 1970, 354 or.

Euskal Herrian eta beste herrietan ere, otoitz lekuak edo toki sagaratuak mendietan zeuden. Mendiek batez ere gure artean, sakralitate berezi baten jabe izan ditugu. Ikusi bestela Andre Mariren ermitak non dauden.

Aizkorri gainean gure egunetara, Kristok eta Marik, euren egoitzak eukitzeak zerbait esa'nahi du. Jangoiko berriak eta zaharrak zituzten beren etxeak, bakoitzak berea noski.

Gaur harrigarri bazaigu ere, Jaungoiko biei oso kulto berezi eta aberatsa eskaini die herriak.

Bi Jaungoikoei errespeto zorrotza zion jendeak, Mari bildur hotz baten jenioa zela esan genezake, Kristo berriz errukiaren eta maitasunaren Aita.



Urteak zehar Kristo hartu zuten gure aurrekoek eguraldi on eta txarraren jaun eta jabetzat. Berari hamaika bider egin zaizkio konjuroak nahiz eguraldi ona nahiz euritsua eskatzeko. Ala eta guztiz sarri eskatu zaio, itxura dagoenez, eguraldi ona edo euria Mariri ere.

“Para evitar pedriscos y otros males recurrían antiguamente, según varias leyendas, a la celebración de misas y a hacer conjuros junto a la boca de ciertas cabernas”<sup>47</sup>.

---

47. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 165 or.

“En una leyenda de Aya se refieren las peripecias de una procesión que los pastores hacían a la cueva de Amboto para lograr que no cayese ningún pedrisco u otra tempestad que perjudicara a sus rebaños”<sup>48</sup>.

112. *Gue ume denboran Antzazuti Aketegia pralle'at juten tzan Mariri konjuroa eitea urtero. Arkuma 'anakiñ artzaiek pátzen tzuen prallen lana.*

Tomasa Agirrerri 1980-3-2an jaso.

Aizkorriko gurutzeak urteetan Mari jainkosari eguraldiaren nagusitza eta agintea kendu zion. Nahiz eta artzain jendeak Mariren siniskeriei eutsi, hiritarrek eta nekazalgoak gurutzeagan sinismen osoa ipini zuten.

Zegamako Eleizan gizaldiak direla, Aizkorriko gurutzearen bitartekotzaz konjuroak egin izan dira.

Aizkorriko gurutzearen zenbait berri

Hara zer dioten Gurutze Santu honi buruz aurkitu dudak dokumentu idatzirik zaharrenak.

“1802.- Aizgorri... El Crucifijo está metido en un nicho de piedra, su medida es como de media vara, con una efijie del Señor crucificado del mismo metal y es tradición en el país haber sido aparecido. En tiempo de verano sube en rome-ría mucha jente de Cegama y es mayor el concurso en las necesidades públi-cas señaladamente en los males atmosféricos.

En la misma a media legua de aquella cruz baxando hacia N. E. mana una fuente tan copiosa, que bien podría mover un molino.

Se llama a este sitio en vascuence “Iturbegieta”, tiene en ella su origen el río Oria, el más caudaloso de la Provincia”<sup>49</sup>.

113. *Aizkorriñ nê akuerdon etzan ermitaik, kutzea aizpe'aten eoten tzan euri ta elurretati babestuta.*

*Urtero juten tzan bertâ jendea erromeriñ.*

*Mezea ematea abadea ermitea eidakon asi zan juten.*

D. Andres Oiarbideri aspaldi entzuna.

48. BARANDIARÁN, José Miguel: *op.cit.*, 164 orr.

49. *Diccionario Geográfico Histórico de la Real Academia de Historia Española*, II. alea 206 or.

Ikusi Zegamako Udaletzeko artxiboko liburu batek 1819an, zer dion urte horretan gertaturiko gauzen artean.

“La Santa Cruz de Aizkorri o de la peña bermeja, que está en la cumbre más elevada del confín y jurisdicción de esta villa de Cegama, fué extraída de su nicho por un demente natural de... al que se aprendió por la justicia de Tolosa en un caserío: y por la resistencia que hizo a los que fueron a cojerle, recibió un tiro, del que quedó gravemente imposibilitado, con cuya noticia y castigo tan ejemplar se accedió al cobro de la dicha cruz, la cual se trasladó a la parroquia, donde se acordó hacer una novena de acción de gracias por el hallazgo por ambos cabildos en memoria de tantos beneficios que reciben los devotos que acuden al sitio donde fue habido, y despues que marcharon los templarios del S. Espíritu, está en esta ermita”<sup>50</sup>.

114. *Bein kûtzea arrapau nai izan tzuen lapur batzuk.*

*Eamateko artu zuenen, gizonak jasotzeko mûkoa etzan pixue artu zon santuk ta eaman ezinda utzi bear izan tzuen. Gertatue milagro aundi'at iza'mentzan.*

*Jexux Mazkiarani 1980-4-6ean jasoa.*

115. *Aizkorriko kutzea Zeama beida eoten tzan. Arabarrak Araba aldea beida eotea nai ta Araba beida jartze'mentzuen. Kutzea beiz gauen bêkasa Zeamâ beida jartze'mentzan.*

*Nikolas Zabaletari 1981-4-6ean jasoa.*

116. *Ume'atek oian pixe eiten donen, Aizkorriko kutzei umen neurriko argizari'at eaman da errajatan jartzen tzako piztuta.*

*Norberto Oiarbideri 1992-6-6ean jasoa.*

117. *Gerriko miñendako, gerrin neurriko argizarie jarri bear tzako Aizkorriko Kutzei.*

*Norberto Oiarbideri 1992-6-6ean jasoa*

118. *Bein lapur bat Aizkorriko limosnea arrapau ta igesi abiau zan.*

*Golpen geau zan biden pausoik eman ezin da.*

*Artzai bat ingurau zikon da zer tzon galdetu zion.*

*—Diru ok arrapau zioat kutzei, eamaiok.*

*Artzaiek diruk artu ta kutzen aurren utzi zitun bitarten, lapurre lurrei lotuta eon tzan.*

*Ramon Larreari 1995-6-21ean jasoa.*

---

50. “Cosas ocurridas en el año 1819”, Zegamako Udal Artxiboa.

Aizkorriko ermita nola egin zen

119. *Gue etxen ba zian motil zâr bat Antonio, atten osaba, oei ta geio urten Naparroko erri txikitan ibil tzian Antzazuko Ama Birjiñen limosnero, etxeik etxe Antzazuako limosnea bil-tzen. Gue atte re, Antonio zian da karlistan gerraten ibil tzian.*

*Kontxa jenerala Estellati oso gertu eritu zuenen an tzian.*

*Kontxa eritu zôn batalloiko motil bakoitzei, duro 'ana propiña eun artan eman tzien moti-llan arten bat gue atte zian.*

*Abarzuzan il tzian jeneral famatue.*

*Gue atte gerrati etor tzanen, osaba illobak Aizkorriko Kûtzei ermitea eitea erabaki zien.*

*Osaba illobak bik oso argiñ onak tzituan.*

*Arri geiana Oltzen landu zien da astoz eaman ermitea don lekuaño.*

*Orduko jendek nolako fedea zon, gaur xinixteik ê etziok.*

*Aste guziñ Aizkorriñ eoten tzituan jan da lo bertan eiñez.*

*Ermitea ein tzuenen Kûtzea an ipin tzien.*

*Zeaman beti San Bartolome baño zortzi eun lênao Kûtzea erria ekartze"ek.*

*Segura, Zerain da ingurutako erritati jendea Kutzea adoratzeta Zeama etortzen tzian.*

*Errogatibatako re, Aizkorriko Kutzea beti ekartzen tzien Zeamako parrokia.*

*D. Lorentzo Arakamari 1981-6-4ean jasoa.*

Solasaldi luze batean kontatu zidan D. Lorentzo Arakamak bere

aitak eta osabak Aizkorri ermita nola egin zuten. Osaba illobak eta beste sendikoren batzuk ere, partaide izan zitezkeen lan luze honetan. Baina osaba illobak ziren batez ere, D.Lorentzok esandako eran lan bildurgarri hura egin zutenak. Sinismenaren monumentu bat da ermita hau. Altamiarren sinismena handia zen.

Norbaitek D.Lorentzoren hitzak sinetsi nahi ezbaditu, hara hemen, Antonio Arakamak, D. Lorentzoren aitak Zegamako Udaletxean Aitzkorriko ermita egitekoan aurkeztu zuen txostena.

Don Joakin Maria de Irimo, secretario del Ayuntamiento de Cegama

CERTIFICO: que en el libro corriente de actos que celebra este Ayuntamiento, donde el folio ciento tres vuelto al ciento cuatro, hay un acuerdo que después del memorial que la motiva, es en su cabeza, ingesos y condiciones del tenor siguiente.

MEMORIAL. Ilustre Ayuntamiento de esta villa Cegama.

Antonio Aracama vecino de esta villa al Ayuntamiento hace presente:

Que viendo el mal estado en que se halla la ermita de Santa Cruz de Aizkorri y penetrado de la mucha devoción que los fieles tienen en estas cercanías y aun

algunos de distancias, desea el experimento que el pequeño edificio que ha de depositar aquella imagen, reúna las condiciones que exige del monte Aitzgorri.

Con tal supuesto ha pensado el exponente a proponer a V.S. algunas bases, bajo las que se comprometerá a realizar la obra, cuales son.

1) Que V .S. forme un proyecto de la ermita nueva al cual se ajustará estrictamente el exponente.

2) Que en cuanto termine las obras que comprenden el plano o proyecto ponerlo en conocimiento de V. S. para que proceda al reconocimiento y tasación por Perito nombrado de acuerdo por ambas partes o por uno que se elija, en facultad de que, en caso de discordia, los mismos Peritos elijan el tercero.

3) Que será de abono por el exponente lo que importe el material que utilizable para la nueva obra, contenga el actual edificio de la ermita, y el restante material del mismo quedará a disposición de V. S.

4) Que la cantidad o importe de la obra percibirá el exponente de lo que, en concepto de limosnas, se ha recaudado y recaudo, es decir, que sin que los fondos de la villa soporten carga alguna por tal concepto, conforme el exponente en que se le pague con el dinero que existe procedente de las limosnas hechas a la Santa Cruz de Aizgorri y de las que en sucesivo se recauden a caliad empero, de que no se distraigan a otros fines hasta concluir de satisfacer en haber del exponente, quien a su vez no exigirá interes alguno por el tiempo que transcurra hasta el final de toda la obra.

Bajo los términos exponentes:

Suplico a V. S. tomar en consideración, la propuesta para la construcción de la nueva ermita, con destino a la Santa Cruz de Aizgorri y resolver con la firmeza posible, cuanto tenga por conveniente para en caso de que se decida en sentido afirmativo, pueda principiar a preparar el material nuevo; pues así lo espera del acreditado celo de V. S. cuya vida guarde Dios muchos años.

CEGAMA A NUEVE DE JULIO DE MIL OCHOCIENTOS SETENTA, -REUNIDOS LOS SEÑORES:

D. José Antonio de Mayora, Alcalde. Don Hermenegildo Arrizabalaga, Don Francisco de Aguirre, Don Martín Jose Larrea, y Don José Antonio Alústiza, Regidores que con el que también lo es y no ha asistido Don Blas María Lete, componen el Ayuntamiento provincial de esta villa.

Seguidamente se dió cuenta de un memorial que Don Antonio Arakama, vecino de esta villa, dirige al Ayuntamiento proponiendo construir nueva ermita para la Santa Cruz de Aizgorri en la cúspide del monte de este nombre, con entera sujeción al proyecto que se le facilite por el Ayuntamiento, a calidad de que su importe a tasación de inteligentes o inteligentes nombrados de acuerdo, se les satisfaga de lo recaudado y se recauda de las limosnas que los fieles depositan en el cepo de dicha ermita, sin distraer empero, a otros fines, mientras se le satisfaga el haber que contenga, y acordaron que el Señor Alcalde como inteligente en la materia, que se someterá al examen y aprobación de este dicho Ayuntamiento.



Con lo que se terminó el acto, que firmó el Sr. Alcalde conmigo el secretario.

José Antonio Mayora, por acuerdo de los Señores del Ayuntamiento.- Joaquín María de Irimo.- Secretario.

Corresponde lo compulsado fielmente con sus originales obrantes en dicho folio y libro está en mi poder, y con la necesaria remisión, firmo a petición del interesado Antonio Aracama, en esta segunda hoja se comprueba y en dicha villa de Cegama a treinta y uno de Diciembre de mil ochocientos setenta.

José Antonio Mayora, Alcalde, Joaquín María Irimo, secretario<sup>51</sup>.

1870ko urtean Altamirako Antonio Arakamak herriko Udalari aurkeztu zion Aizkorriko ermita egiteko asmoa. Noiz bukatu ziren lan denak? Urtea behintzat ez dakigu.

Antonio Arakama, txosten hau herriari idatzi ziona nor ote genuen, D. Lorentzoren aita ala D. Lorentzoren aitonaren anaia? Osabak eta illobak egin zuten ermita eta bien izena, Antonio Arakama zen. D. Lorentzok neuri esan zidanez. Baina bietan zein zitekeen egia esan Jaungoikoak jakingo du.

Ermitako lanik handiena Karlisten bigarren gudatearen ondoren egin zuten, D. Lorentzok zionez.

Dakiguna zera da, lehenengo meza noiz eman zen Aizkorriin, eta egun hartako jaiak nolakoak izan ziren.

Zegaman garai haietan zegoen erretoreak, zehaztasun denak idatzi baizituen *Euskal-erria* asterokoan. Jarraian berri hoiek.

### Santa Cruz de Aitzgorri

En la cumbre de Aitzgorri, a 5.000 pies sobre el nivel del mar, existe de tiempo inmemorial una ermita en donde se venera la imagen de la Santa Cruz, representada de fotografía directa en el grabado que preside estas líneas.

En una de las visitas Pastorales que hizo a la parroquia de Cegama el Excmo. e Ilmo. Sr. D. Sebastián Herreros de Espinosa de los Monteros, Obispo que fue de esta diócesis, dio la casualidad de que dicha Cruz se hallaba en la citada parroquia, a donde fue bajada con motivo de hacer una rogativa, y el señor Obispo dijo al verla que era de gran mérito, no solo por su valor artístico, sino por su antigüedad, pues en uno de los museos del Vaticano, donde se muesran objetos antiguos, designando las fechas en que cada objeto fue construido, vio cruces parecidas, cuya data era entre el II y III siglos, por lo que nos manifestó con asombro que esta Cruz se veneraba tal vez en nuestra montaña hacia ya 1.600 o 1.700 años.

---

51. Donostiako Gotzaitetik Artxiboan. Aizkorriko Paperak.

Es de cobre, la imagen cosida a una plancha del mismo metal, y esta a una madera incorruptible, que nadie atina a qué material pertenece.

En esta ermita, poco capaz, jamás se había celebrado el Santo Sacrificio de la Misa; es verdad que desde hace ya mucho tiempo se deseaba solicitar al señor Obispo esta gracia y le ha cabido la suerte de obtenerla al Ayuntamiento actual, pues al efecto se dirigió hace cosa de un mes al Prelado Diocesano Excmo. e lltmo. D. Ramón Piérola, y a vuelta de correo fue autorizado el párroco que subscribe para que bendijera servatis servandis, se celebrara la Santa Misa y se abriera al culto público.

En Otoño, sobre todo, cuando se hace la recolección de la cosecha, es muy visitada esta ermita, y principalmente la vispera del Domingo de Rosario acude un gentío inmenso de la Barranca y Burunda de Nabarra, la parte oriental de Alaba y el pueblo goyerriano de Guipúzcoa, y después de visitar la Santa Cruz bajan a Aranzazu.

Ese día, pues, que el presente año ha caído en 3 de Octubre, ha sido designado para la bendición y celebración de la Misa en la parte más alta de Guipúzcoa. El día fue lluvioso en la montaña, pero sin embargo ha asistido bastante gente de esa feligresía, algunos alabeses y no pocos de la parte de Oñate, Vergara y hasta Azcoitia.

Se han celebrado tres misas, y de esta manera han podido turnar los romeros, porque en la ermita apenas caben sesenta personas.

Al bendecir la ermita, en la procesión que es de rúbrica, después de los tres sacerdotes y dos subdiaconos seguía el alcalde con tres regidores y el secretario del Ayuntamiento. Según se iban celebrando las misas, bajaba la gente a la cueva de San Adrián, donde se halla el puesto de miqueletes, y que dista desde Aitzgorri una hora. Allí, tanto dentro de la cueva como en la venta o dicho puesto de miqueletes, se hicieron grandes fogatas para secar las las ropas mojadas, comió cada cual lo que llevaba de antemano o se preparó allí mismo, y habiendo cesado la lluvia a eso de las tres, por peñascales y vericuetos volvieron los romeros a sus respectivos hogares, con aquel humor tan característico de los montañeses bascos.

Diré por último que, aparte de otros mil atractivos para el viajero, existen en esa gran montaña el famoso tunel de San Adrián, la ermita del Espíritu Santo, donde se afirma con algún fundamento que hubo un convento de Templarios, la famosa cueva de la dama de Acategui, que desde allí hace sus paseos a Amboto y Aralar y las magníficas praderas de Urbía, todo lo cual constituye uno de los más grandosos espectáculos que la naturaleza presenta a la contemplación del hombre, para que éste adore al Creador<sup>52</sup>.

Alfonso M<sup>a</sup> de Zabala.  
Párroco de Cegama.

---

52. ZABALA, Alfonso., *Euskal Erria*, 1896ko urria.

En la cumbre del monte Aizkorri hay una ermita de la Santa Cruz, pequeña, pero muy antigua, y en la que no se había celebrado misa hasta el día 3 de Octubre de 1896. En ella se venera una imagen de cobre, cosida a una plancha de cobre también, y todo ello unido a una madera incorruptible que no se averigua de que clase es. Es muy visitada esta ermita en otoño, después de la recolección de las cosechas, y sobre todo la víspera del domingo del Rosario. Entonces acude a Aizkorri inmenso jentío de la Barranta y Burunda de Navarra, de la parte orientalde Alava y de la alta Guipúzcoa<sup>53</sup>.

Aizkorriko errajak<sup>54</sup>

120. *Zeaman gu motikok giñela korue bi baztarretâ luzatzen tzan Zumalakarregin da San Josen aldea.*

*D. Baldomerok baztar ôtan eoten tzan jendeik etzon ikusten da gaztek mezako denboran tertuliñ aitzen tzien.*

*Ordun baztarretako erraja ok kendu ein tzituen da portikuko aldamenen eon tzien denboratan.*

*Gizon koadrillan batek erraja ok Aizkorriko ermiten aurren ondo eongo liekela pentsau zon.*

*Kutzen aurren etzan garai artan ezer da norbeit eroi zeikela ta bizkarrez errajak eamatea erabaki zuen.*

*Amar amabi'at gizon juntau zien. Gue atte, Altamiko Antonio, Ezpalioko Luxio, Euzkitzeko Agustñ aundie ta bestek eztaiz zeñ izango zien.*

*Eaman da kolokau ê, seguro asko erak kolokauko zituen.*

*Altamiko Antonio oso argiñ ona zan da geio re, bazien an ondo lanen tzekienak.*

*Ez Elizek eta ez Aiuntamentuk etzien ardo pixka'at ê eman.*

*Andi eun batzuta ên arten dirue bildu ta ardi zâr bat erosi ta Ezpaliok Luxiok taberneaa zeuken ordun da antxe prantau ta jan mentzuen ardi zâr ori.*

*Ardi zârta il tzuenen konturau mentzien umeiteko ziola.*

Nikolas Zabaletari 1981-3-6an jasoa.

121. *Aizkorriko argin eo igeltsero lanak gizaldi ontan ê beti Altamiko familik eiñ iza' `itu beti. Altamiko Antoniok bera ia zarra ta Latsaneko Andresi eta Frantsiko Antonioi otseite' mentzien lanea. Latsaneko bi motil ok oso indartsuk mentzien.*

*Porlan zaku 'ana Otsaurteko estazion artu bizkarrean da inon deskantsuik artu bê Aizkorriko ermitâ eamate' mentzituen.*

Joan Zabalerari 1981-9-12an jasoa.

53. MÚGICA, Serapio: *Geografía del País Vasco-Navarro-Guipúzcoa*, 836 or.

54. Gaztelerazko *reja* terminoaren parekoa.

Zeamako Goialden bazan gio Jentil kastako jendea.

Iruetxetako Andre Maria

Zegaman ahozko tradizioak hara zer dioen Gesalbiizkar edo Iruetxetari buruz.

“En la vertiente NE. del célebre e histórico peñascal de Aizkorri existían y existen aún las casas de Gesalbizar o Iruetxeta y la ermita de Santa María de las Nieves, que pertenecieron a los Templarios, pasando luego a los canónigos de Roncesvalles con terrenos, rebaños y pastos vecinos. Hoy lo son de la casa marquesal de San Millan, o sea de los descendientes del Almirante Oquendo<sup>55</sup>.

...Señora de las Nieves. Esta última fue en lo antiguo hospedería de peregrinos, que iban en romería a Santiago, y vivían de allí, fundada por la casa solar de Aitamarrén, quienes dieron para el efecto una casa con algunas camas<sup>56</sup>.

Soraluzek eta Gorosabelek diotena Zegamako tradiziotik jaso zuten, ospederia galdu eta gero, herrian jaso zuten erantzuna idatzi zuten leialtasunik handienaz.

Gorosabelek dioen berbera, hara nola dioen Zegamako Goialdeko ipuin zahar batek:

Iruetxetako Ama Birjinaren agerpena

122. *Iruktan naiz gaur iru etxe eon, garai artan bakarra mentzan.*

*Irúxtak Gesalbizar mentzon izena ta etxe ontako artetxea Ellorren mentzan.*

*Atxamarren zârreko morroia ta neskamea jarri mentzien ezkondata lênengo aldiz Iruktan. Gizona naparra mentzan, andrea oñatiarra. Bizimoduik etâ ezin, da partiera amoroso ‘at ein da bakoitzek bê aldeti jo bearko zuela pentsau zuen.*

*Kaltzada makurren bik partitu mentzien, bat Oñatia ta bestea Naparroa.*

*Abiau beziñ azkar, andrei damutu ein mentzikon da gizonai ola otsein mentzion.*

*—Ni damutu nauk.*

*Ura bazijola, gizonak.*

*—Ez al dek etor nai? —kontestau mentzion andrek. Onek ekarko*

*au. Otsein mentzion, gonak jasoz.*

*Aizkenen juntau mentzien baño familik ez mentzuen izan.*

*Gau baten ikaragarrizko elurrek ein mentziton.*

---

55. SORALUCE, P.M<sup>º</sup>., *Euskal Erria*, 1891, 19 or.

56. GOROSABEL, Pablo: *Diccionario Histórico Geográfico de Guipúzcoa*, Bilbao 1972, 116 or.

*Gizonak arbolen gañen, atariñ, Ama Birjiñea ziola ames ein mentzon. Andrei amesa kontau zionen, erokerik utzi ta lo eiteko kontestau mentzion.*

*Goizen beitu zuenen, Ama Birjiñea an mentzion atariko aritzen gañen, elurrez estalita.*

*Orreati "Elurretako Ama Birjiñea" mendauke izena.*

*Iruktan garai artan, etxen aurreko paretea izugarrizko aritz bat mentzan. Aritz ortan zalduta zion atea ta ate ortati gurdie kargauta errez pasatze mentzan<sup>57</sup>.*

Iruetxetako Ama Birjinak bere serora bazuen.

Ana Sarasola zen hain zuzen eta Iruetxetako alaba. Emakume benetan maitagarri hau ehun urte betetzera zihoan 1973ko Abuztuan baina Otsailean hil zitzaigun.

Gasteizen hil zen alaba Eulaliren etxean.

Hirurogeita hamazazpi urte arte Iruetxetako Ama Birjinaren serora fina izan zen, "Gure Elurretako Ama" esan ohi zion berak.

Zortzi seme-alaben ama, hotz bero franko ikusia zen gaixoa.

Azken aldian, etxe barruan egin ohi zuen bizitarik gehiena, gorrieria ere nabarmena zeukan.




---

57. Jexux Mazkiarani jaso.

Egunero meza eta otoitzak irratitik eta kalbarioak berriz etxetik irten gabe “Zeruko Mana Gozotik” egiten zituen. Liburua hainbeste urtetan erabiliaren erabiliz, zarpilduta eta tortikaz leunduta zeukan.

Azken urteetan poz handia izan zuen, Gazteen Biblia Zugastitar Anizetok euskaratua eman ziotenean. Huraxe ikusten eta irakurtzen zeramazkin ordurik atseginenak.

Zahartzaroan ezagutu nuen nik eta beltzez jantzirik jaitxi ohi zen kalera, buruko painue-  
loa oso egoki lotzen zuen buruaren atzean, sagar hori ximeldua zirudien.

Gerritik zerbait okerturik egon arren pauso arina zeukan, emakume baketsu eta otzan hark.

Gaur ere begien aurrean daukat amonaxo poxpolina kaletik gora kaminoan, kanpazoan enkarguak zeramazkiela, ezpainak errezoan bezala mugituaz Potxitxoko bideari ekitean.

Emakume maitagarri hura genuen Irutxetako Andre Mariren etxetoaren zaintzaile.

Andre Mariarekin zituen zereginak

a) Loreak eta argia Andre Mariari ipini. Udaberrian eta udan zelai eta baratxetako lore ederrak. Neguan papelezkoak armarioko hautsak ondo kenduta.

Argia berriz jendeak Andre Mariri zekarzkion kandelak edota merkeagoa zena, olio lan-  
para bat piztuta.

b) Ermita eta inguruak txukun eta garbi edukitzea.

c) Ekaizteetan edo trumoi eguraldietan Andre Mariren irudia kanpora ateratzea. Jendearen ustez besterik gabe ekaiztea edo kazkabarra Andre Mariren birtuteak Oazurtza edo beste herbesteko mendiren batera uxatzen edo bidaltzen omen zuen.

Hirugarren rito hau paganoetatik datorkigu. Gure arbaso paganoek beren jainkoren baten irudia atera ohi zuten ekaiztean edo kazkabar aldiaren kanpora. Horrela jainko horrek kazkabarren edo tximistaren zigorrari ihes egin nahi bazion, bake zezala eguratsa edo har zezala ekaiztearen zigorra.

Aketegiko Mariren urratsak hara bertan.

Siniskeria honi animismoa deritza.

Anak ekaiztea zenean, Ama Birgina atariko paretan, oraindik han dagoen harri baten gainean ipini ohi zuen.

Irutxetako Andre Marik Aketegiko Mariri kendu zizkion herria kristautzean, ekaiztearen aldeko indar jainkozkoak.

### **Kantu eder bat**

Orain berrogei bat urte D.Wenzesloa Mayorak eta Felix Telleriak, Iruetxetako Ama Birjinari oso kantu polit bat egin zioten. Zegamako Herrian bihotzeraino sartu da abesti eder hau.

Aketegiko Dama (Mari)

*Gesalberrin ba men tzan neska 'at oso dotorea.*

*Amak lanen bat aintzen bazion baietz, esan da beren seitze' mentzon. Eun guziñ illea orrazten aitze'mentzan.*

*Eun baten ama soroti oso nekauta etorri ta zeozer aindu zion. Neskek bê burue espillun aurren orrazten pasau zon atsaldea.*

*Amak asarre biziñ esa'mentzion:*

*—Neska, parte txarrekok eamango al au.*

*Ama Elizâ ju'mentzan.*

*Ama Elizati etor tzaneako neskea etzan iñun agiri ta etzan geio iñundi azaltzen.*

*Norbeit urrengo eunen Aketegia ju'mentzan ze ikusko ta neska ori idi gorri'aten gañen mentzellen kueben aurren.*

*Neska au men da Aketegiko Damea.*

*Joxe Alustizari 19981-5-3an.*

Gesalberriko ipuin honek, Goierri gorenean hain ezaguna zaigunak, badu grekoen traditioa ederrarekin zerikusirik.

Sofoklaren Elektra tragedian ikusenezake<sup>1</sup> ama-alaben artean subkonszientean sortzen den gorroto itsua. Elektra Agamenonen alaba dugu. Bere aita Troiako gudatetik etxeratzeari, Klitemnestra emazteak eta honen maitale Egistok ustegabearen il zuten Agamenon.

Alaba Elektrak eta anaia Orestesek Klitemnestra heriotzaz zigortzen dute.

Freudek ama-alaben arteko sexualidadean oinarritutak gorroto horri, Elektraren konplexua deitzen dio. Gorroto hau Aita-semeen artekoa denean berriz, Ediporen konplexua izena ematen dio.

Gesalberriko neskatxak, emakumeen edergailua den ilea edertu nahi zuen.

Gizonezkoarentzat neskatxak duen betiko lilura ilea da. Amak aldiz edergailu hori uka nahi lioke alabari.

Hemen datza amaren represio sexualak sortzen duen gorrotoa.

Gesalberriko ipuina hemendik ikusi liteke.

Shakespeareren irakurle zuhurrak konplexu hau bera Macbet tragedian aurki lezake.

Macbet Egistoren irudia da, lady Macbet Klitemnestrarena, Malkolmena Orestes. Danok dakigunez, Shakespeare handia grekoen tragedia ederrean asko ikasia zen, Freud bezala.

Gesalberriko ipuinean, ama-alaben arteko sexu gorroto sakon eta gordinean, sexualitatearen represio aztun bat ageri zaigu.

Neskatxak, amaren esanak bete ordez, bere burua apaintzen du, ama haserretzeraino. Haserre honetan datza errepresioa.

Neskatxak sexualitatearen askatasuna Aketegin lortzen du.

Zezen gorri baten gainean ikusi zuten artzainek.

Zezenak badu gure sexualitatearekin zer ikusirik.

Jupiterrek Europa gozatzeko zezen baten planta hartu zuen.

Dostoyevskiren pertsonaia Falaleik zezen zuri batekin zegien amets. (La Alquería de Stepachikovo y sus vecinos. VI. atala.)

Zenbait aldiz egin dugun amets zezen bati ihesi. Egia esan Errepresioari ihes egitea da amets hori Freuden iritzian. Kreta zaharrean neskakten kirola zezenaz jostatzea zen.

Oroi Minotauroaren ipuina. Minotauroari, gose zenean, zazpi mutil eta zazpi neskakta ematen zitzaizkion jateko. Ez ahaztu Freudentzat jate hitzak zentzu erotikoa ere baduela.

Gure herensugeari ere neskakta ematen zitzaizkion jateko.

Europako iparraldeko herensugeak, Mediterraneo ingurutako Minotauroaren bertsio bat dela ere badirudi.

Hemen uzten ditut Gesalberriko ama-alabak, eta Aketegiko zezena, psikoanaliariaren aita. Kontuan hartzeko gaiak zalantzarik gabe.

Hara On Joxe Miel Barandiaranek nola jaso zuen ipuin hau bera, 1921an, Joxe Alustizaren anaia zen Joan apaizgaiaren ahotik Gazteizko seminarioan.

En un caserío de Cegama vivía un matrimonio con una hija.

Esta tenía costumbre de peinarse todas las noches, en cuya operación pasaba largas horas. Por lo cual, su madre se vio precisada no pocas veces a arrebatarle el peine, y mandarle se acostase, hasta que, en cierta ocasión, cansada de tanto reprenderla, lanzó contra ella esta maldición: "Ojalá te lleven mil rayos". La joven cambió de color, sus pelos parecían llamas, y en un instante desapareció. Por aquellos días un pastor cuidaba su rebaño en las cercanías de cierta cueva de Aizkorri. Hallábase una vez sentado junto a su boca, cuando de pronto vio salir del interior un ser misterioso en figura de esqueleto humano (era la Dama de Aizkorri) que le dijo: "si no llegas a tener el escapulario del Carmen, te devoro". Después le refirió cómo estaba condenada a vivir entre aquellas peñas a consecuencia de la maldición de su madre, y le ordenó hiciese pública esta noticia entre los vecinos del pueblo<sup>60</sup>.

123. *Beñ Aketegiko zuloa neska'at jun mentzan ardi atzeta ta kueba ondon urrezko orrazi 'at billau mentzon.*

*Neskek orrazie etxea eaman tzon baño Aketegiko Damek etzion paken uzten, eunero ala esate'mentzion.*

*Mañaxi,  
Mañaxi,  
Ekarri neri orrazi,  
Bestela zure familiari  
Kenduko diot grazi.*

*Neskek bildurtuta beiz ê orrazie kueba ondon utzi mentzon.*

*Jexux Altzagari 1981-7-5ean jasoa.*

---

60. BARANDIARÁN, José Miguel: *Obras completas* II. alea, 18.or.



*Aketegiko Damea idin forman azaltzen ikusi izan mendue sarri sudurtzulotati sue dariola.*

*Jexux Altzagari 1981-6-4an jaso.*

124. *Aketegiko Damea batzutan itaien forman da beste askotan suzko bolen forman é azaltze'men da.*

*Agustin Arakamari 1980-1-27an jaso.*

125. *Aketegiko Damea Aizkorrin donen egoaldi ona eite'mendo urte guziñ, Aralarren donen beiz txarra.*

*Ipolito Arrondori 1981-4-2an jaso.*

126. *Aizkorrin gañen laño txuri'at agiri danen Aketegiko Damea lixibea ta labe sue eiten ai dala esaten da ta laixter egoaldik txarrea eingo dola.*

*Ipolito Arrondori 1981-5-3an jaso.*

127. *Aketegiko Damei beti ika ein bear tzako itz.*

*Bê kueba zolon aurreaka sartu ta atzeaka irten bear do.*

*Lege ok betetze'ezpadie, Damek suerte txarra eman daike.*

*Tomasa Agirreri 1981-6-3an jaso.*

128. *Aketegiko Damea asarratzen danen, pasatzen dan lekun arbolak eta arbolan adarrak autsiz juten dala esaten due.*

*"Gaur é gue gaztiñarin Damea pasau da", esaten tzon gue atxonak, aizek adarren bat eo beste gaztiñariñ austen bazitun.*

*Tomasa Agirreri 1981-3-1ean jaso.*

129. *Beñ Iruxtako Erramun gurdie aurreti zola zijon. Oso leku zelai baten gurdie irauli zikon, leku aldapatsu ta murkats galantak pasau bear izan tzitun gero baño etzikon ezer pasau.*

*Au Aketegiko Damen gauzea izango zala pentsau zon Erramunek.*

*Ramon Zabaletari 1981-4-5ean jaso.*

Aketegiko dama nolakoa den

130. *Suzko pelota'aten antzekoa da sue dariola.*

*Maria Zabaletari 1981-4-6an jaso.*

131. *Belen forman é azaltzen da aitzulotan batez é.*

*Ramon Zabaletari 1981-5-2an jaso.*

132. *Geianetan itaien formea eukitze`'o.*

Ramon Zabaletari 1981-5-2an jasoa.

133. *Urrezko orrazikiñ illea orrazten do.*

Jexux Altzagari 1981-3-6an jasoa.

134. *Garbiketea ta jatekoa ostialan eite`'itu.*

Ipolito Arrondori 1981-4-1ean jasoa.

135. *Nai donen ekaiztek eta tximixtak sortze`'itu.*

Ramon Zabaletari 1981-2-7an jasoa.

136. *Arin gañen jarrita ikusi izan due Aketegiñ.*

Ramon Zabaletari 1981-3-6ean jasoa

137. *Kuebako sarreran ikusi izan due illea orrazten.*

Roman Otaegiri 1981-4-3an jasoa.

138. *Aketegiko Damea oso leku aberatsen bizi'a, lo urrezko oian eiten do.*

Doroteo Otaegiri 1981-3-6an jasoa.

139. *Aketegiko Damei iru aldiz eskatzen tzakon gauzea, seguro emate' mendo.*

Joxe Alustizari 1981-4-8an jasoa.

140. *Aketegiko Damei Marigaizto re, otseiten dio jendek.*

Tomasa Agirrerri 1980-5-23an jasoa.

141. *Antzazuko pralle'at urtero juten tzan gue umedenboran Aketegia sorgiñei konjuroa eitea.*

Tomasa Agirrerri 1980-6-3an jasoa.

142. *Zeamako bi abadegai (Jorje Agirre ta Gregorio Arakama) oañ ia larogei urte, kandelak piztu ta Aketegiko zulon barrua sartu mentzien.*

*Kandelak itzali ziten da ezin geio piztu âl izan tzituen, etzeren kandelak beinkauta.*

*Bela otsak aitzen tzituen da sekulako usai txarra aguantau ezin da irten ein bear izan tzuen bik zuloti.*

Tomasa Agirrerri 1979-2-22an jasoa.

143. *Mari Erromako zupie ikutu zon Zeraingo Olabideko neska 'at menda.*

Migel Urbizuri 1980-4-13an jasoa.

## Urbiako ermita nola egin zen

1924ko Agorrilaren 28an bedeinkatu zen entzute handiz gure Urbiako ermita.

Egitamuaren hasierako txostenak hau dio:

“Urbiako lautaran, Aizkorriren oinetan, udaberri eta udako hiletan hoge eta hamar edo berrogei pamily tinkatzen dira euren artalde ugariak larreratzeko.

Kristau pamily haueri, oso zaila gertatzen zaie igande eta jai egunetan meza entzuteko legea betetzea eta eragozpen hau zuzentzeko, Arantzazuko praileek ermita bat bertan ereikitzea asmatu dute artzaiei orduetako ibilia kendu nahiez.

Ermita Arantzazuko Ama, Gipuzkoako zaindariaren izenean ereikiko da. Asmo eder hau sortu eta gero, igande eta jai egunetan meza ematea euren gain hartzea erabaki dute Arantzazuko praileak.”

Urbiako Egitamua Azkoitiako Martzelo Gibert arkiteto jaunari zor zaio.

Lan guztien kontratista Enrike Uriarte jauna izan zen, eta 35.844 pezeta eskatu zituen lana burutzearren. Lan guztien kapataza Araozko Demetrio jauna izan zen.

Ama Birginaren irudia Zumaiako Julio Beobidek egin zuen eta margolarien maisu den Inazio Zuloagak Andre Mari Nahigabetuaren margozki bat dohain eman zuen. (Margozki hau gaur Arantzazun gorde ohi da inork lapur ez dezan.)

Jose Urreztieta donostiar legegizonak kapirioak egiteko egurra Burdinkurutz izeneko basoan eman zuen eta beste bederatz haritz Erroitegiko basoan. Legazpiko Patrizio Etxeberria jaunak 600 pezetako kanpai bat oparizat eman zuen eta Segurako Ubaldo jaunak 1.200 tella 1620 pezeta balio zutenak. Egitamu osoan behar zen egurra, Arabako Narbaja herriko Inazio Uriarte jaunak dohain eman zuen, Arriola mendiko haritzak ziren, 3.200 pezeta balio zuten, ermita egiten ari ziren lekura erakarri zituzten.

Ate eta leihoetako burniak Arrasateko “La Unión Cerrajerak” eman zituen.

Nabas guztietarako beharrezkoa zen karea Zegamako Ezpaleo baseritik ekarri zen 25 pezetan, Luzio Arakama jaunari erosita. Zementua Grazian Alberdi jaunak Brinkolan zeukan fabrikatik ekarri zen.

Partzoneriak lurrak gain Urbiako material guztiak dohain eman zituen. Karretoak idiekin egin zen.

Oñatiko Santa Anako monjak kasulla gorri bat eman zuten eta Maria Gil de Atxa, Bilbaoko andereak berriz kasulla berde bat.

Oñatiko Udalak 1.000 pezeta eman zituen eta Oñatiko herriak 2.340 pezeta ermita berriarentzat.

Oñatiko alkate Santos Etxeberria jauna izan zen Urbiako Egitamu orokorraren diruzaina.

Legazpiko Udalak 500 pezeta eta herrian egin zen dirueskean 445 pezeta bildu ziren.

Zegamako Udalak 250 pezeta eman zituen eta herrian egin zen dirubatzean 721 pezeta bildu ziren. Mutiloan berriz 83, 50 pezeta.

Gipuzkoako Aldundiak lan denak bukatu eta gelditzen ziren zorrak ordainduko zituela uste zen, baina ez zuen ezer eman.

Arabako Aldundiak eta Arabako Partzoneriako herriek ez zuten ezer eman. Partzoneriak “fonda” egiteko hitza eman zuen eta gainera diruz estu zebilen Urbiako gastuak ordaintzeko.

Aita Lizarraldeak estoasunik franko jasan zuen zorrak nola ordaindu asmatzen.

Urbiako ermitako lehen meza

1924ko Agorraren 28an eman zen lehen meza Urbiako ermitan.

Gutxi gora behera 5.000 pertsona bildu ziren bertan.

Euskal Herriko mendigoizaleen elkarteko lehendakari zen Antton Bandresek tren berezi bat aterarazi zuen Bilbon goizeko hiruretan. Trenez etorri ziren bilbotarrak eta goizeko hamarretan Urbian zeuden.

Eguraldia zoragarria izan zen.

Goizeko zazpitan irten ziren Arantzazutik Urbiara zenbait agintari. Mateo Mujika jauna, Iruñeko gotzaina. Partzoneriako lehendakaria eta Segurako alkate zen Aranburu jauna, Partzoneriko alkateak, Oñatiko alkatea eta Arantzazuko praileen nagusia zen Jose Antonio Urkiola.

Gotzain jaunak goizeko bederatzi eta erdietan ermita berria bedeinkatu eta meza santua eman zuen.

Goizeko zortzietan Arantzazutik Urbiara prosesoan irten

zen jendea, lau gizonek Julio Beobideren Ama Birgina bizkarrean zeramakiten, Segurako dantzariak eta txixtulariak aurretik zihozelarik.

Ama Birginaren inguruan mikeleteak eta beste zenbait agintari bildu ziren. Hamarretan iritxi zen Urbiara Ama Birgina eta gotzainak pontifikalez jantzirik ongi etorri eman zion.

Hamar eta erdietan ermita aurrean eman zuen meza nagusia Jose Antonio Urkiola Arantzazuko praileen priorak. Sermoia D. Mateo Mujikak egin zuen euskaraz, aita eta aitona Urbian artzain izanak zituenez.

Meza ondoren auresku eder bat atera zuten, Segurako alkateak, Aldundiko diputatuek eta Antton Bandresek.

Ondoren Urbiako “fonda” izango zen egoitzari lehen harria ipiñi zitzaion. Fondaren kontratista ere Uriarte jauna izango zen.

Egun berean Urbian urrutizkina bedeinkatu zen.

Goizeko hamaiketan Antton Bandresek Aizkorriko gailurrean, Tolosako Teodoro Argoteri zidarrezko mendigoizale medaila ipini zion.

Eguerdian Partzoneriak bazkaria on bat eman zien pertsona ofizialei. Bazkari hau Arantzazuko Hospederian gertatu zen.

Bazkal ondoa aizkora jokuz eta ahari talkaz alaitu zen, gero Segurako eta Oñatiko dantzarien dantzaz eta irrintziz.

Frantses Txikiak eta Kirikok egin zuten bertso saioa.

Urbian bildu ziren agintariek Arantzazutik Urbian zehar Otzaurtera kamiñoa egitea aipatu omen zuten. Bazkari on baten ondoko kontuak.

Arratsaldeko lauretan hasi zan jendea etxerutzen.

Legazpiarrak Ubaldo Segura diputatua buru zutela Kataberatik joan ziren etxera.

Horrela bukatu zen egun eder hura<sup>61</sup>.

### **Aizkorriko aterpea nola egin zen**

Mendigoizaleen egoitza Aizkorriin egiteko behar zen lurra, doan eman zuen Zegamako Udalak, 124, 80 metro koadratu zeuzkan ermitaren ondoko lur honek.

Matias Gorrotxategi Zegamako semea, bizitza osoan mendizale sutsua izan zen. Urte askotan Tolosan bizi eta bertan hil zitzaigun herritar jator hau.

Matias 1925ean hil zen eta testamentuan 2.000 pezeta utzi zituen Aizkorriin mendigoizaleentzat aterpe bat egin zedin.

1934ko urtea iritxi arte ez zen inor aterpeaz arduratu.

Euskal mendigoizaleen batzak urte honetan gauza bere gain hartu zuen.

Bederatzi urteetan diruak eman zituen etekinak ere kontuan hartuta 3.085 pezeta zeuden Aurrezki Kutxan.

Gipuzkoako Aldundiak 2.500 pezeta eman zituen lan eder hau zapuzturik gelditi ez zedin eta "Patronato Nacional de Turismo" zeritzanak ere, beste 2.000 pezeta.

Mendiaren maitale askok eman zuten bakoitzak ahal zuena.

Arkitektoa Julian Delgado Ubeda izan zen Madrilgo semea eta mendigoizale sutsua.

Geroago hau Madrilen zegoela eta lan osoa Tolosako Joakin Labaienen eskuetan utzi zen ekintza, hau ere mendigoizale purrukatua.

Eragozpen askoren ondoren lan denak ondo bukatu ziran.

Gastu orokorrak 8.000 pezetara iritxi ziren.

Aterpea 1934ko Uztailaren 8an ireki eta bedeinkatu zuten, eguraldi eder batek alaitu zuen eguna<sup>62</sup>.

1945ko urtean Aizkorriko aterpea berritu zen.

Don Andres Oiarbide bere larogei urteekin igo zen Aizkorriko gurutzera. Zegamako astorik gehienak garraioan han ibili ziren.

Herriak egin zuen lanik franko.

1982ko urtean ere berritu zuten aterpea.

Abionetetan jaso zituzten behar ziren gauzak.

Oso aterpe ederra utzi ziguten mendigoizaleen ardurak eta lanak.

---

61. Oñatiko Jose Mari Leturiaren Aizkorriko paperetatik.

62. *Pyrenaica*, VI alea.17 zenb, 1935ko apirila.

## XII. MUNDU SAKRATUA ETA LAIKOA

Gure Europa zaharrean gizona desakralizatu egin zaigu, hau da laikotu.

Arazoa ez dugu gaurkoa, Ilustrazioa XVI-XVIII. gizaldietan hasi zen burruka zehatzean bide honetatik.

Zer besterik izan genuen Galileoren arazoa? "Matematikaren arauera zebiltzala izarrak eta erlojurik zaharrenari kuerda etzietela filosofoek ematen."

Izarrek noski badituzte legeak, Ilustrazioari "bihotzarenak" ahaztu zitzaizkion.

Dena dela izadiak baditu legeak.

Ilustrazioak politika, medikuntza, astronomia, historia, filosofia eta beste zenbait jakite desakralizatu dizkigu.

Hitz batean, jakintza orok ditu bere neurrian eta harira lege eta jokabideak.

Jakintzaren legeek nortasun bat dute, euren euren eta inoiz jakintzak ez dio jakintza denez inori errespetorik zor.

Horrela doa jakintza, jare, aske eta bere buruaren jabe.

Esan dudanez, pentsamolde hau XVI-XVIII. gizaldietan sortu zen.

Pentsaera hau ez dugu ordea Europa zaharrean zerbait berria, Periklesen aroan hau bera gertatu zen Grezian "sofronyse" handiz, ordea. Ilustrazioko denboretan adina burruka eta eztabaida gabe.

Greziako Periklesen aroa, inoiz ezagutu den arorik ederrena izan zen. Inoiz gaindituko ez dugun urrezko aroa.

### Sakralizazioa

Paleolitiko zaharretik edo harri arotik gaurdaino Europan batik bat nekazalgora mundu sakratu hutsean bizitu da eta gure Euskalerrian ere bai.

Gaur hiltzen doazen zaharrek eta Santimamiñeko ehiztariak berdintsu ikusi dute bizitza.

Harri aroko ehiztariak eta gero, artzaintza, burdinolak edo nekazaritza asmatu arren, pentsamoldeak zertxobait besterik ez dira aldatu herri xumearen buruan.

1865ean Gipuzkoa zeharkatu zuen trenbideak ere, ez dirudi pentsakizunak gehiegi aldatu zituenik.

Gure herrian batez ere nekazalgora eta hirietan ere, inork uste baino jende gehiago karlistak dira, hau da trenbidearen aurreko munduko jendea.

### Mundu sakratua zer den

Harri Aro zaharrean, gizonak ezezaguna zitzaion dena magian edo ezkutuko indarretan finkatzen zuten. Hainbeste gauza eta arazo zitzaizkion ezezagun! Bere baitatik edo ingurutik aparte ia dena. Tximista eta basoa, zerua eta izadiaren indarrak, iturrian jaiotzen den ura, abereak nahiz landareak hazitzen, eta beste zenbait gertakizun misterio zitzaizkion.

Haizeak dena estaltzen duen bezala, guztia misterioak estali du gaur arte nekazalgora munduan.

Ezezagunarekin harremanak magiaren bidez tajutu dira beti edo gehienez.

Ikus dezagun puntu bat: gaixotasuna.

Gaixotasuna beti norbaiten zigor bezala ikusi izan du beti kultura sakratuak.

“Norbait” hori Jaungoikoa zen batzuetan, edo jaungoikoek edo “parte txarrekoa” bestetan.

Gaixotasuna ezezaguna zen, “misterio bat”. Harri Arotik hasi eta gure egunetaraino, gaitzari petrikiloaren magia (otoitzak) eta belarrak aplikatu zaizkio.

Petrikiloa beraz, Absolutoarene eta gizonen arteko zubia zen.

Petrikiloak askotan “parte txarrekoak” sorturikako gaitzak sendatu behar izan ditu.

“Parte txarrekoa” Euskalerrian deabrua da edo deabruarekin harremanak dituen pertsona: Sorgina.

Sorgina ezkutuko indarren jabe da, izadiaren gaindik dauden birtuteak ditu eta batez ere begiratu hutsez edonor gaixotu edo hil lezake.

Sorgin indar berezi honi “begikoa” deritzo.

Zegaman nik hogeitau urte neuzkanean bi emakumek zuten sorginen fama edo sona.

Bat, gaixoa, buruz motza zen. Esateko inorekin harremanik ere, ez zuen. Inork ez zion hitzik egiten, Jaungoikoak jakingo du haren gurutzearen berri.

Bestea atso ihar bat zen, mundu guztiarekin eztabaidan eta sesioan ibili ohi zen. Zegamako garai haietako jendearentzat hau ere, sorgina zen.

“Para los habitantes de Zugarramurdi, el que un niño de repente, y aparentemente sin motivo, muriese, no era una casualidad inexplicable. Tampoco era una simple cuestión de mala suerte si un cerdo empezaba a consumirse. Todo ello sólo podía ser promovido por “malas personas”<sup>63</sup>.

Akelarre eta Inkisizioari buruz ez dut momentuz hitzik egingo.

Sorgintza nik Zegaman nola ikusi dudana aipatuko dut bakarrik eta Zegamako zenbait datu.

### **Sorginen eta beste munduko kontuak**

Katu beltza, Anima erratua, Sorginak eta beste ipuin asko daude hemen bildurik eta gure egunak arte sinetsi izan dira.

Norbaitzuek gaur egun ere oraindik sinesten dituzte.

Bilduma honetatik ezagutu genezake gure aitona-amonen mundua, uste horrekin bildu ditut banaka-banaka ipuin hauek.

Ezin erraz sinetsi belaunaldien arteko etena.

---

63. Henningsen, Gustav: *El abogado de las brujas*, 28 or.

Anima erratua

144. *Gue atte ta gaztek tziela, jai atsalden, neska ta motillek Kortatxon biltze mentzien. Atsaldea kontu kontari juten tziten: Ipuiek kontatzen askotan, gezur aundigoa zeñek esan da olako pasaizotan ê bai beste askotan.*

*Beñ oligo gordiñen usaie aitzen tzala ta "Pater Noster" bat errezau mentzuen, anima erratue ingurun tzeillela ta.*

*Oligo gordiñen usaie eukitze'mendue purgatorioko animak.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-5ean jasoa.*

Begikoa (I)

145. *Zeamako Urliak<sup>64</sup> bein, saski arbie bizkarren tzala soroti zetorren.*

*Errekatxoa allau zanen, ezin tzan alde 'ateti bestea ezeati pasau.*

*Saski arabik plomok baño pisu aundigoa artu zion da gizona lertzeko zorin jarri zan.*

*Urliak bê arten ala esaten tzon:*

*—Gue besteko sorgiñe ai dek oañ ê lanen.*

*Ontan saskie lurren utzi zon da deskantsatzen tziola, beitu zon etxeoanea ta sorgin famako emakuma ori berai beida zion.*

*Alako 'aten, sorgiñe etxea sartu zanen, saskik pixu normala artu zon beiz ê ta errez bizkarrea jaso ta etxea saskie normal eaman tzon.*

*Urlian ustez, sorgiñek beidatukin saskiri pixue aldatzen tzion.*

*Santiago Azurmendiri 1980-8-8an jasoa.*

Begikoa (II)

146. *Zenbait pertsonak (sorgiñak) beidatu utsekin pertsonai eo ganaduai erasten dien gaitze da begikoa (mal de ojo).*

*Norbeit etxe 'aten sartzen tzanen, begikoik eite etzon señaletzat, esaldi ok esan bear tzitun.*

*"Nê begik gaitzik ez teziola eiñ", umea ikustakon.*

*"San Antoniok beinkau dezala", ganadue ikustakon.*

---

64. Urliak hitzaz Zegamako gizon bat adierazi nahi dut. Bere etxetik gertu, herriak sorgintzat zeukan emakume bat bizi zen.

Ez dut nor zenik esango.

Pertsona hauek, orain hogeit hamar urte Zegaman bizi ziren.



*Kanpoko 'atek ume 'at eo ganaduk ikustakon esâldi ok esate' ezpazitun, begikoa eiten aizan señailea zan.*

*Ume txikie eo ganadue ikusten etzikon eozeñi uzten.*

*Ganadue umeiteko baldin bazion oaindi gutxigo.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-8-7an jaso.*

### Begikoa (III)

*147. Txala eiteko zion beie ikusten etzikon eozeñi uzten. Gue auzon bazan sorgin famako emakuma 'at da norbeit ukullun, txala ein bear tzon beie zaitzen eoten tzan auzoko atso onek begikoa eiñ etzeion.*

*Oira juteakon gauen errezaue ê eiten tzan, iñon begikoik bê, txala ondo jaio zediñ.*

*Zenbait emakuma, jendek erabat sorgintzat eukitzen tzitun. Emakuma ok etxeti urutiago ta obe izaten tzan.*

*Ume txikiri re, emakuma ok beitzea txarra zala esaten tzan.*

*Umei beitzekon, emakumek umei begikoik etziela eiten ai eraiteko, esaera ok esaten tzi-tuen.*

*"Jangoikok beinkau dezala".*

*"Nê begik ez tezaiola gaitzik eiñ".*

*Esaera ok 1965ean korriente esaten tzituen Zeaman Goialdeko emakuma zârrak.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-5ean jaso.*

### Begikoa (IV)

*148. Beiñ umea nitzela, txerrie zaitzen nellen etxeti Egurtze aldeko gaindaran.*

*Ontan Maria Muño pasau zan da txerriri beida eon da iñoi ezer esan bê etxaldea jun tzan.*

*Etxea ju'nitzenen, amak galdetu zien: "Maria Muñok, nê begik gaitzik ez tezaiola eiñ, esan al tzion txerriri?"*

*Ezetz bâ, txerriri beida eon tzala baño etziola ba ezer esan.*

*Andi eun batzutâ txerrie il tzan.*

*Gue amai, txerrie Maria Muñokon begikoz il tzala etzion iñok buruti kendu.*

*Maria Muñokoa, sorgin famako emakuma'at tzan.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-3an jaso.*

## Sorginen kontuak

Arakamaneko albergan

149. Zeaman, batez ê Goialden, jendek alkarrekiñ Elizâ juteko oiturea zon.

Etzeti kamiñoa irten da taldei itxoiten tzikon da koadrillan juten tzan jendea mezatâ.

Gizonezkek gizonezkokin da emakumezkek emakumezkokin juten tzien.

Eun baten, Egurtzeko Maria, Amiñagoneko Joxepa Antoni ta Jabierra zetortzen errosarioa errezatuz antxitiko mezatâ.

Akamaneko Intxaurdiko albergan norbeit lixibea jotzen ai zan.

Iru amonatxok, blisti ta blasta, oso ondo aitzen tzuen lixiba otsa.

Albergâ allau zienen “eun on Jangoikok” esan tzien lixibea jotzen ai zienai.

lñok etzien erantzun.

Lastazon argitan albergâ allau zienen, asto'at tzion bertan.

Sorgiñek aston formea artu zon nunbait.

Joxepa Azurmendiri 1980-6-7an jasoa.

Idiakaizko Maria Jesus

150. Gue atte oso gaztea zala, gauen etxea zijon Atxatxeko Atonio Marikiñ. (Au ordun Egurtzen bizi zan)

Metal ure eranda re, etzien jungo ta, esa' mentzion batek beste: “I, Ikeizko Maria Jexux sorgiñe dala re esaten dia ta autsek ibiltze'itula re bai, ikusi'at eingo al tzioau?”

Baietz, ikusi ein bear tzuela atso ori ta alkar ondo arrotu mentzuen.

Besteik bê eskilatati gora igo ta atea jo zien.

Ze nai zuen da, gauza 'at galdetu nai ziela. (Barrua sartu mentzitun)

—Ze jakin nai zenduen ba.

—Zuk autsek ê ibiltze'ituzula esaten due, erakutsiko al diuzu? pauko 'izu.

Atei atalagea jarri ta motillek sukaldea eama'mentzitun.

Ez mentzon beste mundukoik etâ. Asi mentzan surtako autsek moitzen, subiñapeti re etâ mentzon zerbait da akabo, an galdu mentzuen memorie.

Nola irten tzuen ez mentzien konturau ta ze ein tzuen ê ez.

Eun sentin gue atte Sâdarren esnau mentzan, alkondara guzie puskaute zola.

Antonio beiz Segurako Santa Barbaran.

Ez mentzien geio lkeitzen sartu.

Joxepa Azurmendiri 1980-9-8an jasoa.

Idiakaizko Maria Jesus

151. Beste 'aten ê Egurtzeko Maria, Amiñagoneko Joxepantoni ta Jabierra Elizâ zijotzen Amiñabarneti bêra ta Otalotati gora Ikeizko Maria Jexux sorgiñe mentzitorren.

*Iru andratxok errosarioa errezatzen zijoatzen.*

*Garai artan emakumak Elizâ errosarioa errezatuz juten tzien.*

*—Zer daitzu garai otan?, galdetu zion andratxo otako 'atek sorgiñei.*

*—Ein tzitunat nê ibillaldik —kontestau zien sorgiñek— Laño guzian azpiti ta sasi guzian gañeti, Amerikati bueltan ibil naun.*

*Iru andratxok ori aitukin batea attaren ein mentzuen.*

*—Bai, orrek eite' izue on—, esa' mentzien sorgiñek.*

*Joxepa Azurmendiri 1980an jaso.*

Idiakaizgoenako lantxa

152. Ezkion Ama Birjiñea argitu zanen, Maria Morak San Pedroko Elizan errosarioa erre-  
zaten tzon.

*Auzoko andrak ê bertan biltzen tzien.*

*Ikeiz Gôneko Lantxai parte txarrekon batek etzion errezatzen uzten da lo artzen tzon.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-3-7an jaso.*

Iruetxetako ardazketa

153. Iruktan andrak ardatzea biltzen tzienen, katu beltz aundi 'at etortzen tziten sukald-  
dea ta andra guztik eskuk lotuta bezela geatzen tzien.

*Ardatzen eziñ eiñ izaten tzuen.*

*Joxepa Azurmediri 1980-7-9an jaso.*

Lixiba

154. Gue ama ta neskak tziela, Espalioi gora mentzetozen beiñ gauez, Goialdeko  
neska koadrilla'at.

*Errekan sekulako lixiba otsak aitzen tzien, blisti ta blasta arrin gañen.*

*Errekan ze ete zellen beida jarri zienen, sekulako otsak aitu zituen:*

*—Ez gâla ta bagaitun, amalau milla emen gaitun.*

*Neskak sorgiñan bildurrez, azkar jun tzien etxea.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-7-4an jaso.*

Don Alfonso (VII)

155. *Don Alfonso Ibârta alden mentzellen paseatzen.*

*Ontan katu beltz bat gertuau zikon.*

*Liburue etâ ta konjuroa eiten asi zikon katu beltz orri.*

*Katue ordun emakuma biurtu zan.*

*Don Alfonsok esa'mentzion:*

— *Zu re, ôla?*

— *Kalez beti amalau bagâ —kontestau mentzion emakumek.*

*Migel Urbizuri 1980-9-5ean jasoa.*

Apaiza eta ama sorgina

156. *Apaiz bat ama zârrakin da neskamekin bizi zan.*

*Neskamek abadendako jartzen tzon arrantxoâ, katu beltz aundi 'atek ondatzte'mentzon.*

*Neskamek, katue ama izango ete zan antz artu ta etxeti aldeitea zijon.*

*Apaizei esplikau zion bê erabakie, onek arrituta, zeati zijon etxeti ta zeati zijon galdetzen tzion.*

*Neskek esan tzion:*

— *Beitu, beorrendako jartzen dian jana, katu zar batek ondatzte''it. Katu ori etxekoa dan iritzie 'auket.*

*Abadek au amakati esan tzola pentsau zon.*

— *Eon zu lasai, ta amakiñ Elizâ jun tzan mezatâ.*

*Mezea akâu zonen, abadea etor tzan amana da-goazen etxea—, esan tzion. Amak ezetz, errosario 'at errezau bear tzola oaindio.*

*Apaizek mezako liburue zabalik utzi zon aldarán apropos.*

*Beiz ê —goazen etxea—, ta amak ezetz, etzitula errozok akâu. Aizkenen amak esan ein bear izan tzion aldareko liburue zâlik tzion bitarten ezin tzeikela Elizati irten.*

*Altaren gañen meza liburue zâlik baldin bado, sorgiñek ezin mendaike Elizati irten.*

*Migel Urbizuri 1980-5-8an jasoa.*

Katu beltza (I)

157. *Garai artan ardik udan Aizkorrin jasten tzien.*

*Etxe 'akoitzeti neskan bat eo motillen bat juten tzan illuntzan Aizkorria ta ardik jatxi ta gero, neska motillek danak etxaola 'aten lo eiten tzuen.*

*Urrengo goizen beiz ardik jatxi ta gaueko ta goizeko esnekin jendea etortzen tzan etxea.*

*Ollantxoko Joana Mari re, askotan Aizkorriñ lo eiñe mentzan.*

*Goialdeko etxe geianetan tzien ardik da ganadui seitu ein bear izaten tzako.*

*Iruxtako gizon batek ganbaran gari jotzen ai zala, ara ze kontau zon beñ.*

*—Maddarikatue!!! Bart Altzukango atsok artu'ik eddarra!!!*

*Iritxo berriti bera, Aizkorriñ ardik jatxi ta netorrela, aurrekalden katue alajaña, miau ta miau ta miau biden erdi-erdin jarri zitean.*

*Etziela pasatzen utziko.*

*Mantxa beltzak tzeuzkian.*

*Marmita-agekin jo nian bizkarran erditi bêra.*

*Emaiek besta'at, emaiiek besta'at. Golpea nones nai arek!<sup>67</sup>*

*Enioan besteik eman.*

*Gaur goizen jakin diau, Altzukango atso mokorra autsita dola.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-4an jasoa.*

*Antzaldatzea edo metamorfosia hara nola ikus genezaken erromatarren munduan, aro honetako lehenengo mendean.*

“Melisa se extraó de verme llegar tan tarde y me dijo que si hubiera ido antes les podía haber ayudado a acabar con un lobo que había entrado en el redil y matado una porción de corderos; pero, aunque se escapó, mal le debía de haber ido, porque un criado le dio un lanzazo en el pescuezo. Figuraos lo que me pasaría al oír aquello. Como era ya de día, eché a correr hacia casa, como mercader desvalijado por los salteadores. Cuando llegué al sitio donde había dejado la ropa convertida en piedra, no había allí más que sangre: pero al entrar en casa, encontré al soldado en la cama; sangraba como un cerdo, y un médico estaba curándole la garganta. Conocí entonces que el tal tenía algo de brujo, y desde aquel día me hubiera dejado hacer trizas antes que comer con èl un bocado de pan”<sup>68</sup>.

---

67. Sorgin bati golpe“nones edo inparrak” ez diote minik ematen, alderantziz, nones kolpeak sendatu egiten dute.

Europako herri xeheak uste berdinekoak dira. Ikus, AFANASIEV, A.N.: *Cuentos prohibidos rusos*. 197 or. “Los numeros impares, así como el lado izquierdo, se consideran dominio del diablo”.

68. PETRONIO: *El Satiricón*, 122 or.

Katu beltza (II)

158. *Ollariko Fermiñ<sup>69</sup> katu beltz aundi'atek eunero seitzen tzion kamiñoti etxea.*

*Fermiñ geatzen bazan, katue re, geau eite mentzan, Fermiñ abiatzen bazan katue re, abiau.*

*Fermiñ etxea allautakon katue kañu zulon izkutatzen tzan.*

*Fermiñek katu ura parte onekoa etzala izango uste izaten tzon.*

*Joxe Arakamari 1980-4-5ean jasoa.*

Katu beltza (III)

159. *Zeaman etxe'aten katu beltza azaltzen tzan gauero.*

*Sukaldeti ukullua ibiltze mentzan, etxekoan ankatan mokorrek igurtziz.*

*Sukalden esaten tzuena aitzen tzellela esa' mentzeiken.*

*Urrengo goizen, auzoko atso sakatx bat, baserriñ esan tzituen kontuk banatzen ibiltze'mentzan kaleik kale.*

*Baserriko gizonak beiñ, erabat aspertu katu orrekin da gauen, arbi buru'at tiau ta aurreko ankea katui autsi zion.*

*Urrengo goizen atso ori, esku'at igeltsotan tzola azaldu mentzan kalen.*

*Santiago Azurmendiri 1980-4-8an jasoa.*

Katu beltzaren tranpak<sup>70</sup>

160. *Musason andra gizon batzuk bizi mentzien, etzuen umeik. Gauen gizona oira jundakon, andrea korutan geatze'mentzan sun epelen.*

*Gauero, katu beltz bat tximiniti'sartu ta etxekoandrea urdai pusketa`at erretzea bear-tze'mentzon. Gero, omaiti'afaltzen sobrau zan artoa artu ta ase arte jate'mentzon.*

*Andrea festa ôkin nazkau ta gizonai kontau mentzion gertatzen tzikon ixtorie.*

---

69. Ollariko Fermiñek Zegamako fabrika lana egin ohi zuen eta arratsaldeko erreleboa zeukanean, gaueko hamarretan fabrikatik irten eta ilunpetan joan ohi zen etxera.

70. *Odiseako IX. kantuan*, Polifemok Ulisesi izena galdetzean, "Inor ez" dut izena, erantzun zion Ulises maltzurak.

Ulisesek begi bakarra galdu zionean, Polifemo garrasika hasi zen eta inguruko Ziklopeak hurbildurik galde egin zioten:

-Nork eman dik min?

-"Inork ez" -erantzun zion Polifemok.

Ziklopeak haserreturik, bakoitza bere haitzulora joan ziren, inork minik eman ez badik, zertan habil kezuz? euren artean esanaz.

Harritzekoa bada ere *Odiseako* zatiak azaltzen dira Zegamako ahozko literaturan.

*Gau `aten, gizonak andrea oira biala ta bera asi mentzan korutan.*

*Urdaie erretzen tzeuken surtan.*

*Katue sartu mentzan tximiniti ta gizona korutan ikus tzonen, esa' mentzion:*

*—Gizona ta korutan?*

*—I, katue ta berrikitan?*

*Ordun gizonai galdetu mentzion:*

*—Nola `ek izena?*

*—"Nik neuri".*

*Gizonak andrek bezela urdaie ondo erre zonen, urdaie ta erretzen tzion koipea katui muturrea bota mentzion.*

*Katue tximiniti gora ju'mentzan karraxika.*

*Sorgin launek, karraxik ok aitu, ta zer tzon galdezka etor mentzikon.*

*—Zeñek eman diñ miñ?—galdetu mentzien.*

*—"Nik neuri" —erantzute' mentzon katuk.*

*Sorgin launek esa' mentzien:*

*—Euk eure burui eindako miñe sendau zan eorrek.*

*Migel Urbizuri 1980-6-9an jasoa.*



Ur-zaldia?

161. *Bein, gauen berandu etxea nijola, Ibaiondoko paren errekan, zaldin tamañuko animali 'at ikus non uretati irtetzen.*

*Gorputzen sekulako brillue zeuken.*

*Parte txarrekoa izan bear tzon nola nai re pixti arek.*

*Ur zaldik badiela re, aitu izan det, oritakon bat igoal izango zan ura re.*

*Joxe Ollarikoi 1980-3-4ean jasoa.*

Txoriak

162. *Gauen oso berandu etxea bizikletan nijola, Uarka zâlen millaka txori zeren kantari.*

*Bildurrez lau gorriñ, bizikletei âl nôn dana emanez etor nitzen Zupitxotaño.*

*Etxeko estradan sartu nitzenen, beiz ê Lokatxa gañen tzeren txorik, millaka zien da danak kantari.*

*Parte txarrekok izango ziela ta ez nitzen nai baño len etxea allau.*

*Joxe Ollarikoi 1980-3-5ean jasoa.*

Hildakoak irten

163. *Difuntuk bein katu mordo'aten forman irten tzikon Iruxtako Joxe Antonioi, Eillorti gora etxea zetorrela.*

*Jesus Mazkiarani 1980-9-4ean jasoa.*

Animaliak eta hildakoak

164. *Amiñagoneko Bittorri San Pedroti gora zijola, txitak sallen irtetzen tzien gauen.*

*Beste Mundukok tziela pentsatzen tzon Bittorrek.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-8-9ean jasoa.*

Animaliak eta hildakoak (II)

165. *Aiako Luis (Aiztiko morroia) bein Koati gora zijola, sekulako katu mordok irten tzion, danak beltzak mentzien da miauka ingurau mentzikon.*

*Kosta mentzikon inguruti bialtzea.*

*Beste'aten txerri kumak ê irten mentzien.*

*Gauza ok danak, beste mundukok die.*

*Santiago Oiarbideri 1980-9-2ean jasoa.*



Argia (I)

166. *Ildakok argin forman azaltzen die. Argiña iñor arrimatzen danen onek itz eiten ê baki.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-7-9an jaso.*

Argia (II)

167. *Geianen Purgatorioko animan bat izaten da argi au. Itz eiten dionai geianetan mezan bat eskatzen dio.*

*Migel Urbizuri 1980-9-3an jaso.*

Argia (III)

168. *Asurmendi Muñon, leion paren aran arbola'at tzan da aranen kandela argiñ antze-ko argi'at azaltzen tzan.*

*Bein beintzet motil batek argiri itz eitea erabaki zon.*

*Argiri beti ika ein bear tzako. Ola galdetu mentzion.*

*—Ze nai dek?*

*—Meza'at— kontestau mentzion argik.*

*Motillek mezea etâ zonen, argie izkutu mentzan.*

*Asurmendi Muñokok kontatzen tzuen au.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-6-8an jaso.*

Argia (IV)

169. *Ildakok argin forman agertzen tzien. Bereana iñor ingurau ezki, argik itz eiten ê bazekiñ.*

*Geianen Purgatorioko animan bat izaten tzan da mezan bat eskatzen tzon.*

*Argie askotan azaltzen tzan zelaien eo mendi egalen baten.*

*Iñor bereana ingurautakon iges eiten tzon.*

*Eun baten Zupitxotan tzion argie ta jendea ingurau zikonen, Akamane aldea jun tzan igesi.*

*Argi ok eunetan eoten tzien leku jakiñen da Purgatorioko animak ziela esan oi zan.*

*Joxe Arakamari 1980-3-5ean jaso.*

Argi haueri argi-txakurrak deitzen zitzaien Gipuzkoan eta Nafarroan. Inor gerturatuaz gero ihes egin ohi zuten. Herririk gehianetan hitz egin ohi zen argi sonatu hauetaz.

Zer ziran argi hauek? Jende denak ikusi ohi zituzten.

Purgatorioko animak zirela uste zuten gehienak.

Hara gertakizun honi Aiako Sagarroako Joxe Manterolak eman ohi dion argibidea.

Orain berrogei urte ibili ohi zen Euskal Herriko basoetan txori bitxi bat. Gaur erabat galdu da egazti hau. Txori honen izena Gauargia zen eta apiriletik San Migelak arte egoten zen gure lurrian. Gauean txori honen lumak argi nabarmen bat egiten zuten, ipurtargiaren antzekoa. Inor gerturatzan bazitzaion ingurura, txoria ihesi beste leku batean kotatzen zen.

Txori hau jendeak purgatorioko anima zela uste izaten zuen.

Gautxoria oso txori polita zen, pinto pintoa eta oso bizia.

Deabruarena

170. *Beñ ikazkin bat Kataberako Ama Birjiñen iturriñ ai menzan ure eraten.*

*Deabru tzar izugarri'at azaldu mentzikon da gañea begi bakarra mentzan.*

*Ikazkiñe Antzazuko Ama Birjiñei erreguka asi zan.*

*Deabru tzarrak esate'mentzion:*

*—Laxter ikusko 'ek Ama Birjiñea.*

*Antzazu pareá eaman airen da sekulako alturati bêra bota mentzon deabruk ikazkiñe.*

*Lurrea eroitzeako, Ama Birjiñek pareá irten tzion ikazkiñei, ta mâlen artu zon da ez mentzikon ezer txarrik pasau.*

Santiago Azurmendiri aspaldi jasoa.

### Joanito txistularia

Juanito Txistulariaren mitoa, grekoen mito eder batetik datorkigu, Orionen ipuinetik hain zuzen.

Orion, grekoen munduan, mito askoren jabe dugu.

Artemisaren erreguz, Jupiterrek Orion ehiztari trebea zeruan konstelazio bihurtu zuen.

Zakur bi daramatza atzetik, Canis Maior (Txakur Handia) eta Canis Minor (Txakur Txikia).

Eskuan daukan arkuak gezi bat jaurtitzeko itxura du, gerrian daraman ezpata gerrikoari lotzen dion uhala, hiru izarrek osatzen dute, hiru Mariak izenez ezagunak.

Zazpi ahizpen (Pleyadak) atzetik dihoa zeruan, eta gauero gauero azaltzen da Orion gizonen begi aurrean. Eternitate guztian hau du bere patua: arkuá eskuan eta zakurrak atzetik, zazpi izar ahizpen atzetik ibiltzea.

Zeruan dakusagun izar motarik ederrena bera da<sup>71</sup>.

---

71. *Diccionario de la Mitología Griega*, 144 or.

Joanito txistularia ikusi dutenek diotena (I)

171. *Gue ama Latsanekoa zan. Gaztea zala, Asurmendiko Agustiña ta bik Olaberria juten tzien josten ikastea.*

*Neska gaztek, kontu kontari eoten tzien josteko denboran, da eun baten gue ama Joanito txistulariri burlaka aitu mentzan.*

*Jostea akau ta Agustiña ta bik irten tzien etxea, Asurmendi barnea allautakon zarrarea sentitu mentzon gue amak da illek ê zuti jarri mentzikon.*

*Etxea bildurrez abiau zan, baño etzion Agustiñai launtzekoik eskau. Asurmendin farola eman tzien.*

*Laroge bat metro barru, au, au, au, aitu zon txakur aundi 'aten zaunkarea.*

*Ondoren txakur txikiña, au, au, au, au.*

*Ontan sekulako aize bolarea ta Joanito ori aizetan azaldu mentzan, sotana luzea zâlduta zola ta bi txakur atzeti zitula, bat aundigoa da bestea txikigoa.*

*Abade ori oso flakoa mentzion.*

*Gue ama gaxoi farola re, emendau mentzikon da berak nola etzekilla, etxea allau mentzan. Iru eunen ez mentzan oiti jaiki.*

*Ori gezurre zala norbeitek esaten bazion, —euri irtengo al dik—, —Pimienta Dios<sup>72</sup>—, kontestatzen tzon.*

Joxepa Azurmendiri 1980-6-8an jasoa.

Joanito txistularia ikusi dutenek diotena (II)

172. *Beñ, abade`at mezea ematen ai zala, txakurran zaunka otsa aitzen tzon.*

*Ala zion be arten:*

*— Erbie ia arrapauen tzellea ba orik!*

*Geio pentsatzen eon bê, mezea utzi, eskopetea artu ta bê bi zakurrek atzeti`zitula, erbiñ atzeti`jun tzan.*

*Ordun Jangoikok Juanito abadei, kastigu gôr au eman tzion, txakurrek atzeti`zitula, sekula sekulorun erbiñ atzeti`ibiltzea.*

*Ola mendalle oaindio.*

*Aizek txistu eiten donen, Juanito apaize mendâlle txakurrai oska.*

*Gue attek bein, gauen lastazok lotzen ai zala, fiu- fiu—, txistu eiñez eta eskopetea eskû-tan tzola ikus tzon gizon bat.*

*Ikeizko Patxio izango zala pentsau zon —au ibiltzen tzan gauen eizen—, “Kaxo”, esan tzionen, beize fiu-fiu-fiu, eiñez izkutu mentzan.*

Joxe Alustizari 1980-8-5ean jasoa.

---

72. "Pimienta Dios". Erderazko "Permita Dios" zen. Juramentu bezela erabiltzen zen esâldi hau.

Joanito txistularia

173. *Beñ abade'at mezea ematen ai zan. Ontan txakur baten zaunka otsa aitzen tzon.*

*Ala zion bê arten:*

*— Erbie ia arrapatun tzellea ba txakurrek!*

*Geio pentsatzen eon bê, Mezea utzi, eskopetea artu ta bê bi zakurrek atzeti zitula erbiñ atzeti jun tzan.*

*Ordun Jangoikok Joanito abadei zigorra eman tzion: Txakurrek atzeti zitula, sekula sekulorun erbiñ atzeti ibiltzea.*

*Ala mendalle.*

*Aizek txixtu eiten donen Joanito apaize bê txakurrai oska dallela esaten da.*

*Joxe Alustizari 1980-8-5an jasoa.*

### XIII. IKAZKINTZA

Etxola

174. *Batzutan koadrillek lana ein bear tzon lekun arrizko etxaolea eotea tokau zeiken. Ordun etxaola ok aproetxatuz eiten tzan ikatza ta koadrillek bertan eiten tzon bizimodue.*

*Geianetan ikazkiñek etzuen olako suerteik izaten da ordun koadrilla'akoitzek, berea ein bear izaten tzon.*

*Etxaolen lau paetak, zotalak alkarren gañen jarriz eiten tzien.*

*Eskubi ta ezkerreko paetak berrogei ta amar eo irurogei bat zentimetroko alturakok iza-ten tzien.*

*Etxaolen aurreko ta atzeko paetak goraño zotalazkok zien.*

*Metro 'at inguruko zabalerakoa zon atea, gizona kaitzeko mukoa. Laukoadroko armazoi bati pago adar txiki ta ostodunek lotzen tzikon, askotan sokaik ê ez ta zuman batekiñ igoa. Sartu eo irten ein bear bazan kendu ta ipiñi eiten tzan ate ori. Etzon bisagraik.*

*Etxaolen sarrerea etxaolen aurrekalden luzeran metro 'at inguruko leku libre 'at tzan, etxaolen tellatupek babesten tzon. Zaku zâr batzukiñ estaltzen tzuen. Sue torterok sarrera onen aldamenen baten eiten tzon. Etxaolan etzan suik komeni, txillarrek su artu zeiken.*

*Etxaolen luzerea iru'at metro ta erdikoa zan da zabalerea iru metrokoa gutxi gora bêra.*

*Zotalazko atzeko ta aurreko paretan erdin, bi araki sartzen tzien al tzan trinkoana ta bi zutabe ogai irugarren araki'at ipiten tziten zearka, "goiagea".*

*Ezker eskubitako paetatati goigara re arakik jartzen tzien ixurie emanez, euri eunetan urek korritu zezan.*

*Tellen ordez arakik zotalakin tapatzen tzien. Zotalak belarra barruko aldea euki bear tzuen, bestela barrua lurre eroitzen tzan.*

*Goiko zotalak bêkon gañen ertza zuela ipintzen tzien, tellak bezela, ixurie erreztoko.*

*Esan bezela aten aldamenen torterok arrantxoa prantatzen tzon.*

Etxola barruti

175. *Etxaolek iru metro ta erdi inguru zitun luzen da iru 'at zabalén.*

*Erdiñ leku libre 'at eukitzen tzon.*

*Leku libre onen bi aldetâ, zearka, ipurtaulkik esaten tziten bi aulki luze eoten tzien.*

*Ipurtaulkiñ jaten tzituen ikazkiñek talok eta babak.*

*Etxaolan etzan mairik.*

*Ipurtaulkiti paetâ arakik zearka ipiñi ta ogan gañen jartzen tzan lotako kamañea. Araki ok al tzien mêanak izan bear tzuen kamañea biunagoa izan tzeiñ. Arakian gañen txillarrea botatzen tzan biungarri.*

*Jan ondón ikazkiñek anak ipurtaulkiñ tziuela etzaten tzien kamañan.*

*Ola lo eite' gendun gaztetan da ez gendun pastilla bearrik izaten lo eiteko.*

Goizen txorikiñ esnatze' giñen batzutan. Txoriri gizona bizi dan ingurue gustatzen tzako. Ikazkiñen despertadorea txorik tzien da nausin jeuparea re bai.

Goizen jaikitakon etzon iñok musuik garbitzen. Jana eiteko ta erateko laiñ ur izaten tzan etxaolan. Askotan iturrie urruti ta etzan urik alperrik galdu bear.

Esatera zârrak ê ola dio: "ikazkiñek arpegie beltz poltxikoa garbi".

Txondorra

176. Beste lan danetan bezela ikazkintzan ê ofizial bat eonten tzan, ikatz egoslea, onek jakiten tzon ikatza nola egosi bear tzan da txondarra onek manejatzen tzon.

Mendie eo basoa bê kontua artzen tzona nausie izaten tzan, bat, bi eo iru re, izan tzeizken da koadrillen soldatak eta gastuk ok patzen tzituen. Gañeako langillek, koadrillek, zuaitzek eo zuaitz adarrak bota ta kana ta erdi inguruko luzeran mozten tzituen, gero txondarra ein bear tzuen lekun pillatzeko.

Jende oni danai koadrillea esaten tzikon.

Ostoa asi baño lênao moztu bear tzan egurre bestela ikatz elkorra ematen tzon txondarra, beñ izardie moituta botatzen tzan egurrekiñ eziñ ikatz onik eiñ.

Ikatza eozeiñ egurrekiñ eiñ leike. Aritzen ikatzak txispa asko `o ta ezta gustagarrie.

Errementarik burnie tenplatzeko gaztiñena ebaltzen tzuen da beste eozer gauzatak o pagano `a oso ona. Ikatzik fiñena artena `a, artea bezelakoik ezto ikatza eiteko.

Intxusekiñ ê oso ikatz fiñe eiten da.

Pago-egurre ikatza eiteko ilberriñ botatakoa izan bear tzon.

Aizkorrondon laño asko izaten da, lañolekun azi dan egurrei laño-egurre esaten tzako. Egur au debillagoa izaten da, ikatz onek ezto beste pagoikatzen grazik, alkohol gutxigo nunbait da ikatza maskalagoa do.

Aizkorriñ azpiko ikatzik jendek etzon nai izaten, txondarrak egur ôkiñ eiten tzien, ikatza saldu re bai, baño alako estimazio aundik bê.

Araiako Ajuriak erretzen tzitun garai baten Zeamako ikatzik geianak da Telleriko Ermenejildo zan inguru ôtan ikatzik onana eiten tzon ikazkiñe.

177. Txondarra eiteko lekuik onana lênao re txondar zuloa izan tzan lekue zan âl izan ezkió.

Aldapan txondarra ein bearra re tokatzen tzan, da ordun tranpala ein bear izaten tzan, da tranpal-txondarra zon izena txondar onek.

Tranpalen etzan txondarra ondo egosten, naiz lurrez tranpala estali, txondarrak aizea artzen tzon da aizek txondarra enreau eiten tzon.

Al bazan lengo txondar zulon da bestela zulo berriñ ein bear tzan txondarra.

Txondarra eiten asteako lurren "sarea" esaten tzikon estalki

'at eiñ bear tzikon oso egur mêakiñ, txondarrak ezto lurrik ikutu bear, lurren gañen daren egurrek ezte egosten.

Saren gañen da txondargaien erdi paren tximinie eiten asten tzien.

Tximinin kontra jartzen tzien arakik buruz gora bueltan bueltan, egur lodie bean jartzen tzan, mea beiz goien, meak gora errezago jasotzen tzien.

Sue bean eoten tzan ta egur lodik bean errezago egosten tzien.

Iru egur illarakoa izan tzeiken txondarrak eo laukoa re bai aundigoa ein nai bazan.

Ogei kargako txondarrak ê eiten tzien.

Ikatzan neurrie zakue zan. Karga 'at bi zakuk eiten tzuen, ikatza kargaka kontatzen tzan.

Zaku 'aten pixu reglamentarioa 42 kilo zien.

Astok karga 'at eamaten tzon.

Mandok bi karga.

Idi parek zortzi karga.

Bosteun kilo egurrek karga 'at ikatz eiten tzuen.

Zakue apropos neurria eiñe izaten tzan ta ixteko zakutxapea muturren ipiñi ta sokea mutur ertzetati ertzea kruzatuz ixten tzan.

Zakutxapaik etzionen eskukara 'at garo sartzen tzikon onen lekun. Zakutxapei gaztiña adar mê 'atekiñ eiten tzien uztaie. Eta bitartea aritz zintaz estaltzen tzan silla ipurdik bezela.

Mandazaiek zaku utse ta zakutxapak ikaztokia eaman bear izaten tzituen.

Egurraren karretoa

178. Esan deun bezela aizkolarik txondarrandako bearko zien egur guzik botatzen tzituen, gero kana ta erdi inguruko neurrin moztu ta aizkenik egurre txondar zuloa karreatzen tzituen.

Karretoako ikazkiñek astoa eo auntez deitzen tzikon tresna'at ibiltzen tzuen. Tresna au kana ta erdi inguruko kirten bat izaten tzan, punta 'aten egur lodigo 'at eukitzen tzon T baten forman, trabes zion egurrek bi puntatan, alde bakoitzen bi ziri eamaten tzitun, asto onen ankea ia gizonan alturakoa izaten tzan, kargatzekoa eo ikazkiñek lasai deskantsue nai zonen anka au lurren jartzen tzan. Trabes tzion egurren bi ziritan ipiten tzan eaman bear zan kargea.

Astoa egurrez kargau ta bizkarren eamaten tzan txondar zuloa, naiz arakie naiz egur lodie.

Errekazuloti irten ezin da aldameneti launduz etatzen tzien asko muzko egurrek.

Koadrillan danak ezgâ izaten indarrez berdiñek, amaika pelea ein tzan ikazkiñan arten zeñek egur trakets eta aundigoa eaman apuestok eiñez. Tokik txarranen tzion egurrik trake-tsana ta zallana artu bizkarren da eaman eziñda uzten bazon batek, beste norbaitek artuko zon da zeuzkenak bota arten eamango zon.

Apuestok sarritan izaten tzien. Egur tzar bat bota bizkarrea ta eaman ein bear, askotan ezin da kontuk izaten tzien.

Kaballeri'at eo mando koskor bat iru gizon baño geio zan egur karreon da askotan merkegoa, baño mandoa mantentzea alper gastue iruitzen tzikon jende ari.

Txondorrarekin aurrera

179. Tximiniri azpin sutokie jartzen tzikon. Su onek egosi oi zon egur dana. Zortzi orduz bein betegarrikiñ indartzen tzan su au. Tximinik txondarran luzerea zeuken.

Tximinie berrogei ta amar bat zentimetroko luzeran moztutako egurrekiñ eiten tzan. Botilla 'aten mûko lodierea izaten tzuen egur ok, laukoadron alkarren gañen jartzen tzien txondarran puntaño.

Tximiniri su-kajea re deitzen tzikon.

Txondarrak naiz aundik naiz txikik betegarrie antzeatsu bear izaten tzuen.

Betegarrie noiz gastatzen tzan txondaregoslek antz ematen tzion.

Txondaregoslek bê konfiantzako motil bat aukeratzen tzon da ola txondarrai obeto kaso eiten tzikon betegarrie sartuz.

Betegarrie erre alan egurrek egosten tzien, txondarra erre ezkie ikatzak etzon ezertako balio.

Betegarrie txondarrai tximiniri sartzeko, eskillara'at eiten tzan lurreti txondar bizkarra zear tximinia ta ola sartzen tzikon txingarrak pala'atekiñ sutegia.

Egur lodie ondo egosi bê geatzen bazan "ilintxie" deitzen tzikon da beiz egosi bear iza-tzen beste txondar baten.

Txondarra lenengo barruti ta gero kanpoti egosten tzan.

Txondarra ondo egosteko tapau ein bear tzan. Gañeti "sarea" eo tapagarrie jartzen tzi-kon. Orbelez ondo estali bear tzan da egur aundian zirriztuk garokiñ tapatzen tzien. Geo beiz gañeti "iruriz" estaltzen tzan txondar dana. Estalki oni guztiri "sarea" deitzen tzikon.

"Iurrie" txondarra lênao eondako lekuko lurrei esaten tzikon.

Txondar zuloko lur au ikatzautsekin nâsi eoten tzan.

Bestelako lurrek arri koxkorak eukitzen tzituen da berokin tirok eiten tzitun ta ori etzan ona.

Aizei etzikon txondarran barrua sartzen sekula utzi bear.

Euri asko ai bazon eo aize aundie bazellen irurik korritu eiten tzon da lanak izaten tzien sarei eusten.

Lau eo bost eunen egosten tzan txondar txikie, amabost bat eunen aundie bazan. Txondar zuloa errez eiteko moduik baldin bazion zenbait eta txondar aundigoa ta obe, ikatz geio.

Txondarra pizten tzanen, tximinie zotalez estaltzen tzikon.

Ikatzegoslek jakiñ bear tzon sue barrun nola zellen. Erditi alde'atea geio egosten baldin bazan, txondarrai utsunea formatzen tzikon da beste aldeti zataiekin zulau ta aizea artu erai-ten tzikon, beste aldea tirau bear tzan beroa ta ola txondar dana berdiñ egosten tzan.

Barrun sue beti indarren eon bear tzon.

Txondarrak itzalita ondo iraun tzeiken eun batzutan.

Mandazaiek bi eo iru eunen ikatzeta jute ez pazien, oneati eo areati, txondarra ondo eoten tzan tajú onen tapau ta sue ondo itzali ezkie.



*Lênengo goiko ikatzak etatzen tzien.*

*Ikatza etatzen goizeko ordu bitan eo ola asi bear tzan. Eun argiz ezta ona.*

*Ikatzetan sue eon tzeiken da orreatio "larrañe" esaten tzikon baztar batea bota ta ikatz dana zâl-zâl uzten tzan. Sue azaltzen bazan eunez etzion ikusteik, gauez bai.*

*Eune zâlzteako ikatza etâ ein bear tzan, gero andi betetzen tzien zakuk.*

*Balde 'at eo bi ur bazpare pronto euki bear tzien ikatzetan suik bazion ê itzaltzeko.*

*Al tzan urik gutxiña bota bear tzikon ikatzai, urek itotako ikatzai sustantzie galtzen tzikon.*

*Ikatzak ure eman alan eraten tzon.*

*Bustitako ikatza enrreau eiten tzan. Saltzekon ikatza bustie ziola sospetxau ta zakue zabaldu ta ikatza bustie billatzen ba zuen, zaku aren proportzion karga danai deskuentoa eiten tzikon.*

*Ure, ikatza larrañea etatzekon kontu aundiz ibil bear tzan, sue itzaltzeko lain bota ta kito.*



### **Ikazkinen zenbait ohitura eta abar**

**180.** *Ikazkintzea izan leiken ofizioik sanoana zan.*

*Ikazkintzan etzan inor gaxotzen. Autse zan zikin guzie, eskuk eta arpegie aste guziñ etzien garbitzen, erropak aldau beiz amar eo amabosten beiñ.*

*Etxaolati ordu betea eo ordu erdia eoten tzan ure askotan, pintxek naiko lana zeuken erateko ta torterontzat bear tzan ure ekartzen.*

*Baserri txikik tzien emen da altzanea jo bear izaten tzan.*

## Arropa

181. Eunezko alkondarea etxen eindakoa jazten tzuen, belaunetañoakoa. Alkondara ogan aurreko partea ta atzekoa ankan arten kruzatzen tzien, atzeko partea aurea ta aurrekoa atzea.

Gañeti eunezko prakak jazten tzituen da alkondarek betetzen tzon kantzontzilloan lekue.

Gue attek soldaduzkan 1893 inguruan jantzi mentzitun lēnengo aldiz kantzontzillok. Kamisetak eta jertsek zer tzien ê iñok etzekiñ.

## Torteroa

182. Torterok babak egosi ta talok erretzen tzitun. Jana eiteko bear tzon ure pintxek ekar bear izaten tzion. Pintxea koadrillako gazteana izaten tzan, geianen nausin baten semea. Pintxeik ez pazion egarri galantak pasatzen tzien. Askotan ure urruti ta nausie etzan pintxea uretā bialtzea estenditzen. Bekokiko izardie eskun artu ta ola aua bustita nô ni.

Torterok goizen babea talokiñ, eguerdin da gauen ê jan klase berdiñe jartzen tzon.

Oañ idiai ematen tzaten baba aundi ori jaten tzan.

Gue garaian litro ‘ana ardo ematen tzikun eunen.

Lēnao ure bakarrik eraten tzan.

Mantenu au nausik patzen tzon.

Norbeitek beste zerbait nai bazon bê kontua erosi bear tzon.

Babei txerrin gantza ematen tzikon, torterok etzon sekula olioik ebaltzen.

Torteroa gizon eldue izaten tzan.

Bê lana otorduk gertatzea zan da kamañak ê arek zuzentzen tzitun.

Torterok talok talomotillen gañen eiten tzitun. Talomotillen gañen eunezko zapi busti’at zâldu ta ore a zapi aren gañen jarri ta beste zapi buzi’at gañea botatzen tzion da ore a bi zapan erdin zapalduz taloa eiten tzon.

Ondon balde’at ur eukitzen tzon zapik eta eskuk bustitzeko.

Gero taloa talaburnia bota ta an erretzen tzon. Torterok talok etxen eiten tzienak baño txikigok eiten tzitun.

Talaburnin jarri ta arro-arro eiten tzien talo txiki orik, bi azalekok da oso gozok izaten tzien, etxen emakumak eiten tzituenak baño askoz obek.

Lenengo talo erronden ondoren, zeñek zenbait? galdetzen tzon torterok. Nik amabost, nik amalau, nik emezortzi. Nai zonak nai zitunak eskatzen tzitun.

Gizajok taloz betetzen tzien.

Sobratzen tzien talok “talo mantenun” sun kontra gordetzen tzien da etzuen beroik eta gustok galtzen.

Ikazkiñen lapikoa gozoa zala esaten tzuen.

*Nik abadena naigo.*

*Gosea bezelako saltsaik ezto taloa bustitzeko.*

**183.** *Babea jateko "txalie" ebaltzen tzan. Txalie egurrezko plater bat tzan. Kutzarea ta txalie askotan ikazkiñek erak eiten tzituen kotxilloz.*

*Etzien eozeiñ egurrekiñ eiten. Gaztiñek eta aritzek tintea due, eztie egokik, pagok tinta gutxigo 'o. Lertxunek eta urkik bate ezdue, geianen txalie lertxunekoia izaten tzan.*

**184.** *Ikazkiñen kutxarea egurrezkoa izaten tzan. Bakoitzek bê kutxarea eukitzen tzon.*

*Etxaolâ kanpokon bat etortzen bazan, bazkaltzen jartzeko esaten tzikon.*

*Ikazkin batekin jartzen tzan inbitatue ta ikazkiñek eta bik, kutxara 'atekin bazkaltzen tzuen, kutxarea aldatuz.*

**185.** *Ikazkiñek euzkiti ordui antz ematen tzien. Etxaolan etzan erlojuik eoten.*

*Torteroek euzkiri beitu ta jakiten tzon gora bêra aundik bê eguerdie noiz tzan.*

*Lana argiti argia eiten tzan.*

*Ikatza etâtzekon etzeon orduik eta gaurik, jairik ê ez.*

*Nausik bat baño geio izaten tzien.*

*Ok erosten tzuen jana, ikatza saldu ta motillek pau re bai.*

*Sobratzen tzanakin nausik geatzen tzien. Suerte txarra tokau ezkiio nausiai dirue galtzea re suertatzen tzien.*

*Bein Musasoko nausi 'ati San Mieletan kontu danak ein dakon, lanen ebalitako astoa tokau mentzikon deboraldi guziko irâzizat.*

*Nausik eta motillek oso alderdi gutxi zuen irabaziñ.*

*Nausik askotan lana motillek baño geio re eiten tzuen batez ê sallen ai bazien da motillek lan geio eitea beartu eo bultzau nai bazituen.*

*Jeuparea*

**186.** *Torteroek bazkaltzeko ordun jeuparea jotzen tzon da ikazkiñek beste jeupara 'atekiñ kontestatzen tzien, aitu ziela alegie.*

*Koadrilla 'akoitzek bê jeuparea zon beste koadrillakotati oso desberdiñe.*

*Koadrilla 'ateko jeuparekin beste koadrillakoik etzan sekula nâsten.*

*Zeaman Mazkianen izan bear tzon tortero famatue, Aizkorri ta beste ingurutan jeuparaik politxana jotzen tzona ta gañea mutue mentzan.*

*Mutuk naiz itzik ez eiñ eztarrikiñ otsak etâ daizke.*

## Aizkora

187. Aizkorea burnizkoa izaten tzan baño aua galtzairukiñ eiten tzikon.

Galtzairue ta burnie libratzen bazien aizkorei "soie" moitu zikola esaten tzan.

Izotza eiten tzon gauen aizkorea ondo gordetze' ezpazan, urrengo goizen lanen asi baño lèn sun ondon berotu bear tzan.

Otza galdu alan, auan sortzen tzikon izardi tantonak ondo sekatzea komeni zan, bestela aizkorek tenplea galtzen tzon.

Ikazkintzako aizkorek pixue lau libra ta erdi zon, arakik ebaitzeko txikigoa eballi oi zuen.

## Ajustea

188. Aingeru goardakon eunen eiten tzan ajustea. Martsun baten.

Motillek Kontsejun eo Konfiterin biltzen tzien nausikiñ.

Bazkaltzeko denboran nausie ta motillek tratun aitzen tzien.

Nausikin tratue ixten tzuena bazkarie onek patzen tzien.

Nausi bakoitzek bê errotarie eukitzen tzon da bazkari ontâ otsein eiten tzikon oni re, ia denboraldi berriako tratuk berritu bear ote zien eo ez.

Errotarikiñ ê eun ontan eiten tzan ajustea.

Errotarik bai "cedazo" lasai 'aten zairik aundiñak bakarrik kentzen tzion iriñei. Zaie erro-rarintzat izaten tzan baño zaien truk iriñei komeni zikon gatza errotarik eman bear tzion.

Errotarik eun kiloko amar kobratzen tzitun gañea.

Errotarik ikaztokia zakue kartolan gañen eamaten tzon, bêrakon ikazkiñek prantatzen tzien egurre ekartzeko.

Motillekin bi mûtako ajustek eiten tzien.

1. Egurrek bota ta karreau artekoa. Lan au eindakon batzuk etxeko lanak eitea jaxten tzien. Motil askok egurrek bitu ta libre geatzen tzienen, etxeko garik ebaitzen tzeituen da gero Arabakok. Araban garik Zeaman baño berandugo eltzen die.

Arabati etorri ta etxeko belarretan asten tzien.

2. Bestek San Mielak arten aitzen tzien ikatza eiten.

Bazan esaera 'at. "San Mielelan ikazkiñen alkondarea pisue izaten tzala".

Oañ irurogei ta amar urte, lau orduko loa, litro 'ana ardo ta oei ta amar duro illen eskua mentzien motillek Telleriko Ermejildo. Onek berroei duro illen da ardo trago 'at otordutan eskeñi mentzien baño berak nai zon ordun motillek esnatzekotan.

## Zauriak

189. Aundiñak eskutan sortzen tzien. Negun aizkoran ein bê baldin bazion bat, aizkoran asitakon eskuk aragi bizin jartzen tzien.

*Eskuko babak izaten tzien ikazkiñen etsairik aundiñak.*

*Kallok gôrtu arten aizkorea mintsue zan.*

*Tokatzen tzan esku mindutati aizkorek iges eitea re. Nekea bakarrik etzon ikazkintzek, sufrimentue re bai.*

*Bazkaltzea etxaola jun bear da ikusta gare gizona eskuti aizkorea soltau eziñda. Nunbait zaurik esku junturak gôrtu ta kirtena eskuai pegau ta eziñ aizkorea soltau iñola ta esku barruk dana aragi biziñ.*

*Bizkarren ê zauri galantak sortzen tzien. Aston eo auntzen eamaten tzan egurre txondar zuloa ta lan au oso aztune zan.*

*Bizkarren kolloik etxeukenai, astok bizkar-burue erabat odoltzen tzion da alare lana eziñ utzi ta zaurin gañen beiz ê astoa kargauta artu bear.*

*Gue attek esan tzon amaika aldiz, praka zâr batzukiñ estali bizkarra aston ikutue biuntzeko ta ala re sorbaldea zauritu ta zauriñ arrak einda ezautu zola gizona.*

Gaixoak

*190. Bakarren batek ankan bat ebai eo norbeit arbolati eroitzen bazan etzikon ezer pátzen.*

*Asto gañen bialtzen tzan etxea gizajoa.*

*Askotan âl tzon bezela ta bakar bakarrik jun bear geñea, nausie etzan estenditzen launtzeko motil bat ematea re.*

Oporrak

*191. Egualdi txarra zionen etzion lanik eiteik.*

*Eune etxaolan pasatzen tzan.*

*Opor eune etzan kobratzen.*

Trontza

*192. Trontzea egurre mozteko aizkorea baño askoz egokigoa da. Gue ikazkiñek etzekien trontzea zorrozten da langillek autseinda geatzen tzien zerran. Orreatio aizkoraz erreza-goa zan lana.*

*Ikazkiñen arten sarri izaten tzien burrukak, au ori eo bestea zala ta.*

*Diru arazoz ordea etzeon sesio aundik.*

*Ikazkintzan lana ondo partitzen tzan, irâzik ê danantzat berdinxamarrak izaten tzien. Ze partitu gutxi zion.*

*Ezer ezton lekun eskuk garbi.*

Erlijioa

193. *Ikazkiñek elizkoiak zien gue zâr danak bezela.*

*Egoaldie naiz txarra naiz ona eiñ antxitiko mezatâ etorko zien. Maldizioa auti ortzea ibilko zuen baño jaiko mezaik etzuen galduko.*

*Goizen jaiki ta lêndabiziko "Pater Noster" bat nausik eta motillek errezatzen tzuen.*

*Ola zien gizon zaildu agan kontuk.*

*Nikolas Zabaletari, 1992-3-4ean jasoa.*

#### XIV. EUSKAL HERRIKO ANIMALIA SAKRATUAK

##### Kukua

Kukua zergatik da hegazti sagaratua?

Kontuan izan, kukua beti udaberriarekin datorkigula gure herrira, eta udaberriarekin dihoakigula:

Kukuak Andre Mari Martxokoan Erromako zupian jotzen omendu kuku, urrengo egunean jotzen du gure lurrean.

Andre Mari Martxokoan kuku,

San Pedroetan mutu.

Edo:

San Pedrotan kuku,

San Martzialetan mutu.

San Martzial ekainaren 30ean, eta San Pedro 29an ospatzen ditu Ama Elizak.

Udaberri osokoa da beraz, kukuaren kantua.

Antzinako gizon-emakumeek, harritzekoa ez den bezala, kukuak udaberria zekarkiola uste zuten.

Ama Birjina Martxoko egunean kukuak ez jotzea, gaitz gogor eta beldurgarria zen, ez zetorren udaberririk.

Zegamako esaerak hala dio: “Andre Mari Martxoko eunen kukue agiri ez pâ, beatzi idi parêi gurdie lotu ta bê billa jûn bear menda Erromako zupia”.

Kukuak kantua derrigor San Pedro-San Martzialak ondoren ixildu behar du, bestela gaitz handiak etorri litezke.

Kukua derrigor Sanpedrotan isiltzen da.

*194. Aurten San Pedrok pasau ta amar eunea jo do. Ori aizkeneko aldiz, gerrea asi zan urten gertau zan. Aurten ê izango die ezbearrak.”*

*Migel Goenaga Ansari 1993-7-11ean Urnietan jasoa.*

Kukua zoratzea, izadia edo, nolabait esanda, trszendentzia zoratzea litzateke.

Neurrigabeak lirateke ondorioak.

Horrela dira herriaren usteak. Kukuak darabilki denboraren kurpila, batez ere udaberrian.

Europako beste herrialde batzuetan, kukua ahotik urrea darion txoria da.

Alaitasunaren eta biziaren ikurra.(Kalevalako 13 testutan dator gauza bera).

195. *Txantxangorri kukuk arrautzak bota eiten dio âpiti eta bê bakarra jartzen dio. Txantxangorrik kukun arrautzei berotu ta umea etâtzen dio.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-9an jasoa*

196. *Kukun umea jaiotzen danen, onen apia jan karreon ibiltzen die inguruko txori guzik.*

*Bakarran jana gutxi izaten do onek.*

*Kukuk au ingurue gorrie do.*

*Kukun umea txiu, txiu eiñez eoten da ta anak bakarrik euki ohi ditu apiñ.*

*Apiti kanpoa irtetzen dio ipurdik, egok beiz apin zintzilika eukitze`itu, kaitu ezinda.*

*Amea arro arro ibiltzen da apiñ ingurun, umeai jana ematen ai dien txorik zaitzen.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-9an jasoa.*

Zegaman kukuari buruzko esaerak

197. 1) *San Pedrotan kuku, San Martzialetan mutu.*

2) *Orrek datorren urten ê kukue aitukô.(Osasun ona daukela batek.)*

3) *Kukue etorri gosea etorri,*

*Kukue jun gosea jun.*

*(Udaberrie gose garaie zan lênao.)*

4) *Kukue amairu urten kolejion eona menda. (Azkarra 'ala.)*

5) *Kukuna eiñ. (Matrimonion ume bakarra eukitzea.)*

6) *Kukue baño alperragoa.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-9an jasoa.*

198. *Kukuaz zenbait iritzi*

*Kukue Ama Birjiña Martsuko eunen asten da kantatzen Erromako zupiñ, San Pedro biamonen mututzen da.*

*Kukue jotzen asi baño lên emen ibiltzen da, mutututakon kanpoa juten da.*

*Andra Mari Martsuko eunen kukue agiri ezpa, beatzi idi parêi gurdie lotu ta bê billa jun bear menda Erromako zupia.*

*Kukuk kantatzeko gaztiña muskil bat biun biune eztarrin jarri bear izte'mendo. San Pedrotan ostok gortuta darelako kukue kantau ezin da geatzen da. Beste leku 'atzutâ jute'menda ordun.*

*Ostok bein zakartu ezkiô, eztarriñ eztiue kuku otsik etatzen.*

*Arrautzea bakarra jartzen do urte guziñ.*



*Txantxangorri berdiñen apin jartzen do arrautzea urtero.*

*Kukun kantue aitzen donak dirue baldin bauke, urte guzin dirue eukô. Diruik eztaukenak beiz urte guziñ ezto eukô.*

*Kukue gabirai txikie baño aundixigoa da.*

*Inazio Urbizuri 1980-4-5ean jasoa.*

## **Erlea**

Zergaitik erlea aberetxo sakratua?

Euli honek eusladun zaharrak harriturik utzi ohi zituen.

Euli lardaska batek nola sortu eztia bezain janari gozoa?

Ezezagun oro Sagaratua zen aro luzeetan abere hau ere, parte

oneko gauza bat bezala ikusi zuten gure aurrekoek.

Janari gozoa eta hidakoei argi egiteko argizaria ere, berak egin ohi zituen.

Arrazoi hauek zirala eta aberetxo hau sagaratua izan da gaur arte Euskalerrian.

Erlea ez da akabatzen, erlea hil egiten da.

Erlea ez da saldu behar, zerbaitez trukatu bai.

Erleak Zegaman diotenez, bizientzat jana egiten du, gehiago,

hildakoentzat berriz argia.

Norbait hiltzean, auzotar denetan erleari ematen zaio hil denaren berri lehenengo, sepulturarako argizaria egin dezan.

Erlea bizitzarekin eta heriotzarekin loturik dago.

Dakigunez erleen lehenengo pintura Paleolitiko Arokoa da, Valentziako Bicorp herrian Arañako haizuloan dago pintura hau. Haitz batetik eztia ateratzen ari da gizon bat keaz baliaturik eta sokazko eskilaretatik.

**199.** *Erlea euskeraz erleontziko euli bakoitzei ematen tzakon izena 'a baño erleontziri re erlea esaten tzako.*

*Erramun Zabaletari 1980-5-2an jasoa.*

**200.** *Erlea negun errez geatzen da janik bê. Erlea galtzen bâ sekula ezta esan bear akau ein danik, ill ein dala esan bear da.*

*Erlea animali santue da. Ildakoantzat argizarie eiten do eta bizi dienantzat eztie.*

*Eramun Zabaletari 1980-9-4ean jasoa.*

201. *Norbeit iltzen danen, erlei erleontziko atakea zabaltzen tzako.*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-8an jaso.*

202. *Erlen ozkarea azi eztein, lora oriz igortzi bear da minduta don lekue. (Eozeiñ lore oriz)*

*Frantzisko Berasategiri 1980-7-8an jaso.*

203. *Erlen ozkarea osasunentzat on'`a.*

*Jose Agirrerri jaso.*

*Ozka eiten don erlea beala iltzen da, miztokiñ batea estek uzte`itu ozka eiten don tokiñ.*

*Andres Agirrerri 1981-9-5ean jaso.*

203 (bis). *Erlea ezta dirun truke eman bear. Erlea gauzen truke eo duan eman bear da. Erlea dirun truke ematen bâ suerte txarra ekartzen do.*

*Pedro Arrietari 1981-3-4an jaso.*

Erleak umea bota

204. *Erleontzi 'atek ume 'at eo geio bota daizke urten.*

*Erregiña berri 'at jaiotzen danen, zârra erleontzi zârren geau ta erregiña berrie kanpoa juten da.*

*Erleontzi 'aten bi erregiña ezin leizke eon.*

*Erregiña berrik erle talde aundi 'atekiñ iges eiten do.*

*Au gertatzen danen erlek umea bota dola esaten da.*

*Erle berrie bateti bestea ibiltzen da denboratan etxe billa.*

*Arbola zulon baten sartzen da geianen, pareta zulon baten ê bai.*

*Arbola enborren don erlea, lêngengo billatzen donandako 'a, billatzallek arbolei kutzea eiten dio ta erle ura ezin daike iñok artu.*

*Ramon Zabaletari 1980-7-8an jaso.*

205. *Erlekumek erleontziti irtetzen donen erregiñen bueltan ibiltzen die erlek eta erregiña geatzen dan lekun geatzen die, mâts luko aundi baten tankeran.*

*Askotan noabait abiau aurreti, olaxe eoten die ordutan.*

*Frantzisko Berasategiri 1981-9-6ean jaso.*

206. Erlekumea erle ontziñ sartu deiñ, erleontziñ intzentsoa jartzen da ta intzentson usaira erlek kajan sartzen die.

Batzuk erleai kontuk esanez, poliki-poliki kajan eskukiñ sartze"itue, ondo erlekiñ oituk eiten due au.

Erlek êkiñ asko dailtzen pertsonak ezautzea allatzen die ta ez mendie ozkaik eiten.

Maria Arakamari 1980-8-9-an jaso.

Erlea asko egoaldikin, egoi aizekiñ eo bero sargoritan peligro aundikoa da, pertsonai egoera ontan errez eltzen dio.

Etxe 'atek su artzen bô ta erleontzin bat gertun balin bado, erlek erotu eiten die ta pertsona ito daike. (Ezpalio Bekon gertau zan au)

Egoaldi epelakiñ eiten do erlek lana ondona.

Euri egoaldie danen ontziñ eoten da.

Tomasa Agirre 1980-4ean jaso.

Erlemandoa erregiñea umetzen don erle arra 'a. Lanik eztue eiten, da erleontziñ ugari-tzen badie ezti dana jaten due.

Erle mando bakoitze bi erlen arten iltzen due.

Ramon Zabaletari 1980-2-7an jaso.

207. Erleai atakan azukarrakiñ ardoa jartzen tzate ezti geio eiñ ezen.

Franzisko Berasategi 1980-6-2an jaso.

208. Erlekumea leku berria dijonon, eskukara'at lur bota bear tzako ta txixtu jo.

Eozin lekutan geatzen da, batzutan pertsonengandi bi pausoa. Trapu zuri`at geatzea nai dan lekun jarri bear tzako ta an geatzen da.

Franzisko Berasategi 1980-7-4ean jaso.

209. Erlekumea leku berria dijonon ez tijo sekula mendiz mendi, kamiñoi eo trenbidei seituz jutun da. Ordu gutxiñ asko korritu daike.

Franzisko Berasategiri 1980-25-7an jaso.

210. Erleontzik daren tokin kontuz ibil bear da. Segen otsakin erlek zearo erotzen die ta gizonai gôr ekiten ê bakie.

Franzisko Berasategiri 1980-5-2an jaso.

211. *Erlek billatzeko, onek ure nun artzen don beitu ta gero noa dijon seitu bear tzako.*

*Erlek eozin urnearretan ure artu daike.*

*Franzisko Berasategiri 1980-21-7an jasoa.*

212. *Exten norbeit iltzen tzanen, erategiko atakea jaso ta erleai abisoa ematen tziten argizari geio ein tzezen ildakondako.*

*Errito eder au aizkeneko aldiz Zeaman, Altamiko Julianak eta Bonifaziak ein tzuen, ama iltzitenen.*

*Garai baten argizarie eamaten tzuen emakumak Elizâ ta argie ipintzen tzuen ildakon sepulturan.*

*Isabel Aseginolazari 1989-2-6ean jasoa.*

213. *Erlea gauza santue da, bizi dienandako eztie ta ildakondako argizarie eite"itu.*

*Jose Arrietari 1980-6-9an jasoa.*

214. *Gue etxekoaneko Mattoloi Otsarteti bêra zetorrela, erle"at gorputzen bueltan ibil tzikon denboratan. Etxea allau zanen bê semea ia illen tzion.*

*Erlek abisoa eman nai ziola pentsau zon.*

*Jose Arrietari 1980-8-5ean jasoa.*

215. *Esaera Zârra. Erletan da beorretan gizonak ezto bê diru guzie jarri bear.*

*Pedro Arrietari 1981-5-3an jasoa.*

## **Sugea**

Sugea sakratua al da?

Benetan ez.

Sugearen aurrean gizonak beti hotzikara senti du.

Oroit adibidez erensugea, mundu guztiak ezaguna du inoiz eta inork ikusi ez duten suge hau. Gizonak eta emakumeak irentsi eta janez bizi zen. Euskal Herrian baditu mila ipuin.

Gure folklolean, on egina gaiztakeriz ordaintzen du sugeak.

Biblian gizadiaren hondamendia berak sortu zigun.

Aztekak Mexiko Kondor bat sugea jaten ari zen lekuan eraiki zuten.

Bestalde sugeak gizonari inoiz ez dio gaitzik edo horzkada txikienik egiten, norberak zapaltzen ez badu.

Beste edozein abere bezala gure lagun izan liteke sugea.

Hala eta guztiz gizonaren gorroto guztien jabe da.  
Suge batzuen hozkadak ez ahaztu heriotza dakarrela.  
Sugea munduko herri denak abere madarikatuztat jo dute.  
Sexualitateaz nola edo hala lotu dute sugea gizonak.  
Jaso ditudan ipuin hauek sinesgarriak ote?

216. *Bi suga etor tzitan bein neu neon lekua sekulako txixtu otsen, bat aundie ta bestea txikigoa.*

*Bik buztan punten gañen zuti jarri ta burrukan asi zien.*

*Aundik erdi pareti eldu zion txikiri ta ondo astindu zon.*  
*Aundie txikie tragatzen asi zan, onek buztana ta burue bixtan tzitula, sekulako txixtuk eiten tzitun gizajok.*

*Laxter tragau zon oso osoik.*

*Menditi nunbait alkarri seika etor tzien.*

*Sugek asarratzen danen sekulako txixtu otsa etâtzen do.*

*Antonio Ormazabali 1981-2-5ean jaso.*

217. *Sugek arnasan imana`o. Pertsoneri imana botatzen badio, arras tontotzen do.*

*Iman ori armearmen arie bezelako zerbait izaten da.*

*Askotan pertsona `atek lanen ai dala eo mareoa sentitzen bô ta lekuz aldatzen bâ beiz ê mareoa pasau eiten tzako.*

*Sugek lekuz aldau ta imana beiz botatzen ê bâki ta pertsona beiz mareatzen ê zalea da.*

*Olako mareoa sentitzen danen, ingurun ondo beitu ta tokau da sugea norbeiti eo norberai beida billatzea.*

*Sugea akâu ezki ezta geio mareoik izaten.*

*Inazio Urbizuri 1980-6-7an jaso.*

218. *Prakak askatzea jun tzan bein gue Jose Manuel.*

*Erreka `aztarrea jun tzan da etzan agiri.*

*Nik enion kasoik eiten igariñ ibilko zalakon.*

*Agiri ez ta alakon baten zer tzon jun nitzaionen, ia eroien billau non.*

*Sugek mareauta zeuken da auti barrua sartzen tzijokion.*

*Arie makillekin puskau ta librau non gizona.*

*Sugea arnasati sartzen tzako gizonai.*

*Inazio Urbizuri 1980-2-6ean jaso.*

219. *Familie izateko ziola sugea arnasati sartu mentzikon beñ emakuma 'ati.*

*Umea jαιο ta gero, palankanan umea ta sugea ondo apartau mentzitzen.*

*Inazio Urbizuri 1980-8-2an jasoa.*

220. *Txorie sugek imanakiñ askotan bereanutzen do.*

*Imana botatzen dio ta arbolak altuneti re tirau eiten do. Txorie, gezurre dirudi, txio, txio eiñez sugena juten da. Sugek derriorren eamaten do.*

*Txori gaxok bâki iltzea dijola ta oso kantu trixtetan juten da sugena.*

*Gizonak makilla 'atekiñ ari 'at bezela imana puskau daike.*

*Tomasa Agirrerri 1981-4-5ean jasoa.*

221. *Bein neska 'ati sugea sartu mentzikon da enbarazauta bezela geau mentzan. Meikuk eta gañetikok aurdun tziola uste zuen.*

*Etxen anaie joka ibil mentzuen, arreba gaxoi pikardi ori ein tziolako.*

*Alakon baten, neskea odola zeriola jarri zan da meikui otsein tzien familie izango zolakon.*

*Ontan sugea azaldu zan baño izkutaue ein tzan beiz ê barrua.*

*Meikuk neskei sabela zabaltzea pentsau zon.*

*Anastasio ematen bazien, sugek neskea lertuko zola ta aragi bizin zabaldu mentzuen.*

*Ola etâ mentzien suga tzarra barruti.*

*Inazio Urbizuri 1980-3-8an jasoa.*

222. *Sugea arrapau nai danen plater baten esnea jarri bear tzako, sarri dallen lekun.*

*Esnen usaira etortzen bâki. Oso esne zalea da sugea.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-3an jasoa.*

223. *Txori apiñ eskue sartu ta sugek ozka eitea tokau izan da. Sugek txorikumak jan da apin lo eiten bâki.*

*Inazio Urbizuri 1980-8-9an jasoa.*

224. *Sugen ozkarea sendatzeko, ozka eindako lekue kotxillokin kûtzen forman ebai bear da, gero auakiñ zauriti odola etâ.*

*Erremedioik onana ordea au menda: zauriñ ollaskon ipurdie jartzea.*

*Ollok eta allaskok ipurditi re, arnasea artzen due ta arnasekin benenoa ozkarati etatzen juten da ollaskoa.*

*Ollaskoa akâtzea señaile ona'a, beneno dana txupatzen donen akatzen da egaztie. Batzutan ollasko 'at baño geio bear izaten die beneno dana etâko bâ.*

*Inazio Urbizuri 1980-9-4an jasoa.*

225. *Aixkonetako Bixente bein, bazkal ondón mendin siestea eitea jun tzan.  
Arbola azpiñ, erdi lotan tziola, petxun gañen zeozen moimentue sentitzen tzon.  
Launek zielakon paken uzteko esaten tzien.  
Alako'aten petxun gañen sugea koapillauta zeukela konturau zan.  
Laister salto ein mentzon.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-6ean jasoa*

226. *Sugek ortz bakarra 'o ta arekiñ ozka eiten do.  
Pertsoneri ozka ein dion sugea ill eite' menda.*

*Inazio Urbizuri 1980-7-6ean jasoa.*

227. *Sugek uretan ez mendo ozkaik eiten.*

*Tomasa Agirrerri 1981-9-7an jasoa.*

228. *Sugek beiei esnea eraten diola esaten da.*

*Atzeko ankan bueltaka igotzen dio ta esnea dixtantzia tiratzen dio.*

*Sugek eran da errapan geatzen dan esnek benenoa eukitze' mendo.*

*Beiei askotan titik gortzen tzako ta bakarren bat galdu re bai, ori sugek esnea eratekon utzitako benenok sortzen don gaitze menda.*

*Baserritar bat beie jaxtea juten tzanen, beie beti esne bê billatze' mentzon.*

*Alako 'aten susmo txarrak artu zitun da ximaur mordo dana sitxatxurrez moitzen asi zan.*

*Ximaur arten izugarritzko suga tzarra billau zon da bertan golpeka il mentzon.*

*Andi aurea beie esnea ondo ematen asi zan.*

*Inazio Urbizuri 1980ean jasoa.*

229. *Bein ume jaió berri 'at flakatzen da trixtetzen tzijon da iñok etzion antzik ematen zer tzon.*

*Amak goizen bularrak ustuta eukitzen tzitun.*

*Susmo txarra artu zuen, alegie, sugek amai esnea erate'ete zion.*

*Gau baten koarton zaie bota zuen ta urrengo eunen, zaietan sugen markak zeren.*

*Urrengo gauen sugea zaitu zuen da amai bularra eraten arrapau zuen.*

*Umei txupatzeko buztana ematen tzion da onek biberoia balitz bezelaxe txupatzen tzion sugei buztana.*

*Jesus Altzagai 1981-6-3an jasoa.*

230. *Sugek aua oso txikie do itxura 'aten baño xinixteik ez ton gauzak tragatze'itu. Suga kaskar 'atek zapoik aundiñak tragau daizke.*

*Sugek zapoa buruz aurreaka tragatzen do.*

*Sugea akau ta zapoa sugen tripati bizik etâ leike.*

*Arratoia berdiñ.*

*Naiz txorie, naiz beste zenbait animala, sugek imanakin bereanatzet'itu.*

*Jesus Altzagari 1981-9-8an jaso.*

231. *Bei bat ukullun nerbioso xamar eo ostikalari eo baztarreta nerbioso beida baldin balle, ukullun sugaik don beitu bear da.*

*Inazio Urbizuri 1980-8-9an jaso.*

232. *Sugarra. Umek bildurtzen giñuzen pizti 'at tzan. Oso aundie mentzan suga au ta egok mentzeuzken.*

*Umetan entzuna.*



**XV. HAIZEA, SORGINEN DANTZA**

233. *Aizea esan izan da sorgiñen dantzea dala re. Aizek baitu bê sekretôk eta ibilbide jakiñek.*

*Lênaoko gizonak ordutan eon oi zien aizei beida.*

*Artzaie zan ortan aparta. Aizeai beida orduk pasatzen tzitun.*

*Txapel aundie burun, bluxa zârren bat estalgarri ta okotza makillen gañen tzuela, orduk pasatzen tzituen, lañoan bidek begiz korritzen.*

*Udaizkenen arbola 'anak eztue batea ostoa ematen. Udaberrin pago 'atzuk bestek baño lèn kimu berriz jazten die.*

*Artzaiek ondo asko zekien ze arbola zien lëndabizi ostok galtzen tzituenak ta aizkena zeintzuk galtzen tzituen.*

*Ako pago ari asi zako ostok jaiotzen, beste ura izango'a aizken berdetuko 'ana, esan oi zuen da okerrik bê.*

*Oaingo artzaiek, land-roverren ibiltzen asi ta kaletar biurtu die.*

*Arri'at bustie, ârin moimentuk eo txixarea lurren gañen baldin bazellen egoaldiñ aztarrak etâtzeke etzuen besteik bear.*

*Jakiñe aizean eo lañoan moimentuk zien beti kontuana euki bear tzienak.*

**Haizeak eta haien izenak**

*Aldaizea*

234. *Eurie ekartzen don aizea 'a. "Viento gallego" deitzen die erderaz.*

*Galizi aldeti sartzen da aize au. Gue etxeti Kûtze santu aldea mallaka-mallaka jotzen do olatuk bezela.*

*Iparra*

235. *Lên garai baten oei eo oeita bost eunen igoal irauten tzon.*

*Itsasoti sartzen da. Udan oso atseiñe da, eunez beroa, gauen intz edarra ekartzen do. Goizeko amarrak aldea, freskura ederren asten da euzkie berotzen. Illuntzan freskura eder askoa ekartzen do. Aztu zien ipar egoaldi eder ak.*

*Negun eurie ta izoztek ekartze"itu.*

*Frantses-iparra*

236. *Aizegorrie re esaten die artzaiek. Garizuma-aizea re bai lekun batzutan.*

*Negun oso otza 'a, Siberiati etortzen da nunbait.*

*Ipar txikia*

237. *Akama aldeti eo Gabiri aldeti sartzen da. Negun oso atseiñe 'a.*

Hegoa

238. Otsarteti eo San Adriandi sartzen da. Udan oso beroa da ta negun ê ezto otz aundik.

Nafar-hegoa

239. Sâdar aldeti sartzen da, egoi naturala 'año otzagoa 'a, Seguran Zeaman baño indar aundígoa do. Urtzulaitati Antxi aldea jotzen do.

Egoakaitze

240. Negun Altsasuti Zupitâ zabaltzen dan laño mê`at da, oso otza.

Terrala

241. Egoaldi lañotsu ta beroi esaten tzako.

Harraizea

242. Aize au Aizkorrin sortzen da. Tokau izan tzat nei Arabati aizeik bê irten da Santi Espituti Zeamâ sekulako aizea.

Sakristau zârrak ala esaten tzon, "kontuz, emen diau Zeamako majaderoa", baztar guzik txikitze`itu jenealen.

Garai bat izan tzan kanpaiakiñ aizek anuntziaitzen tziutena re. 1910-1920 ingurun telefonoz abixaitzen tzan erritâ egoaldie obserbatorion bateti ta Erraimundo sakristauek kanpajian bidez erriri aizean berri ematen tzion.

Pulpitoti esaten tzuen abadek, ze egoaldiri ze kanpai joko zikon. (Eguraldiaren ohar hauek Orkolaga apaiz sonatuak eman ohi zien Igeldoko obserbatoriotik nekazariei eta gure arrantzaleei urrutizkinez).

Erriko gertakizun guzik kanpajian bidez abixaitzen tzien, jai bezperak, eriotzak, suk eta beste gauza asko re bai.

Arraizea Zeaman bakarrik ibiltzen da.

Maittegia ezkió akabo arraizea.

Nik askotan oserbau det da Aizkorriñ azpin sortzen da.

Buenabistati, Iruxtati Urtzulaitâ jotzen do, Urtzulâitati erdie Telleri aldea ta beste erdie Landâtati bera Ormazaldi gue etxe aldea ta erri guztia banatzen da. Landatako bueltea eo Uztan errekea izango 'a Zeaman, arraizek indarrrik haundiñakin jotzen don lekue. Aizek ure' pezelaxe bê bide'tauzke.

Ekaiztea

243. Aizkorriko puntan lañoa sartzen bâ, Aizkorriti Andraitza ta Leazpia ta Oñatia ekaiztea sartzen da.

San Adriandi jotzen bo, goiti bera Zeamâ etorko'a ekaiztea.

*Zeama ezta izan beste erri'atzuk bezela ekaizte ta kazkabar lekue.*

*Garai'aten esan izan tzuen Oñatiñ da Leazpiñ, "bai zuen abade zâr orrek zeondako nai eztitzetzenak guri bialtzen tziuk."*

*D. Joanek eiten tzion ekaiztei konjuroa ta sakristau zârrak kanpaiak jotzen tzitun, Andutzako serorek ê jotzen tzon bueltako kanpai txikie, bizi asko.*

*Arrie Leazpia eo Oñatia botatzen bazan Zeamako konjuroai aitzeki ematen tziten.*

*Ekaiztekin Zeama baño kastigatugoa Leazpi aldea da.*

*Urtsosan aldeti datorren aizek nekez sortuko 'o ekaizteik.*

*Seguran osto'at moitzeko aizeik ez ta Zeaman txapelai burun eutsi ezinda ibilta gare amaika aldiz.*

*Negue do berea aize onek. Ugarmitan Joan Rubioi arrai karroa erreka bota zion arraizek. Tellatuk urtero konpondu bear izaten die Zeaman.*

*Noizi' peiñ ekaizte izugarrik ê izan die gue akuerdon. Gau baten, otsaille zan, Santander erre zan urtea, gau beltza izan tzan.*

*Elizako sakristiko torrea re bota zion aizek. Gue etxeti tellak artu aizek eta Mendaldeko soron zuti sartuta billau gintzen.*

*Ekaizte ok zienen bazan Zeaman esaera 'at, "Madrident gizon inportanten bat hil tzala ta aren aizek ziela ak".*

*Zeama partikularra 'a arraizekiñ.*

Errogatibak

*244. Errogatibakiñ askotan egoaldie aldatzen tzan, eren balioa garbi sinisteko mûn.*

*Zeaman errogatibak beti Aizkorriko Kûtzeikiñ eiten tzien.*

*Kûtzea Aizkorriti jasten tzan. Meza aurreti, Elizen ate 'ateti irten da besteti sartuz prozesioa eiten tzan, santuan letanik errezatuz.*

*Gerra ondon tzan, udaizken aldea sekote izugarrie zion.*

*Baserritar batzuk errogatibak eitea pentsau gendun da Zeaman parrokiñ itz ein tzuen.*

*Etzuen eurik ekarri.*

*Gero Antazua jutea pentsau gendun, peregrinazion bezela.*

*Juntakok Miek Aiskoneta ta ni giñen, anuntziok tabernatan da ein gintzen.*

*Illuntza'aten jun ga Manolon taberna, urrengo eunen Antazua jun bear gendula euri eske ta ola ai giñen.*

*Zatarain meikuk esan tziun, demonio tontok, Antazuko prallek ên zentralandako etzeukia urik ta zuei emango 'izue.*

*Zatarañek, danok aua bete ortzeikiñ utzi gintzen.*

*Jun giñen beintzet Antazua.*

*Komisiokok dirue bildu gendun mezea eo errogatibak eiteko.*



*Porteriñ entreau gendun diru ori, kalderillak eta al tzana.*

*Billetek ordun aundik tzien.*

*Etxea allau giñeneako euri edarra ein tziun.*

*Andutzako serorek eunero amabitan, anjelusekin batea kanpaia joko zon Andutzan, Santa Kruzetati Santu Kruzeta, ekaizten ta arrin kontrakoa zan oitura au.*

Tenporak

*245. Mariano Kastillokiñ ibiltzen da emengo jendea tenpora kontun, oso ondo ekartzeitu tenporak eta beste zenbait gauza.*

*Artaziek eren tenporak ibiltze"itue, eztue alde aundik izaten Mariano Kastillon fetxakiñ. Dana dala, bian erak kontauko 'izut.*

- 1) Udaberrikok. Garizumako lénengo asten.*
- 2) Udakok. Pentekostes ondoko asten.*
- 3) Udaizkenekok. Santa Kruz ondoko asten.*
- 4) Negukok. Abenduko irugarren asten.*

*Tenpora ok die seguroanak. Elizek fetxa otan ospatze"itu koartatenporak.*

246. Artzainen tenporak

- 1) Udaberrikok. San Jose aurreko asten.*
- 2) Udakok. San Joan aurreko asten.*

- 3) *Udaizkenekok. San Miel aurreko asten.*
- 4) *Negukok. Gabonak aurreko asten.*

Tenporak eta haizeak

247. *Tenpora eunek, tenporatako iru eun ok izaten die: Astelena, osteune ta zapatue.*

*Zapatu gaueko amabitan akâtzen da tenpora astea.*

*Gaueko amabitan geatzen dan aizek (zapatun jakiñe) aintzen do urrengo tenporak arte. Aizea aldauko'a, egoaldik kanbiok izango 'itu baño tenporatako aizea beti lêntxio eo geroxio beti nausitiko'a.*

*Koartatenporatako asteizkenen egoaldi ona bâ, urrengo illen goaldi ona izango'a. Ostialan ona bâ, bigarren illabeten ona ta zapatun ona eiten bo, irugarren illabeten ona. Au ola dala ezto esateik, baserritar askok ola 'ala uste due.*

*Osteune ezta kontun artzen tenporatan.*

*Esaldi onek ze esan nai do?*

*Ilberan ezto frutue ematen don landaraik eraiteik konpazio bateako artoa, garie, azea. Ilberan lurpen frutue emango duen frutak erain leizke, esate bateako patatak.*

*Ala ta guztiz ilberako osteunen (tenporatan) garie, artoa ta beste zenbait gauza erain leizke ta ilberriñ erainda bezela etortzen die.*

*Ilargin tranpak izaten die ok.*

*Nikolas Zabaletari 1981-4-6an jasoa*

Eguraldiaren gora-beherak

248. *Okillek apie arbolen gerrin goiti eiten bo, egoaldi onak datoz, gerrin bean eiten bo denboraldi txarra 'a gañen.*

*Ramon Zabaletari 1981-4-an jasoa.*

249. *Murumendin lañotxon bat baldin bado, naiz beste iñun lañoik ez eon, ordu erdi barru, Aizkorriko Kûtzan lañoa eongo'a.*

*Ramon Zabaletari 1981-8-4an jasoa.*

250. *Lañok erruedea bezela gora baijotze, egoaldi txarra laxter.*

*Ramon Zabaletari 1981-9-5ean jasoa.*

251. *Erromako Zupie egoaldi txarrik eingo ezton señaleara da.*

*Bernardino Azurmendiri askotan entzuna.*

252. *Trumoi golpea danen, kangrejok arri zulotati irtetzen die. Amorra ta eskaluk erreken bazterrea jotzen due ta sarek arrapatzeko aukerea ematen due.*

*Emilio Gutierrez sarritan entzuna.*

253. *Txixarek lurren gañea irtetzen bô, eurie datorren señailea.*

*Rosario Azurmendiri 1981-9-4ean jasoa.*

254. *Trumoi gabeko tximixtek egoaldi ona ekartzen do.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-7-8an jasoa.*

255. *Ostialako trumoiak beatziurren guziñ irauten do.*

*Ostialako izotzak beatziurren guziñ irauten do.*

*Donato Arrizabalagari 1980-5-8an jasoa.*

256. *Armearma anka aundik azaltzen badie egoaldi txarra laxter.*

*Donato Arrizabalagari 1978-8-4an jasoa.*

257. *Illargik ingurun uztai zuri'at baldin bauke, egoaldi txarra izango'a laxter.*

*Illargik ingurue beltza bear do egoaldi ona eingo bô.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-9-7an jasoa.*

258. *Enarea goiti ta txixtuka baldin balle, egoaldi onan señailea 'a, bêti ta ixilik dallenen egoaldi txarra izaten da.*

*Illberan illea moztu ezkiô, illeik ezta eroitzen.*

*Eurie eiteko Santui musue garbitzea ona menda, laxter eurie eite mendo.*

*Ramon Zabaletari 1980-9-3an jasoa.*

259. *Oañ urte asko lñaxio Atxukarrok eurik eiten ez ta, S. Adrianen irudie sartu zon Ezkatzeko iturriñ, sekulako eurik ein tzitun.*

*Frantzisko Azurmendiri 1980-9-5ean jasoa.*

260. *Garizumea berandu datorrenen, urte txarra izate menda.*

*Joxe Alustizari 1980-9-9an jasoa.*

261. *Leioa zabalik eukitzea txarra 'a tximixtea ai danen, koarton sartu daike tximistek.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-7-2an jasoa.*

262. *Eroa bustitzeko mûko lambroa ai do, esaten da lambroa bixi bixi ai donen.*

*Eduardo Irastorzari 1980-9-13an jasoa.*

263. *Koartatemporatan lastazoa piztuta gendula irtze' giñen gaueko amabitan etxeti kanpoa, aizek kea noa eamaten tzon ikusten gendun, da urrengo iru illabeten andi joko zon aizek.*

*Ramon Zabaletari 1980-9-9an jasoa.*

264. *Emen lurrek ur asko bear do, lurre berokin pitzau eiten da, pitzaunetati lurrek ure galtzen do, azkar sekatzan die sorok, batez ê egoi aizek jotzen bo, egoi aizek ur asko eraten do.*

*Araban da Naparron beiz autse eiten tzako lurrei ta umedadea errezago gordetzen do.*

*Santiago Oiarbideri 1980-9-3an jasoa.*

## XVI. KAROBIAK

265. Garai baten etxe guzitan tzien karobik. Iru lau etxek sozio re eiten tzuen lana ta karea gero danan arten partitzen tzuen.

*Zeaman Aizkorrondon, Sâdarren da beste leku askotan tzien karobik eta karobizulok.*

*Ganaduk eroitzeko arriskoa ziela ta karobi geianak bete eo puskau ein ditue.*

*Gaur ikusteko mûkok Euzkitze zârren dare, bat etxaburun dauke ta bestea Iturbitan azpi-kalden.*

*Batzuk aundigok da bestek txikigok izaten die, arritzekoa ez tan bezela.*

*Karobik geianen metro ta oei ta amar bat zentimetroko zabalerea eukitzen do.*

*Zortzi metro inguru euki daizke alturan.*

*Malkarretan eo pendizetan eiten die, lurren desnibela al dan bezela aproetxatuz.*

*Aurrekalden atakea eo aua izaten do, andi artzen do arnasea ta errekiñe re andi sartzen tzako.*

*Barru guztie argorritz estalita eukitzen do, argorrie beroik aundiñanakiñ ê ez ta erretzen, askotan urtekiñ argorriri kristalan antzeko axal bat sortzen dio berok.*

*Karobie borobille izaten da.*

*Bêko parten, lurreti metro'atea, koska'at eukitzen do karobik buelta guziñ, "puñok" die koska onen izena.*

*Puñoan gañen arkue eiten tzako.*

*Lan au argiñek eiten tzuen. Karobiñ errealdi bakoitzen arku berrie eiten tzikon, Luxio Ezpaleok makiña'at ein tzitun.*

*Etzan bate erreza arkue ondo eitea. Karaitzez arku formea eman da gero aizkenen arri'atekin giltzatzen tzan. Arku onen gañe karaitz arriz kargatzen tzan lepoaño ta azpin sue eiten tzikon.*

*Karobik lan asko ta txarra do.*

*Ikazkintzea lan ohea 'a.*

*Bein gue atte zanak Arrita Aundiko Joan Mariri ein tzion karobi'at.*

*1917ko urtea zan, apeaderoti gorago zion karobi ori.*

*Bi gau an pasau nitunak nê denborako deskalabratuanak bezela jo daizket.*

*Alako eurik ê tokau zien.*

*Aritz egurre zeuken Joan Marik da karobie eitea pentsau zon.*

*Familie oaindi gaztea zeuken. Gue attekiñ ondo konpontzen tzan. Bi eunetako lanea ni bialî nitun.*

*Etzan suerteko gizona Joan Mari. Andrea petxuti sartu ta gaxo Andazaraten ê euki zon.*

*Billabonaño trenen da andi Andazaretea oñez juten tzikon, dana alperrik izan tzan.*



Gaitz orrendako ordun etzeon eskapuik.

Gue attek montau zion karobie ta gero su emanda re, berak jarri zon.

Txondarrai betegarrie zortzi orduti bein sartzen tzako, baño karobik sartu ala guztie eamaten do. Atakan berokiñ aguantatzeik ez ta eoten.

Arten nik ê sasoi aundik ez ta Joan Mari bera bakarrik lanen eun guziñ aitu ta deneauta zion.

Bazeuken zaku zârakiñ eiñdako aterpe'at da an etzan tzan lota. Aritz egur dana berdea zion, karobikin neu bakarrik geau nitzen, atakati sartu ala guztie eamaten tzon tirok.

Ikaragarritzko eurik suertau zien gau artan da zaku zâr bat bizkarren artu ati, seitun busti-tzen tzan bat.

Gau guzie karobiko atakan ein nôn. Ematen nion egur dana jaten tzien.

Krixtauek aguantatzekoa etzan alako beroa ta beste aldeti baldekin botata bezela eurie, zaku zârak aterie baño geio bustie do, ta gañea moitzen etzien uzten.

Eune zabaldu zonen deneauta nion da zuti eoteko enitzen.

Jateko re enon ezer eaman, ordun jendea nola bizitzen tzan ez to esateik.

Lenengo gaue sekula ez tet aztuko.

Bigarren gauen egoaldi obexioa zan da laune re banon.

Arkun gañeko karaitze poliki poliki gori-gori eiten da ta aizkeneako karaitze auts biurtzen da.

Lênengo bêko arrik da aizkeneako goikok erretzen die.

Lau eo bost eun irauten do lan onek, egurre, zakarra ta otea pranko eman bear izaten tzako. Karobie bera 'a bê sun tiroa, arri arteti aizea artzen do ta barrun sekulako korrientea sortzen tzako. Oztu bê euki bear da karobie, beti erretzen, beti gorituta, amar minutun ezin leike karobi 'at egurrik sartu bê euki.

Gañeko arrik auts biurtzen dienen arkue puskau ta kare dana lurrea datorre, sutegira ta bi eo iru eunen ozten da.

Paretako arrik ez tie erretzen, argorrik berotutakon tiron batzuk ein daizke baño erre sekula ez.

Karaitz erre au, kare bizi biurtzen da ta urekiñ ikutu bê sekon jaso bear da.

Busti ezkiokare ille"da, etxek zuitzeko eo lurrekin nastuta paretak eiteko ebaltzen da. Urtetan iraun daike leku sekon kare bizik.

Kare autsekiñ erreta eon tzan gue atte zana. Kare autse erropatan da oñetakotan sartu zikon da eurik arrapau zon. Busti zanen azal danak erre zikon.

Etxetan askak eoten tzien karea gordetzeko.

Soro, zelai saroi ta bâtzai ematen tziten kare bizie. Lurren landarea biziko bâ karea bear do baño bê neurrin bestela lurre itotzen do. Geiegik lêngo kosetxea ontzen do baño gero lurrei indarra kentzen dio. Karek esaten tzuen "atte aberastu ta semea pobretu eiten dola". Karei eskue artu bear tzako.

*Egualdi sekokin botatzen tzako karea soroi, lokatzea dola ez ta ona. Laborea eraiñ aurreti ematen tzan jenealen.*

*Zeaman Goialdek ez to kareik bear, lurrek berak naiko karea dauke, gue etxe aldeko buztin lurrek beiz urtero bear do pixka 'at.*

*Bâtzatako xomorrok karek erabat garbitzen tzitun da lurre saneatzeko ez to alakoik.*

*Paretea arrikin da lurrekiñ eiten tzanen kare ille lurrei nasten tzikon.*

*Kare bizie nâsten bazikon eurie zanen, paretea lertzen tzan, kare bizik indar aundie do.*

*Erremediotako re ebaltzen tzan karea, botikea bezela ondo neurtuta ebali bear tzan.*

*Trenbidea ein tzanen tunelak karekin da lur errekiñ ein tzituen.*

*Apeaderoti gora ba do zelai una`at ta Labeta dauke izena. Leku ortan labek ezautu nitun nik. Oañ eroita dare. Labe ôtan erretzen tzuen lurre.*

*Lur erre ori karekin nasten tzuen da tuneletako arrik masa orrekin dare alkartuta.*

*Porlana oañ arrie erreta eiten dan bezela, lur errekin da karekiñ eiten tzan lênao portanana lana.*

*Ikusi Zeamako Tunel Aundie, porlanan inbidik bê do einda.*

*Nikolas Zabaletari 1992-4-7an jasoa.*

## XVII. ARTZAIN-TXAKURRA

266. Aizkorria, Urbasá ta Alarra artzai txakurre lénengo aldiz 1914 ingurun ekar tzan, gue atte zanak ain zuzen.

Artzaiek lénao re ba zituen txakurrek, baño ok mastinek izaten tzien, batez e otsoai kontra eiteko.

Lepon garranga zuela ibiltzen tzien.

Lénengo artzai txakurre Lapurdiko Ezpeletati gue etxea etor tzan Ezpalioa. Ni arten umea ta Ezpaleo bêkon bizi nitzen, an jaiio nitzen da.

Santiago Oiarbideri 1980-4-8an jasoa.

Zegamako Bankeroa zein zen

267. Gipuzkoan, Bizkaiñ da Naparroko menditan ezaune zan gue atte. Euskeraz iz eiten dan leku guzita aliatzen tzan. Tratuti bizitzen tzan.

Emen, errin Joantxonio esaten tzien baño emendi kanpoa Bankeroa izenakiñ ezautzen tzuen. Jokalarie zan da jokun nunbait bankue eukitzen tzolako jarri zien izen ori.

Urte'atzutá bê illoba, Otsarteko Joxe Mari ta bik asi zien tratun sozio ta biai Zeamako bankerôk otseiten tzien.

Osaba illoba ok, emen erositako ardik, Frantzin saltzen tzituen, mugea kontrabandon pasauta.

Ardik mugan pasatzeko tranpa oso erreza ta politxe zeuken.

Ausnarren eiten don ganadue gatz zale amorratue 'a.

Gue attek ârik eukitzen tzitun beste alden, Saran, Askaiñen da leku geiotan, da eunero ordu jakiñen plater bat gatz ematen tzien leku jakiñen.

Gero âri ok Bera eo Elizondoa ekarri ta kontrabandon pasau bear tzituen ardikin nâsten tzituen mugen alde ontan.

Ari ok artalde atzeta zuela, Sara juten tzien gatzan billa, leku jakiñea 'a artalde guztie êkin tzuela.

Iñungo konpromisoik bê ola pasatzen tzituen bèn ardik eta artalde osok beste aldea.

Europako gerraten aragie Frantziñ oso galesti zion da emengo ganadue kontrândon saldu ta asko irazten tzuen.

Gue atte Joantxonio sarri juten tzan mendiz Ezpeleta erria Xantiñekiñ tratuk eitea.

Xantiñ, beste aldeko artzai eo tratante 'at tzan, sarri etortzen tzan gue etxea, Ezpalioa. Oso gizon apañe, ondo itzeiñe ta oso leune zan.

Bein gue attek Ezpeletâ ein tzon buelta'aten, txakurrek ardik nola zaitzen tzitun ikus tzon.

Txakurrek, Xantiñek esaten tzion danak nola eiten tzitun ikus tzonean, arritu zan gue atte, alako gauzaik sekula ikus bê zion da.

Xantiñek eun baten Ezpalioa gue attek eskau bezela, bi txakur biali zitun, arremek.

*Arra biden akau zala ta emea bakarrik allau zan Zeama.*

*Ezpalioko ardik garai artan Zornotzan eoten tzien negun da txakur au ê negun Zornotzan eoten tzan da udan Ezpaleon.*

*Izena Perla zon, naranja kolorekoa zan.*

*Perla onen umek izan tzien Urbiko ta Urbasako lenengo ardi txakurrek.*

*Urtêta ardi txakur berrik azaldu zien Gipuzkoan Naparro aldeti.*

*Perlan umek eta mastiñek nâstu ta raza motel, ille aundi'at sortu da oañ artzai txakurran arten.*

*Santiago Oiarbideri 1980-8-9an jaso.*

## XVIII. URBIARA SIMAURRETARA

268. *Urbia juten tzan jendea Zeamati ximaurretâ. Moitzeko gauza zien lurrek, danak moitzen tzien ordun: Artoa, garie, induabea eiten tzien. Etxeko jana etxeti artzen tzan, kanpoti etzan kasi ezer erosten. Oañ ukullun goarnatzen die ganaduk baño ordun iru eo lau bei kas-kar (pirinaikak) apillen aizkena arte etxen euki ta ganbarak usten tziener larrea bialtzen tzien.*

*Etzan oan bezela piñudik, erri lurrek itxi bê zeren, terreno asko zan gue menditan da ganadue larrea botatzen tzan.*

*Udaberriti San Mielak pasau arten, orduko beiek kanpon larren ibiltzen tzien da kasi ximaurrek etzuen eiten ukullun.*

*Negun e artalastoa garilastoa ta otea txikituta izaten tzan ganadu ogan jana. Bei ok oso leorrak tzien da sits pilla aundik eziñ utzi ukullu baztarretan.*

*Lurrek beiz, Zeaman oso lur gosek die, ta moitzen tzien lurrek gozatzeko etzan ximaurrek izaten. Nik nê atte zanai aitutakoa gaur kontauko'izut da gañea egie.*

*Urbira astok eta zakuk artuta juten tzien, eskortatan eo ardik jasten tziuten lekutan da ardik lo eiten tzuen zelaien eoten tzan ximaurre. An bildu, zakuk bete ta astotan Zeamâ ekar-tzen tzan ardi ximaurre ori.*

*Urbia biden ibiltzen tzien oritako 'at Don Lorentzon amona zan, Altamiko Joxepa lñaxi.*

*Beñ Ormazalgo Antonio ta Joxepa lñaxi ju' men tzien Urbia ximaurreta.*

*Kontu au gue atte zanai aitu iza' nion.*

*Joxepa lñaxi berai ê aituta nô Urtsanen, gue osaba abaden etxen.*

*Ni arten umea ta osaban etxen nion eun batzuk pasatzen da Joxepa lñaxi etor tzan eun batzutako koltxoiak jotzea.*

*Joxepa lñaxi etxeik etxe ibiltzen tzan koltxoiak jotzen, diru pixka'at etâtzeko, ta Urtsanen, gue osaban etxen zortzi'at eunen eon tzan.*

*Andra txiki'at tzan, izatez Beunsastikoa, oso alaie.*

*Oazurtzen ardik eukitzen tziun, berroi ta amar eo irurogei bat ardi.*

*Negun ardik etxe ingurun ibiltzen tzien ta udan Oazurtzen.*

*Eune zâldu ta laxter, marmita txiki'at esne bizkarren artu ta etortzen tzan etxea.*

*Artzaiek ordun Oazurtzeko etxaola danetan tzeren, etxaola geianak oaiñ eroita eon bear due: Joxepa lñaxi illuntzan ardik jastea juten tzan, gauen etxaolako kamaña 'aten lo eiñ da urrango goizen ardik jatsi ta dozenerdin bat litro esne ekarko zitun etxea.*

*Eurie baldin bazan oñustan etortzen tzan amonatxoa.*

*Esaten asi gan bezela, Urbia Ormazalgo Antoniokin jun tzan Joxepa lñaxi.*

*Ormazalgo Antonio au Gospelako errotan jaioa zan.*

*Oain Gospelan bizi dien ok lêngo etxe zârta bota ta berrie ein tzuen.*

*Patrizio Etxeberriak Gospela zârren ofizioa ikas men tzon Kaspar Txixtukiñ. Fabrikea oan don lekun ezautu non nik Kaspar Txixtu. "Alperra langilleik onana", esaten due, dana ez ta gezurre.*

*Kaspar Txixtuk Gospelako errekan dezterea ipin mentzon, anekin moitu bearren urekiñ ibiltzen tzana. Alperran burue beti lanen, da esaerea.*

*Esan izan tzuen josteko makina Singerren piezak muestrea eaman ezkio eiten tzitula. Pieza orik garai artan estranjeriti ekartzen tzien, emen etzitun iñok eiten.*

*Artixta benetakoa zan.*

*Gue attei kutxilloa erregalau zion, lima zâr batekiñ eindakoa. Sekula ez tet ezautu temple obeko kutxilloik.*

*Gauza zalil xamarrik iñok eamaten ba zion, piezei beida beida eongo zikon.*

*Idiñ adarrak bezelako bigotek zeuzken, puntak gora zituela.*

*Zeamako bandan "sasafioia" jotzen tzon da iñokiñ izketan asten tzanen, bun, bun, aua putuz, erdi kantun asten tzan, musikea jotzen ai balitz bezela.*

*Garai artan konfiterin tzan taberna bakarra Zeaman ta lan zail xamarra eamaten tzienen, pun, pun, eiñez, "bai, eingo'et", esaten tzon.*

*"Goazen konfiteria" ta autza jun da baso aundi'at ardo eran da ardok jartzen tzon mar-txan laneako.*

*Apenas gauza zallik zeon arentzat.*

*Kaxpar Txixtun seme 'atek tornos "TOR" Donostiñ asmau mentziton.*

*Lên asi gâ Urbiko ximaurrekiñ, da Antonio Ormâzal azpikok bi asto aundi eukitzen tziton erro-tako lanak eiteko. Basotan ibiltzen tzan ikazkin koadrillai iriñe eamaten. Gospelako erro-tea, Anton Errotea, Latsaneko errotea ta Araia-ko beste errota'at bê kontua artuta zeuzken.*

*Ormazalgo astok aundik eta pentsue jaten oituta zeren, erro-tan beti re eskukara 'at pen-tsu ematen tzako astoi.*

*Antonio Ormazâlgoa ta Joxepa Iñaxi Altamikoa jun tzien beiñ*

*eune zabaltzeako Urbia. Atzaparrakiñ eo illarre mordon batekin bildu zituen ango ximaurrek eta asto orik kargau ta abiau zien etxe alde.*

*Altamin modu askotako lanak eiten tzituen baño ganaduk ondo goarnatzekok etzien.*

*Etxeko goldaketea gue attek eiten tzien.*

*Altamiko asto kaxkar ori, etxeti jarein da baztarretan larren mantentzen tzan oritakoa izan nunbait da oso gazte gaztea re etzan nola nahi re izango ta Joxepa Iñaxik bê asto makal orrekiñ ezin mentzien segi Ormazâlgoai.*

*Joxepa Iñaxi asto ori bestean atzeti zola Andraitzko esatan pasau mentzan beintzet.*

*—Neska, esan mentzion Antonio Ormazâlek, au baño asto obea ekarko 'iña ta onek irrist ein dola esa zan da au malkarrak bêra botatzea nijon.*

*Esan da ein: bultz ein dio ta zakue ta astoa amilka Andraitzko aldapan goiti bêra jun men tzien, arrin bat jo zonen asto ori an geau mentzan seko.*

*Zakue ta sokea kendu astoi ta ala jun men tzien etxea.*

*Nik ezautu 'et jendea astokiñ Urbiti ximaurre ekartzen.*

*Altamiko amona ori bê ardik zaituz, Urbiti ximaurre ekarriz ta etxetan koltxoiak joz bizi-tzen tzan.*

**XIX. ILARGIAREKIN AMETSETAN**

Zenbait aldiz nik  
 Haurtxo nintzala,  
 Nabaitutzean  
 Hire itzala,  
 Pentsatzen nian  
 Hautsi hintzala.

(X. Azurmendiren olerki bat)

269. *Nik arpegie amabi urte nituneti atariko askan garbitzen non.*

*Arten fregaderan ez genduken urik. Burue uretan sartu ta al non ondona garbitze' non. Batzuk esaten tzian usteldu eiten dala bat busti ezkio baño nik ez nien kasoik eiten.*

*Nik illea ez tet noiz nai moztuko, ilberan eite'itut lan ok da aizkeneko koarton bâ obe, ni ostiala zapatutan jungo naiz beti pelukerona.*

*Ilberriko ostiala-zapatûk ilberea die, ilberako ostiala zapatuk beiz ilberri, ok illargin tranpak die, batzuk gauza ok ez titue xinixten.*

270. *Ganadukiñ ara ze gertatzen dan.*

*Ilberan jarritako aziti emea jaiotzen da.*

*Ilberriko aziti beiz arra.*

*Lege onek eundi larogei ta amabostetan zuzen irtetzen do.*

*Animalitan bezela gertatzen da pertsonakiñ ê.*

*Nik etxeko animalikiñ konprobau det, azie jartzeko eune kontun artu ta gero umea eiten duenen ikusi arra ala emea dan umea.*

*Etxen astaeme`at bagendun da oso animali gozoa zan. Urtero umea eiten tzon.*

*Saltzeko astakuma emek geio balio izaten do ta nik ilberan azie ipintze' nion umea emea izan tzeiñ.*

*Asto ta beorrai igelaldik lau eun irauten die, beiai bat.*

*Astok denborea ematen do azie ilberan jartzeko, naiz bê igelaldie ilberriñ asi.*

*Asto onek bost umetati lau eme ein tzitun da bat arra.*

*Jakiñe ilberan eamaten non beti arrana.*

*Astakumea arra ein tzielen beitu non apunten da jakiñe ilberan azie jarri zikon baño ilberako ostialan ta ilberako ostialea ilberrie da ta eun ortako aziti arra irtetzea tokatzen tzan.*

271. *Nik beti ilberan illea mozten diala esan det lèn da etzat ileik eroi.*

*Ez ta ori bakarra.*

*Ni 1983an Matian operau nitzen.*

*Ni beti lanen besteai seitu ezinda izan naiz. Amabost eun lanen eiten banitun beste amar eun erdi gaxo eon bear izate non.*

*Meikuk etziaten antzik ematen. Gero konturau zien, oañ amabost urte, barea tokatzen tzitan baño aundigoa neukela.*

*Ala ba operau ein bear nola.*

*Iruroei ta amalau urtekiñ Matia eaman nituen.*

*Operatzeko amabost eunen euki nituen gertatzen da aizkenen osteun baten operau nituen, ilberea zan.*

*Birusen bat sartu mentzitan da emeretzi eun ein bear izan nitun U.V.I.ñ.*

*Bi illabeten suero utsen euki nituen.*

*Bi illabete ta geion eon bear izan non oiti jaiki bê.*

*Oañ oso ondo nô. Sekula enaiz osasunez aiñ ondo ibilli.*

*Aizkenen beintzet meikui esan nion, seguro asko ilberan operau nituelako salbau nitzela.*

*Meikuk ilberea zer tzan galdetu zien.*

*Personen odola, esan nion, ilberan eoten dala ondona eozer gauzatako. Ori dana illargik ibiltzen tzola ta beste zenbait gauza re bai, esan nion.*

*Esan tzien liburu'at ein bear nola. Nik Mariano Castillo eman nion da arrazkio "El hombre de la Luna" deitzen tzien.*

*Meikui ebakuntzatan prueba eiteko re esan nion, ilberako ebakuntzak baietz obeto sendau ta ôla aitze' giñen.*

*Liburun ikuste ez tuenai gaurko jendek ez tio inportantzik ematen, baserritarrân umekeri-tzat jotze'itue.*

**272.** *Amaika aldiz esan diet umeai, agiñe etâ zue ilberan, eizue beintzet prueba.*

*Gorputzeko odola eozein zauri diela eo agiñ etatze `at eo ebagi garrantzitsu`at dala, beti ilberan daukezu indarrrik aundiñen.*

*Animea apartauta, txerrik ê ilberan iltzen tzien. Urdaie obeto gorde zeiken.*

**273.** *Arbola askok enbor beren bi klase egur eukitze'itue.*

*Barruti don egurre beltzagoa ta gôrragoa izaten da ta giarrea deitu oi zako.*

*Enborran kanpoko aldea don egurre beiz zurigoa da ta biunagoa ta gizena dala esan oi due.*

*Ilberan botatako egurren giarrea, urtekin burnie bezela gôrtzen da ta pipik etzako eiten.*

*Gizenai ê ilberan botatakoa bâ etzako pipik jaioko baño ilberrin botatakoa bâ laster asiko zako autse ta pipie.*

*Egurre ezgaraien bota ezkie izardie geatzen tzako barrun da onek sortzen do pipie, izardi ori usteltzen danen nola nai ê pipie sortzen da.*



*Giarrea ta gizena ez titue arbola guzik eukitzen.*

*Pagok, lertxunek, urkik, makalak eta beste zenbaitek ez tautze. Gaztiñek, aritzek, artek eta beste zenbaitek bâuzke. Aritzen giarrea da egurrik gôrana.*

*Arbolen izardie ta pertsonen odola ilberekiñ daitze, naiz gorputzek ets naiz arbolek ilberan sufritzen due gutxiña. Eozin operazio, agiñetatze eo adar mozte ilberan ein bearrekod die.*

*Piñu insinis ê garaiti kanpoa botatakoa azea baño makalagoa gertatzen da.*

*An dare gue ganbaran Jangoikok dakin garaiko koarteroiak, bê garaien botak ordea ta gizalditako dare oaindio. Oaiño suelok eta armariok noiz nai asten die autse dariela. Illargiri ez to tranpaik eiteik.*

*Izardie beti enborran da azalan bitarten igotzen asten da udaberrin, pertsonendako odola dana da izardie arbolendako. Oston irterek pertsona debille bota eiten do, odola moitzen da nunbait gorputzen arbolen izardikin batea.*

*Azala arbolei kendu ezkie izardik autsi-uneti iges eiten dio guri zauri bateti odolak bezelaxe. Negun arbolea ilda eoten da ta esateko izardik ez to eukitzen.*

*Otzakatio ostoia ez ta eroitzen, arbolea ilda do negun da izardik ezkie igotzen, orreatio eroitzen da ostoia.*

*Ordun botatako arbolek pipin bildurrik ez to eukitzen, baño izardie daukela botatzen bâ, izardie egurren pegauta geatzen da ta andi sortzen da pipie denboraz.*

*Altza gôrta ta elkorra nai donak izardie kendu bear dio. Ortako buelta gaziñ azala kentzen tzako ta sekautakon botatzen bâ, arri biurtzen da.*

*Bestela ez to iraute aundik.*

*Altza, piñue ta makala bê denboran bota ezen oso aulek die.*

*Nikolas Zabaletari<sup>73</sup> 1993-8-3an jasoa.*

---

73. Nikolas Zabaleta ikusten izan naiz gaur Residentzian. Prostatatik operaturik zegoen. Oraingo ebakuntza ere ilberan egin diotela eta pozik zegoen gizona. Badaukagu urteetako Nikolas. Ala nai beza Jainkoak.

## XX. EZKIO

274. *Ni eun da geio aldiz izan nitzen Ezkion, Zeamati oñez jûnda.*

*Soldadu Afrikâ 1930ko Nobienbren jun da 1931n etor nitzen.*

*Bitarte ortan sortu zien Ezkioko kontuk, eta 1931n Afrikako soldaduzkati etor nitzenen, asi nitzen Ezkiora juten.*

*Ama Birjiñea agertu zala, jende asko juten tzala Ezkioa ta alako kontuk aitzen tzien.*

*Autobusek beten juten izan bear tzon jendea bertâ.*

*Nobienbren soldaduzkea ein da etxea etor nitzenen, gue auzoko neska-motil guzik juten tzien Ezkioa.*

*Eunez lana ein da illuntzan ordu jakiñen, danok juten giñen oñez. Altamiko Joan, Ormazâgo Bautista ta geo neskak ê bai, Luxio Ezpalion alaba Mariatxo, Maria Axuntxion lkeizkoa, ta kaletí re izaten tzan jendea.*

*Illundu aurretítxon juntatze' giñen danok kalen.*

*Luxio Ezpaleo jartzen tzan danan aurreti, makilla aundi 'atekin da gaztek naiko lana izate' gendun ari seitzen. Azkar ibiltzen tzana zan Luxio.*

*Ordu 'atak aldea etortze'giñen gauen.*

*Bokadilloa eamate'gendun poltxikon, auzkon bidea errosarioa errezatuz eite'gendun.*

*Segurati, Zelaunditai, Ormaizteia irtetze'giñen, estazion ondoa, ta andi kamiñoz Ezkioa. Lokatzadi galantak pasau bear izate'gintzen.*

*Ikeizko Martintxo re askotan an izaten tzan. Onek Ama Birjiñea ikuste'mentzon.*

*Nobienbren illun istanten irtetze'gendun da ordun ê komentariok klase guzitakok izaten tzien.*

*Nobienbren beala illuntze' `o, baño auzkon ondo jute'giñen, errosario 'at eo bi erreza-tze'gintzen.*

*Ezkion gelditu bê errezatzen tzan errosarioa, baten erri 'atekok, besten bestekok.*

*Ezpeletako tabernan botilla 'at ardo etâ, bokadilloa jan da taka-taka abiatze'giñen etxea.*

*Lênengo aldapea ixilik igotze'gendun, baño Segurako gañea allautze'giñenen, elizkan-tak kantatuz etortze'giñen, Ogi Zeruti ta beste kanta 'atzuk.*

*Zeaman jaietan izaten tzien ganberron batzuk eta enfrentau re eite'giñen noizbait.*

*Arregitxen tzion tabernea garai artan.*

*Taberna pareá allau giñenen, motil sail bat burlaka asi zikun, kañiñoa irten da nai zitue-nak esanez.*

*Joan Altamik arpegi eman tzien.*

*Banaka-banaka irtetzeko aindu zion koadrillei ta danak atzea ein tzuen. Joan Altami motil puska indartsue zan, panparroikerik etzona baño indartsue.*

*Zeamá paken allau giñen.*

*Ok izaten tzien Ezkioko gue biajek.*

*Noizik bein San Pedroa re jute'giñen, errosarioa errezatzea.*

*Nikolas Zabaletari 1993-4-8an jasoa.*

XXI. SALBATIERRAKO FERIAK<sup>74</sup>

275. *Gue atte Sabatierrâ noiznai juten tzan.*

*Goizen lauretako irten etxeti ta gauen amaikatako beiz ê etxen izaten tzan.*

*Salbatierrako feritâ 14 eo 15 bat urte bete nituneti ni re eamate'nitun.*

*Goizen lauretako etxeti irten da Sandratiko kuebati Araban sartzeg'iñen oñez. Zalduondon aman aizpa genduken da aren etxen gosaldu ta ekite'giondun bidei.*

*Gue attek Arabako bidek eta terrenk ondo ezautzen tzitun, segatan gaztetan lur âtan danetan ibillie zan da morroi ê eon tzan erderaz ikasten urtetan.*

*Arabana garibaitzea itaiekiñ eiten tzuen gue atten denboran da gerogo re bai.*

*Araba-belarra esaten tzikon belar bat garilastok ia erdiaño eukitzen tzon da gari soron segaik sartzetik etzan eoten.*

*Garai âtako goldak etzien gerokok bezelakok.*

*Arabana etzan laian eiten, sallek ê aundik eta egurrezko aga lodi 'ati muturren errokok einko burnizko punta 'at jarri ta ura izaten tzan goldea, arekin lurre pixka 'at urratzen zuen satorrak bezela.*

*Araba-belar ori garie baño lèn indartzen tzan da gariñ gerriaño azten tzan. Golda kaxkar ak belar oni etzien zuztarrik*

*austen. Gue attek esaten tzon, îtan belar onen gañeti ebaitzen tzuela garie, burue ta lasto pixka 'atekiñ.*

*Arabana lastoik etzan aprobetxatzen.*

*Arabana golda berriai eskerrak labrantzea pixten asi zala esaten tzon gue atxe zanak.*

*Arabako lurre lur zurie eo lur gorrie da. Giro onakiñ oso lur gozoa 'a. Gu Salbatierrako feria Zalduondoti oñez juten giñen, oaiñ kamiñok einda dare baño ordun sorok barrera jute' giñen oñez. Eurie einda balin bazion, ankatan sekulako lur pillea peatzen tzikun da pausoik eman ezinda geatzen giñen.*

*Gipuzkoan die lur lodik.*

*Arabako lurrek zelaiek die, eiten don eurie lurrek txuputzen do, ez emen bezela, eurie danen baztar guzik erreka. Lurrei azala sekau ati bean umedadea geatzen tzako. Esponjek bezela lurrek ur dana eraten do.*

*Arabako nekazarian ongilleik aundriak Ajuria ta Aranzabal izan tzien, ok sartu zituen golda berrik.*

*Europati ekarri goldak eta emen saltzen tzituen. Erak ê dirue eingo zuen baño jendei bentaje edarra re ein tzien,*

*Gollda ok aundik tzien da Araba-belarrai zañek puskatzen tzien. Ola galdu zan sorotan belar au.*

---

74. Aguraingo azokak.

*Salbatierrâ allatzen giñenen lēnengo ferie ikuste'gendun.*

*Tabernak ê asko etzeren ordun da jende asko izaten tzan.*

*Bazkarie induabea ta azea odolkin da gañen ardiki pixkan bat eta kito izaten tzan.*

*Orduako mâtsa ta pipar aundik eoten tzien saltzen.*

*Gue attek panaderia jun da kiloko ogie erosten tzon, beste kilo paren bat mâts ê bai ta an plaza baztarren ogie ta mâtsa jan da gue bazkarie ura izaten tzan.*

*Gue atte zanak poltxikon emakumean buruko pañueloa eamaten tzon. Mâts pixka 'at eta piparraundin batzuk artu pañuelon, pardela ein da gauen amaikak aldeako Altziturriñ izate'giñen.*

*Garai artan Zeaman mâtsa gauza aundie zan, frutaik etzan txorikeizak eo sagarren batuk kendu ezkie.*

*Agustiña naparra esaten tzien emakuma aundi 'at asto beltz aundi batekiñ etortzen tzan Zeamâ. Astatasakitan ekartzen tzitun txermiñan batzuk, pipar aundik, mâtsa ta tomaten batzuk.*

*Asto beltzan gañen jarrita azaltzen tzan Zeaman. "Agustiña naparra, tomatea ta piparra", otseñez etortzen tzan.*

*Txermiña aundik bakoitze bost xentimon, txikik bazien txakur aundiñ iru saltzen tzitun.*

*Beste frutaik etzan emen ezautzen sasikeizan batzuk izan ezik. Jaiero etortzen tzan Agustiña naparra ta Zeamako mâts, pipar da tomatek arek ekartzen tzitun.*

*Etxek ematen tzona jaten tzan emen. Frutaik etzan, berduraik ê ez. Agustiña naparrak janarie zeozer aldatzen tzon Zeaman garai âtan.*

*Nikolas Zabaletari 1993-4-8an jaso.*

## XXII. ZEGAMAKO ZENBAIT GAUZA JAKINGARRI

Latsaneko neska

276. *Latsanen neska'atek familie iza'mentzon solteratan.*

*(Dirudiñez frantsesten. Trenbidea ein tzanen alegie.)*

*Familie izateko ziola deklarau zoneti, eskillarapen lo ein bear iza'mentzon bizi guziñ.*

*la illen jarri zanen eama'mentzuen oira.*

*Neska au ikusgarri neska edarra mentzan.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-4ean jasoa.*

Kanpaiak

277. *Zeamako, Segurako ta Zeraingo kanpaiak batea aitu ezkio, anjelusetan eo matu-tikôn, au ai mendie esaten.*

*Segurakok.... Ezkondu al den.*

*Zeraingok.... Nor norekiñ.*

*Zeamakok .... Don Donakiñ.*

*Erri askotan Elizako kanpai otsakiñ itz joku berdintsuk eiten die.*

*Joxepa Azurmendiri 1981-9-7an jasoa.*

Iruetxetako soldadua<sup>75</sup>

278. *Iruxtâ oañ urte asko, soldadu estranjero 'atzuk allau mentzien.*

*Soldadu'atek etxeko andrei kaiku esnea eran mentzion. Andrek soldadun nausiña jun da gertautakoa kontau mentzion.*

*Militarrak esa'mentzon:*

*—Beitu, motil au seitun ilko'et baño barrun esneik billatze' ezpazako, zeu ilko zaitut urrena.*

*Andrek baietzen seitze'mentzon, justizie eskatuz.*

*Ala beintzat motil ori tiroz bota mentzuen da barrun esnea azaldu mentzikon.*

*Iruxtako andrea ôla librau mentzan iltzeti.*

*Pedro Mari Arakamari 1981-4-6ean jasoa.*

75. Iruetxetako soldadua. Zegamako hildakoen liburuak hara zer dioen:

"El año 1653. En el puerto de San Adrián en Nr. Sra. de Guesalbizar (Iruetxeta) dos soldados irlandeses de los tres mil que pasaron fueron enterrados". (C3r Guipuzcoa. I. Cegama.) (Fol. 241)



Landaetako neskak

279. *Landatako neskak ala esate'mentzuen illuntzan ardatzeko ordue allatzen tzitenên.*

*Goazenan, goazenan oatzea,  
Goizen jaikiko gaitun ardatzea.  
Goizen beiz.  
Garen, garen oatzen,  
Gauen eiño 'iñau ardatzen.*

*Joxepa Azurmendiri 1981-6-8an jasoa.*

Altzukarango neskamea

280. *Neska 'at Altzukandi Latsanea ju' mentzan neskame. Ezin mentzan neska au etxea ikus bê bizi. Etzan atrebitzen etxea ju' nai zola esaten da ôla bizi zan Latsanen etsi ezinda.*

*Bein danak kanpon tziela, umea lotan jarri ta etxea abiau zan.*

*Moleo aldea allau zanen, Latsanai beida, au esa'mentzon.*

*Latsana,  
Zeaman dan atsana.  
Biba Iruxtâ mendi ta Altzukana.*

*Jose Alustizari 1981-4-6ean jasoa*

Landaetako neska

281. *Landatan neska'at ia illen mentzion da launek etor mentzikon ikusi'at eitea.*

*Neska au parre ta parre ai mentzan.*

*Launek esa' mentzien arrituta. Jaune artuta gero zertan ao pentsatan?*

*Neskek eantzun mentzien:*

*—Ba.... neon pentsatan,*

*lItze'naizenen*

*Lau motillek eamango nauela andatan,*

*Apaiz zârra aurren duela kantatan,*

*Nik parrei nola eutsiko dioan nion pentsatan.*

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-4an jasoa.*

Aizkorondoko harria

282. *Aizkorondon bamentzion sekulako arritzar bat da gañen au men tzeuken eskrituta.*

*“Bueltea emaiiek”.*

*Gizon mordo'at alkartu ta arri orri nolabait ema' mentzien bueltea. Arripen idinarrue urrez beteta billauko zuela uste zuen.*

*Arripen ara ze billau zuen eskrituta.*

*“Bapo niok”.*

*Kito urrez betetako idinarrue.*

*Bernardino Azurmendiri aspaldi entzuna.*

Santsonen harria<sup>76</sup>

283. *Zeamati oso gertu, Arrabiola ondón, bazan arkaitz aundi'at. Urte `atzuk diela, arro-bi ein tzuén ta makinek poliki-poliki jan ein tzon aitze.*

*Sansonek aballan Aizkorriti bota zola arri au esaten due Zeaman.*

*Donosti puskau nai mentzon baño bekotz baten irrist ein da Segurako mugaño bakarrik allau mentzan aballako arrie.*

*Bernardino Azurmendiri aspaldi entzuna.*

Gaztaina-titiak

284. *Gaztiñei ta pagoi gerrin koxkor boronbil batzuk irtetzen tzate.*

*Koskor ogai gaztiñen eo pagon titik esaten tzate.*

76. Euskal Herrian harri handi guztiei buruz ipuin hau kontatzen da: Bere jatorria *Odiseako IX.* kantutik dator; Polifemok Ulisesen ontziari jaurti zion harritik, noski.

*Lêngo zarrak, gaztiña titi ogai kotxillo puntekin zulo'at eiten tzien.*

*Lizar zotz bati muñe kendu ta gaztiña titi zulautakoi sartzten tzien.*

*Auxe izaten tzan gue zârran pipea.*

*Pipea pixteko beiz su-arrie ta ardai puska 'at da burni zati 'at ibiltzen tzituen txapelpen.*

*Tabakoa toxan ebaltzen tzuen.*

*Baserritarran toxea narruzkoa zan: Artzaiek euritan da egoaldi txarrakiñ ibil bear izaten tzuelako, tabakoa busti etzeiñ ojalatazkoa ebaltzen tzuen.*

*Ziarroa eiteko artatxukiñik biunenak biltzen tzien. Artaburun, arton kontra eoten tzien ostok die artatxukiñek.*

*Amaika aldiz tabakondako diruik ezta lizar ostoa igartuta erretzen tzuen gue zârrak.*

*Igeltsozko pipak ê saltzen tzien baño bost xentimon.*

*Baserrin, tabakoa bakarrik erosten tzan, pipea ta ziarro papela etxen eiten tzien, kalen kosta eiten tziela da.*

*Bernardino Azurmendiri aspaldi jasoa.*

Mugarria

*285. Etxe 'aten lurrek bukatzen dien lekun, mugarrie jartzen da.*

*Mugarriñ azpin tellakaskoa ta tellakaskon azpiñ ikatza ipintzen zien.*

*Etxeko sun ta tellatun babesa etxeko lurren akaberaño allatzen zan señaleara zan au.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-3-4ean jasoa.*

*286. Mugarriti mugarriako bidea sasik betetzen do askotan, da mugarrik ê tapau daizke. Mugarriñ ondon elorrie jartzen da, ta mugarritik mugarriara urkik. Urkik mugarrie nun don aierazten due, txuri'tenez errez ikusten die ta. Mugañ daren urkik ezteie iñonak izaten.*

*Nikolas Zabaletari 1981-3-4ean jasoa.*

Txirta

*287. Nunai jaiotzen dan pagon sastrakatxoa da txirtea, batez ê arbolen ipurdiko tortoa.*

*Itz baten, lurre berez ematen ai dan arbola landarak.*

*Fermiñ Arakamari 1980-8-5ean jasoa.*

Zerrariak

*288. Lênao olak aizkoaz etatzen tzien enborreti, gero zerraz.*

*Bi gizonak, batek goiti ta bestek beti, enborrai zerraz olak moztzen tzien. Zerra onen izena "trapana" zan, gizon bi oriai zerrarik esaten tziten.*

*Oaindik denbora gutxi etor tzien indarran zerrak.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-6-7an jasoa.*



Zorri piztuak

289. *Lixibea ein da izarak eta barru erropak zelaien banatzen tzien, leortu ta kanpo usaie artu zezen. Izozte guetan garbiketa osoa zelaien uzten tzan saneatzen.*

*Erropa oritan zeren zorrik izotzak ilda bezela uzten tzitun. Beiz berotzen tzienen, batez é giza gorputzen berotzen bazien, ase eziñeko gosekiñ esnatzen tzien. Pertsona ozkaka jaten tzuen.*

*Ok tzien zorri piztuk.*

*Aberastu naita dallen pobrei "zorri piztue" esaten tzako, dana tragatuz dirue ein nai dolako.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-3-6ean jasoa.*

Xatera

290. *Zentraleti goraxio, zupiko lizarreti bi metroa, xatera esaten tzakon leku'at do errekan. Igeltso potzu'at da. Potzu ori zapaltzen dona, poliki-poliki igeltson sartzen asten da ta norbeitek launtze'ezpadio irtetzen, bertan izkuta daike, igeltsok tragauta.*

*Arrantzale asko bertan larri ibillik die.*

*Arriz tapauta do oain, leku arriskotsue dalako.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-9-4an jasoa.*

Argindarra

291. *Amiñau erdiko Andresek argi eletrikoa lenengo aldiz bê etxen ikus tzonen ala esa'mentzon.*

*"Maddarikatue, sorgin guzik etxarek lo".*

*Joxe Mari Zabaletari 1980-3-5ean jasoa.*

Lehenengo tren

292. *Zeaman tren* *lênengo aldiz pasau zanen, Iturburuko gizon zârrak ikus mentzon aurrena tren ori.*

*Parte onekoa ezin tzeikela izan tramakulo ura ta korde bê lurrea eroi mentzan. Txakortati etxea, gurdiiñ eaman mentzuen, bera juteko gauze ez ta.*

*Franzisko azurmendiri 1980-1-3an jasoa.*

Amabirjiñen sillea

293. *Arri Urdiñen silla baten formea dauken arri'at do.*

*Arri oni Ama Birjiñen sillea esaten tzako.*

*Gauzez prallek lotan darella, Ama Birjiñea arri ontâ etorri, bertan jarri ta errosarioa errezai-tzen eote'menda, Zeamâ beida.*

*Ama Birjiñek Zeamá asko matte mendo.*

*Ama Birjiñea, itxasoa re jute'menda, oso larri dailtzen arrantzale gizajoi launtzea. Ama Birjiñek erropatan ekartze' itun itsasoko ondar alek, billau izan omen die silla ontan.*

*Tomasa Agirrerri askotan entzuna.*

Amabirjinaren iturria

294. *Kataberati Antzazu aldea iturri 'at do.*

*Ama Birjiñen iturrie esaten die.*

*Bertan ure eratea osasungarrie da, zerbeit santue.*

*Ama Birjiñek ê ure bertan erate'mendo, eskuk iturriñ ertzetan ipiñiz.*

*Ama Birjiñen esku markak bertan mendare.*

*Santiago Azurmendiri aspaldi entzuna.*

Frantsestekoak (I)

295. *Frantzesten Gasteizen frantsesak ikaragarrizko zigorra jaso mentzuen.*

*Baserriko kutxatan billau zuen eru-iriñekiñ eindako ogie jan da sekulako soldaduk il mentzien.*

*ERUE. Ale`at 'a. Araban garai baten asko ereite' mentzan. Ausnarren eiten duen animalik bakarrik jan daike erun iriñe. Beste animalik eo gizonak iriñ au jan ezkie il eiten die.*

*Frantsesak orreatio il tzien. Ustez ogie jaten ai zielakon.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-8-4ean jaso.*

Frantsestekoak (II)

296. *Frantzestekon Zeaman, billau zuena eaman tzuen frantsesak. Elizmuñoko kutxan soldadu'at, gerriaño gorputze sartuta ai mentzan lapurretan.*

*Etxeko amonek kutxen tapea soladui gañea bota ta il mentzon frantzesa.*

*Eun ortan Zeamako Elizati, lanparako oligoa re, arrapauta eama'mentzuen.*

*D. Andres Oiarzabali aspaldi entzuna.*

*Piztuko balirake  
Lêngo gure zârrak,  
Berriz ilko lituzke  
Penaren indarrak.  
Ikusirik galduta  
Eren lege zârrak.  
Erdeldun egiñikan  
Seme ta alabak.*

*Tomasa Agirrerri askotan entzuna.*

Bere Aitona Jose Agirrek askotan kanta oi mentzun bertso au.

Astoa

297. Astoa animala santue menda. Jesus ta Ama Birjiñea Ejitoa eaman tzitunen, Jesusek gorputzen kûtzeta ipiñi mentzion. Astok bizkarreti besota kutzen antzeko bi lerro dauzke. Lerro auei soin kutzea esaten tzate.

Astok gauen ê ikusten dola esanten due.

Illunik lodianetan eo parajeik ezezaunen ê, gizona seguro jun daike astoi elduta.

Ramon Zabaletari 1979-8-4an jasoa.

Enara

298. Jesus kutzan ill eziñda ziola, enarek jun da mokokin buruko ântzak etatze'mentzion. Orreatio iñok ez to enaraik iltzen.

Gizonai ê enarek eztio kalteik eiten.

Enarea Jesusek matte don txorie da ta gizonan etxen etâtze' itu umek.

Tomasa Agirrerri askotan entzuna.

Zazpi ahizpak

299. Ama Birjiñak zazpi aizpa mendie.

Zazpitan gazteana Antzazukoa mentzan da, Amak tratu txarrak emate'mentzon da alaba danetan gaitzatsiana bea mentzon.

Denborekiñ, aizpa danetan dotorena bea izatea gertau da.

Tomasa Agirrerri askotan entzuna.

Zeruko katua

300. Zeruko katue eo zeruko txakurre, bi izenak aberetxo berdiñei ematen tziten, ar illedun bat da.

Zeruko katuik ez ta il bear. Zeruti etortzen die.

Norbeitek zeruko katue iltzen bô eurie eiten do.

Tomasa Agirrerri askotan entzuna.

Amona mantangorria

301. Amona mantal gorrie aberetxo gorrixta 'at 'a. Egotan tanto beltzak eukitze'itu. Eskun artzen gendun umetan. Beatzak gora beida jartzen tzikon da beatzan puntâ igo ta andi egakan juten tzan.

Ordun esaldi au kantatze'giondun.

Amona mantal gorri,  
Zeruan zer berri?  
Zeruan berri onak  
Oraiñ eta beti.

*Gero noa zijos beida geatzen giñen.*

*Umetako oroitzak.*

Ogi bedeinkatua

302. *Garai'aten Elizan, meza erdikoa pasauta, ogi beinkatue ematen tzan meza nausin. Meza ontan etzan ordun Komunioik ematen.*

*Ogi beinkatue Elizan jaten tzan baño zârrai ta gaixoai ê etxea eamaten tziten.*

*Gue amonak ogi beinkatue etxen jaten tzonez orazio au esaten tzonez.*

*Ogi bedeinkatue,  
Lurren injindratue,  
Altaran beinkatue,  
Ni aste ontan iltzen banaiz,  
Izan dedilla  
Nere anima salbatue.*

*Au esan da Aita gure 'at errezatzen tzonez.*

*Ogikiñ Aitxaren ein da jan eiten tzonez, gero pusketa'at lapikon sartuz.*

Tomasa Agirrerri 1980-8-9an jasoa.

Ogia lurrean

303. *Ogie lurrea eroritakon, "Jesus" esan da jaten tzonez.*

*Jateko etzan eran zikintzen bazan, surtan erretzen tzonez.*

*Ogik etzan leku zikiñea botatzen.*

*Jesusen Gorputze re ogiz jazten da.*

Ura edaterakoan

304. *Ure eratekon "Jesus" esaten tzonez. Askotan Aitaren ein ê bai.*

*Eztule eiten tzanen "Jesus" esaten tzonez.*

*Umetan gauza ok erakusten tzikun.*

Trikua

305. *Trikuk arriskoa don lekun, muturre atzeko ankan arten gorde ta gaztiña morkotsan formea artzen do.*

*Txakurrek ezto nolana arrapauko, ântzak auan miñe ematen die ta.  
Trikuk lo ostoz arten eiten do. Lo artu aurreti milla buelta emante'itu orbel arten.  
Esaerea bada, "trikuk baño buelta geio ematen tzituk orrek oian".  
Sâstiñ bizkarreko ântzatan artu sagarra ta eamaten do zuloa neguako.  
Trikun zulon sagar mordok billatzen die.  
Trikue jateko oiturea bada.*

*Bizik narrutu ta bizi bizik burruntzin erretzen jartzen due.  
Bein il ezkiio narrutzea zalle izate'menda.*

*Doroteo Otaegiri 1980-9-6ean jasoa.*

Azkonarra

306. *Azkonarrak bi klasetakok die.*

a) *Azkonar txerrikie: Aragie txerriñ antzekoa izaten do, biune ta oso gozoa.*

b) *Azkonar txakurkie: Aragie txakurrenan antzekoa do, giarrea ta oso mikatza.*

*Azkonarrak aragie re jaten do. Aitz zulotan ia beti bizitzen da. Animalin bat ilda ikusten bô, usteltzen ai dan bitarten gorputzei, azpiti zuloa eiten dio ta andi jaten do sarraskie.*

*Jesus Mazkiarani 1981-8-4ean jasoa.*

Basurdea

307. *Basaurdek gizonai usaie artzen dio, batez e gizona aizen aldeti balle.*

*Eunez geianen izkutun eoten da ta gaez irtetze da jatea.*

*Zakurrei eztiio sekula atzeik ematen, au do gorputzen zatik biunena.*

*Sugartaburuan zuztarretako patatak ditu be janaritan estimatuanak, begiortz luzekin etâ-tze'itu lurpeti.*

*Askotan lurre pixka'at moitu ta patatak erdi etan uzte'itu, umek jana billatzen ikas dezen.*

*Basaurde emek arrik zarrena maitena izaten due.*

*Emek erakusten die umeai bizitzako astruzik.*

*Basa porrue re, asko gustatzen tzako.*

*Fermin Arakamari 1981-8-6an jasoa.*

308. *Oan urte asko diela Zeaman Ladron de Zegamak apaiz bat ill mentzon elizan. Abade orrek iltzen ziola larritasunen esa' mentzon: Aita ama arren.*

*Orti mendatorkio Atxamarren izena Ladron de Zegaman etxei.*

*D. Andres Oiarbideri aspaldi entzuna.*

309. *Gaurko Sajoantxeti gertu San Joanen ermita 'at zan. Eztakiu noiz eroiko zan ermita. San Joanen irudie San Pedroa jaso zan da an do oaindio.*

*San Adriango bidea lruxtati lketza jasten zan gero, Ezpalio goikoa oan don tokiti Anton errotâ ta emendi erreken kontra Uerka zabaldi Olaberria. Kutze santu garai artan Anton errotan atzen zion. Gizaldi onen asieran Kutze Santue oan don lekun ein tzuen. Lengo ermitako santuk, altarea, arrik eta egurrek ekar tziuen ermita berrie eiteko.*

*Zulagati gertu frantsesten Santa Agedan ermitea eroi zan, Santue Kütze santua do jasota.*

*Santa Ageda au polikromatue ta oso politxe 'a.*

### XXIII. ANTZINA AHAZTU ZIREN GAUZAK

*Añoa*<sup>76bis</sup>

310. *Gari gaixoa da añoa. Galburu osôk, auts beltzez betetakogari alêk eukitze*''itue.

*Gari aňodunêkiň ogi txarra eiten da, beltza ta itoa.*

*Garie, añoa kentzeko, urez betetako ontzi 'aten sartzen da.*

*Añoa ariñe 'a ta ontzín besoa sartu ta garie ondo nâsten bâ, aňok urên gañea irtetzen do. Ordún eskûkiň urên gañea igo dien año alêk biltzen die.*

*Ola apartatzen die añoa ta garie.*

Tomasa Agirrerri 1982-1-2an jasoa.

*Zalka*<sup>77</sup>

311. *Garitan jaiotzen dan landara 'at 'a zalkea. Induaben eo illarrân formea dauke lekêk, baňo oso txikie da, algarroba baňo txikigoa do alea. Batzuk, kolorez arrek izaten die. Beste zalka klase`at, txikigoa re izaten da ta, ulea bezela, beltzak eta brilludunek izaten die.*

*Landarâk gari artên jαιο ta azi, garîkin batea moztu ta makinan garîkin batea jotze''itue. Garie ta zalkea errotâ re nâsi dijoatze. Errotarie saiatzen da galbaiei erâñez zalkea garîti apartatzen. Zalkea garie baňo ariñagoa da, ta garîn gañea jotzen do. Eskûkiň apartatzen die bat eta bestea.*

*Zalkêk oso lora politte dôn landarea ematen do.*

Tomasa Agirrerri 1982-6-28an jasoa.

312. *Trumoiak jotzen dônem, San Pedro zerûn bolâtan ai dala esaten due.*

*Umetako oroitzpenak.*

313. *San Pedrok bi tripa eskatze' mentziton, gose geio pasatuz, penitentzi geiô eiteko nunbait. Ala esaten tzuem gu umêk giñela Zeaman.*

*Umetako oroitzpenak.*

314. *Ames txar bat ein da urrengo gauên oirakôn, orazio au erreztatze' gendun.*

*Ama Santa Ines,  
Bart ein det amets,  
Bart ein badet txarrez  
Gaur ein dezân onez.*

*Umetako oroitzpenak.*

---

76 bis. Ainoa.

77. Zaltzea.

Uramila

315. *Eurite zakar baten ondoren, errekea kolpên azitzen*

*tzan. Errekên azitze oni uramille esaten tzikon. Bâzpare uramillên bildur izaten tzan jendea.*

*Umetako oroitzapenak.*

Zotal egunak

316. *Ilbeltzen lénengo amabi eunek die. Ilbeltzen lénengo euneko egoaldie, gutxi gora bêra eingo mendo ilbeltz guztiñ.*

*Ilbeltzen biarren euneko egoaldie Otsâllên.*

*Ilbeltzên iruarren euneko egoaldie Martsûn.*

*Da ôla gañeatiko illetan.*

*Santiago Azurmendiri umetan aditua.*

Gaztain erre jatea<sup>78</sup>

317. *Bazkari'at eiten gendûn etxeko senide danok, bakoitze bê andrêkin da umêkiñ etortzen tzan gurasoan etxea.*

*Santu guztianan ingurûn izaten tzan.*

*Bazkarie gaztiña errêkin akâtzen tzan.*

*Etxeko oroitzapenak*

318. *Neskatxa 'at ille gorridune erriñ ikusten bazan, zazpi elizâtako kanpaiak jo bear tziela esaten tzan. Ille gorridunek leprosoan ondorengok izate'mendie.*

*Gizon rubioa re fatsoa izate'menda.*

*Umetako oroitzak.*

319. *Bat iltzen tzanen, gorputz dana ondo garbitu ta zeuzken erroapaik onanakiñ sartzen tzuen zerraldon.*

*Zerraldon sartzen dan bezela jute'menda gorputze Josepetâ.*

*Gregoria Munduateri umetan entzuna.*

320. *Zeaman Karlistan aizkeneko gerraten motil saill aundie ibil tzan. 1920 aldea Jerusalemâ jûn tzien, geianak il baño lén lur ak ikus bear zituela ta.*

---

78. Bazkari hau hildakoen nolabaiteko oroitzak, ez ote zen izango?

Oso kejauta etor tzien, piztu ta oñustan Josepetako zelaira jutea etzala gozoa izango, esate'mentzuen, zelai guztie ántzaz estalita menzion da an ibiltzen kontuk izango mendie.

Julian Urbizuri 1980-8-4ean jasoá.

Sorgin-afaria

321. Gauên beatzítan afaldu ta amabík artên oira jûte'ezpagiñen, da oirakôn ardo goxoa galletákiñ eo bestelako litxarrerin bat jaten bagendûn, otordu oni deitzen tzikon sorgiñ afarie.

Umetako oroitzapenak.

322. Gue gazte denborân, Moleon eiten tzan billerea (erromerie) ta inguruko gazteik geianak bertan izaten giñen.

Eun batên, illunduta akâu zan billerea ta etxea getozen.

Artiolako errebueltea zan.

Sekulako zaldi zâr baten gañên, gizon bat zetorren; zaldîri perrâtati sue zerion. Gue parên geau ein tzan.

—De dónde venís? Galdetu ziun gizonak.

—De Moleo.-Guk.

Zaldie ta zaldizkoa korrikân izkutaú zien, sue botâz.

Parte gaiztokók tzien bik.

Nik korrikân Langânea jo nôn da okolluko leioti, buruz aurea sartu nitzen etxea. Beste launek eztaít noa sakabanauko zien.

Esebio Alutzizari 1980-9-2an jasoá.

323. Illatie eskûn ibilli ezkió gauên oian txixe eite'menda.

Jexux Mazkiarani 1980-3-7an jasoá.

324. Gu umêk giñela barbantzuaí urrezko babâk esaten tziten, orík dielako nunbait. Jaie allâtzeke zoratzen eoten giñen indoabea barbantzukiñ aldatzeke.

Tomasa Agirrerri 1980-1-9an jasoá.

325. Ogi pusketa 'at lurrea eroitzen baldin bazan, lurreti jaso, muñ ein, "Jesus" izena esan da jaten tzan.

Ogi pusketea jateko mûn etzala zikintzen bazan, surtâ botatzen tzan erre zeíñ. Ogiri, ebaítzekôn, kotxillôkin kûtzea eiten tzikon.



Ogie ebaita gero, beti gora beida uzten tzan maiên gañên. Ogie gora beida zeon bitârtên, aingerûk dantzan eiten tzuen bê gañên da alderântziz baldin bazion deabrûk.

Ogie gauza santue da. Jesusek ê, bê gorputze ogîn formân eman tziun.

Tomasa Agirrerri 1980-6-4an jaso.

326. Mundûn lêngengo gerrea lizarmakillâkin eiñ mentzuen gizonak.

Tomasa Agirrerri 1980-9an jaso.

327. Jangoikôk mundue ein tzônên, pentsatzen jarri mentzan.

—Mundue enian ein bear, ôk mundue ni baño geio estimauko diâ.

Mundue, ordea, einda zeon da Jangoikôk alaxe utzi zôn.

Eduardo Iraztortzari 1980-7-9an jaso.

328. Gue attona ta amona zârtu zienên Iruna jûn tzien bizitzea, an seme 'at apaize zeukên da arek eaman tzitûn gurasôk bereana, aizken urtêk pasatzea.

Urte 'atzutâ etxea ikustea etor tzien.

Gue attek orduako etxen argie ta leiotan kristalak jarrita

zeuzken. Gue attona-amona zârrak artu zuen penea erak jaiotako etxen aldaketa âk ikûsta!

Tomasa Agirrerri 1980-9-3an jaso.

329. Etxeko maiorazkôn deiek asten tzienên, andragaiiek nobiôn etxeko sepulturân, familliñ il tzien danân alde, errosponsôk etâtzen tzitûn. Familli berrin sartzen tzan señailea zan au ê.

Tomasa Agirrerri 1980-6-9an jaso.

330. Elizbidea, gorputze etxeti elizâ eamaten tzan bidea izaten tzan. Etxe bakoitzek bê bidea zôn. Nola nai ê, luizîn batek bidea ixten bazôn da leku artan zelaiti gorputze pasau bear bazan, zelaien jabea jûten tzan kûtzen aurreti, terrenôn deretxoik ez galtzeatio.

Ramon Zabaletari 1980-6-9an jaso.

Subastea

331. Errin zeozer subastatzen tzanên, kandelea pizten tzan. Kandelea erre ta itzaltzen tzanên bukatzen tzan pujatzeko denborea.

Franzisko Azurmendiri 1980-1-2an jaso.

332. Musasoti Attamarren zârrea lurpen pasoa mendo. Etxe bateti bestea zulo ortati gizona oñez jun mendaike.

Jexux Mazkiarani 1980-9-3an jaso.

333. *Mendiko potzûtan, gaztiña ostôî bi puntâtati eldu ta andi eraten tzan ure.*

*Baserritarrak, iturri 'atea alliatzen tzanên, txapelên ure artu ta andî re eraten tzôn.*

*Fermiñ Arakamari 1980-9-5an jaso.*

Eguzki-lorea

334. *Oso landara politte 'a. Karaitz lurretan jaiotzen da. Euzkiñ antza do ta atên jartzen due, turmoiân da tximixtên kontra, etxeko sarreran.*

*Tomasa Agirrerri 1980-3-9an jaso.*

335. *Gaue Gauekôna da, esaten da. Sorgiñek ê gauekôk die, euzki lorea sorgiñân kontrakoa da.*

*Sorgiñek etxe 'atea datotzenên, euzki lorên ântzak kontaktzen asten die; emakumak izan! Da ântza danak kontatzeako, eune zâltzen tzate; argîri iges eiñ bear izaten diê.*

*Euzkîk gaueko pizti ta sorgiñ gaizto danak izkutatzeko erremedioa dauke.*

*Erramun Zabaletari 1980-9-3an jaso.*

336. *Espîtu Santuko ermitâ umêk asta saskîtan eamaten tzien, izketan atzeatuta bazetortzen, Espîtu Santûk sendauko zitûn.*

*Frantsika Berasategiri 1981-6-9an jaso.*

337. *Txakurrek eta otso 'atzuk odolea jartzen die, odolea biziau.*

*Bizio au oso txarra `a.*

*Bizio au artzen duen animalîk ardiai odola eraten ikasten due, ta gau batên iru eo lau ardi itotzeko kapaz izaten die.*

*Axarie re odolea oitzen da, onek ê arkumak itotze`itu.*

*Odolea oitu 'an txakurrek berroei ta amar kilometro ein daizke gau batên odola billauko don lekuaño ta iñor kontuatzeako, beiz etxea bueltau.*

*Txakurrek ondo 'aki eiten dôna gaizki dôla ta pikardi ok danak nausiñ ixilîk eite`itu.*

*Santiago Oiarbideri 1981-9-4ean jaso.*

338. *Umêi lénengo ortza billatzen tzionâi, erregaloea eiten tzikon, geianên soñekôn bat izaten tzan.*

*Joana Agirrerri 1980-9-6ean jaso.*

339. *Ume ôk ixildu itzen, sorgiñân lengoajea eite`iñâ ta. (Zeamako goialdên umêk erderaz itzen batzuk eiten asi zienen Amonak, bê alabai esaten tzion esâldi au ikâuta.)*

*Mari Karmen Zabaletari 1980-9-2an jaso.*

340. *Ijitôk urrutîñ eiten do aberie, bera dâllen lekûn ez.*

*Santiago Azurmendiri 1980-5-9an jaso.*

341. *Arbola`at igartu nai bazan, dâtillûkin zuloa eiten tzikon da bâtzuri alêk sartu barrua, gero zuloa betunêkiñ ixten tzikon. Ola arbolea besteik bê igartzen tzan.*

*Franzisko Azurmendiri 1979-5-9an jaso.*

342. *Santa Ageda ermitea, (Zulâ aldên tzan) Frantsesên puskau mentzuen. Urtsoan-darrak bertako kanpaia patata azîñ truke eama` mentzuen.*

*Inazio Urkizuri 1980-9-1ean jaso.*

343. *Jangoikôk garie ein tzônen, gizonak asko matteko zuen bedarra eitea zijôla esa`mentzôn.*

*Joan Apaolazari 1980-2-9an jaso.*

344. *Jangoikôk dirue ein tzônen, bera baño geiô gizonak matteko zuen gauzea eitea zijôla esa`mentzôn.*

*Joan Apaolazari 1980-2-9an jaso.*

345. *Jainkôk mundue ein tzônen, lurrêi ala esa`mentzion:*

*—Gizonak, animalîk eta landarâk, i ao mantendu bearrên.*

*Lurrek erantzu`mentzion.*

*—Lan asko `a ori nêtzako, Jauna.*

*—Bai, lan asko`ek ori dana `año, aitzenên danak eorrek jango `ituk, kontestau mentzion Jangoikôk.*

*Inazio Urbizuri 1980-6-23an jaso.*

346. *Ate bakoitzên dendea, zerue alanbrez kûtzauta, pausoti pausoa bidekûtzeta ta gizonak arbola puntâtan emakumâi igesi, ok izango mendie aizken juizioko señaîêk.*

*Tomasa Agirrerri 1980-7-9an jaso.*

347. *Aizken juizioko eunên, eurie ta euzkie batea izango mendie.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

348. *Aizken juiziôn aurreti, zazpi urtên umeik ez men da jaioko.*

*Tomasa Agirrerri 1980-8-9an jasoa.*

349. *Aizken juiziôn aurreti, eun illunek etôrko die, kandela beinkatuk bakarrik argi eingo die.*

*Tomasa Agirrerri 1980-7-2an jasoa.*

350. *Aizken juiziôn aurreti, txarrai ogie ta gaztaia emango zate, onak beiz gosêk ilko die.*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-3an jasoa.*

351. *Aizken juizioko eunên, Jesukristôn papela eiñez etôrko die gaiztôk, "gosêk eongo zâte ta jan ogie —esango 'izuê. —"Ez kasoik ein zuek, deabruie izango 'a zuek galdu nâien.*

*Tomasa Agirrerri 1980-5-3an jasoa.*

352. *Mezaerdikôn erlojûk ordue jotzen bô, elizân dêrenetati laster bation bat ilko 'a.*

*Tomasa Agirrerri 1980-8-5ean jasoa.*

353. *Ollarrâk eun sentie baño lênao jotzen dônen, laxter norbait ilko 'a etxe artan.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-6ean jasoa.*

354. *Perrejille aldau ezki, etxen norbait iltzen da. (Perrejillên azie erein bear da)*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-4ean jasoa.*

355. *Ume 'at errîñ iltzen tzanên, errîñ aizkena il tzanân animea purgatorioti zerua eama-ten tzôla esaten tzuen.*

*Prantxika Zabaletari 1980-7-9an jasoa.*

356. *Leioko kristaletan txorie mokoka ai bâ, etxe artan laxter norbait ilko 'a.*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-1ean jasoa.*

357. *Gaueko txakur-zaunka luzêk erriko norbaiten eriotza aiazten do.*

*Joana Arakamari 1980-5ean jasoa.*

358. Txomin Agirrek<sup>80</sup>, Zabaletako Joanesen heriotzari buruz hara zer dioen, “Txuri artzanora saletxe barruan gordea dago, ulua ta ulua.”

359. *Ildakôï eskûtan errosario beltzak ipin bear tzako.*

*Ildakoa, enterrau zuen erropâkiñ azaltzen da bizian aurrên.*

*Prantxika Arratibeli 1980-9-5ean jasoa.*

360. *Etxeti kanpoa bat iltzea <mendiñ eo zelaien> suerte txar eo lotsakizuntzat jotzen tzan familikoandako.*

*Erramun Zabaletari 1980-4-8an jasoa.*

361. *Iñôn entierroko eunên egoaldi txarra bâ ta batez ê ekaiztêk jotzen bô, ildakoa inpernua jûn dan señaleara men da. Inpernua jûn baño lèn, mundûn difuntûn animêk eite`itun aizkeneko gaiztakerik, ôk izate`mendie.*

*Erramun Zabaletari 1980-4-8an jasoa.*

362. *Gerra aurreti, izarrân eurie<sup>81</sup> ein mentzôn bein baño geiôtan.*

*Izarrak zerûn eurie bezela eroitze`mentzien.*

*Ama Birjiñêk aurrez Ezkion anuntziau mentzôn milagro au.*

*Joan Zabaletari 1980-5-8an jasoa.*

Ekaizteen kontra zer egin.

363. 1) *Tximixtêk eo trumoiak jotzen donen, Attaren ein bear da.*

2) *Kandelari eunên bêinkautako kandelea piztu.*

3) *Erramu eunên bêinkautako erramu ostôk erre.*

4) *San Joan eunên bêinkautako lorâk erre.*

5) *Erramu eunên bêinkautako erramu adarrakiñ eiten dien kûtzak, etxeko atên, da soroan da zelaian mugâtan ipiñi.*

6) *Aizkorea, aua gora dôla, atâriko atên aurrên ipiñi.*

7) *Itaie atâriko atên ipiñi.*

---

80. Garoa, XIX. atala.

81. "Hoy y mañana podrá contemplarse en Cataluña una lluvia de estrellas. Este fenómeno se repetirá también con menor intensidad en el mes de Agosto. La lluvia de estrellas que es un fenómeno de gran espectacularidad e interés científico, se produce cuando un meteorito que viaja por el espacio a gran velocidad se extingue con una gran luminosidad cuando penetra en la atmósfera terrestre. Este hecho antiguamente era considerado como augurio de grandes acontecimientos", *El Diario Vasco* 1992.-5-4.

8) Noabait juteakôn, bazpare elorri pusketa 'at poltsikon eaman.

9) Mendín trumoiak jotzen dônén lizarrân azpîn gorde.

10) Errosarioa errezaú.

11) Abadêk ornamentu guztfík jantzi ta ur beinkatûkin konjueroa

eiñ. Bitartên sankristauek Elizân, bueltako kanpaiak jotzen tzitûn da Andutzako serorêk Andutzako kanpai txikie.

12) Jesusen Biôtzai oligotan lanparea piztea.

13) Zeamako goialdên ekaitze zanên, Irûxtako Ama Birjiñea don ermitati etâ ta Aizkorria beida jartzen tzan. Ekaiztea momentu 'aten izkutatzen tzan.

14) Dominuko konjueroa. Urtên beiñ, abadêk, herriko mugâtan konjuerok ein da erramu euneko adarrâkiñ eindako kûtzatxok ipiñi oizituen. Rito onek ê ekaiztekin ze ikusie zôn.

Tomasa Agirrerí 1980-6-6ean jasoa.

Konjuero berezi bat  
Santa Barbara bendita,  
En el cielo está escrito  
Con papel y agua bendita,  
Viva Santa Bárbara bedita.  
Martiña Izagirrerí bere biloba Arantxa  
Goiburuk, umetan Seguran entzuna.

Nola egin zezaken erdaraz konjuero hau, euskaraz besterik ez zekien emakume hark? Aiako Semeola baserriko andre zaharrak, orain hiruregei urte, hara zer konjuero egiten zuen. Hark ere ez zekien erdaraz.

Karga en Izarraitz,  
deskarga en Hernio,  
guarda Altzola  
en demas Semeola.

Konjueroa eurek ez zekiten hizkuntzan egiteak, indar gehiago zuen nonbait euren-tzat. Latiñez egiteak erderaz edo euskeraz egiteak baino balio gehiago zeukan bezala.

Leize

364. Langâneti Ezpalioa bitartên, San Joan etxe parên, errekan, "leize" esaten tzakon potzu 'at 'ô.

Potzu ôntâ, beiñ, itzaie, gurdie ta îdi para eroi mentzien, geiô erân arrastoik ez mentzan iñun azaldu.

Agai luzeanakiñ ibilli izan da jendea, zulo au nun akâutzen dan jakin naita, baño dana alperrik izan da.

Goialdên, jendêk, potzu onek aizkenik eztôla, uste 'o.

Kalisto Zabaletarí 1980-3-9an jasoa.

## Erraberoa

365. *Esne jatxi berrîri esaten tzako Zeaman. Bero beroa ta aparra zeriola artzen tzuen kaletarrak afan aundikin baserria jûten tzienên. Basokara 'at errabero artzea, afan aundiko gauzea zan.*

*Tomasa Agirrerri 1980-8-15ean jaso.*

366. *Zeamako Muñotxon eulea (arie eiten tzan tallarra) mentzion.*

*Garai berên, barbero 'atek bertan bizarra mozte' mentzon.*

*Barbero onek, matrall ezur flakôk zeuzkên jendei, intxaur bat*

*sartze' mentzion agiñân da masallên artên, arpegiko azalak lixotzeko ko ta errezago bizarra mozteko. Bati bizarra mozten tzienên, urrêna zetorrenai ê intxaur bera sartze' mentzion auan.*

*Santiago Azurmendiri 1980-5-16ean jaso.*

## Eltzegorra

367. *Erderazko "zanbonba" deitu oi zikon eltzegôrrai. Lurrezko lapikôi o burnizko mar-minta 'ati ipurdie kendu ta zuloa katanarru leor batekiñ estaltzen tzikon, narrue tire tire einda ziôla, ondo lotu bear tzikon lapikôi.*

*Narrue erdin zulau ta ogei bat zentimetroko sokea pasatzen tzikon zuloti, bê bi puntâtan koapillok zitula. Sokei tire eindakôn, eltzegôrrak sekulako ots garratza etâzten tzon.*

*Galazita dô eltzegôrra jotzea, ots onekin ganadûk erotu ta sekulako txikiziôk eite" itue.*

*Santiago Azurmendiri 1980-4-3an jaso.*

368. *Gue ume denborân barberoa, erroera ta sakristaue urtên bein pâzten tzuen, gari berritan. Etxeik etxe ibiltzen tzien tokatzen tzitena garitan kobratzen, astoa aurreti zuela.*

*Berrôei 'at urte die gutxi gora bêra, sakristaue Zeaman aizkeneko aldiz pasau zala garie bilduz.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-9-5ean jaso.*

369. *Muskarrak bati ozka eiten badio, beatzi elizatako kanpaiak*

*jo artên, ez mendo soltauko.*

*Franzisko Azurmendi 1981-7-8an jaso.*

370. *Sastrêk erropea nundi ebai markatzeko eo arotzak egurrek eta ôlak nundi moztu bear tzien señalatzeko, arrorie ebâltzen tzuen gue zârrak. Arroriri, leortzen danên, auts ori leun fiñ bat geatzên tzako axalen, da auts onekin markatzen tzien erropak eta egurrek, nundi moztu.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-4-8an jaso.*

371. *Illeik ezta sekula erreka bota bear, uretan suge biurtzen da ta*<sup>82</sup>.

*Franzisko Azurmendiri 1981-4-8an jasoa.*

372. *Ullategiñ ullo beltz bat bearrezkoa da.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-9an jasoa.*

373. *Euzkie Jangoikôn begie menda.*

*Ramon Zabaletari 1980-4-8an jasoa.*

374. *Zapôi zirie sartzeko ôiturea zuen lénago umék; momentu artan zopôk botatzen tzôn txistue umêi begitâ eroitzen bazikon, itxu geau zeikên.*

*Zapôk, barâk eta xaguxarrak, gue ume denboran, ziri 'atên sartu ta sekatzén jartzen tzien.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-6-7an jasoa.*

375. *Gue ume denborako esaerâk.*

*Pratikantea . . . . . Goseplantea.*

*Karabiñero . . . . . Poco diñero.*

*Guardia Zibil . . . . . Gesék il.*

*Mikelete . . . . . Ase ta bete.*

*Kamiñero Peon . . . . . Baztarren eon.*

376. *Sorgiñek, gorputzên aparteko markea eamaten due, ezkerreko begi niniñ beiz, zapo 'aten irudie.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-8-9an jasoa.*

377. *Perretxikûk onak ala txarrak dien jakiteko, zartaiñên prejitzeakôn, zillarrezko txanpon bat bota bear tzâte. Zillarra bezten bâ, perretxikûk benenosók die, bestela onak.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-8-9an jasoa.*

378. *Perretxikûk jan da geo ezta urik eran bear, txarra `a.*

*Perretxikûk gaitz ein diula konturautakôn, esnea eran bear da.*

*Batzûk, oligoa eratea re ona 'ala esaten due.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-2-6ean jasoa.*

---

82. Mijail Cholojoven *El Don Apacible* nobelan, uste bera dakusagu 871 orrialdean>.



379. *Gue basêrritan, kanpokoia etxea etortzen tzânen, kotxilloa ta ogie aurrên jartzen tzikon.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

380. *Garai batên gue etxêtan, eskale'ati limosnea emateakôn eo pertsona 'ati zeozer eman bear tzikonên, ate-azpikoa zabaldûz emanten tzikon eman bear tzikona, etxeko sarrera guzie zâlik zeukela aierazîz.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

381. *Gue denborân, eskalêi artaburue ematen tzikon ate ondoa eskên zetorrenên.*

*Prantxiko Zabala 1980-8-9an jaso.*

382. *Muskar bat norbaitek akâtzen dônen eurie eite' men do.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

Txakur-gaitza

383. *Batek mendiñ, txakurrek ure eran dôn lekûn ure eraten bô, txakur-gaitze arrapa-tzen do. Txakurrek, ure eraten dôn tokin, zomorro'at uzte' mendo, ta zomorro onek eraten dôna, sendatze' eztan gaitzên jabe eite'mendo.*

*Prantxiko Berasategiri 1980-6-9an jaso.*

384. *Katue manôkiñ arpegie garbitzen ai bâ, egoaldi txarra.*

*Tomasa Agirrerri 1980-8-2an jaso.*

385. *Katu beltza dôn etxên neska zârrik ez menda faltako.*

*Joana Arakamari 1980-6-9an jaso.*

386. *Maldiziôk norbait il daikê.*

*Erramun Zabatetari 1980-6-9an jaso.*

387. *Maldiziôk eta errezôk indar berdiñe due. Batêz.*

*Marzelino Lasari 1992-10-3an jaso.*

388. *Euri eunên ezkontzen dien andra-gizonak, eztie zorionsûk izaten.*

*Ramon Zabaletari 1980-9-10ean jaso.*

389. *Segârrîk garai batên, oaingo arri txukun ôk azaldu aurreti, argorrîk izaten tzien, naiz segea naiz îtaie zorrozteko.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-4-8an jasoa.*

390. *Etxeko ure tuberîñ eamateko artzen tzan depositôn, ikatz pixka'at botatzen tzan, zezati botatzen tzuen eztaiz, ure garbîgoa eon tzein zala re esaten tzuen*<sup>83</sup>.

*Tomasa Agirrerri 1980-3-8an jasoa.*

391. *Garai batên, anai zârrana elizâ jûten tzanên, gaztêgôk etxên geau bear izaten tzôn, elizân tzan anaie etxea etorri artên.*

*Zârrana etxea etôrtakôn, onen aprêtakiñ, gaztea jûten tzan elizâ.*

*Jose Mari Arakamari 1977-6-1ean jasoa.*

392. *Etxeko zorue ta paretâk bustita dârenên, laiter eingo 'o eurie.*

*Frantzisko Azurmendiri 1980-3-2an jasoa.*

393. *San Joan goizên biltzen dan karraskillok birtute aparta izate'mendo.*

*Tomasa Agirrerri 1980-4-23an jasoa.*

394. *Urte zâr gauên arrautzea autsi ta katillûn uretâ bota ezkie, bertan Erromako zupie formatze' men da.*

*Santiago Azurmendiri 1980-4-24ean jasoa.*

395. *San Joan goizên jasotzen dien eztârri belarrak, eztârriko gaitz guzîk sendatze`itue.*

*Tomasa Agirrerri 1981-8-12an jasoa.*

396. *Kazkabarra ai dônen, aizkorea auz gora jarri ezkie, ekaiztea beala bukatzen da.*

*Tomasa Agirrerri 1981-8-12an jasoa.*

---

83. Behar bada ekintza honen arrazoia hau izango da:

"Para evitar que el agua traída de noche perjudique a quien la bebiere, se introducía en ella un carbón o un tizón encendido." BARANDIARAN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 235 or.

397. *Gauên afaltzekôn armearma beltz bat paretân azaltzêk, suerte txarra ekartzen do. Armearma zurîk, beiz, suerte ona do bêkiñ.*

*Joxe Mari Arakamari 1980-8-12an jaso.*

398. *Kukusârra, udaberrîn kukûk jotzen dônen aritz arbolêi adarretan sortzen tzakon sârran antzeko fruta 'ati deitzen tzikon.*

*Erramun Zabaletri 1980-8-12an jaso.*

399. *Bataiôn attepuntakôk Kredoa gaizki errezatzen bô, umea oso okerra izate'memda.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-2-7an jaso.*

400. *Bat fundamentu gutxiko pertsona danên, bataiôn gatz gutxitxo eman tzikola esaten tzako.*

*Migel Urbizuri 1980-2-8an jaso.*

401. *Basêrritan sukaldeko suik etzan itzaltzen. Illatîri gañea surtako autse botatzen tzikon itzali etzeiñ. Urrengo goizên autse kendu ta izkutûn tzion sue beiz pizten tzan.*

*Orti zetorren esaerea: "etxeko sue, etxeko autsêkiñ estali bear da." Etxeko kontûk etxên gorde bear diela, alegie.*

*Egurtzeko sukaldea zan nik sekula ikus dian xelebreana. Etzeuken tximinîk, kea ganbarâ jûten tzan, eo leio txikiti irten. Elâtza sukaldeko kapirio 'ateti zintzilika zeukên da sue sukaldên erdiñ eiten tzuen.*

*Egurtze lau bizitzako etxea zan. Lau bizitzâtako jendêndako*

*abarka pare bakarra men tzeukên. Lênego jaikitzen tzanak subiñati artu abarkâk, jantzi ta eun guztiñ ebaltze'mentziton. Gañeatikôk eun guztiñ oñûstan ibiltze'nentzien.*

*Tomasa Agirrerri 1980-7-9an jaso.*

*Itaulia*<sup>84</sup>

402. *Udako bero aundîtan beiâi eltzen diên euli 'at 'a*

*îtâulie. (îtâ eulie) Ganadue erotuta jartzen dô onen ozkarêk. Ezpatea (euli baten izena) baño zeozer aundixiôgoa da. Junioti agorra bitarten ibiltzen da. Ganadue seitûn konturatzen da eulie noiz datorkion gorputzea, pertsona baño lîn.*

*Itâulîk jota, malkarretan da leku txârretan ganadu asko galdu izan da.*

84. Eulia.

*Uztarrîri Erramu eunên beinkautako erramu adarrâkiñ eindako*

*kûtzea jartzen tzikon, kandela beinkatûn tanton batekiñ. Itâulîñ kontrako usariôk zien ôk.*

*Joxe Mari Agirrerri 1981-4-9an jasoa.*

Arakamako errotaria

403. *Pertsonâk ez gâ danok igoalak. Akamako errotariġ sekulako aguantea zôn sùkiñ.*

*Eskûn txinpartâk artu ta pipea pizten tzôn.*

*Beiñ urzorrie eran mentzon.*

*Etxea etor tzanen ta ur irakiñe eranez il mentzôn urzorri<sup>85</sup> ori nolabait, bê tripân.*

*Saludadorên<sup>86</sup> doaiek zitûn gizon arek.*

*Santiago Azurmendiri 1980-3-28an jasoa.*

404. *Zerûn lénengo izarra ikusten danên, attaren ein bear da.*

*Tomasa Agirrerri 1980-6-9an jasoa.*

405. *Auzoko katu beltza etxen sartzek, suerte txarra dakarre.*

*Santiago Azurmendiri 1980-3-9an jasoa.*

406. *Erle kumêk etxeko erle ontziti iges eiten dônem, suerte txarra laster dator.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-9-9an jasoa.*

407. *Akerra ukullûn eukitzêk, beste ganaduandako suerte ona 'akarre.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-6-9an jasoa.*

408. *Beorrâna inguratzen dien mândaullġ iltzeko, oligo zârra ta binagrea die onak.*

*Julio Azurmendiri 1980-8-18an jasoa.*

---

85. *Urzorriġ estomaoa zulau ta gizona iltzen tzôla uste izaten tzan.*

86. *Saludalorea txakur amorratûn ozkarea sendatzen tzôn gizona zan, zartâñem erretzen tzion oligoa auâkiñ artu ta ozkarên gañea botâz.*

409. Sârrak udaitzenên ganbarân belarretan jartzen tzien, azpîn da gañên belarra zuela. Ola etzien usteltzen.

*Ximurtzen tzienen umauta zêrela esaten tzan.*

*Sâr ximelak oso gozôk izaten tzien; gabon gaueko konpotea erekiñ eiten tzan.*

*Oso usai fiñe zuen. Armarioko erropân artên ê sartzten tzien*

*sâr ximelak, erropai ên usaie eman tzêien. Amaika aldiz gue etxêtako zârrak, sâr ximelân usaidun alkondara zurie jantzi zuen.*

*Tomasa Agirrerri 1981-8-24ean jaso.*

410. Mispirâk ê belarretan jartzen giñutzen, antxe poliki poliki biundu ta goxatzen tzien.

*Mispira biunek eta sâr ximelak tzien gue ume denborako goxoki bakarrak.*

*Tomasa Agirrerri 1980-7-19an jaso.*

411. Artoa, garie, indoabea, intxaurrek eta beste zenbait fruta ganbarân jartzen gintzen zâl-zâl leortzen, errezuma zulôtati aize edarra artu zezen.

*Gaztiñea morkotsân barrûn da leku ezên gordetzen tzan.*

*Tomasa Agirrerri 1981-10-17an jaso.*

412. Ume danak ez tie berdiñek, batzuk bestek baño okerragôk izaten bakie, batzuk izketan atzeatûk ê etortzen die. Ume ok, Olaberri gañea eaman da ebanjeliök etâzten tzitên.

*Ebanjelioak nola ateratzen ziren.*

413. Olaberri gañên etâzten tzien ebanjeliök. Bertako apaizek eiten tzôn lan au.

*Eun izentatue, ebanjeliök etâtzeko, San Joan eune izaten tzan.*

*Umêk amâkiñ etortzen tzien, da, danak bildu artên, itxoiñ eiten tzan.*

*Apaizek sobrepellize jazten tzôn sotanên gañeti.*

*San Joanen erlikiñ aurrên, lau ebanjelioan zatik leitzen tzien apaizek umeai latiñez.*

*Bukatzeko, isôpokiñ ur bêinkatue botatzen tzien, da ondoren ume bakoitzei kuttun bat ematen tzikon. Kutun au katekorraz batekiñ umeai erropâtan lotzen tzitên.*

*San Joanen erlikie ematen tzien umeai ta amâi muñ eiteko.*

*Geianên ume txikiñk etortzen tzien ên amâkiñ.*

*Apaizek jendên borondatea kobratzen tzôn.*

*Jende aundie re jûten tzan rito ôntâ.*

Urtean zehar.

414. Askotan jende aundie koadrillán etortzen tzan.

*Elizán sartu ta ogai ê Ebanjeliôk leitzen tzitên, isopôkiñ ur bêinkatue bota ta kutunek ematen tzitên.*

*San Joanen erlikiñ aurrên eiten tzan beti rito au, eoziiñ eunetan da eoziiñ ordutan.*

*Bukaerân San Joanen erlikie ematen tzan muñ eiteko*<sup>87</sup>.

*Maria Mujikari 1991-9-11ean jasoa.*

*Agorrân zortziñ urtêro jûten tzien Zeamati emakumâk Liernia ta Ama Birjiñei ulla da parea eamaten tziên*<sup>88</sup>.

*Liernia eaman bear tzien ulla dâk, beste egaztik baño kontu aundigokiñ azitzen tzien.*

*Tomasa Agirrerri 1981-8-9an jasoa.*

415. Euskal erriñ jendêk Jangoikôn izena Manuel dala uste 'o.

*Euri asko ai zônen, —Bota Manuel— esateko oiturea zeuken Zeaman basêrritar batek, Jangoikoa tentatuz bezela.*

*Beiiñ, aurreko eunên euri asko ein da gero, urrengo eunên eurie asi zônen, botatzeko esate'mentzion Manueli basêrritar orrek, atzo bezelako markea berdintzea kostako zikola ta. Urrengo eunen etxea ia eamanên utzi zion urek.*

*Arrazkio Manuel pakên uzte'mendo.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-8-9an jasoa.*

Freskerea

416. Freskerea sare estu estukiñ ingurautako armariotxo 'at izaten tzan, eulik ez sartze-ko múkoa.

*Aragie o arraie antxe gordetzen tzien aza ostôn ondo bilduta, euli zârretati urruti.*

*Etxeko lekuik freskoanên eoten tzan.*

*Tomasa Agirrerri 1981-9-25ean jasoa.*

417. Emakumêk debillidatea o erorie zeukenên "barruko ille" zeukela esaten tzan. Anix pixka 'at o zerbait bizie eskatzen tzôn ordûn gorputzek.

*Joana Arakamari 1981-7-24ean jasoa.*

---

87. Barandiarán jauna irakurriaz, errito hau begizkoaren aurkakoa ote zen dirudi. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 135 or.

88. Oilandak Ama Birjinari eramateak eta Urkiolara andregai edo senar-gai bila joateak nire iritziz "Mariren" kultoren aztarrenak dirudite, antzutasunaren aurkakoak, hain zuzen.

418. *Aza lapikôî, eosten dôla, etzako burnizko kotxaraik sartu bear, azêk gustoa gal-tzen do.*

*Eoskarîtan ê zurezko kotxarea sartu bear da.*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-17an jaso.*

419. *Bâtzurie zazpi gaitz da gion kontrakoa dala esaten due, txixarândako oso ona 'a.*

*Prantxika Zabaletari 1980-8-15ean jaso.*

420. *Porru, urrezko atxurrêkiñ jorraztekoa dala esaten da.*

*Tomasa Agirrerri 1980-8-15ean jaso.*

421. *Erramue erramu eunên aldau bear da, bestela landarea motela ta erkiñe azitzen da.*

*Jose Iraztortzari 1980-6-11ean jaso.*

422. *Gaztiñák eosteko ure, gatzik ez gastatzeâti, Gesalberriti ekartzen tzan garai batên Zeamako basêrri askotâ. (Gesalberrin, gesali turri bat dagoen tokia da)*

*Tomasa Agirrerri 1980-9-11ean jaso.*

423. *San Adriango bidên, Iturzâldi bêrago, kaltzadako arri 'atên, zulo borobil bat 'ô. Zulo 'u erregên zaldîñ perrazuloa dala esaten due.*

*Errege andi pasau zanen aren zaldîk eindakoa menda perra zulo ori, Karlos I. arena dala uste 'o Goialdên jendêk.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-6-9an jaso.*

424. *Elurrek okertu dôn arbolea ez menda geiô zuzentzen.*

*Migel Urbizuri 1980-4-7an jaso.*

425. *Txakur txikiâi lênao, bizkorak eta salatîk izan tzeitzen, belarri puntâk eta buztana mozten tzitên.*

*Erabateko erretxiñek izaten tzien.*

*Santiago Oiarbideri 1980-4-11ean jaso.*

426. *Perraxiku lekûk zerue ikûs bear do, orreati, arbolea bakan dôn lekûn izaten die perraxikûk. Euterea bâ obe. Ilgorân jaiotzen die perraxikûk illargîkin batea.*

*Santiago Azurmendiri 1980-5-13an jaso.*

427. *Lanbrôk xoxokumêi lumâk etâ ta indartzen dio, orreati esaten da lanbroa ai dônhên, gaur xoxokumâk lumatzeko mûko egoaldie dô.*

*Xoxokumâk âpie intzêkiñ o lanbrôkiñ uzten due.*

*Egoi aizêkiñ âpiñ eoten die lozorrôn.*

*Zozoa ezta sekula âpia zuzenên janakin jûten. Apîñ ondoko arbolan gelditzen da ta andi îñor agiri 'an beitzen do.*

*Îñor ikuste'ezpô jûten da umêtâ.*

*Santiago Azurmendiri 1981-7-21ean jasoa.*

428. *Beiñ ikusten dan zizea ez menda geiô azitzen.*

*Erramun Zabaletari 1980-6-9an jasoa.*

429. *Ziza lurrên belarra beltzagoa izaten da. Zizalekûk zelaietan îtai baten formea euki-tzen due. Sûk ziza lekuko belarra o sasîk erretzen baitu, zizaleku artan betiko galtzen da zizea.*

*Erramun Zabaletari 1980-6-9an jasoa.*

430. *Arbolêk adarretan ainbesteko bueloa mendo zuztarretan.*

*Antonio Zumetari 1980-8-13an jasoa.*

431. *Milla metroti gora ez menda eulîk izaten.*

*Julio Azurmendiri 1980-11-24ean jasoa.*

432. *Ondo bizitzeko, batek negûn apaize ta udân txixtularie izan bear mendo.*

*Julio Azurmendiri 1980-1-9an jasoa.*

433. *Moskorrak ardoa utzi 'ezan, ardotan angilên odol tanto 'at artu bear mendo, berak eztakîlla.*

*Erramun Zabaletari 1980-5-15ean jasoa.*

434. *Ezkerreko belârrie norbaiti berotzen bazako, norbait bereati gaizki esaka ai dan señailea menda.*

*Eskubîkoa berotzen bazako, beiz, norbait ondo esaka ai men da.*

*Santiago Azurmendiri 1980-3-9an jasoa.*



435. *Naiz poxpolo bûruk, naiz poxpolo kajên lijêk benenoa eukitzen duela da ustea. Gizonâi iltzeko poxpolo burûk eman, da kartzelân eondako emakumea ezautze` et nik.*

*Tomasa Agirrerri 1980-3-9an jaso.*

436. *Txakur amorratûk mingaÑe alde `atea zintzilika eamaten do, ta buztana ankârtên.*

*Santiagoo Azurmendiri 1980-1-6an jaso.*

437. *Ume txikîk beatza auan ibilli etzezan, beatz puntân pipar miÑe ematen tzikon garai batên.*

*Tomasa Agirrerri 1980-3-8an jaso.*

438. *Etxe berrî tellatue ematen tzikonên trapalea eiten tzan, afari on bat.*

*Festa oni "albokea" re esaten tzikôn, afal ondôn albokea jôz dantza eiten tzalako.*

*Etxeko ixurîn gañên erramu<sup>89</sup> adar bat jartzen tzan.*

*Santiagoo Azurmendiri 1980-4-8an jaso.*

439. *Sorôn beti ezin leizke azi berdiÑek ereiÑ, al dan sarriana azik aldau bear die, ta al bâ urtêro.*

*Gari azie urtêro aldau bear da.*

*Paraje altuko azîk bêan frutu onak dakartze, bêko lurretako azîk goien txârrak emate`itu. AzîkiÑ kontu aundie euki bear da.*

*Arabako patata azie, emen oso ondo etortzen da.*

*Jose Mari Arakamari 1977-5-17an jaso.*

440. *Bozaderâ arrubie batatzeko oiturea zan, bertako xomorrô txar danak galtzeko.*

*Juliana Arakamari 1980-7-17an jaso.*

441. *Satorrak euzkie irtetzekôn da etzatekôn jotzen do.*

*Lurreko xomorrôk janez bizitzen da.*

*Frazisko Azurmendiri 1980-6-8an jaso.*

---

89. Erramua indoeuropeauen kulturen eta euskal kulturen oinaztarraren aurkako arbola zen. Etxearen ixuriko erramua, etxe berriari oinaztarraren aurka jartzen zitzaion babesaren beraz.

442. *Kurrillók V baten formân jûten die udazkenên, geianên euri ta egoaldi txarran igesi. Itxasoti datozen egazti danak egoaldi txârra ekartzen duela esaten da.*

*Paseko egaztîk itxaso txârrai o egoaldi txârrai igesi jûten die.*

Santiago Azurmendiri 1980-4-9an jasoa.

443. *Espîtu Santuko kûtzei ardoa bota ziên burlaz arabârrak.*

*Denbora gutxi barru, erri guztie errezôn igo zan Santo Kristôi barkazioa eskatzea. D. Jesus Etxeberriak desagrabiozko sermoia ein tzion. Ni neska gaztetxo nintzen.*

Tomasa Agirrerri 1981-5-9an jasoa.

444. *San Joan goizeko intzek osasunei on eite'mendio.*

*Maietzeko intzek pertsona edertu eite'mendo.*

Santiago Azurmendiri 1980-12-7an jasoa.

445. *Menda belarrak oiân azpîn jartzen tzien arkakosôk akâtzeke, belar ogai arkakoso belarrak ê esaten tzate.*

*Belar ôkiñ eskobea ein da koartôk ê garbitzen gintzen arkaosoan kontra.*

*Ildakoa zion etxên, mendâk jartzen tzien oipên kiatsân kontra.*

Tomasa Agirrerri 1980-5-8an jasoa.

446. *San Pedroko ermitân, aldarên eskuiko aldên zulo 'at `o.San Pedro eunên, zulo ortan burue sartu ta kredoa errezatzen tzôn erri guztîk.*

*Buruko miñik ez izateko zan oitura au<sup>90</sup>.*

Tomasa Agirrerri 1980-6-7an jasoa.

447. *Etâ nai zan agiñei alanbre punta 'at lotzen tzikon da beste puntea iruortzai. Iruortza leiotti bota ta agiñe atzeti eamaten tzôn.*

*Oañ oetamar urte agiñek ôla etâtzen tzien Zeamako Goialden.*

Jose Ormazabali 1980-8-9an jasoa.

448. *Gauên loraik, norberak lo eiten dôn koartôn, ezta euki bear.*

Tomasa Agirrerri 1980-2-7an jasoa.

---

90. Ohitura honek 'Zuloko Meza' omen zuen izena Zegaman. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 251 or.

449. *Emakuma 'atzuk, umêk bear baño bular geiô re izaten due askotan. Bularrak aunditu ta pitzau ê eiten tzatê ordûn. Ori gauza mintsue izaten da. Gue andrei ê semeik zârranakin gertau zikon ori.*

*Zeaman kaso ôtan bazan andra 'at, Maria Argaitze, gaxoa, erdi gosêk semêk eta errañek eukitzen tzuen otsa re izaten tzan da emakuma onek sobratzen tzikon bularra eraten tzion gue andrei.*

*Beste kaso askotâ rê otseiten tziên.*

*Nikolas Zabaletari 1992-2-25ean jaso.*

Borondate txarreko dirua

450. *Borondate txarrakiñ eman bear dan dirue, zimurtuta eman bear meda, artzen dônak suerte txârra izan dezan. Monedea baldin bâ biurrituta, billetekn berdiñ.*

*Ramon Zabaletri 1980- 6-7-9an jaso.*

451. *Pertsona 'ati zerbait txarra opatzen tzikonên, kandlea biurritu ta santu 'aten aurrên jartzen tzan errezon. Ola, gorrotoz gaizki ikusten tzan pertsona kandelêkiñ urtzen tzala uste izaten tzan.*

*Santiago Azurmendiri 1980-7-9an jaso.*

452. *Muxarra sei illabetên lo ta beste sei illabetên esnai eote' men da.*

*Santiago Azurmendiri 1979-7-9ean jaso.*

453. *Muxarrân koipea eskûn barrûn artzen bâ, eskûn beste aldea aragim barrena pasatzen dala esaten due.*

*Muxarran koipea erreumandako oso ona menda.*

*Santiago Azurmendiri 1982- 7-3an jaso.*

454. *Ullalokên saldêk bêrakoa emate'mendo.(Apuestoa galtzeko, kontrarioai eman izan tzate.)*

*Santiago Azurmendiri 1980- 8-3an jaso.*

455. *Txakurrek, enpatxue daukenên, albitz belarra jaten do.*

*Franzisko Azurmendiri 1980-8-3an jaso.*

456. *Errotaberriko Kaxintak, Prantxiko Errotân arrebak, artoa 'at gaztai burûn da umea lepôn tzitûla jû' mentzan Errotaberri Azpeitia oñez, Mandubiko gañeti zear.*

*Joan Patxi Garmendiari 1980- 5-9an jaso.*

457. *Erbiñudêk, arrika eman o kalte eiten dionai, etxên gaiztakerie eite' men dio al dôn azkarrâna.*

*Inazio Urbizuri 1980- 6-18an jasoa.*

458. *Piñu zomorroa txipilotati jaiotzen da. Zomorro onen etsaïk aundianak txingorri gorrie ta txori kaskabeltza die.*

*Zomorro ok negûn, iru metroko bidea lurpên ein da izkututzen die. Otzak nekez akâu daizke. Lurpeko txingorrian lur ariñek aprôtzatûz zulutzen due lurre aiñ barrua.*

*Udaberriñ atzea lur gañên azaltzen die.*

*Joxe Sagarroari 1993-9-8an jasoa.*

*Umêi jαιο berritan etzikon garai batên musuik ematen*<sup>91</sup>.

*Umea Elizân sartu artên, amak ezin tzeikên etxeti irten.*

*Amak iturria jun bear baldin ba zôn, tella kaskoa suillên azpiñtzola jûten tzan.*

*Tomasa Agirrerri 1980- 9-4ean jasoa.*

459. *Urbîko lêngengo artzaie Zeraingo Larrondo basêrrikoa iza'men tzan.*

*Inazio Muñoari 1980- 8-4ean jasoa.*

460. *Leioa zâlik eon ezkie oñaztarrak barrua sartu daike.*

*Frantzisko Azurmendiri 1980- 5-9an jasoa.*

461. *Gaizumea goiz datorrenên urte txârra izaten da.*

*Jose Alustizari 1980- 6-27an jasoa.*

Makilan egin

462. *Makillân eitea Euskalerrîñ, gizonak bê burue defenditzeko ebaltzen tzuen era 'atzan. Makillea euskaldunên launik onâna izan da oañ arte.*

*Makillân eitea, ezpatâkiñ eiñ oi zan esgrimên berdiñe zan, au da nork bere burue defenditu ta bestêi al dan egurrik aundiana nola eo ala eman, baño makillekiñ. Ikustekôk izan bear tzuen makilla joku âk.*

*Bein Zeamati Beasaña bê galerêkiñ tzijôn îtzai bati, bi eo iru mikeletek irten da alto bota ziên. Mikeletêk fusillêkin tzêren.*

---

91. (Kristae etzan arten).

*Itzaiek makillân, bi mikeletêk errenditu zitûn.*

*Makillân eitea, jûn tzan gizaldîn bukaerân galdu zan.*

*D. Andres Oiarbideri gaztetan entzuna.*

Aho gozoa

*463. Goizên bat balurrik dôla dauken txixtûi esaten tzato izena 'a aogoxos. Txistu au zauriai ematen tziten sendagarritzat.*

*Tomasa Agirrerri 1980- 9-6ean jaso*

*464. Arbolêi goiti bêra ebaitzen tzikon azala, obeto zâldu ta gizendu zeîñ.*

*Jexux Mazkiarani 1980-3-8an jaso.*

*465. Arbolea txertau bear tzônak, gatzik bêko janâkin gosaltzen tzôn, txixtue ematekôn, gosaltzen artu zôn gatzak mentue erre etzezon zan.*

*Joxe Sagarroari 1993-12-5ean jaso.*

*466. Pagôk eun urte bear meitu azitzen, eun urte gizentzen da beste eun urte iltzen.*

*Pagôk iru klastakôk izaten die. Pago beltzak, leku laiotzetan azitzen dienak.*

*Pago zurik, euterakôk azal zurigoa daukenak.*

*Pago zarbarâk, adarrak bêraka re azitzen tzatê. Oso gutxi ikusten die. Laurkingo bason batzuk badare.*

*Joxe Sagarroai 1993-12-5ean jaso.*

*467. Agorreko bigarren ilberiti, Otsâlleko aizkeneko ilberria bota bear da pagoa.*

*Osto borobille duen arbolak ilberrin bota bear due.*

*Osto luzea duenak beiz ilberân.*

*Joxe Sagarroari 1993-12-5ean jaso.*

Gaztainak

*468. Gaztiñâk, beltzak eta kolore normalekôk izaten die.*

*Beltzak bestêk baño lèn eltzen die.*

*Etxeetako morkotsak al tzan tokik bustianen jartzen tzien da noizik beîñ ure botatzen gendûn morkots pillâ, gaztiñea morkotsên geiegi leortzea ezta ona, arrak jotzen do.*

*Gaztiñaik ezta ganbarâ eamaten, leorra txarra do.*

*Gabonak aldea, ure galtzen duenên, ximeldu eiten die.*

*Amaika aldiz kantau gendûn gabonetan, "gaztiña ximelak jatea."*

*Gue gaztiñarîn bazan gaztiña beltz bat, lénengo gaztiñâk berai eltzen tzikon; piñue sartu zuen da dana akabo.*

*Gue gaztiñari zârên, amaika aldiz ure eran gendûn ixtingân ez mendô urik, piñûk era' mendo ixtinga osoa.*

*Tomasa Agirrerri 1980-2-9an jasoa.*

*469. Gôstîk, arbolâtan polittânak, arra ta emea izaten die. Sexoa oston ezautzen tzatê. Arbola emek pipita gorrik izate"itu. Txorîk gôstîn pipitâk oso gustora jate"itue.*

*Arbola arrak ezto pipitaik, eta ostoa gôrragoa eukitzen do.*

*Elurretan gôstîñ azpîn gordetzen die erbîk eta ollaorak.*

*Santiago Azurmendiri 1980-9-9an jasoa.*

*470. Zeamako errîñ, bizikletan lénengo aldiz azaldu zan gizona, Kaxpar Txixtu iza' mentzan. Oso errementari ona zan da, bizikletea, berak eiñe mentzan.*

*Jendêk, "parte onekoa" ezin tzeikela izan esan tzôn, planta artan, bi erruedân gañên tzellen gizona.*

*Kaxpar Txixtu izan tzan Patrizio Etxeberriai ofizioa erakutsi zion lénengo maixue.*

*Tomasa Agirrerri 1980-5-9an jasoa.*

*471. Autse lurrei ematen asi zieneti, ganadûn aragie gustoa galtzen asi zan.*

*Tomasa Agirrerri 1980-59an jasoa.*

*472. Goldea etzan lênaoko jendên gustokoa, axala bakarrik arrotzen tzôlako. Laiak lurre sakonâgoti moitzen tzôn da orreati eiten tzan laian.*

*Inazio Urbizuri 1980-2-9an jasoa.*

*473. Oan berroei bat urte komune urêkin jarri zuen Ellorren.*

*Aldaketa ori zârrak burugabetzat artu zuen, ximaurre alperrik galtzea tzala ta.*

*Tomasa Agirrerri 1980-2-9an jasoa.*

*474. Abioia lénengo aldiz Urtsoân paretî pasau zan. Zeamako jendeik geiana ze ikûsko jûn tzan Sâdar ta Mâñâmendi aldea.*

*—Eztik urte askôn iraungo apâto orrek —zion jendek, —gizona lurrên gañên ibiltzeko ein tzian Jangoikôk, ta aireako egaztîk.*

*Menditan sùk piztu zituen, da su ôtati giatûz zuzendu zan abiadorea, ta Burgos aldea jûnik izan bear tzôn.*

*Eun gutxi barru abioi ori Donostîko plaiân eroi ta pilotoa bertan il tzan*<sup>92</sup>.

*Tomasa Agirrerri 1981-9-10ean jasoa.*

Hagina<sup>93</sup>

*475. Arbola'aten izena 'a. Gaur Euskal errîñ galtzorîn do.*

*Bein gizon bat Arabati garîkiñ etor ta astoa Otsârten utzi ta agin bati lotu zion. Astoa, agin ostôk jan da akâu ein tzan. Agiîñ ostôk benenoa dauké*<sup>94</sup>.

*J.D. Ariztimuñori 1991-9-5ean jasoa.*

*476. Lên garai batên, gari lastoa etxên gordetzen tzanên, lastotan arratoiak âpîk eiten tzituen. Lastoa ganaduandako lardastuta geatzen tzan arratoian einkarîkiñ da usaiekiñ.*

*Lasto artên agin adar batzuk sartzen bazien, etzan arratôrik lastotâ urreatzen. Benenôî arratoiak antz ematen dio ta errespetoa zion.*

*J.D. Ariztimuño 1991-9-5ean jasoa.*

*477. Urtzûlaitako Joxepanttonik ala esate'mentziên bê launai:*

*—Ezer onik jateko baldin bâuken emaiion ê burûi. Gizonak mutur latza 'iñ da otea re jango `iñ.*

*Mari Karmen Zabaletari 1980-2-8an jasoa.*

92. Abiadorea Hubert Le Blon zen, frantsesa eta Donostiako kontxan hil zen 1910eko martxoaren 3an.

*La Costancia*, 1910-3-4ean.

93. Druiden zuhaitz madarikatua zen hagina. Zerbait txarraren itzala zeraman zuahaitz honek.

Druidaren eta Zelten kulturaren zuhaitz honek bazuen zerbait beltza. Abortatzeko erabili ohi zuen herri honek agin orria eta heriotz ikur bat ere bazen. "La Chanson de Roland" Erdi Aroko kantu epiko ederrean, zelten pentsamenez eginean, Ganelon makurra, Zaragozako erregeri Karломagnoren armada saltzerakoan, ia Zaragozan bertan, HAGIN baten azpian jaisten da zalditik.

*La Chanson de Roland*, XXXI kantuan.

Euskaldunak agin orriak janez hil omen ziren Erromaten hain zuzen Ernio. Gure Probintziaren ikurra ere hiru agin ditugu. Zegamako armarrian bertan agin bat han dago nahi duenak ikusi.

Añabasoren izena Agiña-baso zen garai batean.

Aizkeneko aginak Zegaman Pinudiak sartzeko bota dituzte gure egunetan. Sua egiteko egur ona zelako.

Aginak eta Euskerak ez ote daramakite bide berdina.

Agur eta ohore agin zaharrari.

Nolabait hil nahi ez genuen herri baten mezu otxana gurea.

Herriak eta aginak apalak dira, zer esan? Bizi, beti bizi.

94. Herri askotan kontaktzen da kontu hau.

478. *Txixtuik etzako bota bear iñoi. Oitura ori oso zatarra 'a. Judiok Jesusi oixe ein tziên.*

*Tomasa Agirrerî 3-28-1980an jaso.*

479. *Mendia ardîtâ o beste zeozertâ jûten giñenên, uztaro pusketa 'at eamaten gendûn poltsikon oñaztarran kontra.*

*Joxe Mari Arakamarî 1977- 8-9an jaso.*

480. *Zeaman goiko sukaldea (ekonomikak) jartzen asi ta beala labezomorrok asi zien azaltzen, lênao etzan alako zomorrok ezautzen. (Kuaternario zaharrean bizi ziren)*

*Etxe askotâ trikuie eamaten tzan da onek jaten tzitûn bealaxe labezomorrôk.*

*Migel Urbizurî 1982-9-3an jaso.*

481. *Jangoikôk nai dôn sue bêko sue menda, goiko suik o ekonomikaik ez mentzako gustatzen.*

*Erramun Zabaletarî 1979 6-3an jaso.*

482. *Gu umêk giñela lentejâi zindillak esaten tzitên. Ola zan esaerea.*

*Zindilla*

*mindilla.*

*Eun anea erein dâ re*

*Bat erne ezteilla.*

*Baserritarrandako zindillâk etzien atseiñek. Ur otzetan egosten jartzen tzituen da gorbe-zitu eiten tzitên nunbait. Zindillâk eo lentejâk ur berotan jarri bear die egosten.*

*Tomasa Agirrerî 1980- 4-28ean jaso.*

483. *Landarâk euzkie gora dijôla aldau bear die.*

*Nikolas Zabaletarî 1991-8-3an jaso.*

484. *Ardoa maira eroitzen baldin bazan, beatza busti ta bekokia re eamaten tzan gue ume denborân.*

*Tomasa Agirrerî 1981-8-25ean jaso.*

485. *Arbolâk noiz nai ezin leizke bota, izardie geldi daukên denboran lan ok ein bear die, ostôk eroita dâren denborân.*

*Nikolas Zabaletarî 1991-9-18an jaso.*



486. Denbora luzên urtu bê dôn elurre, elur berrî oska eoten dala esaten due.

Francisco Azurmendiri 1980-6-8an jaso.

487. Gizon bizar gorrie etzan fiatzekoa.

Emakuma ille gorri'at errîñ azaltzen bazan, kanpaiak jo bear tziela esaten tzan. Ille gorrian aurrekôk leprosôk izan tzien ustea zion jenden arten.

Santiago Azurmendiri 1980-9-25ean jaso.

488. Segurako Zurbano Madrilla zaldi zuri baten gañên jûn men tzan, Segurako lurretati trenbideik pasau etzeiñ.

Patrizio Etxeberriak Izalen ein tzôn lima fabrikea Seguran eiten ê etzion utzi.

Tomasa Agirrerri 1980-6-11an jaso.

489. Gue etxên, ni gaztea nitzela, etxe inguru guziñ zeren intxaur arbolâk. Osasuneako intxaurân itzala txarra zala ta danak bota zituen.

Intxaur arbolên itzalên siestea eitea re txarra men da.

Tomasa Agirrerri 1981-4-14ean jaso.

Txerri-hiltzea

490. Aurreko eunên auzoko gizon batzuai, txerrî eustea etortzeko abixoa ematen tzitên. Etxe bakoitzek txerrîltzalle jakiñe izan oi zôn. Gurên Gesaletzeko Tomas ibiltzen tzan.

Enkargûk aurreko eunên eiten tzien, amak ekartzen tzitûn ôlkik eiteko kanelautse, piparrak, anixatue, kafe pixka 'at, azukarra ta ardoa. Askotan karnizerôî estên batzuk erosten tzikon.

Au dana aurreko eunen eiten tzan.

Eun ori etxên eun aundie izaten tzan.

Goizên goiz etortzen tzan txerrîltzallee ta gosâi txikîkiñ

asten tzôn bê lana. Pikun batzuk, kafea ta kopea izaten tzan gosâi txikie, batzûtan baso 'at aguardiente ogi pusketa 'at ê bai.

Txerri gizâjoa, muturren gantxo 'at sartu ta banku 'aten gañea botatzen tzan. Auzoko bi o iru gizonak eusten tzien, kotxilloa îltzallêk sartzen tzion bitârten.

Emakuma 'atek odola baldên artzen tzôn, gôrtu etzeiñ eskûkiñ erâñez.

Gero erre eiten tzan txerrie. Besakara 'atzuk garo sapaiti ekarri, sue ein da an erretzen tzien txerriñ illêk. Batzûtan txerrîltzallek, laztazo piztue eskûtan tzola, erre be gelditzen tzikon illek erretzen tzion.

Tripâk, izarekiñ estalitako galbaiân artzen tzien.

*Tripak etâ ta garbitu eiten tzan txerrie.*

*Sekau zein, egur bat aldeik alde pasau ta txakurrek o katûk asiko etzuen lekûn ipiten tzan txerri ori.*

*HAMARRETA KOA. Txerrin gibela jaten tzan*<sup>95</sup>.

Josefa Azurmendiri 1980-6-9an jasoa.

Etxeko oiloak

*491. Etxe guztitan izaten tzien ullok. Etxe ingurûn ibiltzen tzien da geianen etxeko lurretan. "Ullalurre" etxeko ullok ibiltzen tzien ingurûi esaten zikion.*

*Esaerea bâ, "orrek ezтик ullalurreti irten".*

*Ullok zorri asko eukitzen tziuten. Etxe ingurûn ullo bakoitzek zorriketâko bê zuloa euki-tzen tzôn. Zorrik ematen tziên azkurea lurrên bueltaka kendu nai izaten tzuen gaxok eta, zeiltzen zeiltzen, lurrên aizkeneako zuloa eiten tzuen.*

*Ulloa beste egazti askôn antzea, lokau eiten da txitâk etâtzeko. Ulloai txitâk etâtzeko arrautzâk, aldiko bi jarri bear tzatê. Arrautzân gañen ipiteako, lokekiñ iru aldiz kûtzea eiñ bear da âpiñ da apiñ gañen. Arrautzâi ikatz batekin kûtzea re eiten gendun.*

*Puntaz bêra ta ilberân jartzen tzien arrautzâk, ala ullanda geiô jaiotze'mentzien.*

*Ullok txitâk etatzen tziitun eune oso politte izaten tzan.*

*Ullalokea sukaldeko baztar batên jartzen gendûn.*

*Txita txikik amân azpîn sartu, lumapeti burue etâ, zaperoa janda atzea amân azpîn sartûz ibiltzen tzien.*

---

95. "Y habian ya probado los pilios las entrañas de las víctimas". HOMERO: *Odisea* III, 1.

*Homeron eunetako antzea iltzen die oandio gue etxetako txerrik. Lenengo otordûn ganadûn erraiak jaten die gue artên ê. Illuntzân txerritzallêk txerrie puskatzen tzôn. Emakumâk eun guztiñ ôlkik eiten aitzen tzikon.*

*Gauên pertz aundi 'atên ôlkik egosten tzien. Odolkik egositako uretâ ogizopâk botatzen tzien.*

*Olki zopa ôkin da odolki ugarikiñ afaltzen tzan. Ardoa, kafea ta kopea re artzen tzien.*

*Txerrie ilda puskatzen tzanen, pusketaik gêianak urdaiaskân gordetzen tzien. Urdaiaskea arrizkoa zan, argiñek eiten tzuen, tapea egurrezkoa izaten tzôn.*

*Txerrie iltzen tzônak, eun batzûtâ, auzoko etxe guzitâ txerri ôlkik bialtzen tziitun. "Odolkiñ bat o bi urdai puskân batekiñ." "Puskea" esaten tzikôn erregalo honi. Ôlkik eamaten tziitun uei, eskupekoa ematen zikion.*

*Puskea artu ta erak txerrie iltzen tzuenên, bueltatze etzuenak ê izaten tzien târteka târteka.*

*Olki partitzen tzêllen motille ôlakoan etxe aurrên pasatzekôn au esanez juten tzan.*

*"Mortzilla mortzillante,*

*Vamos adelante."*

*Ôlkik aza ostôn bilduta banatzen tzien auzôn.*

*Ôlkik sokêkiñ etziet lotzen, zuma fin fin bat eoten tzan gue basêritan, zelai baztarren batên da aren adar meâ-nak ebai ta ôlkik lotzeko ebâltzen tzien.*

Oaindio gogon dauket zeñen pi, pi, pi, alaie eiten tzuen.

Naiz otz ein kanpôn, amân egal azpîn goxo goxo eoten tzien.

Ullôk etxe ingurûn sasitan, sarri etâtzen tztuuen txitâk. Txita ôk oso gôrrak izaten tzien, ullo einda gero re basatigôk izaten seitzen tzuen. Ulloa, txitâk azi ta oaindio loka seitzen bazôn, errekân saski 'aten azpîn uretan ipiten tzan lokea pasau arte.

Lokautako ulloa, arrautzân gañên jartzeik ezpazeon, ankati soka 'at lotu ta baztar bati lotzen tzikon, bestela âpîn etzon pakeik ematen.

Ulloai mingañen azpîn azal txuri ta lodi 'at noizik bein formatzen tztên, arnasea artzékôn ots nabarmen bat etâtzen tzuen, jatékôn ê bai.

Ordûn ullôk pipea zeukêla esaten tzan.

Emakuma 'atek jostorratz puntêkiñ azal ori arrotu ta gero azkagalâkiñ tire ein da pipea oso osoik kentzen tzien.

Maria Mora zan gue auzôn ulloai pipea kentzen abille.

Pipea kentze'etzikon ulloa jate'etzola geatzen tzan.

Tomasa Agirrerri 1980-8-13an jaso.

Asune<sup>96</sup>

492. Asune ota askan jotzen tzan, otajakikiñ.

Txe txe eindakon, artairiñekiñ nâsten tzan, zaperoa eiteko.

Ulloai mika aldiñ ematen tziten asune.

Ulloai barrue berotzeko aparta zan zapero au batez ê negue pasau ta gero udaberriñ, Ulloai gatzarrie re ematen tziten zaperon.

Gatzarrie txiki txiki eiñ da artairiñekiñ eiñdako zaperon ematen tziten, arrautzen kaskarea formatzeko oso ana zala uste zan.

Tomasa Agirrerri 1981-9-5ean jaso.

493. Pitotxa, basakatue, erbiñudea ta axarie izaten tzien geienbat ulloan etsaiek.

Pixti ok etxe inguruti uxatzeko, gomazko abarka pusketak eta trapu zârrak erretzen giñuzen. Usai txarrak xierpek uxatzen tztula uste izate' gendun.

Tomasa Agirrerri 1980-6-14ean jaso.

---

96. Osina.

*Axari-mutille*<sup>97</sup>

494. Zepon eo lazon arrapautako axarie bizkarren tzola, etxeik etxe propiña billa ibiltzen tzan motillei ematen tzikon izen au.

*Etxe bakoitzen pixti kaltegarri 'at il tzolako limosnea ematen tzikon sarie.*

*Basakatu, pitotx, sapelats, gabirai ta beste azienda txar askokiñ berdiñ eiten tzan, maki-lla 'ati lotu ta bizik eamaten tzien animala ok etxeik etxe esken.*

*Etxe danetan zerbeit ematen tziten.*

*Aiuntamentua re eamaten tzien eta sekretario zarrak ainbesteko bat ematen tzion pixtiñ jabei.*

*Gertakizun ôtako Kaxinto sekretariok guraizak eukitzen tzitun aiuntamentuko armario 'aten.*

*Gabiraien bat eo sapelatsen bat eamaten tzikonen, Kaxintok tokatzen tzana pátzen tzion motikoi ta gero armarioti guraizak etâ ta gabiraiai eo sapelatsai beatzak mozten tzion, motikoa pixti berdiñekiñ bigarren sariñ billa etorri etzeiñ.*

*Eiztariñ batek erria belan bat eo mirun bat egon bat autsita eta bizik ekartzen bazon gasolinakiñ busti ta erre eiten tzan.*

*Migel Urbizuri 1980-8-15ean jaso.*

495. *Gue umedenboran xaguxarra, atariko aten, bi egotati bi iltzekiñ josten tzan.*

*Migel Urbizuri 1980-8-15ean jaso.*

496. *Astok bizkarren azkurea daukenen, garagarra izazte`itu. Lurren bizkarran gañen etzan da bueltaka ibiltzen da. Indarren don señaleara da.*

*Lurreti arroxko arroxko jaikitzen da. Pentsue jaten don señaleara izaten da.*

*Migel Urbizuri 1980-8-15ean jaso.*

497. *Belearen Kontuak. Belea oso animala bizkorra 'a.*

*Talden bizitzen da beti. Sarraskik jate`itu.*

*Bela taldea ardi zarren bat eo akautako beorren bat jaten ai danen, bela 'at goardiñ eoten da. Gizonen bat ingurun ikusten bô, abixoa ematen die launai ta ordun danak iges eiten due.*

*Goardie eiten dôn belek, arbolaik altuneti inguruk zaitze`itu. Batzutan egaka re ibiltzen da zerun kurpil anudik eiñez.*

*Gizona eskopetekiñ datorren eo ez azkar asko igartzen do ta*

---

97. Azeri-mutila.

*abison launai parte au ê pasatzen die. Gizona eskopetaik bê baldiñ bâtor, askotan moitu re ez tie eiten. Belek añe burla gizonai eiten dion animalik ezto.*

Santiago Oiarbideri 1980-7-30ean jaso.

**498.** *Araba xoxok ê jaten ai dien bitarten bat goardiñ eukitzen due, bandea zaitzen do onek, norbeit ikusten bô abixoa launai ematen die ta laxter bandek iges eiten do.*

Santiago Oiarbideri 1980-7-30ean jaso.

**499.** *Zeaman esaera au bazan garai baten.*

Xoxoa  
Erreta goxoa,  
Egosita miñe  
Zozo ipurzikiñe.

Franzisko Azurmendiri 1980-9-2an jaso.

**500.** *Putrearen Kontuak.- Buitrek ê sarraskik janez bizitzen die. Jaten ai dien bitarten bat goardiñ eukitzen due. Zerun ibiltzen da buelta ta buelta, ta gizona ikusten donen lurreko-ai abixoa ematen die. Gizona eskopetekiñ datorren ala ez azkar konturatzen da ta launai berri au ê pasatzen die.*

*Gizona eskopetaik bê baldiñ bâtor, jaten seitzen due gizonai kasoik ê eiñ bê.*

*Buitrea ezta ardi zarrik eo beorrik jaten asiko, belek begik jate'eztien bitarten.*

*Buitrek eskopetaik eztôn gizonai ez tio bildurrik. Egok oso luzek ditu ta lur lauen eziñ daike egakan asi. Gainberan korrikan asten da lenbizi ta gero egok zabaldu ta egan asten da.*

*Beiñ, Zeaman kontatzen duenez, ume koskor bat buitrea bateana ingurau mentzan. Soka 'at ankati lotu men tzion da gero soka ori bê gerriri lotu. Ontan buitrea egan asi mentzan da zerun izkuta mentzan umea zintzilika zola. Ume ori ez mentzon geio iñok ikusi.*

Santiago Oiarbideri 1980-3-9an jaso.

Aizkorriko azkeneko otsoa<sup>98</sup>

**501.** *Zârrak esaten tzuenez, Aizkorriñ zeren otsok trenbidea eiñ tzanen galdu mentzien. Trenbidekiñ bildurtuta beste leku 'atzuta jûn tzien nunbait. Trenbidea kruzatzen etziela atrebitzen esan oi zan.*

Santiago Oiarbideri 1980-3-9an jaso.

98. Otso honen berriak Domingo Agirrek ematen dizkigu zehazt eta garbi. Garaio, VII, 126-129 or.

Unamuno handiak berriz, De Oñate a Aitzgorri artikuluan, aipatzen digu otso onen berriak. "El guía nos hablaba de un lobo solitario que había el otro invierno devastado los rebaños". *Tierras, andanzas y visiones*. 220 or.

502. Aizkorriñ, Aralarren da Urbasan otso bera ibiltzen tzan.

*Bê laun danak, zepoz eo tiroz eroi zien, bakarra geau zan da iñok eziñ tzon tiroz bota.*

*Eiten tzan aleiñe pranko bê atzeti.*

*Allatzen tzan lekun artzaioi ezurretañoko bildurre sartzen tziun. Otsok ardik jan baño geio alperrik galtze`itu. Ardiñai ikutuik eite eztiñ otsok ê badare baño odolea biziñtzen die-nak izaten die txarrak, eun baten sei eo zortzi ardi odolusten bâkie.*

*Aizkorriti Aralarra ibiltzen tzan aizkeneko otso au, ikus nôñ nik eun baten.*

*Norbeit orbela zapaltzen ai zala iruitu zitan.*

*Atzea beitu nonen, sekulako otso tzârra neuken nereandi oso gertu.*

*Otsoa pikotxen neuri beira zion.*

*Nik amairun bat urte izango nitun. Otsoa ikustek eman tziñ sustokiñ, eskuti makillea eroi zitan, makillek orbeletan etâ zôn otsakiñ, otsok iges eiñ tzôn.*

*Naparroko Diputaziok amar milla peztako propiñea izentau zôn, otso au iltzen tzonandako.*

*Ameskuar eiztari `at basaurden zai ziola, otsoa bertati pasatzea tokau zan, da danba ta ankaz gora bota zôn otso ori.*

*Andi pixka `atea basaurdea re leku bereti ta danba ta au ê lurrea.*

*Eiz eun ona tokau nunbait.*

*Diputaziok amar milla pezta eman tzion. 1913-ko urtea zan.*

*Eiztarik izena nola zon eztañt. Oso gizon txikie zan.*

*Otso onen atzeti, oei ta bost gizoneko taldea ibiltzen tzan eren txakur da guzti, etzuen botatzeko eraik izan.*

*Otsoa oso animali bizkorra `a ta eskopetekiñ gizona ikusten bô, iges eiten dio azkar asko.*

*Otso au odolea biziñtzen zion da bildurgarrizko pikardik eiten tzitun.*

Santiago Oiarbideri 1980-4-8an jasoa.

503. Joxe Mari Antximuñokoa jaiotzez Ertzillekoa zan Antximuñoa

*ezkondu bazan ê. Nik 1912. urte ingurun ezautu nôñ. Larogei bat urte izango zitun.*

*Garai âtan artazuitzea biltzen giñen auzoko jende guzie etxe batea gauero ta ala txandaka zuitzen giñuzen auzoko artok.*

*Artazuitzeko gauetan zârarak ipuiek kontatzen zituen da guk umek ôla ikasten giñuzen zâraran pasaizok.*

*Nik garai âtan amabi `at urte euko nitun.*

*Kontatzea noana 1912 ingurun aitu nion Joxe Mariri.*

*Antxitxeberrin artazuiketakon zenbait aldiz kontau izan tzon pasaizo au.*

*Ertzillen ardik zeuzken.*

*Joxe Mari Aztio ingurun tzeillen “antzuk” biltzen. Amaika eo amabi urte euko zitun.*

*Beor mordo ‘at Aztiora etor mentzan korrikan otson aurreti.*

*Lokatxako saletxen billau zuen defentsea, pareten bueltan buruz aurea erredondon jarri zien otsoi atzea emanez.*

*Umek lepapen artu zituen babesteko.*

*Otsoa zeñi elduko asi zan baño ostikoka defenditzen tzien beorak, atzea emanez.*

*Luzaron eon tzien ôla ta beorak aspertzen asi zien.*

*Ametzarie (semental) re berotu zan da aurreko ankakiñ otsoa degollatzea irten tzan.*

*Aztion aldapan zetozen ametzarie atzeti ta otsoa aurreti ontan otsok salto eiñ da sudur mintzetati eldu zion ametzariri.*

*Zaldik trapu zârra bezela eaman tzôn otsoa alde guztitâ astinduz.*

*Aizkenen otsok zaldie errendituta Palankalekun bota zôn.*

*Otsoa zaldiri odola eraten ai zan bitarten, Joxe Mari bêko bideti Antximuñoa etor tzan.*

*Eduardo Irastortzari 1980-3-28an jasoa.*

**504.** *Jose Mari Antximuño kok gauza geio re kontau izan tzitun otsok ziela ta.*

*Garai baten, menditan otsok ugari zerela, artzaiek Sâdarko Palankalekun palankan aitze‘mentzien, ardik bakarrik utzi ta etxea juteik ez mentzeon da. Atsalde osok eite mentzien palankan, illundutakon, ardik erretirau aparti pasarea eiñ da kamañan etzate‘ mentzien.*

*Ardik bakarrik utzita etzeon etxea juteik oañ bezela.*

*Gero otsok izketau zien da bizimodue re aldau ein tzan.*

*Ardian goardie eiñez, artzai zârrak amaika aldiz palankan eiñ tzuen Sâdarko zelai muñon.*

*Eduardo Irastortzari 1980-3-28an jasoa.*

*Artzai bat bizi mentzan Urbiñ. Mastin bat<sup>99</sup> mentzeuken ikusgarrie.*

*Garai baten, otsok eta mastiñek burrukan asten tziennen, alkarrri eztarriti eltzen tzien, orre-ati artzaiek mastiñai lepon<sup>100</sup> burnizko ântza puntakdun narru ‘at ipiten tzien otson aurka eren burue defenditu zezaten.*

*Mastiñ au re gangarrez armauta zion.*

*Beiñ artzaie falta zala, otsoa sartu zan artalden.*

*Txakurrek etzion utzi artaldea ondutzen.*

---

99. Otsoan kontrako zakurre.

100. Gangarra.

*Alare bi ardi ito zitun ta ârie markauta utzi zôn.*

*Burrukak burruka, zakurrek gangarrai eskerrak otsoa ito zôn.*

*Nausie eskortâ allau zan da ardik itota ta mastiñe odolez zikinduta ikus zitunen, eskope-tea artu ta txakurrei bi tiro eman tzion.*

*Ontan artzaiek, aurreaxio jûn tzanen, otsoa itota ikus tzon da mastiñek artaldea salbau ziola konturau zan.*

*Artzaiek ez mentzon geio اساسunik izan.*

*Iñaki Aranzadiri 1980-5-18an jasoa.*

**505.** *Axintxio Azurmendi Gorospe Zeaman jαιο zan 1812ko urten da nê biratxonan atxe zan.*

*Zeamako baserritarrak oaindi segaik etzuen ezautzen.*

*Axintxio au iza'mentzan lenengo segea erria ekar tzona ta Zeamako sega lanak eiten tzitunen, Antzazuko baserritâ jûte mentzan segatâ. Antzazu oso goien dô ta Zeaman baño berandugo eltzen die belarrak.*

*Segatak ziela ta Antzazuko Sindikako alaba `atekiñ ezkondu zan. Franziska Erostarbe zon izena emakuma onek.*

*Axintxio oni beiñ, andragaie ikusi ta Antzazuti illun bistan etxea zetorrela otsok irten tzion bidea.*

*Lênengo arrapau zôn arbolei igo ta gau oson, gizona arbolen gañen da otsoa azpiñ pasau mentzuen.*

*Goiz aldea artzaiek eta ikazkiñek moitu zienen, otsok iges eiñ mentzon.*

*Axintxio goizen gustora sartuko zan etxen.*

*Martin Azurmendiri 1980-6-19an jasoa.*

**506.** *Zepon eo lazon otsoa arrapau zuenak, au sokati zuela ibiltzen tzien lênao Zeaman, etxeik etxe esken.*

*Musasoko Meliton akortze'mentzan au ikusie.*

*Franzisko Azurmendiri 1981-3-9an jasoa.*

Erbiaren kontuak

**507.** *Erbik âpiti larrea dijonen anka markak uzte'`itu. Berak bâki eiztariai arrastoa utzi diela ta bueltakon kontra markak eiñez juten da âpia.*

*Kontra markak esen forman ibilliz eite''itu.*

*Noizik beiñ, lau anak puntu 'aten juntau ta salto eiten do murkatxen batea. Beiz e kontra markatan ibilli, salto berri bat eiñ da sartzan da âpiñ.*

*Askotan âpi desberdiñetâ juten ê baki.*



*Erbik bâki usaie uzten dôla ta txakurrek usaiei seituz arrapau daikela.*

*Elurretan ê baki arrastok uzte`itula.*

*Txakurre engañatzeko eite`itu tranpa ok.*

*Arrasto danak seitu ta gero, arrastok lêngo leku berea eamaten due beiz ê. Aîñ nâsi uzte`itu ibilbidek.*

*Eiztarik âpi bat billau dueneako, beste `atea iges eiten ê bâki.*

*Negue euteran pasatzen do ta udea laiotzen.*

*Udaberrîñ eite`itu umek, aldiko bi.*

*Erbiri baban antz ematen tzako arra ala emea dan.*

*Babea meten eo arbolen ondón eiten do.*

*Bat ilda bezela, begik itxita, erbik eindako kakan gañen bi anak zabalik ditula jartzen bâ, zuzenen datorren erbie baten anka arteti pasatzen da.*

*Erbik ezto usairik artzen ta moimentuti neurtze`itu gauzak.*

*Illuntzan do irtetzeko oiturea.*

*Erbik astoa don eo eoten dan tokia jotzen do.*

*Erbie etor deiñ astoa jartzen da leku jakiñ baten illargitan, erramolatxa ta arbie gustatzen tzako.*

*Fermiñ Arakamari 1980-9-17an jasoa.*

## **Artzaina**

508. Gure mendi eta ibarretan bizi den gizon bakarti hori nork ez du ezagutzen? Virgilio mantuatarrak olerkietan aipatu zuen lehen aldiz. Geroagoko poetek milaka aldiz goratu duten gizona dugu. Kijotek bakarrik, ordea, artzain izateko asmo sendoa hartu zuen eta honek ere eroturik zegoela.

Artzaninaren bitzta gogorra eta etsia izan behar, nahi eta nahi ez, ogibide honen jabeak hamaika elur, antzigar eta euri jaso ditu bere gorputzean neguko egun motz aspergarrietan.

Jarraian honen oitura eta jokabide batzuk.

Artzainen jana

*Ezaututa gâre artzaiek oligoa galesti ziola ta etxaolân ullôk eindako arrautzea xelebrea asko prejitzen.*

*Zartâñên ure berotu bâtzurîkiñ, ure irakiten asten tzanên bota arrautzea zartâñea ta ur beroa kutxarêkiñ oligoa bezela gañea ixuri arrautzei ta gero jaten ikûsta gâre.*

*Oaindi oeta amar urte arte artzaiek garagar-iriñêkiñ eindako ogie jaten tzuen, garîñ ogie baño merkêgoa zala ta.*

*Artzaiek eunên bein jateko oiturea zuela esaten tzan.*

*Artzaiek ogie eiteko errotan garagarra igo ta talok iriñ onekiñ einda jaten tzituen.*

*Rikardo Agirrerri 1979-6-2an jasoa*

Artzainaren makila

509. Artzaiek bê launik onâna makillea do. Ibiltzen ê, launtzen dio baño bakardade luzên bê arma bakarra re, makillea do.

*Makillaz señaletzen die ardiai nundi noa ibilli.*

*Txakurrei ê makillaz aintzen dio einbearrak.*

Artzainek makilak nola egiten dituzten.

Arantza beltzarekin

510. Antza beltza ilberân bota bear da, izardie moitu baño lên.

*Alanbre 'atekiñ ondo biltzen da pitzau ezteñ. Ordu biñ uretan egosten da, gero bastoi formea artuko bô tornûn bueltea ematen tzako ta eunetan tornûn eukitzen da formea galdu eztezan.*

*Bein bastoi formea artzen dônên kristal batekin zuitzen da.*

*Aranâkiñ ê makillea berdiñ eiten da.*

*Sagarra. Iru ordûn egosten da sagarra, oso gôrra izaten da, ta ondo egosi bear da.*

*Lizarra. Lizarra ordu ta erdiñ egostea naikoa 'a.*

*Ondo egositakôn oso errez doblatzen da.*

*Oker antzekoa bâ, ôl zâl da luze `atên, iltze `atzukin zuzen formea ematea oso erreza `a, sekautakôn zuzen zuzen geatzen da.*

*Gaztaina. Gaztiña re ilberakoa izan bear do, ilberrikoa usteldu eiten da. Gaztiña adarak ezto balio, autsi eiten da. Gaztiña ipurditi irtetzen dôn sestrakea bear do.*

*Makillea sutan berotu bear da bost minutûn gutxi gora bêra, gero tornûn bastoi formea ematen tzako.*

*Aizkenên sutan pasatzen da ta azala libratzen tzakonên, egurre askoz dotorêgoa geatzen tzako.*

*Urritza. Urritzêkiñ eindako bastoia ikûsta nô, baño eztaít neuk eiten, borobiltzekôn pitzau eiten tzat.*

*Urritzek bi kasetakôk dâre.*

*Zurîk. Urtsuandi Otsârtea izaten die.*

*Beltzak. Ugarianak, nunai dâre Zeama guziñ.*

*Akulu mê mêak eiteko zurîk ebaltzen die.*

*Oañ Uztân aldeti re ekartzen die makilla gai zurîk.*

*Urritz zurîk naiz beltzak, fruta igoala ematen due.*

*Urte 'aten Oñatia jûn bearra euki nô, galdu zikûn ardí 'at an tziola ta. Leazpi txarân sekulako urritz zurîk zeren. Akulu `atzuk eaman bear nitûla etxea ta oeta amar bat artu nitûn. Oñatín ze eskatzen nôn galdetzen tzian. Enitûn saldu.*

*Itzaiek akulu dotorea eaman nai izaten do ta akulu dotorea urritz zurizkoa izaten da.*

*Artzaiek ê makillea, geianên urritz zuriz eiten do.*

*Eramun Zabaletari 1980-9-1ean jaso.*

Egileorra<sup>101</sup>

*511. Artzaiek mendîñ eiten duen etxablei esaten tzako egileorra.*

*Metro erdiko alturako paretâk eukitze'`itu.*

*Pareta `ateti bestea arbola pitzatûk jartzen die ixurie emateko ta goiagai ezto izaten.*

*Tella lekûn zôiek ipintzen tzikon, lurre kanpoa ta belarra barrua zuela.*

*Eurik zôie aldeik alde pasa etzezan, segekiñ moztu iek eta ôk jartzen tzien zôian gañên. Ixtingâtan ñe errez billatzen da.*

*lek zôian gañên moitu etzeitzen, iru`at aga<sup>102</sup> zearka jartzen tziten ñan da zoian gañên, puntâtan matxardak lotzen tzitên soka lekûn ñek o biurkarîk<sup>103</sup> ebaliz.*

*Egileorrek luzên sei bat metro ta zabalên iru `at eukitze' `itu.*

*Eun ardi kâitzeko mûko egileorrek ê izaten die.*

*Julio Azurmendiri 1980-8-6ean jaso.*

*512. Gue zârrak, ardîk eta ganadue ibiltzen tzien lekûn, ogân ximaurre biltzen tzuen sâtsezko eskobâkiñ.*

*Oiñ eun urte ganadûk libre ibiltzen tzien, elurrik ezpazan.*

*Mendiñ bildutako ximaurre au botatzen tzan sorôn, relikie baliz bezela.*

*Gue amonâk, astôn, Urbiko ardiân ximaurre ekartzen tzuen Zeamako sorôtâ; Urbîñ ardi-sitxe eskobekin biltzen tzuen eskortâtan. Lan au emakumâna zan.*

*San Adriango Kueban pasatze`mentzien goizeko lauretan, astoa aurreti zuela.*

*Bein baño geiotan San Adriango kueba allatzeao batek kolkon eun guztiako zematzen bi talok jaten tzitun da gero al tzan bezela ibil bear.*

*Nikolas Zabaletari 1980-6-8an jaso.*

*513. Ardîk taldeko ardi guztian txintxarrîk ezautze'`itu. Etxeko ardiân txintxarri otsea biltzen die beti etxeko ardîk.*

*Santiago Oiarbideri-1980-5-24ean jaso.*

101. Egileor izeneko etxeren bat herri gehienetan dago. Ganadu etxabola hauetatik datorkio izena.

102. Aga ogân izena=esâgea eta gainagea da.

103. Urteko urritzek biurritûz eiten tzan sokea.

514. *Ganaduk mendiñ beti, jαιο zan lekua jotzen do; ardi'at galdu 'ôn artzaiek, bazpare, ardie jαιο zan lekue ezautzen bô, autza joko'o ardîn billa.*

Santiago Oiarbideri 1980-5-24ean jasoa.

515. *Artzaiek bê ardîk txintxarriti ezautze`itu.*

*Munduko txintxarri danak desberdiñek die.*

*Ardîk eta artzaiek txintxarrik, guk elizako kanpaiak bezela ezautze`itue.*

*Amar milla ardian artên, artzaiek bê ardîk ezautzeko talentue 'auke, batzuk antzea ta besta `atzuk txintxarri otsea.*

*Ardîk ê, danak ezautzen due artzaie.*

Joxe Mari Arakamari 1977-5-24ean jasoa.

516. *Artzaiek, jαιο berri dan arkumea, amân antzea ezautzen due, naiz arkumea lênen-go aldiz ikusi.*

Joxe Mari Arakamari 1977-5-24ean jasoa.

517. *Artzaiek jaten ai dien arkumakie, aragîn gustoti ezautzen due ze larretan azie dan.*

*Artzaiek aizken esnêkin gaztai makalagôk eite`itu. Beranduko esnêk gatz asko izate' `o ta gaztaiak ezaun izaten due.*

Joxe Mari Arakamari 1977-5-24ean jasoa.

518. *Partzoneriko artzaiek ezin tzeiken eren etxobolaik tellaz estali ta zôiez tapau bear izaten tzituen. Paetati goiagâ arakîk ipiten tzituen, da ogân gañen zôiek, belarra barrua zuela, lurrik barrua eroi etzeiñ. Tellea etxêi, etxejabêk bakarrik ipîn daikio, tellêk bertan bizi danâna dala etxea esan nai do.*

*Partzoneriko artzaiek eztie etxaolên jabêk. Nausie Partzonerie da, ta artzaiek ezin daikê tellaik ipiñi tellatûn.*

*Partzoneriko artzai batek, ardîk saltzen bâitu, ezin daike etxaolên eskubideik euki, esku-bide ôk beste artzai batendako izaten die.*

Rikardo Agirrerri 1979-4-9an jasoa.

519. *Ganadûtan suertea izateko, urtero konjurôk eiten tzitên ganaduai ta ardiai. Abadea jûten tzan beste lanik bê, etxea.*

*Zeamako ta Urbîko artzaiek, fede aundiko gizonak, urtero bizkarren arkuma'at eamaten tzien Antzazuko pralleai kojuroan orde. Antzazuko pralle `at, gue ume denborân, Aizkorria igotzen tzan Marî konjuroa eitea, Marik ardiai kalteik eiñ etzêien.*

Tomasa Agirrerri 1979-4-8an jasoa.

520. *Ardîk etxeko señailea eamaten do. Oain pinturaz eiten tzatê, lên belarrîñ ebagi 'at eiten tzitên. Ebagi onek artaxie zôn izena.*

*Ganadui iru klasetako señaalêk eiten tzitên.*

- a) *Belârrîn pitzatu 'at=artaxie.*
- b) *Belârri punta 'at moztu.*
- c) *Beiai ta zaldiai, marka orîk, burni goritûkiñ eiten tzitên.*

*Ramon Zabaletari 1980-5-26ean jasoa.*

521. *Ardîk zorutzen dienên burûn arra eukitzen due. Elâtz goritûkin zulatzen tzitên burue, dana alperrik izaten tzan, etzan gaxoa sendatzen. Gaitz au zeuken ardie moskortuta bezela ibiltzen tzan balantzaka.*

*Ardî sudurreti sartzen tzikon eulie ta sudur barrûn arrautzâk eiten tzion, ôtati sortzen tzan arra.*

*Ramon Zabaletari 1980-8-19an jasoa.*

522. *Sugêk o erbiñudêk ardî ozka eiten bazion, ozkara lekue elor ântzêkin zulau bear tzikon, da zaurî ure bota: gero tellêkiñ o arrillu pusketa 'atekin zaurie arraskau.*

*Elor ântzea beinkatue da ta zaurîk sendatzeko balio 'o.*

*Antza beltza, beiz, zitala 'a ta benenoa dauke, aren zauriti odol beltzak irtetzen do.*

*Erbiñudên ozkarea sendau eziñe dala esaten due.*

*Ramon Zabaletari 1980-4-9an jasoa.*

523. *Ardîk txakurrei bildurre dio. Txakurrei baño artzaiei seitu naigo izaten due ardîk. Artzai zârrak, ardi txakurren kontrariok gâ, ôk ardie ondatzen due.*

*Santiago Oiarbideri 1978-3-7an jasoa.*

524. *Arkuma 'atek ama galtzen bô, umea galdu dôn ardî bota bear izaten tzako arkuma au. Ardîk, ordea, ezto umea nola nai bêtako artzen. Ardîk arkumea, usaiên ezautzen do berea danala ez. Berea ezpô eztiio esneik emango.*

*Ori dala ta, nik beiñ, akâutako arkuma 'ati narrue kendu tubôn, da arkuma bizî buzoa bezela jantzi nion narru ori.*

*Ardîk, bê arkumên usaiti, arkuma berrie bêtako artu zôn, da esnea artzen uzten tzion.*

*Hermenejildo Otaegiri 1981-9-7an jasoa.*

525. *Arkumêi, gaztea dan ârtên, buztana mozten tzako, baño ez nolana.*

*Lênengo ebagi txiki 'at eiten tzako, ta gero buztan dana moztu. Odola irtetzen etzako utzi bear.*

*Santiago Oiarbideri 1979-6-9an jasoa.*

526. *Izti ta terreno bustîtako belarra jaten duen ardîk okabillau eiten die.*

*Lepapên o eztârîn koskor batzuk irtetzen die.*

*Gaitz au Urbasako larrêtan oso ezaune 'a.*

*Santiago Oiarbideri 1979-5-11an jasoa.*

527. *Ardiesnên pasadorea, gaztiña azalâkin eindako uztai bat izaten tzan. Uztai ôntan, asunek jartzen tzien da esnêk asunân ostôtako illetxôtan uzten tzôn zikin dana.*

*Santiago Oiarbideri 1979-5-11an jasoa.*

528. *Garai batên, gaur nekazarîk zelai dailtzên lurrik geianak, landu eiten tzituen etxea-ko laborea izateko.*

*Ganaduai negu luzen garilastoa, artalastoa ta udân bildutako belar ondarrak ematen tzitên jateko.*

*Ganbarako janak urrik tzien da ganadûk bizik etâtzeko otea, ostoa, untze ta altzana ematen tzitên lan prankôkiñ.*

*Orra janari orian berri.*

Otea

*Otea Sâdar mendîñ izaten dan jeneroa da. Mendi au otalurre da. Berez otea ematen dôn lurrei deitzen tzako otalurre.*

*Sâdardi Goialdeko basêrritarrak otâzie ên basêrriko lurretâ eaman da ereite'mentzuen, etxeti gertu otadie eukitzeatio.*

*Otea, matxardêkiñ eldu ta orren kontra îtaiekin mozten tzuen da gero sortea eiñ.*

*Bizkarrên ekartzen tzan sortea beti etxea.*

*Otaska. Lau enborri, aizkorekin koadrau ta ôl lodian formea ematen tzitên. Ol ôk izaten tzien otaskên zorue.*

*Ol mêakin eiten tzikon esie zoru orri. An botatzen tzan otea ta otajaikîkin<sup>104</sup> jotzen tzan xeau artên.*

*Ola jotako otêi, irin pixka 'at o zâie nâsten tzikon, ganadûk gustorâgo jan tzezan.*

*Ganadûk otea negûn gustora jaten do.*

*Frantzisko Azurmendi 1980-9-5ean jasoa.*

---

104. *Otajaikia* otea txikitzeko erabiltzen zen eskutresna zen.

Osto egitea

529. *Garai batên belarra ta otea etzien ganaujan bakarrek. Udazken aurretixôn ostoa re eiten tzan.*

*Lizar motzâi artzaiek urtero adarrak mozten tziên, ostoa ardiai eman da adarrak surtâko gordetzen tziuten.*

*Beste arbola'atzuai, aritzei, gaztiñei ta sâtsai, gañea igo zaku 'atekin da ostôk onutz banaka-banaka biltzen tziên.*

*Etzan lan motza izaten.*

*Ganadûk besteik ezên, ostoa ondo jaten tzôn.*

*Untzea. Untzên ostoa ardiandako biltzen tzan. Negûn beste osto danak eroitzen tziên, untze geatzen tzan ostôkiñ.*

*Zenbait aldiz, artzai gizâjoa ikusi izan gendûn zakûn untz ostôk biltzen, ukulluko ardiai zeozer eman bear da.*

*Artzaiek mendîñ arbolea untzez ondo estalita ikusten bô, aizkoraz bota ta untze ardiai jan eraiten diê. Artzaie alperra'a ta berea besteik ezto ikusten.*

*Erri lurretan da Partzoneriñ bizi 'an ortâ, lur danak berêk ditula uste 'o.*

*Gorostia. Gôstîñ ostoa konejuandako da oso ona. Negûn gôstîñ ostoa janez laxter gizentzen die. Gôstîñ ostôkin konejui illea erabat leuntzen tzako.*

*Migel Urbizuri 1980-9-5ean jasoa.*

Familiarrak

Familiarrak sekulako gauzak lortu ahal izateko zenbait gizonek erabiltzen zituen genio harrigarri batzuk zien.

Euskalerrri guztiñ tziên ezaunek eta Europa geianen ê bai.

Gizaldi onen asieran familiarrak poltxikon zeiltzen jendea asko zan oaindi.

San Joan gauen jostorraz ontzi 'at zabalik sasi baten uzten bâ zan, an sartzen zien familiar orik.

Familiarrak batzutan momorrok izaten tziên, beste batzutan gizontxiki galtzagorrik.

Jostorraz ontzie zabaltzen tzanen, jostorrazontziti irten da familiarrak jaben burui jiraka asten tziên eta jabek aintzen tziena eiten tzuen naiz oso zalle izan<sup>105</sup>.

105. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 155 or. Laburpen bat.

530. *Gue atxonai Joantxonio Ezpaliokok saldu nai izan tzion bein jostorrazontzie zomorro txiki beltz batzuk barrun zeuzkena. Zomorrok ikusi re eite mentzien.*

*Joantxonio esate mentzon, familiarrak erositako prezion baño galestigo saldu bear tziela: bestela beiz ê saltzallena berana bueltatzen tziela ta.*

*Joantxonio gue atxonai saldu nai izan tzion jostorrazone, baño gue atxonak nai ez ta Joantxonio geau zan bê familiarrakiñ.*

*Josepa Azurmendi 1980-5-8an jasoa.*

Zapa erdera

531. *Badirudi izketa klase au sorgiñân garaiko izketea zala. Sorgiñek izkutu asko zeuzkên ên artên, batzarrak eta beste milla istori.*

Izkuntza au, naiz euskerea izan, itz eiten tzuenak beste iñok enteituko etzôn izketâko modue zan.

Zapa erderea, euskeraz besteik etzekien bi pertsonak itz eiteko era 'at tzan, aitzen tzêrenak ezer enteitu bê.

Danok dakiunez, sorgiñek klandestinidaden bizi izan tzien urte askon inkisizioko denborâtan.

Zapa erderea eiteko, itzân silabâi beste silaba'at, izketan ai zienandako ezaune, jartzen tzitên. Gauzea oso errexa 'a.

1) Konparazio bat."Gaur gauean Aketegin daukagu batzarra."

Bi sorgiñek zapa erderân ôla esango luekê esâldi au.

"Ga+ga ur+ga gau+ga e+ga an+ga A+ga ke+ga te+ga gin+ga dau+ga ka+ga gu+ga ba+ga tza+ga rra+ga.

2) Beste Konparazio bat.

Beste silaba 'at itzên silabâi erantsi ta gauza bera esan leike.

Ga+ne ur+ne gau+ne e+ne an+ne A+ne ke+ne te+ne gin+ne dau+ne ka+ne gu+ne ba+ne tza+ne rra+ne.

Eozein silaba ebâli leike izkera ôtan, ne, na eo po, pi. etb.

Gue ume denborân era otan itz eitea korrientea zan Zëaman.

*Jesus Alzagak horrelatsu eman zidan zapa erderaren berri Zëgaman, 1980-2-9an.*



## XXIV. URAREN ETA SUAREN ERRITOAK SOLSTIZIOETAN

Ekainaren 21ean eta Abenduaren 21en solstizioak ospatu ohi dira. Hitza latinetik dator, "sol stare" hitzetatik. Sol starek eguzkiaren gelditzea adierazi nahi du. Ekainaren 21ean egunaren luzatzea bukatzean, zortzi bat egunetan egunak luzera berdinatsua eduki ohi du eta badirudi eguzkia gelditu egin dela.

Abenduan berdin gerta ohi da. 21a dugu urteko egunik motzena, zortzi bat egunetan eguna ez da luzatzen hasten eta egun hoietan eguzkiak gelditu egin dela dirudi.

Indoeuropeoek egun horietan pesta handiak ospatzen zituzten.

Gure kultura indoeuropeoa denez, solstizioetan euren antzeko legeak dauzkagu.

Jarraian Zegaman jaso dituanak.

a) Uraren ritoa aspaldi galdu zen. D. Andres Oiarbideri (bizi izan balitz 124 urte izango zituen) entzun izan nion bere gazte aroan, San Joan gauean nola biltzen ziren gazteak ugats iturrian eta nola txixtulari batek txixtua jo eta jendea nola dantzatzen zen. Iturrian ura eraten omen zuen jedeak errito bezala.

Bera gaztea zela gertatzen omen zen hau dena.

b) Suaren ritoa gaur ere bizirik dago, Kanean eta baserrietan egin ohi diren suak dira. Sua eta ura gauzak garbitzeko erabili ohi ditugun tresnak direnez, rito honek garbitasuna adierazten digute. Suaren garbi lana gugan gauzatu dadin suaren gainetik salto egin behar du bakoitzak. Horrela suaren beroa gorputzean sentitzean, garbitasunaren jabe egiten gara.

c) San Joan goizean ate guztietan lizar adar edo elorriarenak ipintzen dira. Turmoiairen aurkako ritoa noski, Indoeuropeoen artean lizarra eta elorria oinaztarraren aurkako zuhaitzak baitziren eta dira.

Zegaman gure ume denboran ihiz eta beste belar motaz apaindu ohi zituzten etxeetako ate aureak. (Jaien apaingarriak)

Otordu on bat egiten da gaur ere herriko plazan; ardoa udalak ordaintzen du. Solstizioa ospatzeko otoruntza edo banketea oraindik bizirik daukagu herrian. Dantzak eta otoruntza dira, beraz, jai honen oinarriak.

Festa honen guztiaren buru eta ikusle nagusi, San Joan arbola ipini ohi da plazaren erdian. Indoeuropeoek zuhaitzak gurtzeko ohitura zuten. Hau dela eta zuhaitza dugu festa honetan guztian lehenengo pertsonaia<sup>106</sup>.

San Joan arbola bat hondatzen zenean, berria gazteek ekarri behar zuten. Euren begiz jotzen zuten zuhaitza bota zezaketen, jabeak gazteen jokabidea ontzat artu behar zuen eta zuhaitza dohan eman.

Gazteek zuhaitza nahi zuten terrenoetan zehar, kaleratzeko eskubidea zeukaten. Terrenoek jabeak ere gertakizun hau ontzat hartu beharra zeukan.

Zuhaitzaren puntan, erregali bezala, lepoko zapiak jartzen zituzten. Zuhaitzari igotzen zionarentzat ziren pañuelo hauek.

San Joan arbola ia beti makala izan ohi zen.

---

106. CARO BAROJA, Julio: *El estío festivo*, 24-25 or.

Arbolari puntan sastraka hostodun bat lotzen zitzaion eta arbolaren eta sastraka biziaren tartean, lizar hostoz apaindutako egur bat, zuhaitz osoari gurutze baten forma emanez.

San Joan eguneko meza nagusira, emakumeek zelaietan batutako lore sorta eraman ohi zuten. Sorta honetan zuhaitzen adar loreduak ere ipintzen ziren, sagarrenak, gerezienak eta abarrenak.

Lore denetan garrantzitsuena San Joan lorea zen. Barandiaran jaunaren ustez lore hau eguzkiaren irudi bat omen<sup>107</sup>.

Erramu egunean bedeinkatu ziren erramu makilekin eginidako gurutzetxoak, etxeke atean eta soro zelaietako mugetan ipini ohi zituen etxeke nagusiak San Joan biharamonez.

Ohitura honek Zegaman bezelatsu betetzen ziren Espainia eta Europa gehianean. Gu, esan dudanez Indoeuropeoen kulturari nahasi bizi baikara hiru mila urte hauetan.

532. *San Joan goizên zelaiên oñûstan ibiltzea oso ona menda.*

*Joxe Mari Arakamari 1977-4-8an jasoa.*

533. *San Joan goizen euzkie dantzan jaikitze'menda.*

*Santiago Azurmendiri 1980-5-7an jasoa.*



---

107. BARANDIARÁN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 234 or.

## Abenduko erritoak

Suaren ritoa. Gabon zuzia

Gobon zuzia, enbor bat izan ohi zen, geihenean pago enbor bat. Gabon arratsaldean idi parearekin enborra sukalderraino ekarri eta tximinipean ipintzen zen. Beste enbor txiki eta mehe bat jartzen zitzaion aurrez aurre eta gabon sua pizten zen.

Gabon gaueko afaria bertan gertatzen zen, etxeko guztiak su honen inguruan bildu eta festa ospatzen zuten<sup>108</sup>.

Aizkeneko aldiz Zegaman Gabon Zuzia 1973an piztu zen, baserri eder batean, Altzukarango etxean hain zuzen.

Horra nola ospatu zuten Eguzki festa gau hartan.

534. *“Pago motzan adar bat bi metro ingurukoa moztu gedûn.*

*Andra gizonôk biôn arten jaso gendûn sukaldea enbor au.*

*Sukaldea lêngengo pisôn genduken.*

*Sukaldea bidên sei ixkillâ malla igo bear izate'gintzen, Gabon Zuzie eskûtan gendûla.*

*Enborra zizallua beida jarri gendûn, albôn beste enbor txikigo `at ipîn giوندun, da bitârtên txotxak eta ezpalak.*

*Gabon eune illuntzen asi zônén, sukaldêi su eman nion.*

*Au izaten tzan Gabon Zuzie piztea.*

*Afarie Gabon zuzîn preparau zôn andrek.*

*Gauen oirakôn, autsez estaltzen tzien enborrak, sue itzali etzeiñ. Pagôk mamie biune `o ta an gordetzen do sue.*

*Gabon Zuzik zortzi `at eunên iraun tziun, gabonetati urterritâ.*

*Gauên tximinik suik artu etzezan, elâzten pertza jarri giوندun urez beteta.*

*Etxeko nausie elâtza `a ta onek etxeko berri danak dakitze.*

*Bêko sue bêinkatue menda, goiko sue, beiz, Jangoikok ez mendo nai.*

Ramon Zabaletari 1979-4-9an jaso.

Uraren erritoa

Errito eder hau aizkeneko aldiz Aixkonetan egin zuen Zegaman Mikela zenak 1922an. Urte hartan hil zen Mikela eta rito ederra ere bai.

108. BARANDIARAN, José Miguel: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, 91 or.

535. "Urteberri goizên gue amonak etxeko guzîk esnatzen tzitun.

—Oles ein bear deu— ta danok oiti etâitzen gintzen.

Abarkeroneko iturria jûten tzan sülle burûn tzôla.

An ure artu ta etxea etortzen tzanên, atea itxita eoten tzan.

Etxeko danok barrûn eoten giñen.

Amonak atea kas, kas, kas jotzen tzôn.

—Oles!...dei eiten tzôn.

—Zein da?..guk barruti.

—Ni...Amonak.

—Zer dakartzu?..Guk barruti.

—"Ur barrena, ur goiena,

Jangoikoak dakarrena,

Urte berri ona,

Osasune ta Pakea,

Zabaldu zazue atea."

Barrukók atea zâltzen giondunên, amonak sülle maiên gañên jartzen tzôn da etxeko danoi ure ematen tziun antuxuneti.

Ganaduai ê ematen tzitên ur berrii.

Oles..! Oles..oiuka umêk kalea jûten giñen kantu au kantatuz, eskea.

Asiera eder bat

dantzan da kantari, bai!

eman bear diogu

urte berriari, bai!

Maria Ormazabali 1980-7-5ean jasoa.

### Zenbait otoitz bitxi<sup>109</sup>

536. Gue ama zanak goizên jaikitzen tzanên, egoaldi ona baldin bazion, esâldi onekiñ asten tzôn eune.

Atoz eguzki edarra,

Illuna desterratzera,

Ta gu argitan jartzera.

Tomasa Agirrerri, nere amari, askotan entzuna.

Beste otoitz bat

537. Ama Maria Santisima,

Adiskide zaitut,

Adiskidetzat artu nazazu

Zeruko eskillaretan,

Trinidad Santisimo artan. < sic >

Jesukristo gure Jauna

Badakit nun enterratu zuten.

Kaliz santu baten aurrean

---

109. Otoitz honek euskaldunok paganoak ginanekoa dirudi. Otoitza eguzkiari egiten zaio, argi eder bat izadiari egin diezaion. Eguzkia Jaungoikotzat hartzen zenekoa dela esan daiteke. Zelten aroko arrasto bat ote?

Au esaten duanak,  
 Anima bat ateratzen du purgatoriotik.  
 Osteun santu eunen  
 esaten duanak  
 milla.  
 Eta animako salbazioa.  
 Ikasi al dezakela  
 ikasi gabe uzten donak,  
 Esan daikela  
 Esan gabe uzten donak,  
 Aizken juizioko egunean  
 Izango du señaile.

Tomasa Agirrerri 1980-6-3an jasoa.

Antzeko beste otoitz bat<sup>110</sup>

538. Or goien Belene,  
 Lau legoara Kalbarioa,  
 Billatu nuen andre bat, —  
 Galdetu nion,  
 Ikusi dezu Jesukristo?  
 Bai ikusi det,  
 Lepoan gurutze bat  
 Katearekiñ arrastaka zuela  
 Bere konpañian:  
 An ikusi nitun iru figura,  
 Iru doblezko zapi batean.  
 Eman diote koroa,  
 Eman diote iltzea,  
 Eman diote lantzara  
 Bere kostadu santuan.  
 Leenago edo geroago  
 Orazio au esanez  
 Juango gera Belena.  
 Orazio au egunean beiñ,  
 Ostiraletan iru bider esaten duanak,  
 Aterako du purgatoriotik  
 Anima bat  
 Berea pekatutik.  
 Zeruan izarrak aña,  
 Lurrean belarrak aña  
 Pekatu egin baditu ere  
 Denak barkatuak izango dira.  
 Au aitzen duanak  
 Ikasten ez badu,  
 Ez dakienari erakuste ez badio  
 Señale izango du Josepetako zelaian.

Jasepa Azurmendiri 1980-9-2an jasoa.

110. Otoitz hauek Trentoko Kontzilioaren aurretik sortuak dirudite, salbazioa ekintza hutsetan finkatzen baitute. Gainera Erdi Aroko usin fin bat darie. Nola nahi ere hemen idatzi ditut eta ta norbaitentzat gogokoak izan daitezke.

## **XXV. ZEGAMAKO OSÍÑEN, NERE AITAK ETA AMAK UMETATIK ERAKUTSITAKO ORAZIOAK ETA GURE ETXEAN ERAKUSTEN SAIATU NAIZENAK**

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean amen.

1) Alabantzak eta graziak ematen dizut nere Jangoikoa, zuk zerenekarri nazu ni egun onetara zu serbitzeko, nik infernuan egotea merezi nuela.

Gure Aita, Agur Maria eta Gloria.

2) Gaurko gure pentsamentuk, itzek eta obra guziak agintzen eta ofrezitzen dizkitzugu, gure Jesus onaren odol preziosoarekiñ batean, zure gloriarik aundienerako izan bitez.

Gure Aita, Agur Maria eta Gloria.

3) Ematen dizut itza, zure graziarekiñ batean zu ez geiago ofenditzeko batez e geiena arrastatzen nauen pekatuen bidez, gaur egingo dien illufrentzin bidez, nere pekatuen satisfazioa eta, animan suprajioa irabazteko intentzioa egiten det.

Gure Aita, Agur Maria eta Gloria.

4) Emaidazu Jauna orretarako bear dedan zure grazie. Nere bitarteko santu ta santak laundu zazue nere itz eta proposito au gaur eta beti ondo gordetzen nere Ama Maria Santisimaren Kontzezio garbitik tentazio guzitan ampara nazazu eta garbiro beti gorde nazazu.

Iru agur Mari eta gloria.

### **Goiz, eguerdi ta gauen. Anjelus**

1) Anjelus domine.

Aingeruk Ama Birjiñen berri onak eman eta Espiritu Santun graziñ semea artu zuana.

Agur Maria.

2) Exe Anxel Domine.

Ona jauna zure esklabá.

Zure itzaz batean eiñ bedi nigan.

Agur Maria.

3) Et berbum cao.

Jangoikoaren semea gizon egin zan,

Eta gure artean bizi izan tzan.

Agur Maria.

4) Jangoikoaren ama santa.

Erregutu ezazu gugatik, Kristoren promesak ein ditezen.

### **Orazioa**

Iguzu arren Jauna gure animetan zure grazie, aingeruen berri onak ekarri ta Jesukristo zure semearen enkarnazioa ezautu deunekoaren pasioa eta gurutzearen bidez errezurrezio-ko gloriara eramanak izan gaitezen. Amen.

Purgatorioko animan sufragion ta alibion.

5) Jauna Esperantza.

Zugan dago jateko bear dana, zuk ematen dezu zure eskue zabalduz eta guztiok bendizioz betetzen gaitzatu.

Gure Aita, Agur Maria ta Gloria.

6) Doi guztien emalle, gure Jauna. Zure eskutik guk artu eta jan bear deun guztia bedeinka ezazu Jesukristo zure semearen beran izenen. Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak beren zeruko gloriara eramanak izan gaitzela. Amen.

## **Errosario Santua**

Maria Santisimari errezatuko diogu bost misterioko errosario santue.

Gere pekatu guztian barkazorako, animen salbaziorako, purgatorioko animan sufrajiorako ta alibiorako, Maria Santisimaren eskuetatik balia dakigula prinzipie katolikoan alkarren arten pake uniorako, fede santun aumenturako, elkarrekiñ alkantzatu dezaun eternidade guztiako gloria.

Gloria Patri Filio et Espiritu Santo.

Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum amen.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzazu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen.

Gozozko misterioak

Jesus onaren Ama maitea grazia dizut eskatzen,

Bost misterio gozozko auek lagun zaidazu kantatzen.

Gogo guztiaz esango degu lenengo misterioa:

Zuzen gaitzatu zerura beti Birjiña biotzekoa.

1. Misterioa. Jangoikoaren Semea gizon egitea.

Zerutik ekarri zizun aingeru batek albista.

Zugan aragiz jantziko zala Aita eternonaren semea.

Abemarien amarreko au

Aita gureaz batean.

Birjiña eder maite berari

Esaten asi gaitean.

Aita gurea, 10 abemari eta Gloria.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzazu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen.

2. Misterioa. Ama Birjiñak Santa Isabeli egin zion bisita.

Jangoikoa aurdun zuan Ama, zu ikustea lengosua,

Eta San Joan jaiogabea graziaz dana bete da.

Abemarien amarreko au  
Aita gureaz batera.  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Agurmari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan amen.

3. Misterioa, Jesusen Jaiotza.

Jaio zanean zure Semea, zenduan dontzella utzirik

Gelditu giñan guzti guztiok ondasun gozoz beterik.

Abemarien amarreko au  
Aita gureaz batean.  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, Agur Maria eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen.

4. Misterioa, Andre Mariaren Elizan sartzea.

Jerusalengo Eliz santuan, Jesus eskeiñi zenduan,

Gu ere eskein gaitzatu, Jaunak beretzat ar gaitzan.

Abemarien amarreko au  
Aita gureaz batean.  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Agur Mari eta Gloria.

Ama graziazkoa eta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen.

5. Misterioa. Jesus galdu eta Elizan irugarren egunean argitzea.

Galdu ezkeru billa zenduen Elizan zure semea,

poz onegatik nai ezpadezu gu pekatuan iltzea.

Aberarien amarreko au  
Aita gureaz batean.



Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.  
Aita gurea, amar agur Mari ta gloria.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatzu oraiñ eta eriotzako orduan amen.

Minezko misterioak

Maria Santisimari errezatuko diogu bost misterioako errosario santue.

Gure pekatu guztian barkaziorako, animen salbaziorako, purgatorioko animan sufrajorako ta alibiorako. Maria Santisimaren eskuetatik balia dakigula printzipe katolikoaren alkarren arteko pake uniorako, fede santun amenturako, alkarrekiñ alkantzatu dezagun eternidade guztiako gloria.

Gloria Patri et Filio et Espiritui Santo. Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum. Amen.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatzu oraiñ eta gure eriotzako orduan.Amen.

Jesus onaren Ama maitea grazia dizut eskatzen,  
Bost misterio miñezko auek lagun zaidazu kantatzen.  
Gogo guztiaz esango degu lenengo misterioa:  
Zuzen gaitzatzu zerura beti Birgina biotzekoa.

1. Misterioa. Baratza Santuko Jesusen orazioa.

Jetsemaniko baratza artan auspez lurrean jarririk,

Zegoen Jesus maitea, odol ixurtzen eta biotza berriz larri.

Abemariaren amarreko au  
Aita gureaz batean.  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Agurmari eta Gloria.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatzu oraiñ eta eriotzako orduan.Amen.

2. Misterioa. Jaunaren azote ikaragarriak.

Bost milla azote artu zituan gure pekatuagatik.

Zer gaitz aundia dan pekatua kontuak atera emendik.

Abemaria amarreko au  
Aita gureaz batean.  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Agurmari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen

3. Misterioa. Jaunari arantzazko koroa ipintzea.

Arantza zorrotz, gogor, latzakiñ koroaturik burua,

Nunbait jesusek kendu nai zuan guregan uste itsua.

Abemarien amarreko au

Aita gureaz batean.

Birjiña eder maite berari

Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Abemari, Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oriñ eta gure eriotzako orduan. Amen

4. Misterioa. Jaunaren Gurutzea eamatea.

Gurutze pixu bat lepoan da lapur gaiztoen erdian,

Eraman zuten Jesus maitea Kalbarioko bidean.

Abemarien amarreko au

Aita gureaz batean.

Birjiña eder maite berari

Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Abemari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen

5. Misterioa. Jaunaren gurutzeko eriotza.

Iltzez josirik eman zuan Jaunak bizia,

Gure animak galdu ezteizen ikusi zuan guztia.

Abemarien amarreko au

Aita gureaz batean.

Birjiña eder maite berari

Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Agurmari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan. Amen.

Gloriazko misterioak

Maria Santisimari errezatuko diogu bost misterioko errosario santua.

Gure pekatu guztian barkazorako, animan salbaziorako, purgatorioko animan sufrajorako ta alibiorako, Maria Santisimaren eskuetatik balia dakigula printzipe katolikoaren arteko pake uniorako, fede santun amenturako, alkarrekin alkantzatu dezagun eternidade guztirako gloria.

Gloria Patri et Filio et Spiritui Santo. Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum. Amen.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu orin eta gure eriotzako orduan. Amen.

Jesus onaren Ama maitea grazia dizut eskatzen,  
Bost misterio gloriosoak lagun zaidazu kantatzen.  
Gogo guztiaz esango degu lenengo misterioa:  
Zuzen gaitzatu zerura beti Birjiña biotzekoa.

### 1. Misterioa. Jesusen piztuera.

Miñen ondoren Ama maiteak ikusi zuen pizturik,  
Illeen artetik zure semea eguzki eder egiñik.

Abemariaren amarreko au  
Aita gureaz batean,  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, Amar Abemari eta Gloria.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu orain eta gure eriotzako orduan amen.

### 2. Misterioa. Jaunaren Zerura igotzea.

Berrogei egun emen eginda zerura io zanean,  
Gloriaz bertan para izan zuen Aitak eskubiko aldean.

Abemariaren amarreko au  
Aita gureaz batean,  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Abemari eta Gloria.

Ama graziakoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu orain eta gure eriotzako orduan. Amen.

### 3. Misterioa. Espiritu Santuaren Etorrera.

Jaun Espiritu Santua bere sutan zerutik zetorren, Apostoluak eta beste guztiak amore doaz betetzen.

Abemaria amarreko au  
Aita gureaz batean,  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Abemari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan amen.

4. Misterioa. Ama Birjiñaren zerura igotzea.

Jesus maitea zuk uzte arren zeruan zoriundurik,  
Ara zamaz gorputz ta anima aingeruz inguraturik.

Abemaria amarreko au  
Aita gureaz batean,  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar abemari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta eriotzako orduan. Amen.

5. Misterioa. Maria Santisimaren gloria aundiak.

Trinidadeak para zinduan Seme Jaunaren aldean.

Beti ta beti edukitzeko beste guztien gañean.

Abemaria amarreko au  
Aita gureaz batean,  
Birjiña eder maite berari  
Esaten asi gaitean.

Aita gurea, amar Abemari eta Gloria.

Ama graziazkoa ta errukizkoa, gorde ta zaindu gaitzatu oraiñ eta gure eriotzako orduan, Amen.

### **Errosario ondorengo orazioak**

Burgatorion baldiñ bado gure karuko animaik, purgatorioko penatetik librau ta Ama Maria Santisimak alkantzatu deiola bere zeruko glorie ta deskantsue. Aiek oraiñ da gu bearren geran garaien nork eife gertau dakigula. Aita gurea, Abemaria ta Gloria.

Aingeru guarda alde eskubikok eta San Migel aingeruk laundu dezaigula oraiñ gure bizi-tzan da gero eriotzan.

Aita Santun Intenziotako Gure Aita, Abemaria eta Gloria.

Aizkorriko Kurutze santuk, Leazpikok eta Lezokok geure junturatako min guztitatik, guardatuk eta anparatuk izan gaitezela; eta egoaldi on batzugin sokorrituk eta anparatuk izan gaitezen komeni bada.

Gure Aita, Abemaria eta Gloria.

Maria Santisimaren Kontzezio garbiagatik errezatuko ditugu iru Agurmari. Lagundu dezaigula orain bizitzen da gero eriotzan.

Gaurko egun santu onetan, kristandade onetan egiten dien obra santu guztitan, ein dietan da eingo dietetan partizipantes izan gaitzela gu ta gure obligazioko animak ere bai. Gure Aita, Abemaria, ta Gloria.

Jesukristoren bost llaga sagraduen adorazioa

Nere Ama Doloretakoa, zure semeak nigaitik artu zituen bost llaga preziosoak nik zure aurrean adoratu nai ditut, oiek adoratzen zuk ere eduki zenduen espiritu ta amodioa nik beti eduki nai nuke.

Gure Aita, Abemaria ta Gloria.

Ezkerreko oñeko llagari

O nere Jesusen llaga preziosoa, biotz guztiaz adoratzen zaitut, orregatik eskatzen dizut Jauna nere pauso ta ibillera gaizto guztiekiñ egiñ dizudan ofensa guztien barkazioa.

Aita gurea.

Eskubiko oñeko llagari

O nere Jesusen llaga preziosoa, biotz guztiaz adoratzen zaitut, orregatik eskatzen dizut Jauna, nere itz eta obra gaizto guztiakiñ egiñ dizkizudan ofensa guztien barkazioa.

Aita gurea.

Ezkerreko eskuko llagari

O nere Jesusen llaga preziosoa, biotz guztiz adoratzen zaitut, orregatik eskatzen dizut Jauna, nere begiaz eta beste sentiduaz egin dizkizudan ofensa guztien barkazioa.

Aita gurea.

Eskubiko eskuko llagari

O nere Jesusen llaga preziosoa, biotz guztiaz adoratzen zaitut, orregatik eskatzen dizut Jauna, nere memoria, entendimentue eta beste borondateaz egiñ dizkizudan ofensa guztien barkazioa.

Aita gurea.

Kostadu sagraduko llagari

O nere Jesusen llaga preziosoa, biotz guztiaz adoratzen zaitut, orregatik eskatzen dizut jauna, nola zure biotza lantza gogorrez josi zuten eta zure Ama Maria Santisimarena ezpata

zorrotzaz, ala nere anima zure amorioaz beti josi dezazula, bada il naiago det zu ofenditu baño.

Aitagurea.

Bost Ilagai S. Franzisko Jabierrek eunero eiten zien orazioa

Nere biotzeko Jaun eta Jangoikoa, Jesukristok bost llaga gurutzean, beste eziñ konta ala zure pasioan gure amorioaz dezun arrazoizkizunagaitik arren eskatzen dizugu, zure odol preziosoaz redimitu giñuzenok aren zoriontasuna gorde ta zeruko gloriara eramanak izan gaitetzela. Amen

Bost llaga santuen reberentzirako eta Aita Santuaren intentziotarako.

Gure Aita, Abemaria ta Gloria.

Omdoren, Ama Doloretakon biotz garbiari; Salbea.

Gure amonak txikitan berakin lo eiten gendunen erakutsitako orazioa

Jesus, Jose, Maria.

Santa Ana ta San Joakiñ.

Bostok zerate nerekiñ,

Ni re bai zuekiñ.

Oira noa Jesus esanda,

Jesukristo zeruan dago

Besoak zabalik,

Anima on bana guri emanik.

Gordetzen ez paldin badegu mantxagaberik

Kastigatuko gaitula merezitunik.

Oraiñ eman, gero presentatu

Glorik gure etxen, Jesusen aurren.

Jesus Maria ta Jose.

Jesus Maria ta Jose.

Jesus Maria ta Jose.

Gure Aita, Abemaria ta Gloria.

Debozioko santuan egunetan egiten zan orazioa

San Ramon Gloriosoak

gaur baño gaur urte bete

obra geiagorekiñ

da pekatu gutxiagorekiñ

alkantzatzeko doie eta grazie

eman dezaigula komeni bada.

Gure Aita, Abemaria ta Gloria.

Aita difuntuk errezatzen zuena oirakon

San Lukas,  
 San Markos,  
 San Mateo,  
 San Joan Ebangelista,  
 Gaur gure etxen lau kantoietan  
 etsairik sar ezteille.  
 Sepulturan etzaten naiz,  
 nola etzaten naizen badakit,  
 nola jaiko naizen eztakit,

nere eriotzea gaur ofreziturik baldiñ badago aingeru guardakoa uzten det nere animen conpañero.

Jesus	Maria	ta Jose
Jesus	Maria	ta Jose
Jesus	Maria	ta Jose

Zuekiñ izan nai nuke eun itz ta pasio ta sekula.

Aita gurea, Abemaria ta Gloria.

*Gure amak gauetan artazuitzen da ai giñen garaien kantatzen ziun kanta polita*

Birjiña Amaren eguna da ta  
 dezagun aren kantia.  
 Nik esango det kantia bañan  
 ongi erantzun jentia.  
 Jaiotzen danak eriotzia  
 gauza eskusagabia.  
 Nik neuk ere jaio nintzan da  
 Zor det nik eriotzia.  
 Eriotza ori gauza batekiñ  
 gelditzen zaigu kontentu,  
 aberatsa izanagatik  
 eleikiola barkatu.  
 Aberats orrek izanak ditu,  
 Pobriak umildadia.  
 Umildadiak irikitzen du  
 Zeru altuan atia.  
 Bai eta ere superbidadea  
 inpernua ta leizia.  
 Arri ebagiz egiña dago  
 Paradisora bidia.  
 Arri ebagiz bidia eta  
 Kaltzairu fiñez atia.  
 Kaltzairu fiñez atia eta  
 Zillar zurizko giltzia.  
 Urre gorrizko silloian dago  
 Birjiña Ama andria,  
 Zure Semeak aintzen du eta  
 merezi dezu Maria.

Eztago munduan amarik  
Alako semea duenik.  
Ezta ez dago semerik ere  
Alako ama duenik.  
Ollarrak jo du munduan eta  
Aingeru onak zeruan.  
Ala gerta dakikegula  
Gere erotzako orduan.

Norbeit hiltzen zenean egiten zen orazioa

539. *Rufino*<sup>111</sup> *difuntuk mundu ontan eiñ tzon falta utseiten bateati aurkitzen ba purgatorio*ko penatan, penatati libratu ta Ama Maria Santisimak alkantzau deiola zeruko glorie ta deskantsue.

*Ura oaiñ da gu bearren garenen nork eiñe gertau dakigula.*

Aita Gurea, Abemaria ta Gloria.

Behiak uztarrarian lotzerakoan egiten zen orazioa

540. *Aita San Antoniok gaurkoa baño gaur urtebeteko eune obra on geiokiñ da pekatu gutxigokiñ alkantzatzeko doaie ta grazie eman dezaiula komeni bada.*

Gure aita, abemaria ta gloria.

San Antonio gloriosok eta Ama Birgiña Liernikok guri eta gure ganaduai laundu dakigula gure pauso guzitan.

Ama Birgiña Liernikon ondran da alabantzan: Salbea.

Orazio hau Marrutxipin bizi ginela hasi ginen egiten

541. *Jesusen biotzak gobernau dezala Españin, da gure biotzetan, da mundu guztiñ.*

Gure Aita, Abemaria ta Gloria.

Orazio hau semea seminarioan sartu zanekoa da

542. *Aita Santun intentziotako, seminaristan alde, ta baita mixiolarian alde eta munduko eta munduko pake santue izan deiñ komeni bada.*

*Ramón Larrea Agirre 1911an Zegamako osiñen jaioa.*

---

111. *Rufino eo beste eoziñ.*



## XXVI. SANTA KRUZ APAIZA ZEGAMAN

543. *Gue atte ta attona Sorotxikia jûnik tzien lurre maneatzea.*

*Tunel aundi aldeti presentau zien karlixtâk Santa Kruz buru zuela ta trenbidên errallek soltau zituen.*

*Ontan, goiti bêra "beltzez" kargautako tren bat zetorren da karlistâk tiroka geau zuen.*

*Soldadu "beltzak" eulîk bezela asi zien treneti irtetzen, karlistak Oazurtze aldea erretirau zien.*

*Lauortzên ai zien gue attona ta atte ikâu ta semea karobîn izkutaу zan, attona ardîtâ Itzulâ Aundi aldea beiz, ua artzaie izan!*

*Ardîtâ zijôla ikus tzuenên, beraî fuego ein da seko bota zuen.*

*Semea bitârtên korobizulôn tzion gordeta. "Beltzak" karobizulôn auân bueltân ibil mentzien baño etzuen billau, karobie otaz tapauta mentzion.*

*Larri eon mentzan gizâjoa gordeta.*

*Gorputze trenbidea ekar tzuenên, "beltzak" ala esate'mentzuen.*

*"Karlixta 'at il diau."*

*"Karlixta 'at gutxîgo."*

*Gorputze trenên artu ta Zumarrâ eaman tzuen.*

*Don Andresen attek gorputze jantzi ta dilijentzîn Zeamâ ekar mentzôn.*

*Trenak Oazurtzetai Zumarrâko bidea zortzi ordûn ein mentzôn. Karlixtâk beste kolpên bat emango zuen bildur tzien.*

*Maria Mujikari 1987-9-7an jasoa.*

Berriz ere Santa Kruz Zegaman.

544. *Bein Santa Kruzek abisoa biali zion San Adriandi Zeamako aiuntamentûi: bê motillândako ainbeste ta ainbeste errazio, alako ordûtako gertatzeko eskatzen tzien erriko aintariai.*

*Alkatea Attamarrengo Patxiko Pello zan da agoazille, Silbestre Azurmendi, Zeaman 1837n jaioa ta 1884en il zana. (Nê birrattona)*

*Santa Kruz etortzen tzaneako erraziok gertau bearren, Patxiko Pellok Urtsoan aldea iges ein tzôn, Silbestre beiz, Mazkian errekea estaltzen don tunelên, errîn bertan izkutaу zan.*

*Santa Kruz aiuntamentua allâu zanên etzôn billau ez alkateik, ez agoazillik eta ez errazioik.*

*Attamarrena jû'mentzan lénengo kontûk artzea; alkatên andrea*

*ta umêk oaindio txikik billau zitûn bakarrik. Santa Kruzek emakumâi ta umeai etzien sekula eskuik jartzen.*

*Gero aguazillenea; ta an Axintxio, agoazillên atte billau zôn.*

—Semea nun tzan, Santa Kruzek.

—Etzekilla ba.

Santa Kruzen motillek Axintxio artu ta plazâ eaman tzuen.

Zeamako aiuntamentûk kamiño aldeti bazitûn uztai burnizko 'atzuk astôk eta kaballerik lotzeko.

Axintxio uztai ôtako 'ati lotu zuen da semên da alkatên partez, eztait zenbait makillara eman tzioen gizon gizâjôî.

Axintxiok ordûn 60 urte zeuzken.

Andi amairu urtea il tzan 73 urtekiñ, 1885en

*Martin Azurmendiri 1980-4-9an jasoa.*

Euskal Herriko gizonetan, maitagarrienetako bat genuen Santa Kruz apaiza.

Berari buruz Zegaman kontatu zaizkidan bi pasarte hauek besterik josotzerik ez dut ahal izan, biak bertan gertatuak.

Nire haurtzaroan apaiz honen abenturak, egiazko epopeia bezala kontatzen ziren neguko gau luzeetan.

Mundu zaharraren egiturak eta ahozko kultura galdu izan ez balira, Santa Kruz ahoz aho zebilen oraindik gure sukaldeetan.

## XXVII. DON ALFONTSO

Alfonso Maria Zabala Etxeberria, Ezkion jaio zen 1847an.

Gasteizko Apaizgaitegian ikasi eta bertan apaiz egin zen. Hondarribian, Zegaman eta Donostian errotore izan zen.

“Euskal Erria” aldizkarian idatzi ohi zuen.

Literatur lehiaketa askotan epaimahaikide izatea tokatu ohi zitzaion.

1882an Donostiako literatur lehiaketan, lehen saria eman zioten.

1887an bere “Gabon gau bat” ipuia saritua izan zen.

1901ean Hernaniko errotore egin zuten eta 1919an bertan hil zen Jaungoikoaren pakean eta maitasunean.

Bere komeri lanak:

Periaren zalapartak.

Aparia merke.

Jauregi errotako astoa.

Urrutiko izketa.

Melitonaren bi senarrak.

Antzerki hauek askotan antzestu izan ohi zituzten Donostian eta beste zenbait herritan.

Edozeinek lortu ez duena lortu zuen gure D. Alfontso maiteak, Euskal Literaturaren kon-dairan, izen ospetsu bat.

Ulergaitza benetan, Zegamako herriak gizon trebe hari buruz gorde duen ikuspen motza. Kondairak D. Alfontso buruz dioena eta herriaren iritzia ez doaz bat, herriaren ezpainen-tan apaiz erdi tonto eta erdi ergel bat dirudi On Alfontsoak. Lope de Vegak zioena datorkit burura.

“De lo bueno y de lo malo  
el mismo aprecio,  
sabe hacer  
el vulgo necio.”

Jarraian, On Alfontso buruz Zegamako herriak gorde dituen oroitzak. Gaur oraindik zaharrek, noiz-nahi On Alfontsoaren irteerak kontatu ohi dituzte. Hona hemen batzuk.

Don Alfontso<sup>112</sup> (I)

545. *Ostiaia Santu eun batên, On Alfontso Jesusen eriotzea ta nekêk kontatzen ai mentzan pulpitiôn.*

*Ikazkiñên aulkiti ikazkin batek launâi ala esate'mentziên.*

—*Motillek, Jesus orî re gôrra`ek gizâjao, jakiñ urtero ze eiten diên da alâre urtero bertâ jûtêk.*

*Migel Urbizuri 1980-6-3an jaso.*

112. Zegamako Elizan gizonezkoen atetik sartu eta bertan dagoen aulkari ikazkiñena deitzen zaio.

Don Alfontso (II)

546. *Don Alfontsóna ez mentzan iñor konfesatzea jûten, dotriña asko galdetze'mentzôn. Motil batek beñ afarie jokau mentzôn laun batzûkiñ, bera baietz Don Alfontsókin konfesau ta baietz abadêkin musên konfesnariôn eiñ.*

*Sartu mentzan motill ori konfesnariôn da abadêk, mandamentûk ia zemait tzien.*

—*Bost, motillek.*

—*Ez gizone, bost geiô.*

—*Besték, ordago.*

*Gustora irten mentzôn motillek afarie irâzi zôla ta.*

*Migel Urbizuri 1980-7-8an jasoa.*

Don Alfontso (III)

547. *Samartolome eun batên Don Alfontsoak ôla asi mentzôn sermoia.*

*Lendabizi beteko `ezue pantza,*

*Gero eingo `ezue dantza,*

*Ola nola izango `ezue*

*San Bartolomen antza?*

*Franzisko Azurmendiri 1980-9-5ean jasoa.*

Don Alfontso (IV)

548. *Don Alfontsoak beñ ala mentzion pulpitori.*

*Zuen pekatûk, Landabêko soroko belarrak bezela `ituk. An aituko zian Joxe Iñaxio aste guztîn zopizarrên, zuztar txârrak etâ ta soroa garbitu ezinda.*

*Joxe Iñaxio gizâjoa! Alper alperrik ai aiz, Landabêko sorôn beiz ê belar txârra nausi.*

*Nik ê aleiñe zuei pekatûk kentze''izuet baño, alperrik ai nauk, zuen animako zuztarrak beiz ê pekatue emango diâ."*

*Franzisko Azurmendiri 1980-9-6ean jasoa.*

Don Alfontso (V)

549. *Bein Don Alfontsoi gizon bat etôr mentzikon bei bat arrapau zôla ta konfesatzea.*

—*Ba, barkatzekotan, beie entreau zare ein bearrên.*

—*Besték ezetz, etzôla entreauko.*

—*Joxepetako zelaia, beie sokati `ezula presentau bearko `ezu ba.*

—*Nausie an izango al da?*

—*Baietz, Don Alfontsoak.*

—*Antxe entreauko diot.*

*Nikolas Zabaletari 1980-6-4an jasoa.*

Don Alfontso (VI)

550. *Don Alfontso* ala galdetu mentzion bein txarteletâ jûn tzikon neska 'ati.

—Baltseôn ba al dakiñ?

—Pixka 'at bai Jauna. (Arro, arro neskek).

—Baltseôn obeto jakingo 'en ik dotriñea baño.

Nikolas Zabaletari 1980-8-4ean jasoa.

Don Alfontso (VII)

551. *Don Alfontso* sermoia eiten ai zala, aste barrûn ze jai zan âztu ein tzikon.

"Aste barru ontan jai bat daukû, izena âztu zat.

Jai onek belar baten izena 'auke, ia zeîñ akortzen tzâten izenâkiñ."

Batek	San Porru	Ez.
Bestêk	San Tipula	Ez.
Bestêk	San Perrejil	Ez.
Bestêk	San Azentzio <sup>113</sup> ...	

*Don Alfontso*, ori dek gizonân atentzio. Astên Azentzio mentzan.

Franzisko Azurmendiri 1980-9-3an jasoa.

Don Alfontso (VIII)

552. *Bein Don Alfontso* Abarkerôneti bêra zijôn.

Ontzi saltzalle 'at zetorren bêti gora, ta besteik bê, astoa asarrau ta ontzi mordo 'at lurrea bota ta puskau zion.

Ontzi saltzallea maldizioka asi mentzan da *Don Alfontso* zorrotz ekin mentzion demandân.

Ontzi saltzallêk ôla kontestau mentzion.

Eulî deitzen tzako moska,  
Onek etorri ta eiten badio ozka,  
salto  
ta brinko  
austen badie eun lapiko  
Zeñek dauke kulpea  
Jauna?

*Don Alfontso* ez mentzôn ze kontestau jakiñ.

Migel Urbizuri 1981-9-5ean jasoa.

113. Azentzio belar ezagun bat bada Euskal Herrian.

Don Alfontso (IX)

553. *Don Alfontso beiñ lbârta aldên mentzêllen paseaten.*

*Ontan, katu beltz aundi 'at ikûs mentzôn.*

*Liburue etâ ta konjuroa eiten asi mentzikon.*

*Katue ordûn emakuma biurtu zan.*

*Don Alfontso galdetu mentzion: "Zû re ôla"?*

*Kaleti bêra amalau bagâ, kontestau mentzion emakumêk<sup>114</sup>.*

*Migel Urbizuri 1980-3-9an jasoa.*

Don Alfontso (X)

554. *Don Alfontso ôla asi mentzôn bein sermoia.*

*—Jesusek gauza arrigarrik ein tzitûn. Pentsau zue ze ein tzôn beiñ.*

*Bost milla ezkalu*

*ta bost milla ogikiñ*

*bost launi jaten eman tziên.*

*Ikazkin batek bêti kontestau mentzion. Ori neuk ê eingo noke.*

*Don Alfontso gaizki itz ein tzôla ta ixildu ein tzan.*

*Bazkaltzekôn neskamêi esate'mentzion: —Ni bezelako gizon jakintsu 'ati, ikazkiñ arlote, mutur zikin batek burla au eiñ bear.*

*—Milla arrano beltz!!*

*Urrêngo jaien beiz ê asi mentzan Don Alfontso.*

*—Gue Jesus Jaunak gauza arrigarrik ein tzitûn. Pentsau zue ze ein tzôn beiñ.*

*Bost ezkalu*

*ta bost ogikiñ*

*bost milla gizoni jaten eman tzien.*

*Ikazkiñek beiz ê aulkîtati:*

*—Ori nik ê eingo nôn.*

*—Demonio tontoa, nola eingo oan bâ?*

*—Ikazkiñek: —Jûn dan jaien sobrau zienâkiñ.*

*Nikolas Zabaletari 1980-7-9an jasoa.*

---

114. *Sorgiñe zan nunbait.*

## XXVIII. SANTA AGEDAREN KOPLAK

Kopla hauek Intxaurondoko Joanek kanta ohi zituan.  
 Otsaillaren laugarren da  
 Santa Ageda bezpera.  
 Gazte jendeak alkar arturik  
 atera gera eskera.  
 Alkate jaunaz egondu gera  
 atzoko arratsaldean,  
 libertatea gerekin degu  
 ibilitzeko pakean.  
 Ibilitzeko pakean,  
 gure Jaunaren legean,  
 bestela sartuko gaituela  
 ziriga illun batean.  
 Ziriga illun batean,  
 berak nai duen artean.  
 Ziriga illun batean  
 bederatziurren batean.  
 Oles ta moles etxe gozoan,  
 etxe gozoan zaudete.  
 Etxe gozoan zaudete bañan  
 puska bat esna zaitezte.  
 Illarra zaigu loratu,  
 oraindik ez da lekatu.  
 Orain aurrea behar genduke  
 nagusi jauna koplatu.  
 Etxe ontako nagusi jaunak  
 urre gorrizko bizarra.  
 Urre gorrizko bizarra eta  
 zillar labratuz espalda.  
 Urre gorrizko bizarra eta  
 zillar labratuz espalda.  
 Bere eskutik botako digu  
 bost pesetako zabala.

Anastasia Larreari 1996-4-6ean jasoa.

## XXIX. SAN PEDROKO ERMITA

555. Ermita onen berri zeatzak "San Adrian eta Inguruetako Kondaira" liburuan emango  
`itut.

*Gaur nê lêngo ikastolea izan tzan ezki, aipamen motz bat besteik ez tiot ein nai.*

*San Pedron oain bi urte eman zan mezea lêngo aldiz.*

*Ermita eder artan ijito andra `atek familie iza`mentzon da arrazkio ezta mezaik eman.*

*Josepa Azurmendik kontau zien gertakizun au.*

*Gizaldi onen asieran San Pedron Goialdeko umeantzat eskolea ipiñ tzuen.*

*Eujenio txiki iza`mentzan bertan lêngo maixua.*

*Nê ume denboran, 1940an, Maria Mora zion maistra.*

*Arekiñ ikasi nitun lêngo letrak.*

*Goialdeko neska-motillek arekiñ ikas gintzen bizitza neketsu onen asieran daren aldapak.*

*Maria Mora umezurtze zan da gañea erdeldune.*

*Euskeraz oso ondo ikas tzon da orri esker moldatzen giñen.*

*Asko sufritzea tokau zikon.*

*Pobrek, zeruko lorea izateko, ântza askon eztenak sufritu eta kûtza gôrra eaman bear  
izaten do.*

*Gaur oaindio San Pedroko arri bakoitzek zerbait akordau eraite' `it.*

*Maria Moraz akortzek biotza xamurtze' `it.*

*Goialde zârreko kondairan emakume au bizik do nêtako.*

*Ume denborako eunek urdiñek die benetan.*

*Itz ok Maria Morantzat akuerdo maitekor bat besteik ez die eta beste askontzat ê, orixe  
izatea nai noke.*



**XXX. ZEGAMAKO UMEEN KANTU ETA ESALDIAK**

556. Esaldi hauek hizketan hasi berriak ziren umetxoei erakusten zitzaizkien, ipuina eta hizkera batera erakusten zitzairen.

Esaldi bakoitza behatz bati loturik dihoa, beatz txikienetik hasita.

*Onek âpiti arrautzea ekarri,  
Onek surtan jarri,  
Onek gatza eman,  
Onek proatu,  
Onek dana jan da potzolo potzolo ein.*

**Kontatzen irakasteko esaldiak**

Bat	Martin parrat.
Bi	Martin ipurdi.
Iru	Kolkoa bete diru.
Lau	Xaguxarrak jango al au.
Bost	Kakatan prost edo auntzek babea kosk.
Sei	Ukullue bete bei.
Zazpi	Ez gabiltza gaizki.
Zortzi	Askea (fregaderea) bete ontzi.
Beatz	Sartuitzek ipurdin beatz bi.
Amar	Armearemea mar-mar.
Amaika	Zakurren lukaika.
Amabik	Lapikon agonik.
Amairu	Attonek amonea nai do.

Umeen artean zerbait galtzean eta norbaitek zerbait ori bilatzean, esaldi hau bost aldiz esan ohi zen. Kantuak ziraun bitartean jabea azaltzen ez bazen, gauza aukitu zunarentzat izaten zen.

Semitonuan esaten zen esaldia.

*Gauza bat billatu det,  
Bost aldiz esango det,  
Jaberik azaltzen ez pada  
Neretzat gordeko det.*

Bat iñuxente egindakoan esan ohi zitzaiona.

*Iñuxente,  
Kapuxente,  
Txakurrek buztana tente.*

Ume batek parre eta negar batera egitean.

*Lên parrez,  
Ta oaiñ nearrez,*

*Kanpatorreko  
Belarrak jateko pozez.*

Gure hartzaroan umeok gaur bezalatsu krudelak giñen.

Hona agiri bat.

Attona zarra,  
Zirriki zarra,  
Bibolin,  
Tilin  
Tilin.

Beste kantu antzeko bat.

Txalo txalo txin,  
Attona porratxin,  
Ibilli,  
Ibilli,  
Ibilli ariñ.  
Bestela, bestela  
Emen da Martiñ.

Zenbait izenei egin ohi zitzaaien bertsoak.

Joxe,  
Joxe kitarra,  
Badaukela,  
Badaukela,  
Auntzek añeko bizarra.  
Botatzen duela,  
Botatzen duela,  
Prantzi añeko puzkarra.  
Joxemari,  
Barabiri,  
Lau anka ta bost belarri.  
Andres,  
Pikulatres,  
Boltsea bai ta dirurik ez.  
Migel,  
Saskie bete gibel.  
Xanti  
Manki,  
Txerri buztanki,  
Mokordo ta erdi.  
Inazio,  
Palazio,  
Jan da eran despazio.

Neskatzek korroan katatu ohi zutena.

Un don din  
Colorin colorete,  
Mi mujer  
se tragó un filete.  
Hajo perejil,  
Hajo perejil,  
Quinientos mil.  
Rosa con rosa,  
La más florida,  
La más hermosa,  
Usted, niña bonita escoja.

Kantu hau motikoek abestu ohi genuen, goardias y ladrones jolasa asterakoan.

Kuku miku,  
Txantxaperro  
Kastillano pin pon.  
En mi casa hay un ladrón,  
que me roba todas las cosas  
que yo tengo en mi balcón.  
Ministro  
o  
Ladrón.

Lau motil izkutatzen ziran eta beste lau billa zijoatzen.

Zegaman 1915etik 1926era moja frantsesak egon omen ziren.

Ez dirudi inork frantses asko ikasi zuenik.

Hala eta guztiz moja haiek erkutsitako kantu frantsesa nola kantatu den gaur arte.

Aliron printze,  
Tiaro dan coadan antze.  
Antze,  
Antze,  
Antze,  
Fuera comandante,  
La mama de funfurre,  
Fuera está usted.

Moja haiek ere Zegaman utzi zuten oroitza bat.

## XXXI. JOAN TELLERIA

### Joan Telleria musikalaria ezagutzen

1996ko Apirilak 26-27.

APIRILAK 26, ostirala.

iluntzeko 8etan, Kultur Etxean.

Xabier Azurmendik, Joan Telleria ezagutu zutenen hitz eta oromenak agertuko digu

Ondoren Jose Luis Ansorenak, Joan Telleriaren Bizitza eta obrari buruzko hitzaldia emango du kultur etxeko areto nagusian.

Xabier Azurmendiren txostena.

Joan Telleria eta bere Osaba Apaiza Zegamako Oroitzan.

Joan Telleriaren sendian gertakizun beltz bat gauzatu zen igaran gizaldiaren azkenetan.

Denbora gutxiren barruan Telleria eta Maiora koñatuak hil ziren eta euren emazteak gainera eta zazpi neska mutiko gazte utzi zituzten umezurtz saski baten aspian sar zitezkenak.

Jaungoikoak bere umeak ez omen ditu ahazten, egi handia.

Hil ziren Telleria bi anai arrebek bazuten anai bat apaiza, Don Baldomero Telleria. Zegaman zegoen apaiz, ona bezain artista

berdingabea zen: Ezagutu zutenak hala diote.

Umezurtz gelditu ziren haurrak hauek ziren.

Joan Telleria. 1894-1948.

Dionisio Telleria.

Felis Telleria.

Jose Telleria. Gaztetan hila.

X X neskatxa. Gaztetan hila.

Don Wenzeslao Maiora. Apaiza. 1889-1962.

Damian Maiora. Zornotzan 1975? hil omen zen.

Don Baldomerok, bihotz handiko aitak, umezurtzak azitzea bere gain hartu zuen. Zazpi haurrak berak hazi eta hezi zituen, nahiz bi Telleriatar umetan hil.

Telleriatarrek, hiru anaiek, osabaren musika bidetik jo eta lan horretan bizitza irabazi zuten.

Don Wenceslao berriz apaiz egin zan eta 1962 urtean hil zen Tolosako arzipreste zelarik.

Nola nahi ere, bihotz handia behar zuen batek apaiz soldata soilez urte haietan zazpi umeren jabe egiteko. Umeak ondo hazi eta gainera bizibide on bat bilatzen danei lagundu eta gero hil zen 1936. urte inguruan, apaiz on eta artista ezezagun handi hau.

Dezala atsedean Jainkoaren bihotzean Don Baldomerok.

Gauero orduetan pianoa jotzen omen zuen etxean eta egunez organoa elizan.

Nola nahi ere Don Baldomero ni oso umea nitzala hil zenez, nik ez nuen ezagutu. Kontatzera noan bere lau ipuin hauek, Don Andres Oiarbideri entzun nizkion. Hau ongi eza-gutu nuen 1958an hil baitzen.

Bere ipuin bat Isabelita Aseginolazak kontatu zidan.

Bein Don Andres Don Baldomerori Zegamako organotzaz ari omen zitzaion hizketan. Zeinen organo ona zen, Burgosko Katedralerako asmotan egina, azkenean Zegamak erosi zuela. Zeinen doinu ederreko hotsa zeukaten bere tuboak etb.

Don Baldomerok denari baietz esaten omen zion, baina buruari eraginez, lagunaren esanak zalantzan ipiniaz bezala.

Don Andresek harrituta galdetu omen zion:

—Ez al hago gustora organoaz?

—Begira Don Andres, urrengo elizako obretan organoari metro erdi bat luzatu behar zio-agu tekladua, orduan geldituko duk Burgos edo Katedral oberako modukoa.

Beste batean Don Andresek Don Baldomerori arratsaldeko bostetan bataio bat egiteko eskatu omen zion, berak astirik ez zeukala eta. Garai haietan bataioak Zegaman bi eratakoak ohi ziren. Organoz egiten zirenak, aberatsentzat eta organorik gabeak pobreentzat.

—Nola egingo diat bataioa organoz hala organorik gabe, galde egin omen zion Don Baldomerok.

—Egin zak nahi dekan bezala, Don Andresek.

Arratsaldeko bostetan Don Baldomero eta Joanito elizako atean omen zeuden zai.

Goitarrak umea besoetan zutela geldi, geldi, idiaren pauso ederrean, hor datoz elizara.

Arratsalde on, esanez elkar agurtu omen zuten.

—Hau iloba ederra. Baserritarrak apaizari.

—Ba iloba honek, nik bataioa egiten detan bitartean organoa joko du, elizkizuna alaituaz.

Goitarrei bataio organoduna galestia iruditu eta apaizari:

—Jauna, honek berak ere joko ditu organoak.

—Bai, honek joko ditu organoak, baina kobratuaz nere ilobak joko ditu.

(Don Baldomerok ilobarentzat propinatxoren bat nahi izatea ez zen harrigarria.)

Ipuin hau nik Don Andresi eta gure aurreko apaiz guztiei entzun izan nien. Don Baldomeroren bihotz zabalaren eta umore onaren ezagubide bat da noski.

Don Baldomero erretzaile amorratua omen zen.

Meza denboran askotan meza moztu eta bi minutuan eztulka jarduten omen zen.

Meza nolabait eman eta oraindik eztulka sakristiratu zen batean, Don Andresek esan omen zion:

—Benetan buru gogorra haiz, eztulka itotzen eta ala ere zigarro zikina ezpainetan daramakik.

—Bigira Don Andres, gure Jaungoikoak milaka belar klase egin zizkian, denak zerbaite-tarako balio ditek. Tabakoa duk bakarrik erretzeko beste ezertarako balio ez duena. Hau, berari eskerrak emanez erretzen ez badiagu, bai aldakik Jaungoikoari nolako desprezioa egi-ten diogun?

Garai batean kazkabarrak udaberrian edo udan kalte handiak egin ohi zituen nakazai-tzan.

Ekaiztea zetorrela ikustean kojuroak egiten ziren.

Don Joan Arakama, Don Lorentzoren osaba, zen Zegamako kojuroak egiten zituen apai-za. Kazkabarra beti Oazurtzetik Legazpiara urruntzen zuen hotsa zen jende artean.

Don Joan kojuroak egiten hasten zenean, Parrokiko eta Anduezako kanpaiak jotzen ziren eta etxeetan kandela bedeinkatua pizten zen.

Kojuroko denbora osoan Don Baldomero elizan erreztatzen egoten omen zen. Gero kojuroa ondo irten zelako Don Joanek eta biek errosario bat erreztatzen omen zuten.

Don Baldomero esaten omen zuen:

—Bai ona dela gure Jaungoikoa, hara nola gorde ditun gure nekazariak ekaiztearen mendetik.

Don Baldomero eta bere sendia Olaberrin bizitzen ziren, Joxe Manuel Eizagirre bizitu zen etxean. 1928. urte inguruan, sendiko denak jaitsi ziren gaurko Telleriatarren etxera.

Apaiza egunean bi aldiz Olaberritik elizara etortzen zen otoitzak egin eta eginbeharrak betetzera.

Olaberri eta elizaren bitartean, etxe jakin batean, emakume batek egun osoa kalean zihuan jendeari begira pasa ohi zuen.

Don Baldomero itxuraz egunean lau aldiz atso hau agurtzen eta hitza ematen asperturik zegoen, hala esaten omen zuen:

—Emakuma ona litzake hau, etxeak sukaldea atzeko aldera begira baleuka eta atsoa leiotik sagastira begira egongo balitz.

Bost umetxo haiek ezin esan aita on eta alai bat izan ez zutenik.

Don Joan Telleria.

Hara nik Joanito Telleria nola ezagu nuen.

Zortziren bat urte eduki nezazken. Amak konfiterira bidali nituen enkarguetara.

Konfiteritik irtetzean gizon apain batekin topo egin nuen.

Txaketa zuria, eta alkandore zuriaren gainean pajarita zeramakin. Nik lehenengo aldiz ikusten nuen apaingarri hau.

Hitz eman zidan:

—Mutil polit hau nungoa da?

—Asañekoa, nik.

—Oiloak bai aldauzkatzute?

—Bai, nik.

—O, zuen oiloek arrautza goxoak egiten dituzte.

Eskua poltxikoan sartu, konfiterin garai haietan egiten ziren etxeko karamelu poltsa bat atera eta eman zidan.

Bere bideari ekin zion zerura begira. Zerura begira ibiltzeko ohitura zeukan.

Ettxera joan nintzanean amari pasadizoa kontatu nion.

Gizon hura Joanito Telleria duk, esan zidan. Gure etxearen argazkia erakutsi zidan. Argazkian ez ezagutzeko eran gizon bat eta emakume bat ageri ziran; Hau duk esan zidan Joanito Telleria.

—Nola daki gure oiloek arrautza goxoak egiten dituztela?

—Askotan hire osabak diren apaizekin etorri ohi zian gurera eta arrautza pare bana ematen nizkien hirurei gosaltzeko.

Gizon apain haren lehenengo berriak horrela jakin nituen.

Artzelaneko bazkaria.- Hiru Telleriak ama Artzelanekoa zuten.

San Pedro egunez hildako amaren etxera bazkaltzera joan ohi ziren bost lehengusuak bazkaltzera.

Otordua lapiko handia bete garbantz, odolki, urdai eta aragi zatiekin hasten omen zen.

Mutikoen platerak betetzen hasten omen ziran, baina aitona zaharrak hala esaten omen zien:

—Barbantz gutxi hartu gero, onenak oraindik sukaldean zeudek eta.

Mutikoen horrela barbantz pixka bat probatu eta gero aragiz asetzen omen ziren. (Don Wenzeslaori askotan entzuna.)

Bazkal ondoan, Artzelanetik San Pedrorra jaitxi, errosarioren bat errezatu, meza lehorra entzun eta pesta ikusten zuten mutikoen.

Joanito musiko bazen ere, Don Wenzeslao benetako poeta zen.

Irutxetako Andre Mariren kantuaren hitzak bereak dira, nahiz musika Felis Telleriak egin: Olerki mamia sobera du kantuak.

*Irutxetako Ama Birjiña* liburua ez da benetako Zegamako kondaira, gere herriaren poema eder bat da ordea. Hara liburuaren zati bat.

¡Con qué emoción y nostalgia evocamos aquí — metidos en terreno musical — a un simpático “albokalari”, vulgarmente conocido con el nombre de Aizpuru-txki, el último superviviente de una generación de “Albokalaris”, que hacía las delicias de nuestra niñez, al interpretar arcaicas tonalidades heredadas de padres a hijos, junto a la ermita de San Pedro, en sus fiestas, situada allá abajo, al pie del monte en donde es venerada Nuestra Señora de Iruetxeta!

...Al cabo de muchos años, nos hacemos a la idea de que estamos saboreando las “arcaicas tonalidades” interpretadas por Aizpuru-txiki, el último superviviente de los “albokalaris”, con sabor de fragancias campestres mientras los cerezos, junto a la ermita, nos ofrecían las primeras coloradas gindas, todavía un poco agrias.

Pues bien. En el aire musical de la canción mariana, el oído fino y sensible percibe las huellas sonoras de las “arcaicas tonalidades”.

Don Wenzeslaok Aizpuru-txikitaz hemen dioena, Irutxetako kantua dela eta dio.

Alegia, Felis Telleriak kantu eder honen zuztarrak Aizpuru-txikiren albokaren doinu zaharretik jaso zituela.

Joanitik *La Dama de Aizkorri* idatzi zuenean, ez ote zeukan buruan Aizpuru-txiki, bere doinuekin?

*Irutxetako ama Birgiñaren* bi. atala ondo irakurtzen duenak iritzi hori atera lezake. Litekena da Joanitik inori ez esatea nun bilatu zituen Poema eder haren zuztarrak.

Don Wenzeslaoren iritziak sakonduaz, bi anaiek Aizpuru-txikiren eskolan ikasi zuten euskal musikaren erroa, Artzelanen bazkaldu eta gero San Pedroko ermitatik gertu.

Joanitoren benetako maisua osaba izan zen, baina urte asko baino lehen ikasleak irakaslea gainditu zuen.

Mutil bizkorra zenez Madrilerako eta Pariserako bekak atera eta herritik kanpora ibili zen ikasketak egiten.

Don Jose Miel Barandiaranek Joanito oso maite zuen.

Izan ere Don Jose Miel eta Don Wenzeslao urte berekoak ziren apaiz ikasketetan. Don Jose Miel bere adiskidea ikustera Zegamara etorri ohi zen noizik bein.

Joanito Madrilen ikasten zegoen urtean izango zen.

Joanito Madrilgo jendea zela eta ez zela asmatu alak esaten ari omen zen bein. Politikan eta beste gauzetan eurena besterik ez zutela ikusten etb.

—I mutil Sabiniano egin haiz, esan omen zion Barandiaranek.

—I ere egingo itzake Madrilen, erantzun omen zion Joanitik Barandiarani. (Barandiaranek sarri kontatzen zidan gertakizzun hau eta gero parre lasai eta gustora egin ohi zuen.)

Nola nahi ere batek “La Dama de Aizkorri” Poema ederra doinurik ederrenez osatu zigun.

Besteak, Dama honi buruz Euskal Herrian zeuden esaera eta ipuin denak bildu eta euskal antropologiaren bitxirik ederrena idatzi zigun.

Gerrate ondorengo urteetan konfiteriko baratzen harrizko paretaren gainean erraja batzuek zeuden alambrezko hesi sendoz horniturik.

Alanbre hesiari indar eletrikoa ipintzen zioten baratzatik inork frutarik harrapatu ez zezan.

Ilunabar batean Joanito eta don Jose Andres etxera zijoatzen kontu kontari. Don Jose Andres konfiterian bizi zen urte haietan. Joanitik eskua ipini zuen nunbait konfiteriko hesian eta zuri zuri eginik, esan omen zion Don Jose Andresi:

—Bihotzeko atakeren bat diat ganean.



—Zer duk ba?

—Eskua hesian ipintzean bihotzerainoko zarrara senti diat.

—Hori ez duk ezer gizona, hesiak argi indarra zeukak inork frutarik harrapatu ez dezan.

Joanitik erantzun omen zion:

—Klaudio horrek zer egiten dik hainbeste indarrekin harri jasotzen hasi gabe.

Joanitoren lagunak Zegaman beti edo gehienez apaizak izaten ziren, bera ere apaiz baten semea zen esateko, eta herri arrunta baino atseginago zitzaion apaizak hitz egiteko.

Bein errosario ondoren apaizak eliz aurrean zeuden eta hor datorkie Joanito barberitik hilea moztu berria.

Don Andres zanak bota zion lenengo ziria:

—Zer Joanito hilea moztzen?

—Bai hile luzea ez zait atsegin izaten.

—Entzun beharko ituan barberian gauza fundamentuzkoak.

—Ez pentsa hainbestekoa izan denik. Barberoak babero zuriz bularra estali eta hilea nola mozte nahi detan galdetu dit. Nik zorrotz, ixilik, erantzun diot. Jendea nahikoa ixilik egon da.

Gerra hasi zenean Madril gorrien esku gelditu zen eta gerra Madril hartuaz bukatu zen. Hiri nagusi hau hiru urtetan egon zen beraz gorrien mende.

Gure Joanito “Cara al Sol” en egilea gorrien Madrilen zegoen, nola nahi ere izkutuka ibiliko zen.

Garai hartan Madril gaurko gran Bilbao baino handiagoa ez zen.

Egun batean gorriak ezagutu eta inguratu omen zuten.

—Este es pajaro gordo, vamos a ver. Tu eres Telleria el compositor del “Cara al Sol”.

—Os habeis equivocado, el compositor es el sinnverguenza de mi hermano. Es la verguenza de la familia. Todos los hermanos somos anarquistas menos ese sinverguenza.

Joanitik C.N.T.ko karneta erakutsi onen zien.

Joanito gorriekin oso lagun egin omen zen.

Joan Telleria gizon atipikoa

Nik atipikoz ulertzen dudana, hiztegi batek bear bada beste era batera ulertu lezake.

Hau dela eta hitz honetaz zer ulertzen dutan esatera noa.

Niretzat pertsona atipikoak arruntak ez diren kalitateak dauzka. Gure gizarte soileko jokabideak, gizonarekin lotuak ez badaude, ez dute atipikoarentzat garrantzirik. Askorentzat ume kontuak direnak, atipikoarentzat mundu bat balio dute.

Askotan, atipikoaren ekintzak arrareza zoro bezala ikusiak, nortasunaren bitxiak izan ohi dira.

Besterik gabe Joanitoren atipikotasun batzuek.

1) Duela berrogei eta hamar urte umetxo ez ezagun batekin inungo lotsarik gabe, gizon batekin bezala hizketan hasten zen gizona.

2) Goizeko ordubietan Izarragako sagastira urretxindorraren kantua entzutera zihoana.

3) Orduetan errekaren urari begira eta uraren marmarra entzunez dagoen gizona.

4) Espetxera eramatera datozkion gorriei, irteera xarmant bat egin eta denak lagun gelditzea.

5) Madrilgo kafeetan zenbait Zarzuela bukatu ote zituen bere lagunak asmatzen ez zituzten zatiak ordu erdian idatziaz eta ezer kobratu gabe.

Egiaz Zegamako semerik handiena atipikoa eta sakonki gizona genuen.

Nik ondo dakit mundu guztiak ez duela Joanito ulertuko, gure Zerbantes ere ez dute denak ulertzen.

Horrela da bizitza.

APIRILAK 27, larunbata.

Iluntzeko 8, 30 etan, Kontzertua Parrokian.

Errenteriko *Andra Mari* abesbatza

Andre Mari Abesbatzak Joan Telleriaren ondorengo obra hauek abestuko ditu.

Kis me quick (Fox-trot)	Piano
Cancionera	Soprano eta pianoa
Viena, bien amada	“ “ “
Aizean barnan	“ “ “
Allegato	Tronpeta eta pianoa
Andante y danza rustica	Sokazko laukotea
Primer tiempo y cuarteto	“ “
Ave Maria	Tenorea eta pianoa
Benedictus	Tenorea eta gizonezkoen abesbatza
El joven piloto	Baritonoa eta “ “
La canción de Noe	Gizonezkoen abesbatza
Salve, María	Abesbatza mixtoa
Duc in altum	Abesbatza mixtoa
Piano jolea	Imanol Elizasu
Sopranoa	Izaskun Arruabarrena
Tenorea	Jose Vega
Tronpeta	Aitor Gaston
Zuzendaria	José Manuel Tife

ERAKUSKETA

Apirilaren 26 eta 27 an

Udaletxe Batzar Aretoan

Joanitoren mila gauza erakutsiko dira bertan.

## XXXII. ZEGAMAKO ZENBAIT ESAERA, ESALDI ETA ATSOTITZ

## A

557. *Ankaz aurea eaman zuen.*  
.....
558. *Esatea noana ezta auntzen gaurdiko eztule.*  
.....
559. *Animak deskantsau ditezela.*  
.....
560. *Aua bete kontu dauke.*  
.....
561. *Aizkorriti arri karreon ibilli ohea da ori baño.*  
.....
562. *Atek baño mâtilla geio dauzke.*  
.....
563. *A ze itxuurrekoa.*  
.....
564. *Aurrek erakusten do atzea nola dantzau.*  
.....
565. *A ze babalorea ori.*  
.....
566. *Asten erdiko jaie, kakatsu.*  
.....
567. *Adur txarreko gizona.*  
.....
568. *Aizea burun da ibilli mundun.*  
.....
569. *Auaz eskauta baño obeto etor zat.*  
.....
570. *Amen, i or ta ni emen.*  
.....
571. *Al danen al dana.*  
.....
572. *Alperra beti asmatzen.*  
.....
573. *Aizken iltzen danak pauko `itu zorrak.*  
.....
574. *Ama Birgiña Martsukôn Erromako zupiñ kuku, San Pedrotan mutu.*  
.....
575. *Arbola aundik itzal aundie do.*  
.....
576. *Aua bete ortzekiñ utzi zon.*  
.....
577. *Au itxiñ ezta eulik sartzen.*  
.....
578. *Al dan bezela, nai dan bezela eziñ da ta.*  
.....
579. *Al deuna eiñ bearko guk onuzkio, nai deuna eziñ deu ta.*  
.....

580. *Allen bidek arrapauko au.*

.....

581. *Astok kitarrea jotzen baño sustantzi geio etzekik orrek.*

.....

582. *Andafuerako soñekoa emngo diot nik orri.*

.....

583. *Elorrio ikusi<sup>115</sup>.*

584. *Elorrio ikustek artzaiei negu beltza zekarkion burua.*

.....

585. *Atal burun kanea.*

.....

586. *Abendue gau uts eta jai uts.*

.....

587. *Alitzea maldar estu dalle. (Norabideik bê ibiltzea).*

.....

588. *Abaden lapikoa txikie baño goxo.*

.....

589. *Aspildurako txerrie baño alperragoa.*

.....

590. *Ardiñ kulpea bildotxak pátzen do.*

.....

591. *Aguro ta ondo usok egan eiten do.*

.....

592. *Auzoko beiek esne asko.*

.....

593. *Ari beltzik etzako faltako soñeko zuriñ.*

.....

594. *Beti jaten da beti gose.*

.....

595. *Ataunen da Zeaman eunez ikusi ta gaeuz eaman<sup>116</sup>.*

.....

596. *Abenduko eune argitu orduko illune.*

.....

---

115. Egoera txar baten eotea zan artzaien izkuntzan Elorrio ikustea. Negun ardikiñ Bizkaia juten tzien Zeamako artzaiek. Bizkaiañ sartzekon, lëndabizi Kanpazar gañeti Elorrio ikusten tzuen. Elorrio gue artzai gizajoan neguko destie-rron asierea zan.

116. Ataungo auntz talde 'at beiñ Zeamako terrenoa sartu mentzan, garai átan beste erri bateko terrenotán sar-tzen tzan ganadue zigortu eiten tzan.

*Auntz orik Zeamarrek erria ekarri ta kartzelan sartu zituen.*

*Urrengo eunen ataundarrak auntzek falta ta Zeaman eongo ziela ta etor mentzien Zeamã.Konturau mentzien gutxi gora bêra eunez auntzek nun zeren da gauen etorri ta eaman eiñ mentzitzen.*

*Ataundarrak Zeaman,eunez ikusi ta gaeuz eaman, esaerea orti jaió mentzan, ataundarrak zeamarrai burla eiteko asieran. Esaera au gero Gipuzkoan aldau eiñ da.*

*D. Andres Oiarbideri aspaldi entzuna.*

597. *Aberatsa infernuko elatza, pobrea zeruko lorea.*

.....  
598. *Asko daukenak geio nai.*

.....  
599. *Arre ta makilla.*

.....  
600. *Arrai aundik txikie jaten do.*

.....  
601. *Arroa esnea bezela da. Berotzen danen lapikon kaitu eziñ. Ozten danen lapikoa sobra.*

.....  
602. *Amardi gora asko da.*

.....  
603. *Amaika ikusteko jaiο giñen. Asko ikusteko alegie.*

.....  
604. *Albañue jostorratza baño luzegoa bear da.*

.....  
605. *Aarie ez flakoa, ez lodie.*

.....  
606. *Atariko atea baño lotsagabegoa da.*

.....  
607. *Andren esku dôn etxea ta autzek goarnatzen dôn bâtea bik berdintsu.*

.....  
608. *Arra baño geio ezta lanen geatzen.*

.....  
609. *Asko ikusi ta gutxi sufritu eiten do begik.*

.....  
610. *Ankea anken paren eziñ do pasau.*

.....  
611. *Arrik ezto begik.*

.....  
612. *Akerran aragie menda gozoana gustau ezkie.*

.....  
613. *Apillen aizkenen ostoa aitz gañen. Osto zamea bizkarren da xoxokumak kolkon.*

.....  
614. *Astôn umea astakumea.*

.....  
615. *Ardik nausie motilzarra ta aberatsa eskau mentzuen.*

.....  
616. *Artzaie ezta bê burun etsaie.*

.....  
617. *Abaden irâzie ta emakumen urtek, zallek jakiten.*

.....  
618. *Aurtengo errotarie lapur berrie.*

.....  
619. *Aberats askok estimatzen duen pobrea, aberatssa baño obeto izaten da.*

.....  
620. *An ê txakurrek oñustan.*

.....

621. *Andra ona galdu zônak eztaki ze billau zôn.*

.....

622. *Alkarrekiñ ondo konpontzeko, alkarreandi urruti.*

.....

623. *Aren kontue ta aize otza.*

.....

624. *Aukerea menda dônik onana.*

.....

625. *Artzaiek eta abadek gue denboran akâuko die.*

.....

626. *Atzeti etzat nei buztanik gustatzen. (Tratun geroko baldiñtzak alegie).*

.....

627. *Aua bete ur ê etzion eman.*

.....

628. *Alperra ta ure beti bêra.*

.....

629. *Aldônak nai dôna eiten do.*

.....

630. *Abadea ta lurre beti eske.*

.....

631. *Azak eta bababerrik, San Joanetako aldagarrik.*

.....

632. *Akasoko mandoa urek eaman tzon.*

.....

633. *Amairu launek afaltzen badue, amairuti laixter norbeit ilko da.*

.....

634. *Aranakiñ ezta urik eran bear.*

.....

635. *Agostuko Ama Birjiñen bezperan eiñ bear da arbie.*

.....

636. *Ardoa maien eroitzea suerte onan señailea da.*

.....

637. *Animalikiñ nolakoa pertsonakiñ alakoa.*

.....

638. *Aizken esan bear dana lenengo esaten do orrek.*

.....

639. *Asten bi ostiala ikus bearko `itu.*

.....

640. *Asto zuriñ gañea noa. (Oira noa).*

.....

641. *Arabarra ta sugea biden billatzen baituzu, lêngengo arabarra akabau ta gero sugea.*

.....

642. *Amaikak jaten do ogie.*

.....

643. *Asiera onak ez, akabera onak gustatzen tzat nei.*

.....

644. *An ê etzien txakurrek txorixokiñ lotzen.*

.....

645. *Asto bati buztana kendu ta beste jarri, or gaitze.*

.....

646. *Amonak Maietzen aulkie erre mentzon. (Udaberrie otza dala)*

.....

647. *Akerran adarra baño okerragoa da.*

.....

648. *Auziñ galtzalea narru gorriñ eta irabazlea mâkutsetan geatzen die.*

.....

649. *Aizken juizioko eunen eurie ta euzkie batea eingo 'itu.*

.....

650. *Aizken juizio aurreti zazpi urten umeik ezta jaioko.*

.....

651. *Aizken juizion aurreti eun illunek izango die, kandela beinkatuk bakarrik argi eingo due.*

.....

652. *Aizken juizioko eunen txarrai gaxtaia ta ogie emango zate, onak beiz gosek ilko die.*

.....

653. *Aizken juizioko eunen Jesukristôn papela eiñez etorko zatzue gaiztok, gosek eongo zate ta "jan ogie"esango 'izue. Ez eiñ kasoik zuek.*

.....

654. *Alboko miñe ezta txarra, norberek emateitu lanak.*

.....

655. *Amaika eun eder Jangoikoi kenduta il tzan.*

.....

656. *Aurreaka sartu ta atzeaka irten. (Aketegiko damei eiñ bear zako, bestela kaltek eiñ daizke).*

.....

657. *Armearma anka aundik azaltzen dienen eurie dator.*

.....

658. *A ze ipurdikoa. (Gauza gutxikati kexatzea).*

.....

659. *Auzon uso ta etxen otso.*

.....

660. *Animea irtego`ik orti. (Zauri `at txikie dala aierazteko).*

.....

661. *Astarrak umea eingo `ik ik ori eiteako.*

.....

662. *Alperrak baño lèn karaitzek etâko do izardie.*

.....

663. *Andrea akâu ta idie il esaten due naparrak.*

.....

664. *Atxe eo atxona infernun daukena añen ezto iñor. (Aurrekok la purrek izan ditunak dirue naikoa daukela).*

.....

665. *Al dônak al dôna eiten do.*

.....

666. *Arpegi luzea dauke. (Bat trixte dôn señailea).*

.....

667. *Ajajai*

668. *aste guzian bagendu jai,*

669. *gure neska motil txoroak orixe nai.*

.....

670. *Alperrik daren iru gauza. Alperran indarra,*

*Pobren arrazoa,*

*Urrutiko egurre.*

*Eunez illargie*

*Itxason eurie*

*Gizonan titik.*

.....

671. *Arnasea aÑe gezur.*

.....

672. *Arrikiñ burue jo eo burukiñ arrie.*

.....

673. *Arrie bota ta eskue gorde.*

.....

674. *Astoa makillena bezela jarrita zion.*

.....

675. *Astetxandea fabrikan eiten da.*

.....

676. *Andrek dauzke etxe ortan prakak.*

## B

677. *Bazpare ez beatzik eman orri aura.*

.....

678. *Bik e orik eztauke zeÑek zeÑezko aundik.*

.....

679. *Baserrie ta zerue askok abonatzetue baño iÑok ezto bertã junnai.*

.....

680. *Begi bitako argie kosta zat.*

.....

681. *Bilgar<sup>117</sup> begian asegarri.*

.....

682. *Bizi danak ikusko do.*

.....

683. *Bason jaio, bason azi, erria etorri ta bea nausi. (Alkaten bastoiak eite mendo esae-  
ra onek diona).*

.....

684. *Besten etxeko umek beala azten die.*

.....

685. *Bê ariti etzôn irtetzen.*

.....

---

117. *Bi aldiz soro berdiñen eiten dan garie.*



686. *Begi bista ona ta alkar eziñ ikusi.*  
 .....
687. *Buruik eztaukenak eztauke txapel bearrik.*  
 .....
688. *Buruik ebaltze eztonak, anak ibil bear.*  
 .....
689. *Bustie otz beti.*  
 .....
690. *Bakoitzek bê santui erregu.*  
 .....
691. *Bakoitzek bê lapikoi su.*  
 .....
692. *Balantza eiten don aldea eroitzen da arbolea.*  
 .....
693. *Beatza eskeñi ta besoa artu.*  
 .....
694. *Berak eman da berak kendu*<sup>118</sup>.  
 .....
695. *Berek eta bestenak aituta jûn da.*  
 .....
696. *Besten buruko partzak ikuste<sup>118</sup> itu, bê buruko zorrik ez.*  
 .....
697. *Beti jan da jan asmo.*  
 .....
698. *Beti gaxo dôn emakumek asko irauten do.*  
 .....
699. *Burruntziko txitea baño erregoa do.*  
 .....
700. *Biotzak eztarrie jo dit.*  
 .....
701. *Bakoitzei berea atxurrek eta palek kenduko dio.*  
 .....
702. *Beintizinko baño dotorego azaldu zan.*  
 .....
703. *Bost minutuko gustoa ta bizi guztiko disgustoa.*  
 .....
704. *Betikoa Jangoikoa da.*  
 .....
705. *Begi erregarri dô egoaldie.*  
 .....
706. *Begiko zamarra re ez loke opauko.*  
 .....
707. *Beste zakur batek zaunka eiñ tzion.*  
 .....
708. *Bakoitzek bê astoi arre.*  
 .....

---

118. *Jangoikok.*

709. *Begi danak eztue batea near eiten.*

.....

710. *Begie gosêgo tripea baño.*

.....

711. *Bixtan dônak ezto espillu bearrik.*

.....

712. *Biltzallek banatzallea izaten do.*

.....

713. *Baleki gaztek, baleki zârrak.*

.....

714. *Bakoitzei berea Jangoikon legea.*

.....

715. *Batek nai ezton bitarten bi, eztie asarratzen.*

.....

716. *Bearra bezelako maisuik ezto.*

.....

717. *Belar gaiztoa ezta galtzen.*

.....

718. *Bi ardi ezkie artaldea da.*

.....

719. *Besten buztanakiñ eulik kenduz dalle.*

.....

720. *Bi gauza onekiñ bat txarra ezta eiñ bear<sup>119</sup>.*

.....

721. *Bost xentimon pupue ta amar xentimon trapue.*

.....

722. *Begia zetorren txotxa re etzan ikusten.*

.....

723. *Burun falloa ta ankati erren eiñ.*

.....

724. *Beatzak naiz esku batenak izan, danak eztie berdiñek.*

.....

725. *Baleo ta Ezpaleo goizen goiz narru gorriñ, poltxikok arriz beteta jûn die mendia.*

.....

726. *Betikoa Jangoikoa da, berak nai dona izan deilla.*

.....

727. *Begi danak eztue berdiñ ikusten.*

.....

728. *Beñ zârtu ezkie gizonak eztio bizimodui gustoik artzen.*

.....

729. *Bixigue azatan egosi ta jan tzuena ala esate'mentzuen. Ba-genduke asmauko genduke.*

.....

730. *Beorak eztio zaldiri ozkaik eiten<sup>120</sup>.*

.....

---

119. *Urardoa.*

120. *Andra gizonak alegie.*

731. *Beorretan da erletan eztitu gizonak diru danak jarri bear.*

.....

732. *Bizi danai laundu eñ bear zako.*

.....

733. *Bi mendian erdiñ jeupara aundi `at<sup>121</sup>.*

.....

734. *Balioko esnekiñ eziñ gosaldu.*

.....

735. *Belarri `ateti sartu ta besteti irten.*

.....

736. *Bê benenoa jan da il tzan.*

.....

737. *Berak lanik eite'eztonak, bestenik ezto ikusten.*

.....

738. *Gizona berrogei urte arte gorputze nola izurrauko aitzen da ta berrogeiti gora nola zaituko.*

.....

739. *Bê ureti ezto orrek irtetzen.*

.....

740. *Beste lekutan ê ezta ogie euzkitan erreta jaten.*

.....

741. *Begiti jango noke.*

.....

742. *Baztar guzik erretzeko mûko maldiziok bota zitun.*

.....

743. *Berek eta bi aitu zitun.*

.....

744. *Bi ezkie irugarrena seguro izaten da.*

.....

745. *Bê etxe pobrea erregena baño obea.*

.....

746. *Bakoitzek miñe artzen donen esaten do ai.*

.....

747. *Baleo ta Ezpaleo urek eama'mentzitun.*

.....

748. *Berea bêtako ta bestena erdibana.*

.....

749. *Bi gauzak gizona eztue asperten:umean jolasak da erreken martxek.*

.....

750. *Berri txarrik bâldo?-Txarrak izateko geu gâ naikoa.*

.....

751. *Burue galdu donak dana galdu `o.*

.....

752. *Batzurie zazpi gaitzen kontrakoa da.*

.....

753. *Bi aize burrukan, amabi pralle errezôn baño geio die eurie eiteko.*

.....

---

121. Puzkarra.

754. *Berriz jaio bear do orek.*

.....

755. *Bildurrez lau gorriñ zion.*

.....

756. *Bi izaran arten lo eiten duenakiñ, ezta sartu bear.*

.....

757. *Bi lan batea gaizki eite die.*

.....

758. *Bakarrik eiñ bear al det?-Ez bearrak launduko `ik.*

.....

759. *Bê gauzea bê etsai.*

.....

760. *Bat etxekok ez etxekoanekok abonau bear due.*

.....

761. *Bakoitzek jakiten do zapatek miñ nola ematen dion.*

.....

762. *Balioko esnekiñ eziñ gosaldu.*

.....

763. *Lana askok ematen due, dirue gutxik.*

.....

764. *Bizi danandako etorko da denborea.*

.....

765. *Beti jaten da beti gosek.*

## E

766. *Estomaako zuloa bear do ortako.*

.....

767. *Eldu iok zapoi buztaneti.*

.....

768. *Ezkondu ezkie peztek erreal bi balio `itu.*

.....

769. *Etxen txotxoloa ta kanpon gizona.*

.....

770. *Eroriz ikasten da oñez.*

.....

771. *Elur urtea gari urtea.*

.....

772. *Elorrie loran dô, artoa eiteko giro dô.*

.....

773. *Euzkie ta eurie, axariñ bodak.*

.....

774. *Ez die eun urte bear eun gauza ikusteko.*

.....

775. *Egi danak ezkie esan bearrekok.*

.....

776. *Egille baño eragille ohea da.*

.....

777. *Eindakondako ezto erremedioik.*

.....

778. *Etsaiei kandela `at eta Jangoikoi beste `at.*

.....

779. *Ez jan da ez lan.*

.....

780. *Ez iltzeko ta ez bizitzeko.*

.....

781. *Ez zeruako ta ez lurreako.*

.....

782. *Ezer ez ta pesta.*

.....

783. *Ezer ez ta putze arro.*

.....

784. *Eza ta eziñe arrie baño gôrragok die.*

.....

785. *Eza arrie baño gôrragoa da.*

.....

786. *Ezer eztôn lekun eskuk garbi ta zerbait dôn lekun begik argi.*

.....

787. *Etorri dan lekuti billau do bidea.*

.....

788. *Etxeko elatzak jakiten do etxeko berri.*

.....

789. *Eskatzalle ona emantzalle txarra.*

.....

790. *Ez ur da ez ardo.*

.....

791. *Ez autsi ta ez urrau.*

.....

792. *Eunek eune gertu dauke.*

.....

793. *Etxea ta tripea beti eske.*

.....

794. *Etzak eraztunik eroiko ori eiñ ati.*

.....

795. *Eskue kolkon dala esan bear da ori.*

.....

796. *Eziñ esan gue ordue nun dôn.*

.....

797. *Esanak aizek eamate `itu.*

.....

798. *Etsaie eztô lo... Etsaie ezta beti lo eoten.*

.....

799. *Etxeko sue etxeko autsekiñ estali bear da.*

.....

800. *Ezto izenak eiten gizona.*

.....

801. *Ez ai fiau jaten don santukiñ.*

.....

802. *Etortzen etortzen etor tzat nei au*<sup>122</sup>.  
.....
803. *Eziñe leku billa dalle*.  
.....
804. *Eonai lo ta jaogo `ek me*.  
.....
805. *Errosarioa eskutan da deabrue kolkon*.  
.....
806. *Etorri âlan jûn*.  
.....
807. *Errez irâzten dana errez gastatzen da*.  
.....
808. *Emen azitako ezta iñor geatzen*.  
.....
809. *Egoi aizek ur asko eraten do*.  
.....
810. *Eskolek galduko `o mundue*.  
.....
811. *Et xen otso ta kanpon uso*.  
.....
812. *Ez buru ta ez anka*.  
.....
813. *Eroa bustitzeko laiñ euri ai do*<sup>123</sup>.  
.....
814. *Eunero zerbait ikasten da*.  
.....
815. *Ez kur urtea, muxar urtea*.  
.....
816. *Egurrek zuti ta emakumek etzanda due indarra*.  
.....
817. *Erok arrazoi bat eta ura ona*.  
.....
818. *Ezkontzeko erotu eiñ bear da*.  
.....
819. *Elizek ezto azpiñ arrapauko*.  
.....
820. *Emakumek parrea ta nearra ditu, bitartekoik ezto*.  
.....
821. *Ezkondue, andrea ezkontzen da*.  
.....
822. *Egik salbau bear gaitu*.  
.....
823. *Eztan belarra berez erretzen da*.  
.....

---

122. *Gaitz bat alegie*.

123. *Lanbro mēa ai donen*.

824. *Egur asko artu don astok, makillea ezautzen do.*

.....

825. *Erre egosi aundik ezto guren.*

.....

826. *Euzkik dauken onana itzala.*

.....

827. *Etxen emakuma `at gutxitxo, bi geiegi.*

.....

828. *Esaiezue jûteko<sup>124</sup>.*

.....

829. *Ez il ta ez bizi.*

.....

830. *Emen ezto denborek errenditze ez tonik.*

.....

831. *Eron burue ezta geatzen.*

.....

832. *Emakumea galdu dan lekun, gizona errex galduko `a.*

.....

833. *Erositako prezion satzen det.*

.....

834. *Emakumea ixilik bado akabo.*

.....

835. *Ez zeruako ta ez lurreako.*

.....

836. *Etzeok astoa lokatzen.*

.....

837. *Egoaldik eztauke malizik.*

.....

838. *Emakumen nearra ta txakurren errena eztie xinixtekok.*

.....

839. *Emakumea ezta ezautzen ezkondu arte.*

.....

840. *Esku batek bestea garbitzen do.*

.....

841. *Euri anka mêa.*

.....

842. *Ez gê txigurriñ kaka.*

.....

843. *Eunek luzek urtek motzak<sup>125</sup>.*

.....

844. *Eztauke orrek bê burue azen azpiko orritzat.*

.....

845. *Errotea moitzen don ure ezta nekatzen.*

.....

846. *Euli danak asto zârrana jotzen due.*

.....

---

124. *Kontutan gustora daren andrak esaten due.*

125. *Beñ zârtu ezkió.*

847. *Ezkonduta ezta bat gizon eiten.*  
.....
848. *Errekako urek baño sustantzi gutxigo dauke.*
849. *Ezkundu arte bê andrea bezelakoik ez, gero danak obek.*  
.....
850. *Erromako zupik bi puntak bi errekatan eukitze `itu.*  
.....
851. *Emakumek utzi mentziton astakumea ta infernuko etsaie baldauta.*  
.....
852. *Erderaz ikasi ez ta euskeraz âztu.*  
.....
853. *Elur, melur, ez nauk ire bildur, bazeukiat etxen artoa ta egur.*  
.....
854. *Errotarrik amar bueltati bat berea do.*  
.....
855. *Eurie gue terrenon eitea kostako zako<sup>126</sup>.*  
.....
856. *Etxeko elatzak daki bakarrik etxeko berri.*  
.....
857. *Euzkitan erretako ogie janez bizitzeik ezto.*  
.....
858. *Errekan balijore ez noke jango.*  
.....
859. *Emengo ezek eta igarrak jan ditu.*  
.....
860. *Ez anka ta ez buru.*  
.....
861. *Ezer eiñ eztonak eiñ daiken gauzaik onana deskantsatzea da.*  
.....
862. *Emateko asmoa daukenak, gutxi aintzen do.*  
.....
863. *Emakumeik txikiana naiko aundi, ta onana naiko txarra.*  
.....
864. *Ez zeruako ta ez lurreako.*  
.....
865. *Erreka baztarreko urek ê ez loke eamango.*  
.....
866. *Ezta biden billatue.*  
.....
867. *Egoi aizek dakarren gaitze berak sendatzen do<sup>127</sup>.*  
.....
868. *Eurie donario onen ai do.*  
.....
869. *Esaiezue juteko. (Kontuk esaten ai dan andrek itxurak eiñez)*

---

126. Lurrik eztaukenak esaten due.

127. Lurre leortu eiten do baño ondoren eurie ekartzen do.



## D

- .....  
870. *Deabruk aleñek eiñ ati ez mentzon euskeraz ikasi.*
- .....  
871. *Damue urdaietan baneuke.*
- .....  
872. *Donen bonbon eztônen eon.*
- .....  
873. *Dônen dôntxokiñ konformau bear diñ.*
- .....  
874. *Dônen dôntxoa nere gizontxoa.*
- .....  
875. *Gaur eztô afarik eta tori musutxoa.*
- .....  
876. *Dezakenak dezake, ez dezakenak balezake.*
- .....  
877. *Dezaun gutxi ta dezaun beti.*
- .....  
878. *Denborea urrea da.*
- .....  
879. *Dantzauko aut.*
- .....  
880. *Danak nai ditunak, danak galdu.*
- .....  
881. *Eurie donario onen ai do.*
- .....  
882. *Dôna buruaundi, dallena sabelaundi.*
- .....  
883. *Dana dakiñik ezta jaio.*
- .....  
884. *Daukenen badauke, eztaukenen baleuke.*
- .....  
885. *Dirue iraztea ez gordetzea da zalle.*
- .....  
886. *Derriorrezkoa iltzea da.*
- .....  
887. *Diruk umek eiñ dio.*
- .....  
888. *Dirue obeto guk buruko miñe baño.*
- .....  
889. *Diruk baño diruik ezak, buruko miñ geio do.*
- .....  
890. *Deabruk ekarri, deabruk eaman.*
- .....  
891. *Dana izateti ezer ez izatea, pauso `at do.*
- .....  
892. *Diruk dirue eiten do.*
- .....  
893. *Diru gorriñ gañen dalle.*
- .....

894. *Disgustoa nunaiti dator.*

.....

895. *Danandako txarra dan ferik eztô.*

.....

896. *Denborea gizonak bezela erotu da.*

.....

897. *Danan gustoa eziñ leike eiñ.*

.....

## G

898. *Gu ilda gero re zakuk errotâ jungo die.*

.....

899. *Gero, otz eztana bero.*

.....

900. *Gaztek bizkarren ê estek eukitze'itu.*

.....

901. *Gañeti jauregi, barruti autstegi.*

.....

902. *Gaiztok gaiztakerie bêkiñ.*

.....

903. *Gezurtie ankamotza baño errezago arrapatzen da.*

.....

904. *Goiz bâ, berandu bâ, Garizumea aurtan ê negun.*

.....

905. *Gosentzat ogi gôrrik ez.*

.....

906. *Gaztaia eunero ta urten gaztai bat.*

.....

907. *Gizona gizon danak eun libra bea `itu.*

.....

908. *Gizona juizion sartu aurreti ezkondu bear do.*

.....

909. *Grandezak mokon ezer ez kolkon*

.....

910. *Geldi dôna deabruk tentatzen do.*

.....

911. *Gizona zapatun da idie astelenen eoten die fresko.*

.....

912. *Gizonak dirue poltxiko zuloti ta indarrak zakil zuloti galtze`itu.*

.....

913. *Gabiri, leku askotati agiri.*

.....

914. *Gabiri, arto artan gizona agiriñ.*

.....

915. *Goialden famea, bê alden amea<sup>128</sup>.*

.....

---

128. *Goialdek gaito otsa, bealden jende gaiztoa.*

916. *Gue zârrak au ikusko balue beiz etzango lieke.*  
 .....
917. *Gizajoa bê destinon billa zellen.*  
 .....
918. *Gezurrek aztal motzak ditu.*  
 .....
919. *Gu baño aundigok ê etzon gustoik izan. Guk ze esango deu?*  
 .....
920. *Gari ona kutxati bezela eamaten da etxeti neska ona.*  
 .....
921. *Gaztendako ordu jakiñik ez, zârrandako eskopoik ez.*  
 .....
922. *Gorrik ikus bearren do. Gorrik ikusta jun da.*  
 .....
923. *Gustoko lekun aldapaik ez.*  
 .....
924. *Gosea baño begie luzegoa.*
925. *Gezurre esa'nôn Getariñ, ni baño lênao zan atariñ.*  
 .....
926. *Gaueko lanak eunezko lotsak.*  
 .....
927. *Gezurre anka motza da.*  
 .....
928. *Goizen porrusaldea, eguerdiñ azak, aixa kaituko zak ipurdiñ galtzak.*  
 .....
929. *Gaitzek etorri errez ta jûn kostata.*  
 .....
930. *Geiana eiten donak ê il arten bizi.*  
 .....
931. *Gu baño obeto dôna ezto gaizki.*  
 .....
932. *Arrats gorri, goizen eguzki.*  
 .....
933. *Goiz jaiki, goiz goseti.*  
 .....
934. *Goizeko oskorrie, gaueako eurie.*  
 .....
935. *Gaztetan il nai ez ta zârtuta gauza onik ez.*  
 .....
936. *Noiz arte?-Gari berrik arte.*  
 .....
937. *Gosea nausi.*  
 .....
938. *Gizonak dakiña ta eztakiña, jaiotzea ta iltzea.*  
 .....
939. *Gosek begik argik ditu.*  
 .....
940. *Gizonai jaiotzen danen emate'mentzako noiz ilko dan destinoa.*  
 .....

941. *Gauzak eĩñ baño lēn bi aldiz pentsau bear die.*  
.....
942. *Gauen lo eitea bakarrik jaikitzen dan gizona bizi da ondo.*  
.....
943. *Gurdie eiten eztakiñ prallek, ezto esken ibil bear.*  
.....
944. *Gari pillan azitako txorie.*  
.....
945. *Gurdik eiten do near, idik eĩñ bearren.*  
.....
946. *Gauzak jasotzeko eztana, kontuk jasotzeko izaten da<sup>129</sup>.*  
.....
947. *Gue Jangoikok itz eingo balō.*  
.....
948. *Gezurre zuti eoteko mũkoa esan bear da.*  
.....
949. *Geiegik ezto akaberaik.*  
.....
950. *Gauza onak ezto txarrrik.*  
.....
951. *Gurasok utzitako etxea ezta saldu bear.*  
.....
952. *Gerraik onanak baño pakeik txarranak geio balio do.*  
.....
953. *Gaztea zoro zoro,  
zãrra zoroago,  
zãrran zoroaldie  
ezta obeago.*  
.....
954. *Gu ez gã txindurri kaka.*  
.....
955. *Gizajoa bê destinon billa zellen.*  
.....
956. *Gizona janak eiten do ez eranak.*  
.....
957. *Gue etxen dirue arra dek, etxekoanen emea.*  
.....
958. *Gezurrek ē nunbaiten bizi bear do.*  
.....
959. *Idik ein bearren gurdik near eiten do.*  
.....
960. *Ijitoi on eitea, norberai kalte eitea da.*  
.....
961. *Iltzen donai ez, jaiotzen danai eĩñ bear genioke near.*  
.....
962. *Il da gero salda beroa.*  
.....

---

129. *Umea alegie.*

963. *Iriñe bagenduke, auzoti talaburnie ekarri ta talok eingo giuzke.*  
 .....
964. *Ildakoa piztuko loke onek<sup>130</sup>.*  
 .....
965. *Itzek itzbidea, esanak maldadea.*  
 .....
966. *I ez aiz sekula juizion sartuko.*  
 .....
967. *Itzek ederragok obrak baño.*  
 .....
968. *I aundi, ni aundi, zeñek eingo zioz gue astoi arre?*  
 .....
969. *Il da gero ez da salda beroik bear.*  
 .....
970. *Ixkilla mallak gora ta bêra izaten die.*  
 .....
971. *Ibilli bear donandako eotea kalte.*  
 .....
972. *Ikasta ez ta emen iñor jaiotzen.*  
 .....
973. *Itxasok bê lekue eskatzen do. Ematen ez pa zako txarrez kentzen do.*  
 .....
974. *Ixilik donan berrik ezto iñok jakiten.*  
 .....
975. *Itxun erriñ tuertoa alkate.*  
 .....
976. *Ikusi deuna esan daikeu, ikusko deuna ez aik eta aua lurrez bete arten.*  
 .....
977. *Ikuste'ezton begik ezto near eiten.*  
 .....
978. *Iturria sarri dijon pitxarra autsi eiten da.*  
 .....
979. *Iñuxentxio mikurrie, lurreti gertu ipurdie.*  
 .....
980. *Ixilik eon bear lokena kantari.*  
 .....
981. *Inkixixioa baño okerragoa da.*  
 .....
982. *Ijiton astoa jan bê bizitzen ikas ta bealaxe akâu mentzan.*  
 .....
983. *Ipurdie bete lur besteik eztauke gaxok.*  
 .....
984. *I ona ao itxui bi kandelakiñ argi eiteko.*  
 .....
985. *Itz alper bakoitzen kontue eman bearko diou Jangoikoi.*  
 .....

---

130. Gauza 'at ona dôla alegie.

986. *Izenan jabe da ori.*

.....

987. *Ik zeruti re berri onik ez oke ekarko.*

.....

988. *Iriñe baño lauso geio.*

.....

989. *Iru gizon tiraka baño emakumea kontra geio da.*

.....

990. *Intzen gañeko egoia gaueako odoia.*

.....

991. *Infernuko suâtsa baño okerragoa da ume au.*

.....

992. *I baño lèn iza'nintzenan ni bildots.*

.....

993. *Il da gero danak onak izaten die*

.....

994. *Itzea baño okerragoa da burue galtzea.*

.....

995. *Izarretati izarretâ lanen.*

.....

996. *Itzek ezto bildurrik ematen.*

.....

997. *Intxaur guztiandako dare arrik, ate guztiantzat mâtillak.*

.....

998. *Itze ezta jaten.*

.....

999. *Ipurdi bateti kaka eiñez zeiltzen.*

.....

1.000. *Ijito beltzai zuriri baño bildur gutxigo euki bear zako.*

.....

1.001. *Itxasoti datorren trumoiak beatiurrena izaten do.*

.....

1.002. *Itzen dônen olloa lapikon.*

.....

1.003. *Ipurdiñ muñ eida re ez da ori pâtzen.*

.....

1.004. *Ipurdie garbitu<sup>131</sup>.*

.....

1.005. *Ipurdiñ pasau<sup>132</sup>.*

.....

1.006. *Ilberan illea moztu ezkie burue ezta soiltzen.*

.....

1.007. *Igesi dijona etzeok iri beira.*

---

131. Aberatsai ondo eitea.

132. Gauzea alperrik galdu.

## K

- 1.008. *Katue beti ankan gañen eroitzen da lurrea.*  
 .....
- 1.009. *Kastau da*<sup>133</sup>.
- .....
- 1.010. *Katuk umek bezela dailtze orrek gauzak.*  
 .....
- 1.011. *Kotxilloa sartuta re enon odolik emango.*  
 .....
- 1.012. *Katue elorriñ dô*<sup>134</sup>.
- .....
- 1.013. *Katuk pixe eiñ ezkió azitzen dan errekea da ori.*  
 .....
- 1.014. *Katue musue garbitzen ai bâ egoaldi txarra dator.*  
 .....
- 1.015. *Karlista ona, gizon gaiztoa.*  
 .....
- 1.016. *Katuk mingañe jan dio.*  
 .....
- 1.017. *Kontuk kontu, zorra zor, lepoa lodi.*  
 .....
- 1.018. *Kontuk kontue, erdiñ bitue, puntan korapillatue.*  
 .....
- 1.019. *Kandelario otz negue motz.*  
 .....
- 1.020. *Kandelario bero negue gero.*  
 .....
- 1.021. *Kandelario elurre dario, San Gregoriok launduko dio.*  
 .....
- 1.022. *Kandelea jaso `o orrek.*  
 .....
- 1.023. *Kirkillen potrok baño etorkizun beltzagoa.*  
 .....
- 1.024. *Katuk baño bizi geio dauzke orrek*<sup>135</sup>.
- .....
- 1.025. *Kamiño ondoko arbolea ta tabernako neskea ikutu asko artûk die.*  
 .....
- 1.026. *Kojo zuzenik eztao.*  
 .....
- 1.027. *Kaka zârrai zenbait eta buelta geio ta usai txarragoa.*  
 .....
- 1.028. *Kanpokoan parregarri ta etxeakoan neargarri.*  
 .....
- 1.029. *Kandelariok elurre badario, San Josek ê launduko dio.*  
 .....

---

133. *Il da esateko.*

134. *Gauzea oso estu dola alegje.*

135. *Katuk zazpi bizi.*

- 1.030. *Kargaik jasotzeko eztanak jasotze`itu kontuk.*  
.....  
1.031. *Kandelariotan ardik abaron baño otsoa artalden ikustea obe.*  
.....  
1.032. *Kondea kastati.*  
.....  
1.033. *Kea dôn lekuti sue.*  
.....  
1.034. *Kumati ikas dana ezta azten.*  
.....  
1.035. *Kontu zârrak gaztean amorragarri ta zârren kontsolagarri.*  
.....  
1.036. *Korrikan asten bek ori, junturatati kea botako `ik.*  
.....  
1.037. *Kandelario eunen laño  
negue motza.  
Kandelario eunen bero  
Negue gero.*  
.....  
1.038. *Kaka buruti bêra eitea. (Burla eitea)*  
.....  
1.039. *Kâkola, ollagorra ta sardiñea tripa ta guzti jan bear die.*  
.....  
1.040. *Kontseju onak ondo bizi danak emate`itu.*  
.....  
1.041. *Katu beltza dôn etxen, neska zârrik ezta faltako.*  
.....  
1.042. *Karta zurik=karta txarrak museako.*  
.....  
1.043. *Kakalekue bean zeukik orrek gizon aundie izateko.*

## J

- 1.044. *Jaiotzea beste kulpaik etzon.*  
.....  
1.045. *Jangoikoa beti ematen ai da.*  
.....  
1.046. *Jangoikoa bat eta bera naikoa.*  
.....  
1.047. *Jangoikoa gauza guztian gañeti dô.*  
.....  
1.048. *Jaso zan neska buru ori, erostunen bat etorta re.*  
.....  
1.049. *Justo y kabal luzen aña zabal.*  
.....  
1.050. *Jaio ezkie iltzea zor.*  
.....  
1.051. *Jakitek ezto ogik eskatzen.*  
.....



1.052. *Jan bêko eranak bi aldiz kalte.*

.....  
1.053. *Jangoikok eiñ mentzon Martiñ, bê prakakiñ.*

.....  
1.054. *Jaiek ez astelenak ondatzen do gizona.*

.....  
1.055. *Jokuko dirue jokun geatzen da.*

.....  
1.056. *Jangoikok gizonai eiten dion burlaik beltzana....Abilidadek kendu ta deseok uztea.*

.....  
1.057. *Jangoikok makillaik bê zigortzen do.*

.....  
1.058. *Jangoikon sokormazôk kirten luzea do.*

.....  
1.059. *Jangoikok zerun euki `ezala baño etzan pertsona gozoa.*

.....  
1.060. *Jangoikok esku batekiñ kentzen dona bestekiñ ematen do.*

.....  
1.061. *Jangoikok ematen do zaurie ta kurea.*

.....  
1.062. *Jolas luzek aizken txarra.*

.....  
1.063. *Jangoikok ematen don grazie proau ezton emakumekiñ kontu<sup>136</sup>.*

.....  
1.064. *Jaiotzen dan ume bakoitzek besazpiñ ogi bat mendakar.*

.....  
1.065. *Jangoikok konta ala<sup>137</sup>.*

.....  
1.066. *Jangoikok biar ê eune zabalduko `o.*

.....  
1.067. *Jesus esateko denboran.*

.....  
1.068. *Jûn ai zakurren ipurdia.*

## L

1.069. *Lurrek askoi ematen dio jaten.*

.....  
1.070. *Lokatzei begik autsiz jûn da.*

.....  
1.071. *Landarak euzkie gora dijola aldau bear die.*

.....  
1.072. *Lotsaik ez ta bearrik ez.*

.....

---

136. Neskazarrakiñ noski.

137. Asko esateko.

- 1.073. *Lekuz aldatzen dan miñe ezta bildurtzekoa.*  
.....  
1.074. *Lengo lepoti burue.*  
.....  
1.075. *Len ala, oaiñ ola, gero eztakiu nola.*  
.....  
1.076. *Langarra Martxon noaño, Apillen elurre araño.*  
.....  
1.077. *Luzaro bizi nai donak, ollokiñ oira ta txorikiñ jaiki.*  
.....  
1.078. *Lotsagabendako mundue irabazten donandako zerue.*  
.....  
1.079. *Lênaokok lana eiten tzonai bakarrik aintze'mentzion.*  
.....  
1.080. *Loreik lora dallen motille.*  
.....  
1.081. *Lapurrek ezto loik eiten.*  
.....  
1.082. *Luterioi korrienten ez eoteko aintze'mentzion deabruk.*  
.....  
1.083. *Langille txarrandako atxur onik ez.*  
.....  
1.084. *Lana beste ezertako eztanak eiten do.*  
.....  
1.085. *Lênaokok pesta`at gauen sobre eukitzea naikoa izate'mentzon.*  
.....  
1.086. *Lotako orduk, ildako orduk.*  
.....  
1.087. *Linoa zazpi aldiz gora, zazpi aldiz lora.*  
.....  
1.088. *Lênaoko itxuna:Ikusi arte.*  
.....  
1.089. *Lênaoko artzaiek eunen otordu `at eiten tzuen.*  
.....  
1.090. *Lotsaik ez ta beharrik ez.*  
.....  
1.091. *Lênaokok egoaldi txarra zanen parre eite mentzon ona bazetorrela ta.  
Ona zanen beiz near txarra ba zetorrela ta.*  
.....  
1.092. *Lenengo gerrea mundun lizar makillakiñ eiñ mentzan.*  
.....  
1.093. *Legatz para la gente aberats, atun para la gente común.*  
.....  
1.094. *Leakoa sartu dio*<sup>138</sup>.  
.....  
1.095. *Laneako gogoik eztaukenak die langilleik onenak.*

---

138. *Ez aurea ta ez atzea utzi norbeit.*

## M

1.096. *Mierda pusillada. (Emakumak Goialden asarratzen ztziene esaten tzuen itze)*

.....  
1.097. *Motil arteko neskea marimotille.*

.....  
1.098. *Maldiziok eta errezok indar berdiñe due.*

.....  
1.099. *Mundu ontati jûn bearra dô besteai leku eiteko re.*

.....  
1.100. *Maietza asi alakoa izaten da.*

.....  
1.101. *Maietza erdie ona ta erdie txarra izaten da.*

.....  
1.102. *Mozkorra beti egarri.*

.....  
1.103. *Makilla autsikiñ ez orian arten sartu.*

.....  
1.104. *Mandok umeik ez ta bearrik ez.*

.....  
1.105. *Morroia etxeko orroia.*

.....  
1.106. *Motil zârrak etxen iskok tellatun baño kalte geio eiten do.*

.....  
1.107. *Mandabidez goiti ibil bearrekoa aiz i.*

.....  
1.108. *Mundun erdik beste erdie nola bizi dan eztaki.*

.....  
1.109. *Mendiko otsoi ê enioke opauko olakoik.*

.....  
1.110. *Mingañen beintzet eztauke erdoirik.*

.....  
1.111. *Miñ onik ez menda.*

.....  
1.112. *Musu truke iñok ezto emen ezer ematen.*

.....  
1.113. *Mandoa saldu ta astoa erosi.*

.....  
1.114. *Motiko sasi sasi, asko jan da gutxi ikasi.*

.....  
1.115. *Mundu ikaraz ibilta re etzendun pertsona obeik billauko.*

.....  
1.116. *Mixerie ateaño etâ ta berriz barrua sartzen zaku.*

.....  
1.117. *Martsuko sugek berrogei euneko negutea dakarre.*

.....  
1.118. *Mendik mendiñ bearrik ezto.*

.....  
1.119. *Mendiñ jaiok mendiñ nai.*

.....

- 1.120. *Milla urte ez tie bear milla gauza ikusteko.*  
.....
- 1.121. *Mandaulik baño azal gôrragoa dauke.*  
.....
- 1.122. *Mingañe don onana ta txarrana da.*  
.....
- 1.123. *Mingañek eozer esaten do.*  
.....
- 1.124. *Mundue ez mundukok aldau gâ.*  
.....
- 1.125. *Martsun ardie abaron baño otsoan erdiñ obeto.*  
.....
- 1.126. *Muxarren ai dan txerrik baño mutur zikiñagoa daukek.*  
.....
- 1.127. *Maldiziok itsatsi ezkie eriotza re ekar daike.*  
.....
- 1.128. *Maskarra uretan azkarra.*  
.....
- 1.129. *Maskarra —Zeamako mendi bat— eurie danen erreka.  
euzkie danen erreta.*  
.....
- 1.130. *Milla arrano beltz.*  
.....
- 1.131. *Mundun bi partidu dare, dirue daukenak eta dirue euki nai duenak.*  
.....
- 1.132. *Martsue aizetsue urte sagartsue.*  
.....
- 1.133. *Martsue bildotsa bezela sartzen bâ, otsoa bezela irtetzen da.*  
.....
- 1.134. *Martsuko trumoiak ogie ta ardoa naonai dakatz.*  
.....
- 1.135. *Martsun elurre, apillen izotza.*  
.....
- 1.136. *Maietzeko eurik edertu eiten do.*  
.....
- 1.137. *Mekalen la. (Maldizio txikie)*  
.....

## N

- 1.138. *Nolako Peru alako Mari.*  
.....
- 1.139. *Nausi askon astoa gosek il.*  
.....
- 1.140. *Narruti pâtzen ai da.*  
.....
- 1.141. *Nai eztonandako maie libre.*  
.....
- 1.142. *Nola etorri ala jûn.*  
.....

1.143. *Nolako soñue alako dantza.*

.....  
1.144. *Nola bizi ala il.*

.....  
1.145. *Natibitate ase ta bete, San Estebantxo lén ainbestetxo.*

.....  
1.146. *Nun da nere gogoa, an da nere zangoa.*

.....  
1.147. *Nungoa aiz? Jun da bertakoa.*

.....  
1.148. *Nai dona esaten donak, nai eztona aitzen do.*

.....  
1.149. *Nai don bezela aundie, aldon bezela txikie.*

.....  
1.150. *Nork bere anak ditu mandoik seguroanak.*

.....  
1.151. *Norbeit iltzen dōnen, gauzak zazpi koloretan ikuste'meitu.*

.....  
1.152. *Nik jantziko `itut emen prakak.*

.....  
1.153. *Nik naita etzon Jangoikok il.*

.....  
1.154. *Nê begikiñ ikusie ta nê belarrikiñ aitue.*

.....  
1.155. *Negue aurreko negue akâzten danen aste'menda.*

.....  
1.156. *Nai al dezu? Gaxoi esaten tzako.*

.....  
1.157. *Nor bere itzalakiñ ê ezto fiatzeik.*

.....  
1.158. *Nê begik ez dezaiola gaitzik eiñ.*

.....  
1.159. *Narruk beten jaten due.*

.....  
1.160. *Naparran esaera `at:Idie il andrea akabau.*

## O

1.161. *Ori ona da baño ona bakarrik.*

.....  
1.162. *Ori arratoi botikea izan balitz, arratoiak akauko zitun.*

.....  
1.163. *Olokiñ oira jun da txorikiñ jaiki bear do gizonak, urte askon bizitzeko.*

.....  
1.164. *Oaintxe gu baño obeto dona etzeok gaizki.*

.....  
1.165. *Orik bik asto `aten umek die.*

.....  
1.166. *Okerra nunaiti amilka etortzen da.*

.....

1.167. *Ontzak eunez kantatzen bô, oso egoaldi txarra etorko da.*

.....

1.168. *Orratz baten gora beraik ez ta ainbeste berrikita.*

.....

1.169. *Osasune galdu arten ezta estimatzen*

.....

1.170. *Otsok ezto otsôn aragik jaten.*

.....

1.171. *Odolkik ordekotan izaten die.*

.....

1.172. *Ollok perratzea bialî zon.*

.....

1.173. *Oñezkoik nai ez ta zaldizkoik etorri ez.*

.....

1.174. *Osasune ez da erosten.*

.....

1.175. *Osasune munduko ondasune.*

.....

1.176. *Orixo da bê burui arrika ematea.*

.....

1.177. *Otsoa aïtau ta otsoa azaldu.*

.....

1.178. *Oaiñ ezto umeik. (Iñoxenteik) Gerraten il mentzan aizkeneko tontoa.*

.....

1.179. *Ondo esan da gaizki aïtu.*

.....

1.180. *Ofrenda luzea ta errezo motza.*

.....

1.181. *Or konpon Mari Anton.*

.....

1.182. *Ogi gôrrai ortzak zorrotz.*

.....

1.183. *Ondo zerun dôn atsoa.*

.....

1.184. *Otsaille, bear ezta ille.*

.....

1.185. *Oker batek milla dakatz.*

.....

1.186. *Onan bizie gaiztok nai don artekoa da.*

.....

1.187. *Or daitze Jesus ta oremus.*

.....

1.188. *Ori janda kaka mea eingo `ik.*

.....

1.189. *Ogie dôn maien ez dô goseik.*

.....

1.190. *Osasunekiñ urrau.*

.....

1.191. *On eitek akaberaik ezto.*

.....

- 1.192. *Osteune bezela ao erdi erdiñ.*  
 .....
- 1.193. *Ollon ipurdie baño geio moitzen tzan.*  
 .....
- 1.194. *Ollok pixe eigo`ik ik ori eiteako.*  
 .....
- 1.195. *Ollon ipurdie jan do orrek. (itz asko eiten dona)*  
 .....
- 1.196. *Okerra beti amilka etortzen da.*  
 .....
- 1.197. *Orrek ekarko umea<sup>139</sup>.*  
 .....
- 1.198. *Ona ao i belea eondako lekun ogie busti ta jateko.*  
 .....
- 1.199. *Ori oaindio uren gañeko aparretan dalle.*  
 .....
- 1.200. *Ontzak ontza `at aragi eukitze`mendo.*  
 .....
- 1.201. *On dizuela janak, gaitzik ez eranak.*  
 .....
- 1.202. *Olo gosea kantari.*  
 .....
- 1.203. *Oispoik ezta andamioti eroitzen.*  
 .....
- 1.204. *Ore bateko opillek die orik.*  
 .....
- 1.205. *Ondo? Askok nai baño obeto.*  
 .....
- 1.206. *Orrri astok jan tzion kontzientzie.*  
 .....
- 1.207. *Orik ôñal baten pixe eiten due.*  
 .....
- 1.208. *Orrek bê zorra bete do.*  
 .....
- 1.209. *Ollon arra `at aña azitze`menda eune Santa Lutzi ezkió.*  
 .....
- 1.210. *Ondo bizi danak erakutsi daike ondo bizitzen.*  
 .....
- 1.211. *Ori da kaka buruti bêra eitea.*  
 .....
- 1.212. *Odolkie bezela gare bi puntatan lotuta.*  
 .....
- 1.213. *Orrek besten miñekiñ ezto nearrik eingo.*  
 .....
- 1.214. *Olati berri onik ez.*  
 .....

---

139. Ondorioa.

- 1.215. *Ondo bizi bear do ondo iltzeko.*  
.....  
1.216. *Ollarra baño arrego.*  
.....  
1.217. *Orrek ê izango `ik ipurdiñ zuloa.*  
.....  
1.218. *Ogi koskorra jan ezkie semek izaten die.*  
.....  
1.219. *Ola bizitzea baño ohea da sekula ez iltzea.*  
.....  
1.220. *Ortako estomaoko zuloa bear do.*  
.....  
1.221. *Oriana da mundue, irazten donana zerue.*  
.....  
1.222. *Ori bê burun etsaie da bakarrik*  
.....  
1.223. *Orrek ê ipurdiñ zuloa.*  
.....  
1.224. *On eitek akaberaik ezto.*  
.....  
1.225. *Osasune munduko ondasune.*  
.....

## P

- 1.226. *Poxpolok baño buru gutxigo dauke.*  
.....  
1.227. *Plomozko txorie da ori<sup>140</sup>.*  
.....  
1.228. *Pakek gerrea ekartzen do.*  
.....  
1.229. *Pater Noster....Txanpona laister.*  
.....  
1.230. *Paken dôna paken utzi.*  
.....  
1.231. *Pakea ezta dirukiñ erosten.*  
.....  
1.232. *Pobren zorra kanpaiak pâutzen do.*  
.....  
1.233. *Pertsona onak txarrak nai don arteko bizie dauke.*  
.....  
1.234. *Pobrea izateko ezta diru askoik bear.*  
.....  
1.235. *Pazientzie re kastau eiten da.*  
.....  
1.236. *Pixkana, pixkana txakurren buztana bi kana.*  
.....

---

140. *Bat iñuxentea dala esateko.*



- 1.237. *Partza bezela gizendu da.*  
 .....  
 1.238. *Pertsonek lurren gañen ez lurren azpiñ usteldu bear do.*  
 .....  
 1.239. *Patrona bi txarra baño obea da bat ona.*  
 .....  
 1.240. *Pobren esperantzea baño luzegoa.*  
 .....  
 1.241. *Prallen dozenea artzekon amairu ta ematekon amaika.*  
 .....  
 1.242. *Potozorrie baño okerragoa da.*  
 .....  
 1.243. *Puzkarra botatakon:Jûn ai jabe oben billa.*  
 .....  
 1.244. *Poxpolon buruk benenoa daukela uste do jendek.*  
 .....  
 1.245. *Pakek geio balio do.*  
 .....  
 1.246. *Pobren zerue oia.*  
 .....

## S

- 1.247. *San Joan eurigabea, urte ogigabea.*  
 .....  
 1.248. *Soldadue aman seme sobratue.*  
 .....  
 1.249. *San Sebastian otza neguaren biotza.*  
 .....  
 1.250. *Sue ta ure belaunez azpiti.*  
 .....  
 1.251. *San Markos ostea, artok eiteko astea.*  
 .....  
 1.252. *Soñuk jotzen don erara do dantza eiñ bearra.*  
 .....  
 1.253. *Sue ta ure alkarren bildurrez bizi mendie.*  
 .....  
 1.254. *Saskiñ barrun kaitzen tzien umek utzi zitun<sup>141</sup>.*  
 .....  
 1.255. *San Joan goizen euzkik dantza eite'mendo.*  
 .....  
 1.256. *Sue pasatzen dan lekun zizalekue kito.*  
 .....  
 1.257. *San Martiñek aurreti o atzeti egoaldi onak eiten bâki.*  
 .....  
 1.258. *Suerteza berez etortzen da, alperrik da bê billa ibiltzea.*  
 .....

---

141. Ume txiki utzi ta bat iltzen danen.

- 1.259. *Sekula faltako eztién gauzak alperrandako jana ta langillendako lana.*  
.....  
1.260. *San Joanetako artok belea tapau bear do.*  
.....  
1.261. *Sukaldea gauén ezta garbitu bê utzi bear. Sukalde zikiñén ez tue aingeruk dantzaik eiten.*  
.....  
1.262. *San Bartolome burue aundie ta lepoa me.*  
.....  
1.263. *San Mielgo ilberriñ elurre Aizkorriñ.*  
.....  
1.264. *Sue dôñ lekuti irtetzen do keak.*  
.....  
1.265. *Sagu tirok=umean izkuntzan puzkarra.*  
.....  
1.266. *San Markosek ortzetan kazkabarra.*  
.....  
1.267. *San Bartolometan eulik bêra beida jartzen die.*  
.....  
1.268. *San Joan goizeko intze artu bear da osasun ona eukitzeko.*  
.....  
1.269. *San Pedrok bi tripa nai mentziton.*

## T

- 1.270. *Txorie erretzko euzkie.*  
.....  
1.271. *Txiki danak politzek die, astakumea re bai.*  
.....  
1.272. *Txorik ê dauken aña odol ematen do.*  
.....  
1.273. *Tokatzen tzako astoi konpitak eta txerriri abanikue.*  
.....  
1.274. *Txorik ontza bezela ibil due.*  
.....  
1.275. *Txorizugarrie bezela nô, baztar guztian latsagarri.*  
.....  
1.276. *Tratue itota zioik.*  
.....  
1.277. *Tripak eskutan ikusi artén gizonak ezto nearrik eiñ bear.*  
.....  
1.278. *Txondarra añaeko erlajistena.*  
.....  
1.279. *Tonto faltea laixter mendator.*  
.....  
1.280. *Tella `at eztauke bereik gizajok.*  
.....  
1.281. *Txotxok salan aña falta eiten do emen.*  
.....

- 1.282. *Txakurrek e dantza eñ mentzon dirukati.*  
 .....  
 1.283. *Txapel txikigoa eo buru aundigoa bea''ituk.*  
 .....  
 1.284. *Txapel batekiñ bi buru tapau nai.*  
 .....  
 1.285. *Txori txiki 'atek esan dit'<sup>142</sup>.*  
 .....  
 1.286. *Txarra ezta iltzea, bizitzen ikas bê iltzea da txarra.*  
 .....  
 1.287. *Txikitan astakumea re politxe da.*  
 .....  
 1.288. *Txotxon sala jûn ai.*  
 .....  
 1.289. *Txaketen gañeti re aren saiesak kontau zeizken.*  
 .....  
 1.290. *Txakur prantau zan oso.*  
 .....  
 1.291. *Tripak jaten nô.*  
 .....  
 1.292. *Trumoia asten danen, S. Pedro ta S. Paulo bolatan ai diela esan oi due.*  
 .....  
 1.293. *Txotxok elizan baño falta geioik ez tezu emen eiten.*  
 .....  
 1.294. *Txepetxan muñek jarriko diat afaltzeko.*  
 .....  
 1.295. *Txakurren muturre, andren ipurdie ta meikun tresnak die otzak.*  
 .....  
 1.296. *Txintik etzan aitzen.*  
 .....  
 1.297. *Txakur ibillik.*  
 .....  
 1.298. *Txixarak nastuta utzi 'et.*  
 .....  
 1.299. *Txorie erretzeko euzkie do.*  
 .....  
 1.300. *Txorroskillerok eurie ekartze mendo.*  
 .....  
 1.301. *Txixarea lurren gañen balle laister eurie.*  
 .....  
 1.302. *Txapelokerra-Sardiñzârra, guardi zibillei ematen tziten izenak.*  
 .....  
 1.303. *Txakurrei ezurre ta andrei gezurre.*  
 .....  
 1.304. *Txorie zerua jun tzat'<sup>143</sup>.*

## U

142. Zerbeit esan diunan izen ixilik euki nai danen.

143. Zerbeit âzten danen.

1.305. *Uda ona, kendu jaka ta jantzi gona.*

.....  
1.306. *Urek berak eite`itu bê bidek.*

.....  
1.307. *Uren gañeko pitxetan dalle ori.*

.....  
1.308. *Urek errekan do indarra, maien ez.*

.....  
1.309. *Urtekiñ gorputze pixutu eiten da.*

.....  
1.310. *Umek azi ta nekek bizi.*

.....  
1.311. *Urte berri mikirri zorok ê igarri.*

.....  
1.312. *Umen zentzune etxen entzune.*

.....  
1.313. *Urek tripan zapok eite`itu.*

.....  
1.314. *Ustek alde `at ustela `o.*

.....  
1.315. *Umeik eztaukenak pena `at, umek dauzkenak pena asko.*

.....  
1.316. *Umek pixe eiñ da oira.*

.....  
1.317. *Urrea baño fiñagoa da.*

.....  
1.318. *Urtek gora indarrak bêra.*

.....  
1.319. *Umea txotxa baño geio da.*

.....  
1.320. *Urrilleko ilberriñ elurre Aizkorriñ.*

.....  
1.321. *Umea ta zârra gauza eztiennen langille.*

.....  
1.322. *Urteko urdaie, urtetako laune.*

.....  
1.323. *Umek eiñ ditunak azi ditzela.*

.....  
1.324. *Ume bat iltzen tzanen esan oi zan: "Ume bat zerun obe amar mundun baño".*

.....  
1.325. *Uste etzon lekuti txakurrek zaunka eiñ tzion.*

.....  
1.326. *Ume jaiio ta ume biurtu.*

.....  
1.327. *Umek baño okerragok geatzen die zârrak.*

.....

1.328. *Urek begi argik ditu*<sup>144</sup>.

.....  
1.329. *Ur ontati eztet erango, eziñ leike esan.*

.....  
1.330. *Urek jûn da gero presea eiñ.*

.....  
1.331. *Urte askon gozau dezala.*

.....  
1.332. *Ume bakoitzek jaiotzen danen besapen ogi bat ekartze'mendo.*

.....  
1.333. *Urtek gora, indarrak bêra.*

.....  
1.334. *Ume likea*<sup>145</sup>.

.....  
1.335. *Ume lizune*<sup>146</sup>.

.....  
1.336. *Umek eta gizonak eztaukena nai izaten due.*

.....  
1.337. *Ume batek belarriti ibil daiken gizona.*

## Z

1.338. *Zorrek zor, bizitzai gôr.*

.....  
1.339. *Zârtutakon gizonai burue gortzen tzako ta zakille biundu.*

.....  
1.340. *Zur da arri einda geau nitzen.*

.....  
1.341. *Zârtu ta ezurrek gôrdu.*

.....  
1.342. *Zakurren buztana bezela nô danan atzeti.*

.....  
1.343. *Zuen kontue ta txanponeko erroskillea.*

.....  
1.344. *Zuen kontue ta auntzen gauerdiko eztule.*

.....  
1.345. *Zenbait eta eskola geio ta alper geio.*

.....  
1.346. *Zakurre puztu zak atzeko zuloti.*

.....  
1.347. *Zuek ondo artuta banoa.*

.....  
1.348. *Zorran nausi ta joralan morroi.*

.....

---

144. *Nunai billtzen do zirriztue.*

145. *Ume indargabea.*

146. *Ume deskalabratue.*

- 1.349. *Zopak lurreti jan zeizken sukalde artan, ain zeon garbie.*  
.....  
1.350. *Zabal luzen, estun motz.*  
.....  
1.351. *Zêkiñ izan ezkio nola bâkiu.*  
.....  
1.352. *Zorrik zorri laune nai izaten do*<sup>147</sup>.  
.....  
1.353. *Zazpi azaleko kopetea.*  
.....  
1.354. *Zer ikusi ura ikasi.*  
.....  
1.355. *Zârrai ibiltzeko ta umei geldi eoteko esatea alperrik da.*  
.....  
1.356. *Zurren poltsek bi zulo.*  
.....  
1.357. *Zaldik seguroana nork bê anak.*  
.....  
1.358. *Zozok belei ipurbeltz.*  
.....  
1.359. *Zu re etzâ gaztetan Jesus izana.*  
.....  
1.360. *Zikiñ atsa!*  
.....  
1.361. *Zu re inbidie partitu zuenen an izango ziñen.*  
.....  
1.362. *Zârrago ta txarrago.*  
.....  
1.363. *Zenbait buru ainbeste aburu.*  
.....  
1.364. *Zenbait euki geio nai.*  
.....  
1.365. *Zorrie baño alperragoa.*  
.....  
1.366. *Zorrai ortzak erakutsi.*  
.....  
1.367. *Ze berri Seguran? Daukenak jan da eran, eztaukenak okati gaizki esan.*  
.....  
1.368. *Zille sekauta euko 'o orrek ia.*  
.....  
1.369. *Zorrak azken iltzen danak pauko 'itu.*  
.....  
1.370. *Zeiñ da etsaie? Etxekoanekoa.*  
.....  
1.371. *Ze ordu da? Jo ta aurrea.*  
.....

---

147. *Umek ume laune.*

1.372. *Zenbait ardi?. -Aizkenekok eamaten do kontadurie galdetu ari*<sup>148</sup>.

.....

1.373. *Zaietan zur, iriñetan ero.*

.....

1.374. *Zeaman da beste leku 'atzutan San Kalisto euneko esaerea au izaten tzan, batez e usoik pasatzen bazan.*

*San Calisto  
palomas he visto,  
y si no las has visto  
anda listo.*

*Zeama, debruk darama.  
Segura, zuzen zuzen infernura.  
Ataun, erre ta jan dezaun.*

---

148. Artzaiek ez tue ondo artzen zenbait ardi dauzken galdetzea.